



ANTONIO ZAVALA

# Patxi Erauskin bertsolaria

(1874 - 1945)

I

# **PATXI ERAUSKIN BERTSOLARIA**

**(1874-1945)**

**I**

AUSPOA LIBURUTEGIA

**130**

---

**EDITORIAL AUSPOA**

**Plaza de Santa María, 2 — Teléfono 66 16 12 — Tolosa  
(Guipúzcoa)**

ANTONIO ZAVALA



4 ABR. 1978

**PATXI ERAUSKIN BERTSOLARIA**  
**(1874-1945)**

I

**AUSPOA LIBURUTEGIA**

**1978**

© Auspoa Liburutegia - Tolosa (Guipúzcoa)  
Inprimatzalle: IZARRA - Polígono 36 - Usúrbil (Guip.)  
Depósito Legal: S. S. 18/78  
I S B N 84 - 7158 - 033 - 0  
Enero - 1978

## ARKIBIDEA

|              |   |
|--------------|---|
| Oarra ... .. | 9 |
|--------------|---|

### BIZITZA

|                               |    |
|-------------------------------|----|
| Guraso eta senideak ... ..    | 13 |
| Irastortza-aundi ... ..       | 17 |
| Cuba'ko gerra ... ..          | 20 |
| Emaztea ta seme-alabak ... .. | 27 |
| Lana ... ..                   | 32 |
| Jai-egunak ... ..             | 37 |
| Jaioterria ... ..             | 46 |
| Zenbait bertso ... ..         | 53 |
| Bertsolaria ... ..            | 58 |
| Sanjurjo ... ..               | 73 |
| Azken urteak ... ..           | 79 |

### BERTSOAK (1913-1918)

|  |          |
|--|----------|
| (1913) Billafranka'ko misio santuari kantik<br>Bertso berriak Anton Enbustero <span style="font-size: small;">k</span> eta<br>Juana Patarrerak alkarri jarriak | 83<br>88 |
| (1914) Gora gure Euskalerria! ... ..   | 94       |
| «Ludi guztian autan artuta...» ...   | 99       |
| (1916) «Gusto duanak aditu...» ... ..  | 102      |
| Bertso berriak amabost urteko katu<br>gazte bati jarriak ... ..  | 107      |
| Bertso berriak: «Amar artzai muti-<br>llak...» ... ..  | 118      |
| Bertso berriak Joakinek Agustinari<br>jarriak ... ..   | 123      |
| Aralar mendiko unioari ... ..  | 131      |
| (1917) Bertso berriak San Migel goi-inge-<br>ruari jarriak ... ..  | 138      |
| (1918) Zaldibia'ko Bitor Erauskin korrika-<br>lariari ... ..   | 148      |

## OARRA

*Patxi Erauskin* —*Patxi Errota eta Erauskin Errotari ere esaten zioten— oso bertsolari ugaria izan zan; bertso-paper asko utzi zigun.*

*Aren bizitza eta bertsoak, Auspoa'ren iru zenbaki osatuko dituzte: 130, 131 eta 132'garrena. Alzo'ko Imaz, Lexo, Xenpelar, Mendaro Txirristaka eta Zapirain anaiak ere ori bera egin zuten: iru zenbaki bete. Baiñan oraingo ontan, iru zenbakiak liburu bakar batean bildu bearrean, liburu banatan ezarriko ditugu.*

*Lenengo liburu onek bi zati ditu: bata, Patxi Erauskin'en bizitza; bestea, 1913 urtetik 1918 urtera paratu zituan bertsoak. Bertso oietan gai asko erabiltzen ditu: erlijioa, umorea, abertzaletasuna, sozial-arloa, kirola... Alegia, Euskalerriren kezka guziak Patxi Erauskin ere kezkatzen zuten, eta bertso gintzara bultzatu.*

*Patxi Erauskin Zaldibi'ko semea zan. Egokia, beraz, jaioterriaren argazki batez liburuaren azala apaintzea. Argazki ori gerok egiña da, 1977'eko Iraillaren goiz batez.*

**BIZITZA**



## GURASO ETA SENIDEAK

Zaldibi'ko *Erauskin Errotari* edo *Patxi Errota*'ren gurasoak, Juan Franzisko Erauskin Maiz eta Maria Franziska Garmendia Goitia, 1871'eko Maiatzaren 2'an ezkondu ziran <sup>1</sup>.

Juan Franzisko, zaldibitarra zan, neka-zaria eta ogei ta bi urteko mutilla. Maria Franziska, berriz, Gaintza'koa, ogei ta zortzi urtekoa eta Jose Antonio Armendariz zanaren alarguna.

Susmo bat bururatu zaigu: 1871 urtean, karlisten bigarren gerra artean piztu ez, baiñan lenengo txinpartak saltatzen asiak ziran. Orregatik, gerra bazetorrela igarri eta presaka egindako ezkontza izan diteke ori. Bestela mutillak armak artu bearko zituala bai baitzekiten. Ataundarrari zer gertatu zitzaion edozeiñek daki:

Ataun'go fruttue  
ezta ola oittue:  
bi pregoi eginda  
soldau eman gaittue;  
an...

---

<sup>1</sup> Zaldibi'ko 3'garren ezkontza-liburuan, 87 orrian.

Bederatzi seme-alaba izan zituzten: Jose Martin, 1872.III.6'an jaioa; Jose Franzisko, 1874.IV.10'an jaioa; Jose Ramon, 1876.V.4'an; Maria Salustiana, 1878.VI.7'an; Maria Antonia, 1880.VII.24'an; Jose Martin, 1883.III.31'an; Jose Maria, 1886.XII.9'an; Margarita, 1889.VI.9'an; eta Maria Konzepzion, 1891.V.4'an<sup>2</sup>.

Bi Jose Martin, beraz. Lenengoa, seguru aski, umetan illa-edo izango zan.

Lenengo zazpi senideak, *Eskribano* etxean jaio ziran. Kale-etxe bat da ori. *Ibarmendi* ere esaten diote orain. Beste biak, berriz, Olaa'ko errotan sortu ziran mundura.

Bederatzi senide oietatik, bigarrena izan da, Jose Franzisko, liburu onetarako gaia eman digun bertsolaria.

Gurasoak zein ziran, esanik daukagu. Aiton-amonak, aitaren aldetik: Juan Martin eta Maria Aszension, biak zaldibitarak; amaren aldekoak: Martin Franzisko, Gaintza'koa, eta Maria Martina, beasaindarra.

Olaa'ko errota ori, Zaldibi'ko kalea baiño pixka bat goraxeago dago, Amondarain errekaen bazterrean. Erreka ori Aralar-mendian sortzen da, eta daukan

---

<sup>2</sup> Zaldibi'ko 6'garren bataio-liburuan, 280, 306, 328, 348, 372 eta 402 orrietan; eta 7'garren liburuan, 26, 51 eta 71 orrietan.

izena, Amondarain baserri ondotik igarozten dalako datorkio.

Erreka ortatik etxearen gaiñeko aldera ekartzen zuten ura, eta antxe, arri landu ederrez egindako putzu edo osin batean bildu.

Etxe azpitik bi ur-bide, bakoitzak erro-tarri bana mugi zezan: bata, artoarena; bestea, gariarena. Ta urrena aska, iriña jasotzeko. Oiek danak gaur egunean ere ikusten dira Olaa'ko errotan.

Beeraxeago, beste errota bat ere bada: Errota-txiki izena. Bi errota oiek badute zer ikusirik beste bertsolari batekin ere: Juan Inazio Iztueta'rekin. Onek, 1792. VII.7'an, errentan artu zizkion errota oiek, lau urterako, Franzisko Inazio Al-bisu'ri. Urteko pagatu bearra: 280 dukat, iru txandatan eman bearrak. Baiñan urte bete ere etzuan Iztueta'k errota oietan iraun; 1973.VI.24'an, utzi egin zituan<sup>3</sup>.

Leen esan degunez, senide batzuek Eskribano etxean jaio ziran eta besteak Olaa'ko errotan. Eskribano'n azken jaioa, Jose Maria izan zan, 1886.XII.9'an mundu ontara azaldua; eta Olaa'ko errotan aurrena jaioa, Margarita, 1889.VI.9'an argia ikusia.

---

<sup>3</sup> Jesús Elósegui: «Juan Ignacio de Iztueta Echeberría (1767-1845). Colección Auñamendi, San Sebastián 1969.

Bien bitartean egingo zuten etxe-aldaketa. Alegia, Franzisko gure bertsolaria amabi urtetik amabostera zijoalarik. Umetik atera eta mutil egiña zala, beraz. Ala ere, oso maitea izan zuan arek errota ori. Bere denbora guzian, *Erauskin Errotari* idatzi ta firmatu zituan arek bertso-paperik geienak, eta jendeak ere orrela esaten zion. Maite izan ez balu, etzion izengoiti ori bere abizenari erantsiko.

Baiñan esandako urte oietara baiñoleen ere ikasiko zuan arek errota orretarako bidea. Eliz-agirietan azaltzen danez, Erauskin'en osaba bat bizi zan leendik ere Olaa'ko errotan: Pedro Jose Erauskin Maiz, aitaren anaia.

## IRASTORTZA-AUNDI

Baiñan Olaa'ko errotan fameli aundia eta andik atera eta Irastortza-aundi baserrira joan zan Patxi.

*Irastortza* esaten zaio eliz-agirietan eta paper zaarretan, gaur erriak, erreza-go egitearren-edo, *Iortza* esaten badio ere.

Ordizia'tik goazela, ezkerretara dago baserri ori, Zaldibi'ko kalera iritxi baiño lentxeago. Kamiotik irten, zubi bat pasa eta berreun bat metrora, antxe baserri zabal, eder eta zuri bat; uraxe da. Aldamenean beste baserri aundi bat: Ibarguren.

Irastortza-aundi baserri orretan, *Zaldibi'ko Exkerra* esaten zioten baten morroi asi zan Patxi. *Exkerra* ori, aundi bat omen zan, eta Gipuzkoa guzian oso eza-guna, jokulari porrukatua eta tratante famatua zalako.

Etxeko goenean, soro bat palanka botatzeko propiyo jarria zeukan. Etzion beste etekiñik ateratzen. Orregatik, etxeko emakumeak onela esaten zuten:

—Famili bat mantentzeko aiña gari

eman zezakean soro orrek eta alper-alperrik euki!

Tratuan, berriz, ara eta onera ibiltzen zan. Patxik orretan laguntzen zion. Bein baiño geiagotan egin omen zuten, Irurtzun'era joan, ango perian ganadua erosi eta Zaldibi'ra. Joan-etorria oiñez, noski.

Baiñan Patxiren oiñak ez-ezik, begiak ere etziran geldirik eta lo egon. Bereala oartu ziran neskaxa eder batez. Etxe artako alaba zan, Irastortza-aundi'koa alegia, eta Patxiren nagusiaren illoba; Josefa Ramona Irastortza Garmendia zertizan, eta Patxi baiño lau urtez gazteagoa zan, 1878.VIII.30'an jaioa <sup>1</sup>. Artaz gustatu, maitemindu eta andregai egin zuan.

Agidanean, etxekoen ixillean asiak izango ziran eta jaietan, arratsaldea Zaldibia'n edo auzo-erriren batean pasatzera, bide banatatik joaten ziran eta an alkarrengana bildu.

Baiñan soldaduzka serbitu bearra etorri zitzaion Patxiri. Ara baiño leen, bere adiskide bat jakiñaren gaiñean jarri eta alkar artu zuten; eskutitzak ari bialduko zizkiola, eta arek, mesedez, abixuak eta esan bear guziak andregaiari pasatzeko.

Bai orrela egin ere: zebillen tokitik

---

<sup>1</sup> Zaldibia'ko 6'garren bataio-liburuan, 351 orrian.

—lenengo, Madrid, Leganés, Ciudad Rodrigo eta abarretatik, eta Cuba'tik ondoren— lagun orri idazten zion eta arek andregaiari pasa.

Onek, ordea, eskutitz oiek ez baitziran berari bialiak, ez omen zion sekula idatziz erantzun.

Lau urtean ibili zan Patxi erbestean, urrengo atalean esango ditugun tokietan barrena. Ala ere, aien maitasuna etzan oztu; eta, ura ostera onera azaldu zanean, luzatu gabe alkarrekin ezkondu ziran, ta bai alkarrekin bizi eta fameli ederra azi ere.

Gaur egunean Irastortza-aundi'n bizi diranak, Patxiren eta bere emaztearen illobak dira; onen anai baten seme-alabak. Irastortza, beraz, deitura. Etxeko izena, etxekoen abizena, beraz. Olakoak gutxi izango dira gaur Euskalerrian.

## CUBA'KO GERRA

Patxi Erauskin'ek soldaduzkara joan bearra izan zuan eta Cuba'ko gerrara bialdu zuten.

Cuba'n, bi aldiz piztu zan gerra. Lenengo, 1868 urtean asi eta 1878'an, *Paz de Zanjón* deritzaionarekin, bukatu. Bigarren, 1895'an asi eta 1898'an, ipar-amerikatarrak sartu ondoren, bukatu. Orduan Cuba'k España'rengandik askatasuna lortu.

Patxi Erauskin bertsolariari, bigarren txanda ori tokatu zitzaion.

Gerra orri buruz, bertso-sail batzuk badiugu. Zenbait, egillearen izenik gabe-koak. Ba ote da oietan Patxi Erauskin'ek jarritakorik? Ditekena da noski. Baiñan beraren semeai-eta galdetu diegu eta ezertxo ere ez dakitela erantzun digute.

Ala ere, beraren seme Ramonek, aitarren paperetan eta aren eskuz idatzita, gerrari buruzko bi bertso arkitu ditu. Ez da zein gerra dan esaten; edozein gerrari ondo dagozkionak dira. Baiñan Erauskin Cuba'koan ibili baitzan, emen jartzen ditugu:



Zenbait seme eder bala granadaz  
ill da sartzen da lurpera,  
arkaitzak negar egin lezake  
konparazio batera;  
zer estadutan gelditzen geran  
ortik kontuak atera,  
mutil solteroak izango ditena  
andregaietzaz aukera.

Pakerik ez du estimatutzen  
gerra probatu ez dunak,  
osasuna ere ain gutxi berriz  
gaxo egondu ez danak;  
okasioak ekartzen ditu,  
baita aixkidetasunak,  
ikasi eta gelditu bitez  
len etzekiten personak.

Erauskin'en seme Joakinek, berriz,  
aitaren *licencia absoluta* deritzaiona gor-  
detzen du; alegia, soldaduzka bukatu eta  
eman zioten papera. Agiri orretan, Cuba'-  
ko gerran egin zituan ibillera guziak adie-  
razten dira; bai ara baiño leenagokoak  
ere. Luzeegia da onera itzez-itzez aldatzeko;  
ona laburpen bat euskeraz:

1893'an *lista'n* sartzen da, eta urte be-  
reko Abenduaren 9'an *caja'n*; 11'an zotz  
egin Donostia'n eta 423'garren zenbakia-  
rekin, Erauskin katibu.

1894.III.7'an, berriz Donosti'ra; *Código  
de Justicia Militar* irakurri zioten eta Ba-

*tallón de Arapiles n.º 9, 2.ª compañía'n sartu.*

Lenengo, Madrid'era eramán zuten; antxen *instruzioa* ikasi, banderari zin egin eta abar. Soldadu-jantziagatik, berrogei ta amar pezeta eskatu zioten. Lenengo indezioa ere antxe artu. Iraillaren 19'an *maniobrak* egitera irten eta 25'an itzuli. Urtea bertan bukatu.

1895 urtea Madrid'en, Uztaillaren 18'garrera arte. Egun orretan, Leganés'era. Urriaren 25'an, Ciudad Rodrigo'ra. Urtea bertan amaitu.

1896'eko Ilbeltzaren 23'an, ostera Leganés'era, Cuba'rako tokatu zitziola eta arako prestaketak egitera. Otsaillan *cabo* egin zuten. Otsaillaren 13'an, trenez Cádiz'eraíño. Bi egun bidean; 15'an iritxi. Ixasontzira igo eta 29'an Habana'n sartu.

Martxoaren 2'an, Guanabacoa aldera azterketa bat egitera. Errebista pasa eta artean soldadu-jantziagatik iru *peso* zor dituala. Managua aldera joan eta Martxoaren 5, 7, 11 eta 20'an tiroka jardun Riohondo'n, Cantarranas'en eta Managua'ko mendietan.

Andik Guanajey aldera. Apirillaren 9 eta 11'an, Sierra de San Juan Bautista'n; 14'an, Saratoga mendietan; 15'an, Barrio de la Vijia'n; 22'an, Portegon Sabanas Laguna'n; 26'an, Ingenio Mendieta'n. Oie-

tan danetan burruka ta zalaparta. Andik Candelaria mendira.

Maiatzaren 26'an, Potrero Romea'ko burruka; 27'an, Cayajabos'era. Armak-eta ez-ezik, gaztelu bat egiteko bear ziranak ere eramán, eta lanak egin bitartean bertan gelditu, Garagarrillaren 16'era arte.

Andik Artemisa'ra; 20'an, Finca Calderón'en eta Candelaria mendietan, burruka; eta 25'an, Potrero de Juan Pastor'en. Urrena, Candelaria aldean ara ta onera ibili.

Uztaren 15'an, Carambola eta Loma del Angel'eko burruka; 31'an, Tumba eta Contreras'koa.

Abuztuaren 2'an, Barrio de la Carambola'n; 18'an, Taco-Taco ta Managua'n.

Iraillaren 12'an, Paso de la Sierra'n; Urriaren 7'an, Frejolillo'n; 8 eta 9'an, españiar soldaduen buru Etxague zala, Guayabitos'en; 22'an, Puerta La Muralla'ri eraso eta artu. Bertan gelditu toki ura zaintzen, ango gaztelua sendotu bitartean.

Azaroaren 9 eta 10'an, Sierra del Rosario eta Valladares'ko burruka; antxe zauritu zuten Etxague jenerala.

Abenduaren 1'an, Sabana la Maiz'ko burruka; 12'an, Paz'koa; 13'an, Ingenio Mercoso'koa; 15'an, Luisa'koa; 17'an, Guayabo'koa; 18'an, Sotolongo'koa; 26 eta 30'an, Regollo komandantearen agindu-

pean, bi *convoy* eramán Guanibacho eta Lomas de Toro'ko gaztelura. Ara iritxi eta etsaiarekin tiroka.

1897'eko Ilbeltzaren 4'an, *Cruz del Mérito Militar con distintivo rojo* eman zioten, Guayabitos'ko burrukan irabazita.

Ilbeltzaren 8'an, Sayguan eta Lasymas'ko burruka.

Otsaillaren 11, 12 eta 22'an, Múgica, Cangrejo eta Pedro Barbas'ko burruka.

Apirillaren 6 eta 10'an, Rincón Hondo eta Villaran'go burruka.

Maiatzaren 19 eta 23'an, Barrabas eta Guines'koa. Garagarrillaren 20 eta 21'an, Caguayes eta Guijés'en. Uztaillaren 6 eta 7'an, Mabueja'ko burruka estua.

Uztaillaren 27'an, *Cruz de plata del Mérito Militar* eman zioten, Apirillaren burruka-aldietan irabazita.

Abuztuaren 15'an, Maguey'ko burruka; 28'an, Matanza'n. Urtea bukatu arte, ara ta onera.

1898 urtea berdintsu asi, jo batera ta jo bestera. Baiñan Martxoaren 21'an, gaxorik zegoala-ta, *Montserrat* itxasontzian sartu eta Cádiz'era. Semeak-eta ez dakite zer gaitz-mota izan zuan; seguru aski, lurralde bero aietako bat. Apirillaren 4'an Cádiz'era iritxi eta lau illebeteko baime-narekin etxera.

Urriaren 2'an, Donosti'ko kuartelera, eta bertan gelditu 1898 urtea bukatu arte. Orduan etxera berriz ere, eperik gabeko baimenarekin.

Bitartean, Cuba'n aldaketa aundiak gertatu. 1898'eko Otsaillaren 15'an Ipar-Amerika'ko *Maine* itxasontzia Habana'n bonba batez-edo lertu. Ori zala-ta, Apirillaren 23'an, ipar-amerikatarrak gerran sartu. Lenengo, España'ko gerra-itxasontziak apurtu egin zituzten, eta ondoren, Garrantillaren 14'an, aien gudariak Cuba'n sartu.

Erauskin, esan degunez, onera etorria zan eta etzuan aiei arpegi eman bearrik izan; egin bearko zuan noski, an gelditu izan balitz.

1902 urteko bukaeran, soldaduzkan amabi urte beteak zituan. Legeak eskatzen zituanak, alegia. Amabi urte kontatzeko, gerran egin zuan denboragatik beste bi urte eta ogei ta bost egun erantsi zizkioten.

Gerra orretan, Erauskin'en semeak kontatu digutenez, burruka-aldiren batean cubatar buruzagiren bat il zuten. Ildako orrek, erloju eder bat zeukan. Ofizial bategen eraman zuan. Erauskin'ek, berriz, erlojuaren katea artu. Kate orri erantsita, brujula bat. Gaur egunean, aren seme Joakinek gordetzen ditu kate ta brujula oiek. Aitak, trajea jazten zuanean, beti

eramaten zituan solapatik poltxikora jarrita. Zenbait argazkitan ere ala ikusten da, kate ori ageri duala.

Gerra-ibillerak ez dira nolana aztutzen eta Erauskin'ek ere gogoan zituan urteen buruan. Onela dio *Argia'n*, 1934.IV.15'an, argitaratu zuan bertso batean:

Jorraillan amarrean  
irurogei urte  
kistar egin nindutela  
egin dira bete;  
Cuba'n gudan igaroa  
zenbait tamal neke,  
neuretzat mesederik ez,  
sendiantzat kalte.  
Orain otoizten oatzean  
loak artu arte,  
osoro bizi nadin  
Goi-Jaunak nai arte.

## EMAZTEA TA SEME-ALABAK

Leen ere esan bezela, soldaduzkatik etorritakoan, joan aurretik egindako andregaiarekin ezkondu zan Patxi: Zaldibi'ko Irastortza-aundi baserriko Josefa Ramona Irastorza Garmendia'rekin.

Amar seme-alaba munduratu zituzten: Juan Bernardo, 1901.III.27'an jaioa; Maria Franziska Dionisia, 1902.IV.7'an; Nemesia, 1903.XII.19'an; Jose Ramon, 1905.XI.20'an; Martin, 1908.IX.3'an; Jose Antonio, 1910.IX.26'an; Maria Josefa edo Miren Josebe, 1913.VI.9'an; Sabino edo Sabin, 1916.IV.20'an; Maria Justina edo Miren Justine, 1918.V.31'an; Bitor Joakin, 1920.XII.11'an<sup>1</sup>.

Agiri oietan ikusten danez, 1913'an asi zan Erauskin Errotaria bere aurrai euskal izen berriak ipintzen. Bataio-agiri oietan biak idatzita daude: izen zaarra eta berria. Sabino Arana'ren iritziak aski goiz onartu zituala esan nai du, eta aren ja-

---

<sup>1</sup> Zaldibia'ko 7'garren bataio-liburuan, 185, 211, 246 eta 289 orrietan; Ordizia'ko 13'garren bataio-liburuan, 117 eta 196 orrietan; 14'garrenean, 23 orrian; eta 15'garrenean, 7, 136 eta 280 orrietan.

rraitzalle sutsua izan zan andik aurrera, bertsoetan-eta ageri danez.

Izkera «garbitzen» ere laister asi zan. Baiñan olakorik egin izan ez balu obe, gure iritzirako beintzat, euskera berri orrek ez baitu bertsoetan ongi ematen.

Lenengo lau seme-alabak, Zaldibia'n jaio ziran; lenengo irurak Olaa'ko errota'n, eta laugarrena, Ramon, *Iturritza* kale-etxean. Beste guziak Ordizia'n ikusi zuten argia, Urdaneta kalean, irugarren zenbakian.

Etxe ori kalearen bukaeran dago, Beasain aldera. Zubi bakarra dago an eta aren pare-parean. Erderaz *Malcasco* esaten diote, baiñan *Juan-Txikienea* du euskerazko izen jatorra.

Seme-alabetan zaarrena, Juan Bernardo, aingerutan il zan, 1902.III.13'an, Olaa'ko errotan<sup>2</sup>. Ta Ordizia'n ere beste bi zerruratu ziran: Jose Antonio, 1912.IV.8'an, eta Sabin, 1917.V.25'an<sup>3</sup>.

Orain urte batzuek il zan Franziska, senideetan bigarrena. Gaur bizi diranak: Nemesia, Ramon eta Justina, Ordizia'n; Maria, Madrid'en; Martin, Añorga'n; eta Joakin, Donostia'n.

Zer esanik ez, senide auei zor dizkiegu

---

<sup>2</sup> Zaldibia'ko 5'garren eriotz-liburuan, 11 orrian.

<sup>3</sup> Ordizia'ko 7'garren eriotz-liburuan, 291 orrian, eta 8'garren eriotz-liburuan, 140 orrian.



emen esaten ari geranak, danak ez bada ere, bai geienak.

Urdaneta kaletik Santa Maria kalera aldatu ziran, gaur *Banco de San Sebastián* dagoan ortara, bigarren bizitzara. Ta andik Maribaratza kalera urrena, zortzigarreneira.

Erauskin Errotariaren aita, Juan Franzisko Erauskin Maiz alegia, 1917.I.12'an il zan, 77 urterekin, Olaa'ko errotan. Ama, berriz, Franziska Garmendia Goitia, 1924. IX.3'an, Olaa'ko errotan au ere <sup>4</sup>.

Gerra aurretik, Erauskin Errotaria izan zan *Argia* asterokoari Ordizia'ko berriak bialtzen zizkiona. Geienetan itz-lauz egiten zuan lan ori; baiñan batzutan, gaur Basarrik egiten duan bezela, bertso bat edo beste sartzen zuan bere sail ortan. Itz-lauzko oiek ez ditugu kopiatu, baiñan bertsoak bai; eta, gero danak batera azaldu bearrean, darabilkigun ariari ondo dagokionik baldin bada, jarri egingo degu.

Ala, bere alaba bat ezkondu zanean, onela idatzi zuan *Argia* ortan, 1932.V. 29'an:

«Uztarri deuna artu du, Ane Deunaren ertxadonan, Belaesteban eta Iturbe'tar Benito Bilbo'ko semearekin, Erauskin eta Irastorza'tar Miren Josebe uri onetako

---

<sup>4</sup> Zaldibia'ko 5'garren eriotz-liburuan, 184 orrian; eta 6'garrenean, 1'go orrian.

alabak. Uztarri ori onetsi du Urrestarazu jaupalburu edo arzipreste jaunak.

Eztai ondoren oturuntz edo bankete eder bat egin zuten *Fonda Urteaga'n*, eta ondoren Donosti, Bilbo, Zaragoza, Barcelona, Kordoba, Balentzia eta España'ko uri nagusi gurenatarantz irten ziran.

Zorionak eta alkarrekin urte askotan bizitzea opa dizuet. Baita zuek bezelako seme-alaba euskaltzale asko azitzea ere.

Neure alaba Miren Josebe,  
orra zuk gurasoak utzi,  
senarrarekin artua dezun  
kurutze orri eutsi;  
opari gaude ditzazutela  
seme-alaba asko azi,  
lendabiziko erlijioa  
maitatutzen erakutsi,  
eusko elea erakutsi, gabe  
ez da iñola ere utzi.

Ama Euskadi baztartu eta  
egundo etzagun utzi,  
errukirikan baldin badegu  
geren Amari eutsi;  
sui ta alaba, gogoan izan  
gaur ta biyar baita etzi,  
guraso onak zer egin bear dun  
orra garbi erakutsi,  
baldin Euskadi ilko balitza  
ez degu bear nai bizi.»

Alaba zaarrenari aurtxo bat il zitzaion Lazkao'n, eta Erauskin'ek onela idatzi zuan *Argia*'n, 1932.VI.19'an:

«Barandiaran'dar Joxe eta Erauskin'dar Franziskari egatu zaiete donokira beren semetxo Sabintxo ogei egunekoa. Ez gero negarrik egin eta begirik busti; donokian euskeraz ari da bere lagunakin da Ama Neskutsa farrez dutela.

Alemanak itz egiten dute  
sorkundetikan doixeraz,  
frantzesak ere eziñ ukatu  
aitortuaz frantzieraz,  
atzerritarrak berenaz oro  
mintzatzen dira erderaz;  
orduan bada saia gaitezen  
bakoitza geren izkeraz,  
donokin dauden aingeru denok  
ari omen dira euskeraz.»

## LANA

Patxi Erauskin'ek, leen esan bezela, bertso-paperak *Erauskin Errotari* idatzirik firmatzen bazituan ere, iñungo errotan ez, baiñan Beasain'go bagoi-fabrikan lan egiten zuan.

Goizean-goiz, lantegira. Eguerdian, fabrikako adarra edo tutua entzun bezin laister, andreak bazkaria maiera atera bear zuan, senarra etorritakoan beroegi egon etzedin.

Bazkaldu eta gela batera joaten zan. Antxe, mai batean, idazten-eta saioxka bat egiten zuan; urrena siesta txiki bat, eta oster lanera.

Olakoak izaten ziran Patxi Erauskin'en aste-egunak. Jaietan zer egiten zuan, urrengo atalean esango degu.

Famelia aurrera aterako bazuan, nola edo ala saia bearra zeukan noski. Zaldibi'ko Lizarga baserriko Sukia'tar Antoniok Ordizia'n arategi berria jarria zualata, ara nola zion Erauskin'ek *Argia'n*, 1925.I.25'an:

«Sei aur ta emaztea nik  
sendia bai piña,  
lan gogorra jantzi ta  
ondo jan eziña.  
Ludi au guztiontzat  
ez baita berdiña!  
Goizean porru-salda,  
gauean jakiña,  
gukin aberastuko  
ezta arakiña!!!»

Andik urte betera, 1926.I.31'an, onela  
zion *Argia*'n:

«Beasain'go landolak lan asko artu dua-  
la ta alaitu gera bertako langilleak. Txi-  
roak ekin bear poz-pozik lanari.»

Egun argi ta alaitsuak ziran aiek, bai-  
ñan triste ta illunak bidean ziran. Fabri-  
ka orrek, gain-beera asi eta langillerik  
gejenak kanpora bialdu zituan 1932 ur-  
tean. Onela dio Erauskin'ek *Argia*'n, 1932.  
XI.27'an:

«Beasain'go landolak lanik ez dualako,  
len 3.000 langille ari ziran lekuan, orain  
400 besterik ez dira ari.

Zenbat <sup>1</sup> sendi gauden goseak negarrez!  
Au da, au, erauntsia erori zaiguna!

Sendiak badaude, aurrak ogi-kutxa edo  
armarioa joka goseak, lotara joan nai ez-  
-ta. Aita-amak, berriz, negarrez, emateko

---

<sup>1</sup> *Argia*'n: *Zenbait*.

ezer ez-ta. Azkeneko bialdu-aldi onetan ni ere bialdu naute, beste batzuekin batera, lanean 27 urte igaro baditut ere.

Urte ta erdian jardun degu, astean lau egunean eta iruan lan egiten degula, genitun txanpon denak urtuaz; eta orain, berriz, kalera bialdu.

Gure Goi-Jauna begira dago ta erruki-mena izango al du! Eskerrak gure aurreko asaba zarrari. Aita gurea esaten erakutsi ziguten, ba. Orain asi giñezke atez-ate, erriz-erri, laterriz-laterri, Jaun-Goikoaren izenean ukar edo limosna eskatzen ere.

Ogei ta zazpi urtean jardun  
apal da zintzo lanean,  
gero ataira esker gutxiaz  
bururatu zaienean.  
Gauzik onena bat gertatzean  
bada bizi eziñean:  
ate ondotan asi bearra  
Jainkoaren izenean.  
Erruki bada era onetan ni  
ikusten nazutenean.»

Urrena, berriz, onela idatzi zuan *Argia*'n, 1932.XII.18'an:

«Irakurle *Argia*-zaleok: bai dakizute inguru onetako negargarria? Emen gabil-tza iñun ere lanik billatu ezinda. Orain esan bear det zer oldoztu detan: Iparra-girre zana bezelaxen asitzea, sei laterri

edo eusko probintziari ikusketa bat ematea, batez ere Jel-Batzoki guztiak ezagutuaz eta utziaz olerki-orriyak Euskadi alde. Lendabiziko agurtu bear det Napparro'ko Etxarri-Larraun'go euskel idazle eta olerkari jatorra dan *Ernaizu* jauna. Nola *Argia*'n iragarri zidan joateko beregana eta al zuanakin lagunduko ziralala, aneika esker *Argia* bitartez jaun prestu oni. Andik urrena, Lekunberri'n itz asper-tu bat egitera Barriola'tar Eduardo Andoain'go seme abertzalea dan orrekin. Bai Betelu'ko Jel-Batzokia ere; or ere gaztedi bikaña dago. Gero, nundik nora joan ta etorriak egiten dituan, *Argia* begiragarri onetan jarriko ditut berriak. Urte berri ingurura asiko naiz.»

Ziñez ala txantxetan ari dan ezin antzeman. Euskal bertsolariak, eta bai Erauskin'ek ere, alakoxe umorea baitute.

Baiñan egun obeak argitu ziran, eta Beasain'go fabrika orrek, gauzak zuzendu eta bere langille guziak, edo geienak beintzat, ostera artu zituan. Bai gure Erauskin ere.

Azkenerako, bera zan langillerik zaarretako bat, eta onela esaten omen zuan:

—Ni naiz, Beasain'go fabrikan, errematxadore zarrena eta txarrena!

Beraren semeak esan digutenez, aberas-teko modua etzuan arek sekula izan;

baiñan artarako egokiera eman izan baliote ere, berdin izango zan; etzion probetxurik aterako. Beti bertsoak gogoan, eta, gaiñerakoan, zer jan eta zer jantzi izan ezkerro, gustora ura; etzuan besterik bear.

Ama ere antzekoa omen zuten. Gertatu izan omen zan beren adiskideren bati-edo diru-mordoxka bat aurreratzea, eta arek ez bueltatzen eta aitak eta amak eskatu ere ez.

Bere seme Martinek onela esan digu:

«Ni gertatu nintzan orren etxera joan bearrean. Gizon ura negarrez asi zitzaidan, lepotik artu bear al nuan esanez; gu bezelaxe kartzelan egona zala eta zituanak kendu zizkiotela. Illero pixka bat emango zidala agindu zidan, baiñan gaur arte.

Orduan gure amak onela esan zuan:

—Bueltatzen ez badu, guk baiño premi geiago izango du.»



## JAI-EGUNAK

Jai-egunak etzituan Erauskin'ek etxean egoteko. Beti ere bazuan ara edo onera joan bearra.

Ibilkari purrukatua zan. Baiñan etzan mendira joaten; erriz erri ibiltzea atseginago zitzaion. Bazkaldu eta Itxasondo'ra; emen kafe bat artu eta Legogrreta'ra. Edo, bestela, Alzaga, Arama, Ikaztegieta, Ataun, Lazkao, Idiazabal, Segura... Zer esanik ez Zaldibia. Ta beti oiñez.

Bein batez, Itxasondo'n, tabernatik ateratzean, automobil batek jo zuan. Arpegia aunditu eta egun batzuetan fabrikara gabe etxean egon zan.

Ala zegoala, ordurako bertsoak ari jarririk bazituan eta Keixeta aizkolaria bitxitaz etorri zitzaion.

Erri guzietan adiskide ta ezagun asko zituan eta aiekin itz aspertu bat egin eta gustora gizona.

Bai bertsoak kantatu ere, artarako egokiera arrapatzen bazuan beintzat.

Bestetan, berriz, gero zeatzago esango degunez, bertso-paper saltzera joaten zan.

Orrela ibiltzeko, lagun jakin bat izaten zuan: makilla. Bere denboran makilla bat baiño geiago erabiliko zuan noski, baiñan beraren seme Martinek gordetzen duana, makilla ederra da benetan. Zer egur-mota dan, ez genduke esango. Esku-lekuan, euskal arpegi bat, bere txapel, sugur luze ta guzi. Pernando Amezketarra zala esaten omen zuan Erauskin'ek. Ondoren, makillari bueltaka itsatsita, suge luze bat; baita muskerra eta zenbait zomorro ere.

Ibillaldi oien aztarrenak, *Argia'n* utzi zituan, eta bai *Euzkadi* egunerokoan ere. Baiñan ontara oso noizbeinka bialtzen zituan bere lanak; are gutxiago bertsoak. Orregatik, zenbaki guziak orriz-orri aztertu bear bailirake, denbora-galtze izugarria etorriko litzaiguke ortik eta ez degu egin.

Ara emen, ala ere, oietako batzuek:

\* \* \*

Ondarrabi'n Eguberri-egunean <sup>1</sup> izan nintzan, nolako Jel-batzoki berria jarri duten, «Nere-neria» izena daukan etxe polit batean. Gogor egin diote Irun'goakin batera; baita ere nun Irun'en billatu nituan eta elkarri eskuak estutu «Txori-Txiki» eta «Satarka» abertzale jatorrai.

Ikusten da zuek ere nola lanian egiten

---

<sup>1</sup> *Euzkadi'n: Egubarri.*

dezuten, ez bakarrik mingaÑarekin, gorputz ta gogo osuarekin ere bai. Jarraitu zuek ere onela.

Agur gozo bat zuretzako da,  
Txori-Txiki ta Satarka,  
zuek bezelako abertzaleak  
Euskadi'n dira bakarka;  
izketan ere ez dakizute  
askok bezela zakarka,  
zuen esanera bildutzen dala  
erri guzia atzaparka,  
ez dituzela euskotar onak  
begiratuko okerka<sup>2</sup>.

\* \* \*

«Egun zoragarria il onen 3'an Irura'n igaro genduan Balerdi'tar Joxe Inaxio ta sendi euskaltzale ta *Argi*-zaleakin. 24'an dator uri onetara Balerdi, egun bat igarroaz, Sarasola'tar Julian eta bere adiskidekin, Zaldibi ta erri batzuek ezagutuaz. Emen bilduko gera Murua'tar Iñuxentxioren ostatura.

Euskal maiteak, anaitasuna  
zorrotz diogu alkarri,  
egun orixe bizi guztiko  
izango degu pozgarri;  
biotzetikan egingo'izugu,  
Balerdi, ongi etorri,

---

<sup>2</sup> *Euzkadi*, 1920.I.3.

geltokian, bai, egongo da zai  
*Erauskin'dar Errotari*»<sup>3</sup>.

\* \* \*

«Andoain'en, Aita Larramendi zanaren omenez, jaia egin bear dala entzun utsarekin, poz-dardara egin du Euskal-Erri osoak. Alako seme euskaltzalea izan ere zan Aita Larramendi zana. Jaio zan 1667'-ko Lotazillan edo Abenduaren 25'an, Egoarri-eguna goizeko lenengo orduan. Zer poz zorionekoa zuten bere aita Domingok eta ama Manuelak beren seme Manueltxo ikusi zutenean beren aurrean! Ain zan seme argia, 17 urterekin Ernani'-ko ikastolan asi zuten; urruna andik Billagarzia (Galizia)<sup>4</sup>; urruna, Medina del Kanpo'ra; andik Salamanka'ra; gero Azpeiti'ra. Bere adinetako 76 urterekin ludi onetatik agur eginda, Goi-Jaunaren besoetan il zan. (G. B.) Orain dira 186 urte il zala; baita 200 urte're aurten, idatzi edo liburuak argitaratu zituala, auzi gogorra irabazi ondoren zortzi ministrori, euskera

---

<sup>3</sup> *Argia*, 1927.IV.17.

<sup>4</sup> Txeeetasun batzuk oker ematen ditu Erauskin'ek: Larramendi 1690 urtean jaio zan, ez 1667'an; Villagarcía ori, ez da Galizia'koa, Villagarcía de Arosa alegia, Valladolid'eko probintzian dagoan Villagarcía de Campos baizik; Aita Larramendi 1766 urtean il zan, eta, beraz, 186 erantsita, 1952 urtea degu; ez 1929.

Andoain'go 1929'eko festa oiek, Larramendi'k bere *El Imposible vencido* euskal gramatika idatzirik berreun urte betetzen zirala-ta ospatu ziran.

zala emen sortutako aurrenengo izkuntza  
edo elea uste etzutenak azpiratu zituala.  
(*El imposible vencido*). Jarraituko du <sup>5</sup>.

Eun larogei ta sei urte dira  
Aita Larramendi il zala,  
euskaldun onak zaitu dezagun  
ark utzi zigun itzala;  
ondo dakigu seme utzia  
edo alperra etzala,  
beragatikan saia gaitezen  
geu ere ura bezela,  
guztion Aitak bere eskuan,  
arren, eduki dezala!» <sup>6</sup>

\* \* \*

«Ormaiztegi'n, igandean, erri-jaiak zira-  
la-eta, ozte aundia izan zan. Orko *Argi-zale*  
eta *Euskal-zale*, Jauregi eta Zufiaurre,  
bai gañerakoakin, berriketa-aldi bat egin  
nuan; oriek bai daudela *Argia-zale* zin-  
tzoak.

Gure Jaungoikoak ez banau artzen  
oso burutik nastua,  
Ormaiztegi'ko gizabidea  
ez det izango aztua;  
aizken olerkia jaurti nuana  
gora jasota eskua:

---

<sup>5</sup> Jarraituko duala esaten du Erauskin'ek, bañan  
ez degu aren idazlanetan jarraiketarik arkitu.

<sup>6</sup> *Argia*, 1929.VII.28.

Gora Ormaiztegi erria eta  
bertako ozte prestua!»<sup>7</sup>

\* \* \*

«Emen besarkatu ditugu Lezo'ko eusko idazle Anastaxio eta Salaberri'tar anaiak, margolari ospatsuarenak. Oriek esan dirate igande onetan, 11'an, dutela Jel-Batzokiaren oneskundea Lezo'n, eta olerkietara joateko beste lagun batekin.

Baiezko itza eman dietet, eta Lezo'n ortxen nazute eguardi alderako; eta *Argia* ouen bitartez deitzen diot Urnieta'ko Alkain'tar Fernando olerkariari, Lezo'ra datorrela igande onetan nere lagun olerkietara. Uste osoan nago etorriko zeradela.

Itz bat bakarrik esan gabetan  
iñortxoaren kaltean,  
ibilitzea nai gendukena  
Lezo erritxo maitean.  
Euskaldun onak ibilli bear  
biotz maitasun betean,  
*Argia* ontako irakurleok,  
agur igande artean»<sup>8</sup>.

\* \* \*

«Usurbil'ko eusko jai<sup>9</sup> onerako gai aundia dago. Ozte aundia izango gera noski.

<sup>7</sup> *Argia*, 1929.XII.8.

<sup>8</sup> *Argia*, 1931.X.11.

<sup>9</sup> *Jai* ori guk erantsia da.

Eusko zaletasuna  
ez bait dago illa,  
egun orretan goazen  
denok Usurbilla;  
ez gerade bilduko  
anei gutxi milla,  
soiñ apañak jantzita  
eskuan makilla,  
denan aurrean abesten  
gertatu nadilla»<sup>10</sup>.

\* \* \*

### ZUMAIATARREI, EUP!

«Irakurri degu *El Día*'n, Dagonillaren 20'an, Aralar'era joateko asmoetan zeratela. Gai orretaz itzegin degu zaldibitarrak eta idiazabaltarrak, eta zuekin batean joatea erabaki degu, zaldibitarrak bide-erakusle ditugula. Ikuskizun ederrik ikusiko dezute, asmoa artu bezela Aralar'era emendik joaten bazerate. Eun izango zeratela diozute: gu ere emendik mordoxka ederra izango gera. Neu ere antxe izango naiz, iñondik al badet beintzat.

Ikusitzea mendi goi beak,  
elordi eder, zelaiak,  
ikusitzea iturri txoko,  
ur garbi-garbi ibaiak,

---

<sup>10</sup> *Argia*, 1932.VIII.28.

artzai-mutillak txaboletan  
txiruliruka alaiak,  
pozaz beterik etorri zaizte  
.....<sup>11</sup>  
beti-betiko aseko dira  
gure biotzaren naiak»<sup>12</sup>.

\* \* \*

### EUP, ANAI NAPARRAK!

«Oso atsegin izan ditut zuen artean egunak, agurtuaz batez ere *Ernaizu* jauna, *Txiki Alai* eta Barriola. Nundik nora ibili naizen? Azkarate, Atallo, Arribe, Betelu, Lezeta, Azpiroz, Lekunberri, Uizi eta Leiza'n. Lekunberri'n alkartu giñan idazle batzuek Lizaso oleskariarekin. Bazkari bikaña egin gengan Barriola ospatsuarenean. Berriz ere orruntza joateko gogoia izango degu. Lizaso'k eta biok olerkietan egin gendun oturuntz tartean. Agur eta urte askotan onelaxen alkar besarkadatu dezagula.

Geure aita Sabin Arana Goiri  
piztutzaille euskotarren,  
etsai batzuek esker gaiztoan  
utzi nai arren baztarren.  
Gure Euskadi begiragarria  
Jainkoak jarria aurren,

---

<sup>11</sup> Lerro au falta da *Argia*'n.

<sup>12</sup> *Argia*, 1933.VII.2.



bera zaituaz, anai-arrebak,  
ibili gaitzan alkarren,  
Ama Euskadi askatutzea  
orra nundikan datorren.  
Zorionean gertatu giñan  
Barriola jaunaren aurren,  
bizi guztian deitu deiogun  
Aita Sabino bigarren»<sup>13</sup>.

\* \* \*

«Euskal idazle guziori zorionak, antolazten dituzutelako biribilketa eta batzararak. Ezagutu ni urrutira joateko zartu naizela. Lenengoa izan genduen Oiarzun'en. Orduan an nintzan.

Agurtzen zaiztet, euskal idazle  
anai-arreba maiteak,  
aitor dizutet etzeratela  
alperrak eta lotiak;  
nere biotza poztuko luke  
ni zuetara joatiak,  
eskerrak Jaunari oraindik dauzkat  
zañak odolez betiak,  
sinistu ez dute laguntzen gero  
irurogeiz gain urtiak»<sup>14</sup>.

\* \* \*

Azken ontan ikusten danez, ibiltzeko  
gogoia galtzen asia zan. Urteen lana; oiek  
ez baitiote iñori ere barkatzen.

---

<sup>13</sup> *Argia*, 1934.VII.22.

<sup>14</sup> *Argia*'n: *urteak*. *Argia*, 1934.IX.16.

## JAIOTERRIA

Dakigunez, Ordizia'n bizi zan Erauskin eta bertako berri-emale zan *Argia* astekarirako. Ala ere, bere jaioterria etzeukan arek aztuta, eta, bein baiño geiagotan, maitasunak eraginda, luma irristatu egiten zitzaion eta Ordizia'tik Zaldibi'ra pasa.

Ordizia'koak alde bat utzi eta Zaldibi'ko berriak bialtzen zituala esan nai degu.

Ona emen oietako batzuek:

\* \* \*

«Ardi-zaiak oraintxe dabiltz lasai. Emen ikusi degu bat egun eta gau bertan. Amez-keta Pernando bigarrena izena jarri diote; lenago, Santiago zarra.

Bere ardiak otsoak jango dizkiola esaten diotenean, ajolik ez diola erantzuten du lasai-lasai.

Santiago Zarra gertatzen bada  
piztiak ardiak janean,  
berak dionez ez da asiko  
iñora joanda lanean;

aita gurea badakiala,  
ori bai zorionean,  
naiz-ta ibilli zakur guztiak  
zaunkaka aldamenean,  
ateondoetan asiko omen da  
Jainkoaren izenean»<sup>1</sup>.

\* \* \*

«Asto jatea Zaldibi'n. Aurreko larunbatean zuten afaria, Zelatx'en Garmendia'tar Bentura geure *Argia*-zalea dan ardandegian. Amairu lagunak jan zuten asto gaxte bat, Iparragirre basetxetik erosita. Afari au antolatu du Iburguren'dar Joxe Ramun amerikano gazteak. Sukalde-gizon edo kozinero bera izan zan. Ameriketan askotan jan izan zutela, abel gorrian aragiz aspertu eta aldatzeagaitik. Jan dutenak diote, arkume-afaririk ez leikeala izan gozoagorik. Orain beste toki askotan asto-afariak jartzeko naia dute; bei, txekor, idian aragia ortik ekarriko dutela merketutzera. Aurreko geure aitonari entzun izan nieten, Aralar mendian otsoak asko ziranean, ardiak eta arkumeak naiz-ta asko egon, astoari eldutzen ziotela otsoak; oso gozoa izan bear zuala astoaren aragia. Orregatik diote jan dutenak, afari gozoagorik ez dutela egin. Ia, mutillak: urrungo astoa jatekoan, esan gero neuri ere.

---

<sup>1</sup> *Argia*, 1924.X.19.

Zaldibi'n egin duten  
asto-afariak,  
zabaldu-azi ditu  
ederki begiak;  
naiz galesti egondu  
bei, txekor, idiak,  
merkatu bearko dute  
oien aragiak.

Asto-afari orretzaz  
ez daude aztuak:  
ez dituztela sartu  
aukada bastoak;  
batere itxuratzen  
baditu lastoak,  
diru egingo ditek  
oraintxen astoak»<sup>2</sup>.

\* \* \*

«Emen bizi dira, Zaldibi'tik etorrita,  
Irastortza'tar Joxe Erramon eta Aranbu-  
ru'tar Manuelatxo aiton-amonak. Lau se-  
me ta iru alaba dituzte ezkonduak, ta  
zazpiren artian 49 seme-alaba.

Aiton-amonatxoak pozak zoratzen egon-  
go dira bere aiei begira.

Opa diyogu urte askoko  
pakea ta osasuna,  
esaera da ludi onetan  
ori dala ontasuna,

---

<sup>2</sup> *Argia*, 1930.XI.23.

baita gañera bi txarrak baño  
obeia dala bat ona.  
Goiko Jaunari amaika esker,  
ori da edertasuna,  
oiei begira pozak zoratzen  
aitona eta amona»<sup>3</sup>.

\* \* \*

«Jaupa edo meza berria Belgika'n euskaldunak: Zubeldia'tar Ponziano eta Iras-torza'tar Dolorexen semea, Zaldibi'ko euskoa. Txiki-txikitatikan da seme argia eta euskaltzalea neurri gabea; gaztetatik sartu zan sakramentario. Opa diogu, izan bedi anima askoren gaizkatzallea, baita artu beza, *Argia*'ren bitartez, erri osoaren oroimena, dagon tokian.

Artu nere oroimena,  
Zubeldia jauna,  
jaiotzetikan zera  
seme azkar, ona;  
maitetasun asko're  
Jainkoarengana,  
zori onekoak zeure  
aita eta ama»<sup>4</sup>.

\* \* \*

---

<sup>3</sup> *Argia*, 1931.VIII.9.

<sup>4</sup> *Argia*, 1932.XI.13

«Arantzatzu'n ezkondu dira...<sup>5</sup> 4'an Beloki'tar Joxe Antonio eta Irastortza ta Oiarbide'tar Franziska, ta Irastortza ta Oiarbide'tar Martin eta Arruebarrena'tar Franziska. Ezkontza oiek Etxeberria ta Oiarbide'tar Gaizka jaunak onetsi ditu. Jaun au, aiek bezelaxe, zaldibitarra da ta ezkondu diranen lengusua. Bigarren aita-tutako bikotea ill onen 17'an Erroma'runtz aterea da. Zorionak guziai ta alkarrekin urte askoan bizitzea opa dizutet.

Erroma'ra joan diran nere illoba Martin eta bere emazteari esan diotet Erroma'n badala euskaldunak egindako eliza bat, ea arkitzen ote duten.

San Juan de Letran eleiz orren izena.

Erroma'k euskotarren edestiarekin zer ikusia badu. Errezil'ko mendietan erromatarrak eta euskotarrak burruka izugarriak izan zituzten; eta Erroma'ko buruzagiak erronka egin zioten euskotarrari, emengoak burruka egitera Erroma'ra joan zitezen. Baita joan ere emengoak, Lartaun oiartzuarra buru zutela. Eta an ere, ementxe bezela, garaille izan ziran euskotarrak.

Euskotarren ausardia zenbaterañokea zan egintza onetxek agertzen digu: gure anaiak ara iritxi ziranean, lenengoz egin zuten gauza, joan ziran itxasontzia urpe-

---

<sup>5</sup> *Argia*'k emen utsune bat du.

ratzea izan zan. Angoak arriturik galdetu ziotenean zergatik urperatzen zuten, onela erantzun omen zien emengoak: «Iltzen bagera, itxasontzirik ez degu bear; baño garaille izango gera ta zuen itxasontzian joango gera.»

Burruka egin ondoren eta emengoak garaille ziralako, Erroma'ko agintariak euskotarrekin etzutela aurrerantz gudarik egin nai ta adiskidetasunean bizi nai zutela adierazi zuten aidanean.

Burrukaldi ori gogorazten diguten olerkiak badira. Ona emen oietako bi:

Erromatarren lendakariak  
senaduko itzarekin  
euskaldun aiei au esan zien  
zintzotasun guztiakin:  
«Alkar arturik bizi nai degu  
orain aurrera zuekin,  
seme ordeko nai badezute  
izan il arte gurekin,  
egingo degu gure alabak  
emazte emanarekin.»

Euskaldun aiek, adoreturik  
guztiak baten itzera,  
erantzuer'au eman zioten  
jaun prestu oiei ostera:  
«Jarriko gera zuen alabak  
gure emazte izatera,  
pake osoan gerta gaitezen  
gu alkarrekin aurrera,

ta anaitasun andiarekin  
Erroma'n biziko gera»<sup>6</sup>.

Olerki auek Gipuzkoa'ko edestian daude, ta baita eliza nola dagoan diotenak ere»<sup>7</sup>.

---

<sup>6</sup> Iztueta'renak dira bertso auek. Erauskin'ek pika bat aldatu egin ditu.

<sup>7</sup> *Argia*, 1933.IX.24.



## ZENBAIT BERTSO

Erauskin'ek *Argia*'ko bere saillean argitara emandako bertsorik geienak ezarriak ditugu. Banaka batzuek falta dira ala ere, eta ona orain oiek emen:

*Eskallu'ri*: Irakurri det Mazkarra'ri idatzi diozuna. Badakit zorrotz zabiltzaitela eusko antzerkizuna antolatu naiean. Zuk diozun jaun orrek itz egin du Etxezarreta'rekin eta bai jaun onek baimena eman ere. Orain igande batzutako betea dago antzokia, baña laster emango omen du. Asi zeintezke, beraz, noiz eta nola oldozten. Emen, entzun utsarekin, pozaren pozez illeakin txapela goratzen zaiote asko ta askoi. Noiz izango ote degu egun ori?

Saia zaitezte era onetan,  
Eskallua ta Mazkarra,  
bata ez dala motela eta  
bestea berriz azkarra.  
Antolatutzen badiguzute  
eusko antzerki jatorra,

une artantxe ez da izango  
asarre *Errotari* zarra»<sup>1</sup>.

\* \* \*

«Bidani'ko Bereziartua'tar Joxe ta bere emazte Balerdi'tar Joakinari zorionak, beren seme Lorentzo kanonigo irten zaie-lako 34 urterekin. Alaba ere oraindik orain profesatua dute.

Joxe, Balearrain'go Erbeta basetxekoa da; ta Joakina, berriz, uri onetako Okorro-Etxeberri'ko alaba. Zorionak.

Aita Joxe ta Joakina ama  
Lorentzo jaun gurasoak,  
izan leiteken aundienetako  
kistar erlijiosoak;  
egiten dituzte gau eta egun  
zintzo asko errezoak,  
beti eskañiaz Jesus Deunari  
beren bizitza osoak»<sup>2</sup>.

\* \* \*

«Pixtiak goizetan abesten  
ez daude maku,  
udaberrian gaudela  
guk ezaunki artu;  
denborari guk eman  
bear diogu leku,

---

<sup>1</sup> *Argia*, 1929.VI.9.

<sup>2</sup> *Argia*, 1929.VIII.25.

biziak entzungo du  
laixter: kuku! kuku!»<sup>3</sup>.

\* \* \*

«Lazkano'n, *Iri-Aundi* basetxean, Barandiaran'dar Joxe Andresen sendiak zortzi autarki ditu, eta denak eman zituzten aurreko auteskundietan Jel alde. Urrun-goan ere ziur-ziur gaude ala emango dituztela. Orrelako sendi asko bagenduzke, laixter genduke Euskadi askatuta.

Lazkano'n sendi batean  
daude zortzi autarki,  
zintzo-zintzo Jel alde  
egiten dira jaurti.  
Orrelako sendiak  
bagenduzke aski,  
Euskadi askatuta  
ez legoke gaizki;  
euskal maite guztiok  
au nai degu nauski»<sup>4</sup>.

\* \* \*

«Euskal idazle maite  
zuretzat, *Txalintxo*:  
*Argia*'n idazki bat  
neretzako atzo;

---

<sup>3</sup> *Argia*, 1935.III.31.

<sup>4</sup> *Argia*, 1933.X.15.

aitor det etzerala  
ezer gaizki mintzo,  
zenbaiten esan txarrak  
ezin jarri zintzo,  
barka nik idazkortza  
ibillia arintxo»<sup>5</sup>.

\* \* \*

«Zorionean zaigu  
argitaldu *Txistu*,<sup>6</sup>  
ikusi degunean  
asko gera poztu.  
Geure alaitasuna  
dualako pixtu,  
amabostero artzea  
ez iñori aztu»<sup>7</sup>.

\* \* \*

#### EUSKO LANGILLE ALKARTASUNARENTZAT BEGIRAMENA JAUN BATEK

«Jaun ori da Gaztañaga'tar Tomas. Berak dauzka bi titulo: bat, sendagillearena; bestea, agiñak eta ortzak atera ta berriak jartzekoena.

Jeltzale purrukatu onek jarri du iragarkia Eusko Langilleen Alkartasuneko aretuan, emengo bazkide dienari, nola

---

<sup>5</sup> *Argia*, 1928.IV.22.

<sup>6</sup> Aldizkari bat zan *Txistu*.

<sup>7</sup> *Argia*, 1927.I.30.

gure sendikoari, utsean (debalde) aterako dizkigula agiñak eta ortz mingarriak. Ori da langille eta txiroentzako begiramena.

Utsean atera nai  
agin eta ortzak,  
ori da errukia  
txiroak geranontzat.  
Nola ez degu bada  
artuko're ontzat?  
Eskerrak Gaztañaga'tar  
Tomas janarentzat»<sup>8</sup>.

---

<sup>8</sup> *Argia*, 1935.VI.9.

## BERTSOLARIA

Patxi Erauskin'ek bat-batean somatu ta kantatutako bertso gutxi bildu degu.

Olaberri'ko Etzezuri baserriko etxeko-jauna dan Joakin Asurabarrena'k onela esan digu:

«Mukullu, Legorreta'ko baserri bat da. Bertako etxeko jauna bertsoan pixka bat jarduten zana zan. Plazetan ez ordea; tabernan eta ola, lagun-artean.

Bein batez, Erauskin Errotariarekin ari zan eta onek, kantatu etzion egingo, olako bertsoa kantatzeko eta bat-batean asmatzeko ez baita; esan-edo egingo zion:

Legorreta'ko Mukullu'n  
ganau plakuak ikullun,  
ezten zorrotza akullun,  
ta esne gutxi katillun.

Ala ere, etziran orregatik asarretuko. Urrengo jaiean ere antxe jardungo ziran biak bertsoan, juntatu izan baziran, zein'ek aundiena bota.»

Basarrik, berriz, testiguantza ederra

eman zuan bein *La Voz de España*'n,  
Erauskin onetzaz:

«Nos es grato, antes de terminar estos apuntes, consignar que nosotros tenemos un motivo especial para sentir vivo cariño por Cestona. Fue precisamente en esa villa donde nosotros actuamos en público por primera vez en concepto de bersolaris.

Tendríamos unos diecisiete años de edad, y recordamos que el otro bersolari era el difunto «Erauskin Errotari», de Villafranca de Oria.»

1935'eko San Sebastian egunean, Ilbeltzaren 20'ean alegia, *Lenengo Bertsolari-Eguna* ospatu zan Donostia'n. Basarrik irabazi zuan txapela. Erauskin Errotaria ere an zan. Egun artan kantatutako bertsoak, danak ez baiñan banaka batzuek, urrengo urtean argitaratu zituan *Euskaltzaleak Bazkunak, Bertsolari Guduak 1935-1936* izeneko liburuan. Damurik, bertso bakarra du Erauskin'ek kantaturik. Ara zer puntu jarri zioten eta arek nola erantzun zuan:

Orain azaldu zazu  
zedorren gogoa...

Ia jarria nago  
tonto ta eroa.  
Nik ez dakit zu zeran  
emen toreroa;

toriatzailletzako  
au dek jeneroa! <sup>1</sup>

Ura, norabait joatean, etzan ixilik gelditzen noski. Albiztur'ko *Luistar'*ek, Juanito Mujika zanak alegia, onela zion *Argia'*ren 1927.IX.4'eko zenbakian:

«Igaro dan igandean pozez eman genien bostekoa, Tolosa'ko berrilari zintzo ta egoki Gurasobide'ri<sup>2</sup> erri ontan; eta Erauskin Errotari Ordizia'ko berrilari jator ta bertsolari bikañari Bidani'n.

Erauskin orrek bertsoak azkar  
t'egoki ditu moldatzen,  
Bidani ortan jardun zitzaigun  
egi bikañak kantatzen.  
Erlijioko gaietan beintzat  
ez da atzera gelditzen,  
jarrai dezagun bide ortatik  
Euskalerrria maitatzen.»

Bein batez, Ondarrabia'n alkarrekin topo egin zuten *Zeleta* eta biak. Agidanean, alkar ezagutzen zuten leenagotik ere, eta Erauskin bertsoan asi zitzaion. Bai besteak ere egiñalean idazteari ekin. Baiñan *Zeleta'*k berak eman zuan alkartze artako berri, *Argia'*ren 1930.VIII.24'an:

---

<sup>1</sup> *Bertsolari Guduak 1935-1936* liburuak *yarrita* eta *jeneroa*. Guk *yarrita* eta *jeneroa* idazten degu, Erauskin'ek orrela esango baitzuan.

<sup>2</sup> Tolosa'ko Manuel Urreta zana, ainbeste bertso zaar jaso ta gorde zuana.



«Nork ez du ezagutzen Erauskin olerkaria? Euskotar eredu jatorra degu berau, eta ezagun-ezaguna Gipuzkoa'ko bazter guzietan. Eta bere olerkiak guziz dira atsegiñak, eta aberkoi-  
-aberkoiak danak.

Igandean, jakiñik uri ontan aurkitzen nintzala, emen azaldu zitzaidan arratsaldean, eta jakiña, olerki-txorta bat abestu biar. Ona emen nik arrapaladan artu nizkion olerki batzuk:

Biyotzetikan agurtzen zaitut  
*Zeleta* maitagarriya,  
abertzale on, idazle bikaiñ  
eta euskeltzale aundiya,  
Soraluze'tik osasun billa  
Olaberri'ra etorriya;  
biyotz-biyotzez egiten dizut  
gaur nik ongi-etorriya.

Lotsaturik utzi ninduan neretzako diñ etzan olerki orrekin, eta jarraitu zuen onela:

Olerki-bidez ludi guztian  
zabaldu nai det berriya,  
bitartekotzat artzen detala  
Deun Mikel zaindariya:  
mugatik mugara nola izan zan  
gure Eusko-Aberriya,  
goitik Ebro'ko erreka eta<sup>3</sup>  
betik Adur gurgarriya.

Bidaso'z aunztik iru laterri  
gure anaiak badia: (4)

---

<sup>3</sup> *Argia'n: Ebro'tik.*

<sup>4</sup> *Argia'n: badira.*

Zuberoa bat, Benabarra bi  
ta bestea Laburdia.  
Eun da ogei ta amazapi urte  
Pantze'ren mende jarriya,  
berak guztiak berendu nairik,  
otso orren egarriya.

Gipuzkoa'ren uri ospatsua,  
gora, bai, Ondarrabiya!  
Bidasoa'ren inguru danaz  
ori bai edergarriya.  
Zelai ederrak, zuaitz bikañak,  
mendiaz karaitz arriya,  
pozez zoratzen egoten nazu  
sarri begira jarriya.

Ezin ukatu nola daguan  
.....garriya<sup>5</sup>,  
zenbat ondasun dagoan bertan  
iñortxok ezin neurriya.  
Bai, berriro agurtu biar  
Ondarrabi goragarriya,  
amaika etsai amorraturi  
erakutsia larriya.

Aiton da amon, neska ta mutil,  
ernai zegoan jarriya,  
areriyoa bialtzen zuten  
beren mugatik atzera,  
alper-alperrik sortutzen ziran  
Ondarrabi'ko urira;  
Irun, Oiartzun, Errenderi'kin  
ez laguntasun urriya,  
orduan, bai, laguntasuna  
oin dagon baño ohea...

---

<sup>5</sup> *Argia*'k utsune bat dauka emen.

Aberri danak maite ditzagun,  
lenengo Euskal-Erriya;  
ori egiñaz poztuko da ba  
Erauskin olerkariya!

Bertso oiek, etxean erdi pentsatuak  
izango ziran bearbada; ta *Zeleta* adiski-  
deak al zuan bezela jasoak ere bai. Mese-  
de ederra egin zigun ala ere.

Beste batez, onako bost bertso auek  
bota omen zizkion Erauskin'ek neskaxa  
eder bati; *Argia*'ren 1934.XI.4'eko zenba-  
kian argitaratu zituan, eta berak esango  
digu nun eta nola kantatuak diran:

«1932'ko Uztaillaren 9'an, Lekunberri'n,  
Barriola abertzale ospatsuaren jatetxean,  
jaurti nizkion olerkiak neskaxa eder bati,  
*Litargi*'k zirikatu nindualako.

Olerkiakin agurtzen zaitut,  
neskatxa gazte garbia,  
ludi guztiak ikusten zaitu,  
ori da begi argia;  
azala ere oso leguna,  
arpegi zuri gorria,  
oiek guztiak orrela dirala  
apain da lirain gerria,  
zurekin bada egin legike  
Ama Neskutsa berria.

Lagunak ere oso ederrak  
dauzkatzu aldamenean,

gelditu zaitez sinismenean  
Patxi Errota'n esanean:  
eziñ ukatu, ziñaldariak  
bazeuden Barriola'nean,  
gogoan daukat igande aste  
nola gau ta egunean,  
orlako neskatxik etzan izaten  
ni mutil aske nintzanean.

Naparroa'ko Lekunberria'n  
zurekin bildu naiz aurrena,  
zu ikusita zenbaiti sartzen  
poza biotzan barruna;  
ludi onetan pozgarriena  
artutzea uztarri deuna,  
emaztea ta bi aurtxorekin  
daukat semea zarrena,  
berak nai badu eskaintzen dizut  
urrengoa, bigarrena.

Arpegitikan ezagun dezu  
zerala emazte-gai piña,  
zerorrek ere ezpairik gabe  
jakingo dezu nik aña;  
zu adoratzen baimenarekin  
dantzatu nai det mingaña,  
sinistu gero semetxo ori  
dala jeltzale gaillena,  
nik nai, zuk ori artuta, neure  
errain izango baziña.

Irakurleok jarri zaitezte  
olerki oneri begira,

gezurrak utzi alde batera,  
mintzatutzen naiz egira;  
neure biotzak oraindik badu  
ainbeste toki kabira,  
esan garbiak era onetan  
Lekunberri'n joanak dira,  
oriek esana ez det damurik,  
ai, alkarrentzat balira!

Bostgarren bertsoa ez da izango Lekunberri'n sortua. Ta besteak ere, an kantatuak noski, baiñan gero etxean berrituak eta bearbada pixka bat orraztuak ere bai.

Argi ta garbi ageri dana auxe da: bertso gutxitxo degula, Erauskin aotik aora nola aritzen zan juzkatzeko.

Ala ere, bertsoak paperean jartzeko ohea zala uste degu. Itxura ala artzen diogu beintzat. Ezagutu zutenak ere ala esan digute.

Aren bertso-saillak emen arkituko ditu irakurleak, eta, irakurri ondoren, ez du iñoren bearrik izango, ura zer neurritako bertso-jartzalle zan jakiteko.

Gure iritzirako, bere lenengo saillak obeak ditu, gero jarri zituanak baiño. Urteen lana izan diteke ori noski. Baiñan baita ere beste zerbait. Asieran, ezereen kezkarik gabe ixurtzen zituan bere bertsoak. Gero, berriz, leen ere esan degu.

nez, garbizalekeriz kutsatu zan eta orduko euskera berri ori nai zuan bere bertsoetan. Baiñan orrek, bertsolariak bear duan eztena kamustu egin zion, eta ja-tortasuna murriztu. Ori, noski, gure iri-tzi bat besterik ez da.

Gregorio Mujika zanak (1882-1931) *Pernando Amezketarra* liburua argitaratu zuan 1927 urtean. Itzaurrean, Pernandoren gertaerak eta ateraldiak nola bildu dituan esaten ari dala, onela dio:

«...biltze-lan ontan lagundu diratenen artean, Zaldibi'ko Prantxisko 'Erauskin bertsolariaren izena ezin ixilik utzi dezaket, lankide iaioa izan det-eta.»

Alkar ezagutu zuten, beraz. Are geiago: Gregorio Mujika onek —*Jeme* izengoitiaz firmatzen zuan— idazlan polit bat argitaratu zuan *Argia'n*, 1927.VIII.7'an, Erauskin Errotariari buruz, ura zer-nolako bertso-jartzalle zan eta beste zenbait argibide emanek. Merezi du emen osorik jar-tzea:

«Iaioa da gero Erauskin aul Gizon argia, euskaldun jatorra, txapela buruan, makilla eskuan, or dabil beti zuti, erne ta txukun, bertso berri batzuk zeri jarri...

Bertsolari bai da Prantxisko Erauskin... Ez erdi alper oietako bertsolari ordea, Erauskin'ek bere lan jakiña, bere irabazpide polita badu as-

palditik: Beasain'go bagoi-lantegietan urte askotxo daramazki, ta bertako langille zuzen edo saiatuenetakoa da.

Andik irten ezkeru, ordea, bertsolari, ta bertsolari besterik ez. Bertso-asmoz beteta du beti burua. Egin zituan bertsoz, egiten ari danaz eta egiteko dauzkan bertsoz itzegiten, jaten baño gusturago aritzen da. Berak egin, berak kantatu, ta berak erriz-erri igandietan saltzen ditu bertsoak. Arrapastaka kentzen omen dizkiote eskuetatik. Azkenengo egin dituanetatik bost milla eun batean saldu omen zituan eta ia pentsa...

Bertso oiek jartzeko, zer ikusi ta zer entzun dabil Erauskin. Gaur «San Permin gloriosoari», biar «San Isidrori», urrengoan «San Martin Loiznakoari», ta bearbada zeruko santu guziei, bertso berriak aterako dizkie Prantxiskok. Aizkolariaren batek, alako pelotarik edo zereko arraunlariak irabazi ezkeru, an da gure Erauskin bere bertso berriakin. Atano ta Keixeta ta «lau probintzietakoz aizkolariak» or dabiltz erriz-erri Erauskin'ek egindako bertso berrien egoetan exerita. Ta Uzku-dun? Goratzale asko omen ditu Errezil'go morroskoak; guzien artean ere ez zuten orregatik Erauskin'ek bere bertsoetan aña jasoko...

Gauza jakingarririk ez dala gertatu ta bertsoak zeri jarririk ez dagola? Ajola zaio Prantxiskori! «Katu sakats bati» ez zizkion bada bein bertso berri batzuk jarri? Jarri ta saldu!

Bere bizi guzian atera ditun bertso berri onenak, oraintxe ari omen da ateratzen. Alakorik gero...! Arrasate'ko Euskal-egunera eramateko ditu, ta datorren illaren 14'ean Leiza'n dan jaiera ere joango omen da bertso oiek saltzera.

Eta oien ondoren beste batzuk aterako ditu, ta gero beste batzuk, ta beste batzuk... Jaungoikoak daki zenbat arteraño.

Urte askotan izan dedilla, bada, guzien onerako. Jarrai, Erauskin. Zu ari zera zure bertsoetan besteak goratzen: aizkolari, santu, pelotari ta katu. Ia alako batean, beste norbaitek onela asiko diran bertso berri batzuk ateratzen dituan:

Bertso berri batzuek  
nai ditut paratu...  
Patxi bertsolaria<sup>6</sup>  
nai nuke goratu...»

Bildu ditugun bertso-saillak asko dira. Ala ere geiago ere bazituala, dudarik ez da.

Adibidez eta beraren seme Ramonek esan digunez, Ordizia'ko Areta baserriko ollo bati bertsoak jarri zizkion eta pape-retan argitaratu. Ramon orrek ikusiak eta eskuetan erabiliak omen ditu. Baiñan orain bertso-paper oien aztarrenik ez degu iñun ere arkitu.

Gaitz-izenez *Mandoa* esaten zioten bati ere bertsoak jarri zizkion. Damurik, galduak dira, lerro auek izan ezik:

Mandoak bear ditu  
perrak eta pastak,  
ikulluan beteta  
pentsuakin askak,

---

<sup>6</sup> *Argia*'k: *bertsolari*.



oiek badira .....  
animali-kastak...

Ta bertso au ere Erauskin'ena omen da.  
Ala esan digu beraren seme Ramonek:

Goizian atera ta  
jo det Usurbilla,  
andikan bueltatuta  
urrena Madrilla;  
munduz mundu ari naiz  
andregaien billa,  
iñun bada oraintxen  
agertu dedilla.

Mesede egitearren, *Besamotza* bertso-saltzalleari ere ematen omen zizkion, baiñan bere izenik gabe eta arenean-edo argitaratzeko eman ere.

Bertso-paperak, geienetan beintzat, Beasain'go Zunzunegi'renean inprentatzen zitu-  
an.

Ondoren, paperak artu eta bera ibiltzen zan erriz-erri saltzen. Kantatzeko abotsa, ez oso indartsua, baiñan polita omen zuan. Festa, erromeri, peri, apustu edo jendea nun bilduko zan, ara joango zan paper-mordoa besapean artuta.

Lenengo, bera bakarrik ibiltzen zan. Baiñan gero, Ramon eta Martin semeak koskortu ziranean, aietako batekin joaten zan. Aitak bertsoak kantatu eta se-

meak paperak banatu ta dirua kobratu. Paper asko saltzen omen zuten.

Alaba Justina, berriz, lotsatu egiten zan aita jendez inguratuta eta kantari ikustean. Etxerakoan, onela esaten zion:

—Ez kantau, aite! Ez bertso-paperik geiago saldu!

Ta aitak:

—Zergatik ez diñat ba kantatuko?

Ta leen bezela segi.

Beste bide bat ere bazuan arek bere bertsoak zabaltzeko: korreoa. Ba omen zituan an da emen adiskide bertsozaleak, eta aieri, paperak inprentatik atera alean, bana bialtzen zien.

Oietako bat, emaztearen osaba Gregorio. Ameriketan bizi zan. Baiñan ura ere bertsolari izaki eta bertsoan erantzun.

Zaldibi'ko berri-emale *Iturri-Aute*'k onela zion *Argia*'n, 1926.IX.19'an:

«Irastorza'tar Gregorio «Irastortza-aundi» base-txeko 76 urtedun semeak bere illoba Erauskin Errotariari bialdu dizkio idazki ta olerkiak. Len emen izana degu bi alditan, eta urte bete barru berriro emen degula adierazten dio. Au entzun utsarekin Zaldibi guztia poztu da, oleskari ta euskaltzale oso ezaguna baita.

Ona osaba-illobak alkarri idatzitako olerkiak:

### *Illobak osabari:*

Agurtzen zaitut sendi guztiaz,  
neure osaba txit piña.  
Ai, au tamala, urruti egonik  
alkar ikusi eziña!  
Oartutzen naiz orain urrena  
izandu ziñan auntziña,  
gure naia da jaioterrira  
berriz bilduko baziña.

### *Osabaren erantzuera:*

Ikusi dealarik zuk bialduta  
ingian bertso berria,  
bera ikustean osabak artu du  
atsegin zoragarria.  
Nere naia bai egingo deala!  
Itxoten nago jarria,  
urtea barru ikertu nairik  
ni jaio nintzan erria.

Asmatzen badet bigarren au're  
orain bear nuke kanta,  
esateko asko badauzkat baña  
bertsoetan ezin konta,  
dana esaten ez baita irixten  
neure idazkortzan punta.  
Beste bat arte agur goxo bat,  
illoba Erauskin Errota.

### *Illobak:*

Neure osaba, bai-zatozela!  
Oriek berri gozoak!  
Entzuteakin txaloa jo du  
Zaldibi erri osoak.

Alaitasunaz gora jaikirik,  
nola egaka usoak,  
etorritzean laztandutzeko  
zabalik dauzkagu besoak.

Baiñan, atal luze au bukatzeko, galdera bat: Zergatik artzen zituan Erauskin'ek lan eta neke oiek danak? Gure iritzirako, ez bertsoak gustatzen zitzaizkiolako bakarrik; baita ere «apostolu» bat zalako. Alakotzat zeukan arek, dudarik gabe, bere burua: bertsolaritzaren eta euskalzaletasunaren «apostolua».

## SANJURJO

Erauskin Cuba'ko gerran ibili zanean, beraren konpañiako teniente bat onela zeritzan: Jose Sanjurjo Sacanell.

Sanjurjo, 1872 urtean jaio zan. Militar sartu eta Cuba'ko gerran ibili zan lenengo, eta gero Afrika'koan. Bere gradu guziak gerran irabazi zituan; Txirritak dio-na, alegia: «aziyuetan irabazita jazten zizutzen graduak». San Fernandoren gurutzeta ere bi aldiz irabazi zuan. *Marqués del Riff* ere izendatu zuten.

Errepublikak etorri zanean, guardiazibillan buru zan; baiñan etzuan ezeren oztoporik jarri. Gobernuak, ordea, artatik kendu eta karabineroetara pasa zuan. España ondamendira zijoala pentsaturik, 1932.VIII.10'an errepublikaren aurka altxa zan Sevilla'n, beste militar batzuek lagun zituala. Iri orretzaz errex jabetu ziran, baiñan beste guzietan uts egin zuten. Preso artu, juzkatu eta iltzera kondenatu zuten Sanjurjo. Juezak, ordea, sententzi orrekin batera, barkazio-eskea ere firmatu zuten. Bereala, an da emen, firma-pilla ederrak bildu ziran, aren barkazioa eska-

tuz. Firmatzalle oietako bat, aurreneta-  
koa gaiñera, Galán kapitanaren ama izan  
omen zan. Galán ori, Jaca'n erregeren  
aurka altxatu, porrot egin, juzgatu eta  
afusillatua izan zan. Gobernuak bizia  
barkatu zion Sanjurjo'ri, eta Dueso'ko  
presondegira bialdu zuan. Bi urte egin  
zituan an; 1934'an, *amnistia* eman zioten  
eta Portugal'era joan zan. Ura ez izan or-  
dea geldirik egoteko jaioa, eta 1936'ekoa  
prestatzen asi zan. Uztaillaren 18'an, al-  
txatu ziran guzien buru izatera zetorrela,  
aideplanoak lur jo, su artu, eta bertan  
il zan.

Cuba ezkeroztik ere, Sanjurjo eta Eraus-  
kin'ek alkar ikusi ta agurtu omen zuten,  
ura Donosti'ra etorri zan batean.

Gero, 1932.V.2'an, eskutitz bat egin eta  
bialdu zion Erauskin'ek. Bearbada, geia-  
go ere idatziko zion, baiñan au besterik  
ez da gure eskuetaraño iritxi. Batenba-  
tek makinaz idatzi zion eta orren kopia,  
Erauskin'en seme Joakinek gordetzen du.  
Onela dio:

Excmo. Sr. Don José Sanjurjo Sacanell.  
Madrid.

Salud, mi general: Salud y felicidades le deseo  
en nombre de los que aún quedamos en el mun-  
do de los que sirvieron en Cuba en el Batallón  
de Arapiles n.º 9.

¿Se acuerda, mi general? Desembarcó V. E.

en la playa de la Habana del vapor León XIII, en 1.º de Marzo de 1896. Era segundo teniente de la Cuarta Compañía de dicho Batallón y, por ser más valiente que el Cid, le nombraron Jefe de la Sección de Tiradores.

¿Recuerda el nombre de sus Jefes? En el citado Batallón era Teniente Coronel D. Joaquín Romero; Comandante Mayor D. Francisco Cirujeda y Cirujeda y Comandante Fiscal D. Daniel Denán González.

Entre los soldados que se hubieran roto el pecho por V. E. estaba yo como Cabo de Sección de Tiradores de extrema vanguardia.

Estaba V. E. en Santi Spiritu enfermo el 7 de Julio, y no pudo acudir al combate de Asiento de Magulla. A mi regreso me dijo: «No he podido ir a ese combate y he perdido un ascenso, pero he sabido que tú te has portado bien y te voy a proponer para sargento.»

Recuerdo que al iniciarse este combate separé de un árbol un papel que decía: «Hoy morirán todos los españoles que pasen por aquí». Entregué el papel a D. Arturo Albergorti, el cual sonrió despreciativamente pero me dijo: «¡Mucho cuidado, Cabo de Tiradores, que estamos enfrente del enemigo!».

¿Se acuerda del Teniente Sanjurjo cuando nos enardecía con sus arengas? «¡Muchachos, mis soldados serán lo que se quiera, pero cobardes no!» Poco después hirieron en un brazo a V. E. y fue ascendido a la península, pero le reintegraron pronto a la Manigua.

Y ¿su caballo? Aquel valiente animal blanco, corto de cola, con el cual penetraba en todas

partes al frente de nosotros, tan pronto oía un tiro.

La última noche que paré cerca de V. E. fue en Río Pelayo, cerca de la zona de Santi Spiritu. Por cierto que descansaba en una hamaca suspendida entre dos árboles; yo dormía en una corteza de palmera. V. E. me preguntó: «¿Qué tal, Cabo Erausquin?» «Algo más molesto que V., mi Téniente» le contesté. «Bueno —replicó V. E.—, estas cosas son interesantes para contarlas cuando seamos viejos.»

Y hemos llegado a viejos, mi General, y por ello cojo al azar, de un depósito mental de queridísimos recuerdos, estos que le envío.

No quiero cansarle más, pues ya tendrá cosas más interesantes de que ocuparse; pero si alguna vez quiere V. E. disponer de las postreras vibraciones de un corazón entero a pesar de los años, pregunte en Villafranca de Oria por Erauskin Errotari.

¡Siempre a la orden, mi General!

Villafranca de Oria, 2 de Mayo de 1932.

Ex-Cabo de la Sección de Tiradores de extrema vanguardia.

Eskutitz onek erdera ona du. Ainbesteraíño ikasi ote zuan, Cuba'n-eta zebillela? Ala, berak esakizunak esan eta besteren batek idatzi ote zion?

Guk erabilli degun kopiak firmarik ez du; Sanjurjo'ri bialdutakoan firmatuko zuan noski.



Sanjurjo'k berealaxe erantzun zion. Eskutitz ori ere, Erauskin'en seme Joakinek gordetzen du. Onela dio:

Madrid, 9 de Mayo de 1932.

Señor Don José Erausquin Errotari.

Mi querido amigo: No sabe Vd. bien cuánto me ha deleitado la lectura de su cariñosa carta del 2. A Dios gracias, se ha cumplido para ambos la profecía que hicimos en Río Pelayo, de contarnos aquellas escenas cuando viejos. No se borra nada de mi imaginación y veo con complacencia que conserva Vd. una memoria feliz, pues las citas que hace están en lo suyo, perfectamente.

Me satisface infinito que se encuentre bien y tan elogiado entre los suyos por su sabiduría como el más famoso versolari.

Ya sabe me tiene a su disposición incondicionalmente y es siempre suyo afctm° amigo y compañero que le envía un cariñoso abrazo:

*José Sanjurjo*

Sanjurjo'k, *Errotari* Erauskin'en bigarren deituratzat artzen du. Bestetik, onek etzion bertsolaria zanik esaten. Ala ere, Sanjurjo'k badaki ori eta zorionak ematen dizkio. Bearbada, Erauskin'ek berak esango zion ori, Donostia'n alkar ikusi zutenean.

Andik lau illabetera izan zan Sanjurjo'ren zalaparta Sevilla'n. Zer iritzi ote

zian Erauskin'ek? Bera, dakigunez, eusko abertzale sutsua zan. Etzuan, beraz, begi onez ikusiko bere lagun zaarraren ekiñaldia. Ala ere, guk uste, berak ere firmatuko zuan barkazio-eskea, artarako modu izan bazuan beintzat.

Gero, gerra etorri eta Sanjurjo'ren izena berriz ere jendearen aotan. Zer pentsatu ote zuan Erauskin'ek aren eriotzaren berri ikasi zuanean? Gerra ura zalaita, makiña bat naigabe ta kezka izan zituan. Ala ere, pena artuko zuan bere laguna orrela bukatu izana...

## AZKEN URTEAK

Erauskin'en azken urteak etziran oso goxoak eta alaiak izan. Gerra sortu zan eta berak, zaarra zalako-edo, ez omen zuan endredo aundirik izan. Diru-premian baitziran, multaren bat-edo kendu zioten. Aideren bat ere bazuan reketeetan eta arek lagundu.

Baiñan bi seme zaarrenak, Ramon eta Martin, biak ezkonduak, Bizkai aldera joan ziran, eta gero kartzeletan denbora-aldi ederra egin. Aieri zer gertatuko zitzaien beti kezketan aita.

Bertsotarako gogoia ederki itzaldu zan orduan. Erauskin'ek gerra ezkerotik jarritako bertsorik, ez degu iñon ere arkitu beintzat.

Urteak bizkarrean eta fabrikako lana utzi egin zuan.

Pulmonia arrapatu zuan. Baiñan gaitza menderatu eta onik atera zan.

Gero, odolak buruan bear aiñean korritzen etziola agertu zitzaion. Oso argaldu zan.

Batzuetan, zertan ari zan etzekiala jar-

tzen zan. Bein da bitan ere, berak ala naita, etxeko pasilloan ara ta onera asten ziran emaztea ta biak. Baita gauez eta neguko otzik gogorrenetan ere, kalean elurra ari zuala. Kanpoan paseatzen ari zirala eta egualdi ona zegoala uste zuan berak.

Azkenetako, ezaguera aldizka joan eta aldizka etorri egiten zitzaion. Bein batez, zortzi egun ezaguerarik gabe pasa ondoren, esnatu eta onela eskatu zion bere alaba Frantziskari:

—Paka, ur pixka bat!

Alabak txanpaña ekarri zion, eta aitak probatu eta:

—Au ez diñat eskatu!

Ura ekarri zion orduan, eta:

—Au bai, au eskatu diñat!

Bere prestaketa guziak egin eta 1945'eko Abenduaren 22'an il zan, irurogei ta amairu urterekin, goizeko zortziretan, Maribarratza kalean, zortzigarrenean <sup>1</sup>.

Emaztea, berriz, 1957'eko Azaroaren 25'an il zan, larogei ta bat urterekin, gabeko zortziretan <sup>2</sup>.

---

<sup>1</sup> Ordizia'ko 11'garren eriotz-liburuan, 121 orrian.

<sup>2</sup> Ordizia'ko 11'garren eriotz-liburuan, 296 orrian.

# **BERTSOAK**

**(1913 - 1918)**

(1913)  
**BILLAFRANKA'KO MISIO SANTUARI  
KANTAK**

1/ Milla bederatzi eun da  
aurrera amairu,  
Misio Santu bearrak  
etorri zaizkigu:  
bat da Aita Laskibar,  
bestea Aizpuru,  
gonbertitutzen dituztenak  
makiña bat judu.

2/ Diote maitatzeko  
Jesusen itzala,  
da Bera serbituaz  
bear dan bezela;  
ikusitzen gaituzte  
gaizki gabiltzela,  
oien esanera gu  
gonberti gaitzala.

3/ Billafranka'ko errira  
ekarri dituzte,  
nere kristau maitiak,  
konsola zaitetze;  
lenago zenbait anima  
zeuden arrunt triste,  
orain da garaia ta  
salbatu litezke.

4/ Obek sermoi ederrak  
eta granzioak, (*sic*)  
jakin degu zer gure  
obligazioak;  
nai ditugunak izan  
bai salbazioak,  
oraiñ da denbora ta<sup>1</sup>  
eiñ konfesioak.

5/ Oso gauza txarra da  
animako kezka,  
pekatuan luzaro  
egon bear ezta;  
au da komenentzia,  
kristau fielak, presta  
propositu fiña ta  
artu zagon beta.

---

<sup>1</sup> Bertso-paperak: *orain da denboratu.*

6/ Konfesioa dago  
artarako jarria,  
gonbertitu gerala  
nago igarria;  
biotza bigun bedi  
ez bada arria,  
bestela guretzat da  
istillu gorria.

7/ Firme egon gaitzen  
bautismoko itzan,  
itz gozoagorikan  
ez nezake esan;  
amorioa beti  
Jesusentzat izan,  
gu salbatzeagatik  
gurutzean ill zan.

8/ Misio Santu oek  
len ere izan dira,  
orduan bistan ziranak  
gaur asko nun dira?  
Goartuta biotzak  
egiten du jira,  
persona señaileak  
zenbait falta dira.



9/ Misio Santu bearrak  
orra inguruan,  
etorri diradenak  
zorion orduan;  
estudiatu dute  
nunbait liburuan,  
orien medioz zenbait  
sartzen da zeruan.

10/ Misio Santu onetan  
ontzen ez diranak,  
duda gabe dauzkate  
gogorak egunak;  
len asko ala joanak  
dira daudenak  
destetxetan betiko  
inpernuko penak.

11/ Orra Misio Santuak  
egiñ alegiña,  
eternidadea ez dezagun  
izandu samiña;  
eskuratu gaitzazu,  
Zeruko Erregiña,  
Jesus onaren ama  
Maria Birjiña.

12/ Agur Billafranka ta izanak  
Misio Santun emen,  
oraiñ jarri gaituzte  
txit bide zuzenen;  
San Pedrok sartuko gaitu  
zeruen barrunen,  
danok an gerta gaitzala,  
biba Jesus, amen!

*Franzisko Erauskin*

Bertso-papera, *Imp. Urdaneta*. — *Villafranca*-  
moldiztegian argitaratua, Donosti'ko Gregorio  
Mujika zanaren bertso-bilduman.

**BERTSO BERRIAK**  
**ANTON ENBUSTEROK ETA**  
**JUANA PATARRERAK**  
**ALKARRI JARRIAK**

- 1/ —Juana, ez aut ikusi  
aspaldi onetan,  
enkargu bat iretzat  
badiñat benetan:  
neskazar gelditu bage  
betiko penetan,  
emaztetzat artuko aut,  
orra esan bertan.
- 2/ —Zer galdetzen aste'aiz,  
Anton Enbustero?  
Ni engañatutzea  
ik ala espero;  
bitartean badauzkak  
iru lau otz-bero,  
obeak despatxatutzen  
nebillék astero.

3/ —Nik merezi al niñan  
ori kontestatzerik?  
Ire dotea ez den  
gezurre besterik;  
ez denala nobio  
gabeko asterik,  
etzainan etorriko  
aberats gazterik.

4/ —Preziso bear al dik  
aberats gaztea?  
Paraguero batekin  
txit negok gustoa; <sup>1</sup>  
morralla artu eta <sup>2</sup>  
naiz joan eskea,  
naigo diat ure artu  
eta i uztea.

5/ —Ojala ez banitz asi  
irekin izketan,  
ikusi're ez baiñut  
begien bistetan.  
Orain jarri b'aiz ere  
uzteko kasketan,  
nere inbiria ik  
baunan gaztetan.

---

<sup>1</sup> Puntu au ez da besteekin ondo uztartzen, baiña paperean alaxe dago. Ez dirudi Erauskin'ek au ola jarriko zuanik.

<sup>2</sup> Paperean: *morrall artu ta.*

6/ —Ori dek izatea  
errezeloso,  
lenaz gañera ez nauk  
jarritzen goxoa.  
Ire zale noiz izan nauk  
inbirioso?  
Anton etxean da kanpon  
gezurti osoa.

7/ —Gezurti ni ez baño  
corri aiz ari,  
seika ibiltze'intzan  
pesta eta feri;  
zenbat gastatu nuan  
Jaungoikuak neurri,  
ez unan utsak ibiltzen  
tripa-zaku ori.

8/ —Orain utsik dagola  
ik uste Juana?  
Oso aiskire negok  
patarrarengana;  
gaur litro bat *a morro*  
ustu diat dana,  
loteri onaren jabe  
ni artutzen nauna.

9/ —Zurrutak gaztetzean  
zartu arren urtez,  
begi gorriak dauzkan  
musuaren partez;  
aspertuta badago  
mutil zar egotez,  
i artzean jabeko den  
zurrutera batez.

10/ —Patarrak jartzen neok  
oso alegrantzan,  
au utzita ez diat  
bizi nai mudantzan;  
pozak paragueroak  
maite-esperantzan,  
ispilluari begira  
ibiltzen nauk dantzan.

11/ —Ni utzita paraguero  
bear al den artu?  
Señale nik emanak  
atzera agertu!  
Pieza bat aundia  
ez niñan negurtu,  
azkar ekarri, bestela  
bizkarra egurtu.

- 12/ —Kamisa bana zetiau  
neonek eta amak,  
errial bat etzian  
balioko kanak;  
kostillak urratzeko  
tela-klase onak,  
antxen gordetzen dituk  
arkakoso danak.
- 13/ —Ez dezute alperkeriz  
bat akabatuko,  
nere partetik niken  
milloi bat botako;  
gauza oberik ez diñat  
sekulan opako,  
paraguerok prenda txarra  
ez au i artuko.
- 14/ —Nik utzitako pena  
buruatzan al zak?  
Aizken despedida au dek  
Anton Beltzarentzat:  
pixka bat leguntzeko  
matraill-ezur latzak,  
alargun zar bat naiz izan  
aberatsa artzak.

15/ Anton da Juanak alkarri  
bertsoak ipiñi,  
aitzekirik ez dute  
emanikan zeñi;  
nungoak diran esango  
dio edozeiñi,  
gusto duanak galdetu  
*Patxi Erauskiñ'i.*

Bertso auek, Erauskin'en illoba Manuel Erauskin zanak zituan. Bertso-paper bat zan. Paper ori eskatu eta kopia bat egin zuan Zaldibi'ko Jose Garmendia apaizak. Kopia orretatik artu ditugu guk onerako.

Egillea nor dan, azken bertsoak esaten du.

Jose Garmendia jaun orrek, paperean zeuden bezelaxe kopiatu zituan bertsoak: *Berso Berriac Anton Enbusteroac eta Juana Patarrerac alcarri jarriac.* Idazkera zaar orrek, bertso-sail au Erauskin'en gazte-denborakoa dala salatzen digu.

Irakurlea oartuko zanez, mutilla asten da eta neskak erantzun. Era orretan, txandaka jarduten dira, eta azken bertsoa egilleak esaten du.



(1914)

**GORA GURE EUSKALERRIA!**

**1914'KO UZTAREN 5'AN TOLOSAN EGITEN DAN  
EUSKOTAR-BILLERARI  
ORDIZIA'KO ERAUSKIÑ'EK JARRIAK**

1/ Millaz ondoren bederatzi eun da  
amalaugarren urtean,  
igande ontan Uztaillak bost  
dituan egun batean,  
euskotarraren oiua degu  
Tolosa'ratu gaitean;  
gaur guretzako gauza oberik  
ez dakit zer litekean.

2/ Bide eder au jarria guri  
Sabino Arana Goiri,  
naiago genduke bizirikan  
aurrean balitz agiri;  
aldamenetik izango luke  
nork lagundua ugari;  
sinismen ori biotzeraño  
sartu euskotar onari.

3/ Amar urte iya dirade  
gure aita Sabin il zala,  
euskotar onak zaitutzen degu  
ark utzi zigun itzala;  
Ama Euskerak badaki seme  
etsaiak badabiltzala,  
etxera bildu nai ez dutenak  
berak zuzendu ditzala.

4/ Lenago oso goien giñanak  
noizbait egin giñan jetxi,  
ostera berriz gora asteko  
garaia zaigu iritxi;  
errukirikan baldin badegu  
geren Amari eutsi,  
etxeak dauzkan eskubideak  
auzokoari ez utzi.

5/ Gogoz ta zuzen gora goatza  
askok nai arren jestera,  
nola ez degu maitatu bear  
ikasitako euskera?  
Denok zor deguna Amari  
eman deiogun eskerra,  
gañerakuan bere semerik  
iñor izango ez gera.

6/ Orain larogei urte inguru  
itzuli giñuzten bera,  
gere arteko etsaiak egin  
zigutelako atzera;  
Amarengana elkarturikan  
denok bildutzen bagera,  
lengo lekura, gurea da-ta,  
oraindik igoko gera.

7/ Nola ez gaitu errukituko  
Ama galdata uzteak?  
Bera're asko pozkidatzen du  
erdi illetik pizteak;  
etzuan gutxi-gutxi esan nai  
bide au erakusteak,  
oso makurki ez datoizkigu  
ondoreneko gazteak.

8/ Asi naiz eta jarriko ditut  
txit benetako egiak:  
Euskalerrria artzen ari da  
bear dan indar aundiak;  
berau ezin ikusi dutenak  
etsaiak daude erdiak,  
min onekin ezur uts eginda  
beren sabel-arrabiak.

- 9/ Gure euskera maitagarria  
txukuna eta gozoa,  
beste izkuntza guztietatik  
au da lendabizikoa.  
Nola ez degu esan biar guk  
dala denan gañekoa?  
Onen egille etzan besterik:  
bakarrikan Jaungoikoa.
- 10/ Ama Euskera orla piztea  
etsaiarentzako miña,  
guk ez dakigu zergatik duten  
oiek orrelako griña;  
berau galdutzen ez dala errez  
dago gauza bat jakiña,  
zañetik berriz txit ezeturik  
sustraiak gogor egiña.
- 11/ Anai maiteak, onela bildu  
geren Amaren aldera,  
gañerakuan amilka dator  
guztiontzako galgera;  
etsaien batek egiten badu  
gu nor geraden galdera,  
bildurrik gabe denok erantzun:  
«Euskotar jatorrak gera!»

12/ Guk geren Lege Zarra nai degu,  
 utzi besteren berria,  
 ortikan len ere etorri zan  
 guretzat negargarria.  
 Nola guk eman eskura iñori  
 gerok iltzeko arria?  
 Zaituaz Jainkua ta Lege Zarra,  
 gora gure Euskalerria!

Bertso-papera, «*Tolosa'n: E. Lopez'en etxian*», argitaratua, Donosti'ko Gregorio Mujika zanaren bilduman.

Beste argitaraldi bat, Tolosa'ko Isidora Moko-roa'ren eskutik jaso genduan. Seguru aski, moldiztegi berean egiña da. Papera, moldiztegi-izenaren tokian puskatuta dago eta etzaio lenengo letra besterik ikusten, baiñan letra ori «T» baita.

Beste argitaraldi onek, aldaketa auek ditu: Izenburua: Bertso Berriak / Ordizia'ko Erauskiñ'ek jarriak. 1914'ko Jorrailla'ren 29'an egiten dan Tolosa'ko Euskotar-Billerari. Ta bertsoetan: 1/3: euskotarraren oiua degu; 1/4: Tolosa'ratu gaitean; 1/5: Jorraillak ogei ta bederatzi; 1/6: dituan egun batean; 3/2: aita Sabino iltzala; 6/5: Amarengana amaiturikan; 6/6: denok elkartzen bagera; 12/5: Nola eman eskura iñori; 12/7: zaituaz Jaungoikua ta Lege Zarra.

Izenburuetatik ikusten danez, Tolosa'n 1914. IV.29'an billeraren bat egin-asmotan ziran; baiñan 1914.VII.5'era atzeratu zan. Ta jai-aldi oietarako, deigarri bezela-edo, Erauskin Errotariak onako bertso-sail au argitara atera.

## «LUDI GUZTIAN AUTAN ARTUTA...»

1/ .....<sup>1</sup>ko .....<sup>1</sup>koa  
.....<sup>1</sup>,  
ludi guztian autan artuta  
gaur bizi zaigun alaba;  
neri bi aldiz bertsuak jartzen  
saiatu da egiñala,  
bañan egingo nuke apustu  
bera aspertutzen dala.

2/ Tratatzen zerbait asi giñala  
ez det ukatzen batere,  
mutil gaiztoak uztera berriz  
berak mesede baitare;  
gure denboran aundiagoak  
ikusi dira len ere:  
zenbaitek alkar utzitzen dute  
pregoiak eginda ere.

---

<sup>1</sup> Neskatxaren izen-abizenak eta erria.

- 3/ Merezi nukela ni utzitzea  
bizkar-ezurak autsita,  
askok diote Jaunak daukala  
bere eskutik utzita;  
edo bestela nobio-faltaz  
orren gazterik etsita,  
sikiera artu ijitano bat  
begiak biak itxita.
- 4/ Enitzadela kapitan egin  
orrek eman du albista,  
baserritarrak mailla ortara  
igotzen erreza ezta,  
serbitzuan iru urtean  
garbi egiñ arren presta;  
entortxaduak artu baietz nik  
zu egiterako maestra.
- 5/ Noski pozkiro egoten giñan  
biok alkarren onduan,  
gañera berriz kito gerade  
emanean da kenduan;  
artzekorikan izan bazendu  
laister esango zenduan,  
zuk ainbat onra izandu det nik  
orain artean munduan.

6/ Buruan zeuzkan itz loi guziak  
neretzako ditu jarri,  
ala ere ni apuratuta  
ez nago ernegagarri;  
mingain gaiztoko txoro bat dala  
danak diote igarri,  
ai, ni erruki ori artu ta  
etxera banu ekarri!

*Auspoa*'ren 101-102'garrenean, *Txirritaren Bertsoak (I)* izeneko liburuan, 136 orri-aldetik aurrera, neska-mutillen bertso batzuk argitaratu genituan.

An esaten genduanez, alkarrekin bost urtean ibili ondoren, mutillak despeira eman zion nekari. Orduan onek bertsoak jarri zizkion ari, eta arek erantzun. Ta, urrena, neskatxak oster bertsoak atera. Irugarren aldiko auek, Txirritarenak zirala eta esandako liburu orretan argitaratu genituan.

Patxi Erauskin'en seme Ramonek esan digunez, neskak lenengo paratu zituanak, Prantzes-Txikiarenak ziran; bigarren aldian atera zituanak, Txirritarenak. Auek, berriz, mutillaren izenean jarririk, Erauskin Errotariarenak.

Paperetan zabaldu omen ziran, baiñan oieta korik ez degu orain artean iñon arkitu. Sei bertso auek, Erauskin'en seme Ramon eta Martinek buruz zekizkiten.



(1916)

«...GUSTO DUANAK ADITU...»

1/ Millaz ondoren beratzi eun da  
aurten amasei baditu,  
kanta berriak jartzera nua,  
gusto duanak aditu;  
mingaña neke-bildur da baño  
biotzak ezin kabitu,  
mutil da neska gazte guztiak  
pozikan artuko ditu.

2/ Igazko Gauon illuntzekoa  
ai zer komeri polita!  
Sasoiko mutil bati bi aizpak  
eman zioten arrika;  
gero gauz onik etzeukatela  
jarri ziran igarrita,  
bat etxera ta bestea berriz  
baso aldera korrika.

3/ Etxean sartu zanari mutillak  
segitu zion poliki,  
esku batekin eldutzen dio  
neskatxa orrek lepoti;  
beste eskuan kandeleroaz  
golpe tiratzen gogorki,<sup>1</sup>  
mutilla nola galdu ez duan  
gure Jaungoikoak daki.

4/ Neskata orrek kandeleroaz  
jotzen dubena kopeta,<sup>2</sup>  
medikuana gero aguro  
eman zeikiola baja;  
erantzun dio: «Zuk badaukazu  
buruan artale falta,  
trapukerian bizkorra dago,  
ankaz egon arren koja.»

5/ Bi aizpa oiek beren amarekin  
etzuten nauski atsegiñ,  
justiziara bear ziotela  
mutil orrixe otsegiñ;  
ezin sinistu lendabiziko<sup>3</sup>  
berak zubenik utsegiñ,  
orain damutan baldin badaude  
bular ondoai atsegiñ.

---

<sup>1</sup> Esku-idatziak: *golpe tirak* edo *golpe tiratz.*

<sup>2</sup> Esku-idatziak: *jotzen dube kopeta.*

<sup>3</sup> Esku-idatziak: *lengabiziko.*

6/ Ama ere zer personaje dan  
ondo dakite baztarrak,  
burua eta ipur-masallak  
ez ditu oso kaskarrak;  
bi mutil gaztek neurtu diote  
lista batekin iztarrak,  
eun bana palo merezi dituzte  
oien iruen bizkarrak.

7/ Errotearen kriada dute  
laugarrena sozioa,  
iturrian jarri duana  
guztizko okasioa;  
mundu guztiak jakin dezala  
kantuz esplikazioa,  
gogoan gorde biar da orrek  
egindako azioa.

8/ Kriada orrek dudarik gabe  
odolak beroak ditu,  
mundu guzia leike arritu  
egindakoan aditu;  
aurrak egiteko dauden bi andra  
kupira gabe jo ditu,  
orra tristeak lenaz gañera  
ederki asko jositu.

- 9/ Lenengo itza trukatzian  
bertan zion jotzen ekin,  
andra gaixoak ezin mugitu  
beren danbortxoarekin;  
etzan bildurtzen aien barrungo  
aurtxoa galtzearekin,  
kriada ori nere partetik  
jarriko nuke arakin.
- 10/ Ez det esango zein erritakoa  
dan kriadaren izenik,  
ez det pentsatzen motibo gabe  
onetaratu naizenik;  
kriada danak ez det esaten,  
asko badaude zuzenik,  
andre-jotzalle ez da sortuko  
ori bezelako gizonik.
- 11/ Erri orretan dauden neskatxak  
gerrarako txit abillak,  
Europa dana berendu baietz  
ori bezelako millak;  
baute indarra apaiz-etxeke  
ogiak edo opillak,  
bi andra aixa zeatu ditu,  
aurki gizon da mutillak.

12/ Orrek gizonik artutzen badu  
badauzka gizarajoak:  
mantenu ona ez dakit baño  
suelto bizkarrekoak;  
ez du faltauko aurretik orla  
prueba emandakoak,  
neskazar lizun gelditu obe  
guztiak orrelakoak.

13/ Iturritikan bi andra jota  
biraldu ditu negarrez,  
erriko atso guztiak orain  
urtara joateko bildurrez;  
etxeko atetan irtetzerako  
kriada an dagon galdez,  
.....  
.....

14/ Beti asarre jaso gabetan  
testimonio falsoak,  
pakean bizi gaitezen bada  
neska, mutil da atsoak;  
orregatikan jarritzen ditut  
komeni diran bertsoak,  
amar xentimo eskuan artu  
eta luzatu besoak.

Bertso auek, Erauskin'en seme Ramonek eman  
dizkigu, aitaren esku-idatzi batetik artuta. Amai-  
rugarren bertsoa ez dago osorik. Izenburua, ge-  
rok erantsia da, lenengo bertsoetik artuta.

**BERTSO BERRIAK**  
**AMABOST URTEKO KATU GAZTE BATI**  
**JARRIAK**

- 1/ Bertsoak para diot  
katu sakats bati,  
litxerrerian zertan  
dabilen beti.  
Keja izugarriak  
ditugu auzoti,  
lapurretara dijoa  
lenengo pausoti;  
jan nai du goizeti  
jenero gozoti;  
esan arren zapi,  
manuakin tati;  
gaztetxo mantentzeko  
sagu-eizeti.

2/ Amabost urte dauzka,  
ez da oso zarra,  
illajez bai diruri  
mullo zatarra; <sup>1</sup>  
begi-iskiñetati  
zintzilik makarra,  
gure katuak ez du  
falta bat bakarra;  
bai zuti baldarra,  
burua makurra,  
listo atzaparra,  
demuntre lapurra,  
eskutik osten digu  
jaki apurra.

---

<sup>1</sup> Liñoaren zakarrari *mulloa* esaten zitzaion; liñoaren fiñari, berriz, *amukoa*. Mulloak arropa bastoagoa egiten zuan, amukoak baiño. (Zaldibi'ko Patxi Iraola bertsolariaren amari entzuna).

Beste esan-nai bat ere ematen diote Olaberri'n beintzat, bertako Aranguren-txiki baserriko Jesus eta Joakin Berasategi anaiak esan digutenez: mendi-belar bat omen da; gose dagoan terrenoan ateratzen dan belar-pilloxka itxusia.

3/ Euzkia izaten du  
goizeko kafea,  
makurka joaten da  
zelai batea.  
Ori an dan bitarte  
etxeko pakca,  
kirkir soñura dantzan  
artu du partea.  
Andikan bueltea  
sukaldeko atea,  
eltzeari tapea  
kendu badu betea;  
odolki ta murzillak  
azkar atea.

4/ Auzo geienetara  
egiten du bisita,  
deskuidorik iñork  
daukan utzita.  
Begien bistan batek  
nai ez ikusita,  
tiroz illko dutela  
gu gaure etsita;  
ondo merezita,  
ez bear bizi-ta.  
Naiz ateak itxita,  
tximiniti jetxita,  
atso bati jan dio  
beratzi txita.



5/ Lepape txuria du,  
begi bat urdiña,  
mundu ontan badira  
au bat sorgiña.  
Goizero garbitzen du  
esnetan miñgaña,  
gero berriz kiñuka  
miazten ezpaña.  
Alaja bikaña  
dago alajaña;  
serio bekaña,  
dirudi akaña,<sup>2</sup>  
maleziz bai Judas ta  
Luziper aiña.

6/ Suturra beltza du ta  
bigote erreak,  
ikusita eñ leizke  
naiko farreak.  
Bizkar-egur zorrotza,  
juntura urriak,  
illuntzera ezkeru  
begiak gorriak;  
katuen gerriak  
txitxare neurriak,  
tximur belarriak,  
ezpañak larriak,  
dotoretuko al du  
uda berriak!

---

<sup>2</sup> Zaldibi'n *akaña* esaten zaio, beste toki batzuetan *kapasta*, eta erderaz *garrapata*. Udazkenean garo tartean ibiltzen da eta anka asko dituan zomorro bat da. Ardiari edo bei-ganaduari eltzen dio eta odola edaten.

7/ Zer errespeto daukan  
nai det aierazi,  
lengoan puntzio bat  
degu ikusi:  
lau sagu segika ta<sup>3</sup>  
katua igasi,  
arratoi ta saguak  
sapaiko nagusi.  
Ez arren merezi,  
berak nai du bizi,  
zuzen zeñek ezi,  
diot gutxi grazi,  
orrekiñ sufritz'egu  
bost pazientzi.

8/ Orrentzat zer esanak  
ezin zaizkit buka,  
gauero oi gañean  
egin nai kaka;  
jotzen asi ezker  
Jaungoikoak barka,  
itoko luke mundu  
dena atzaparka.  
Koartean bakarka  
jartzen da okarka,  
gaiztoa du zarpa,  
primera aginka,  
zakur guztiak ere  
bildurrez dauzka.

---

eta puztu egiten da, lertu arte. Oso minbera zaio ori  
ganaduari. (Zaldibi'ko Patxi Iraola bertsolariari en-  
tzuna.)

<sup>3</sup> Bertso-paperak: *segida*.

9/ Konsideratzen jarri  
prenda txarra ez dan:  
urtero umeak einda  
berak ditu jan;  
azaña txar oriek  
ez iñoren bistan,  
zizalu zar azpian  
armoni erriztan; <sup>4</sup>  
asarre purrustran,  
isatsa arrastran,  
pensatu errez dan  
sartzen orren kastan;  
bera salduko nuke  
urtek aiñ peztan.

10/ Mano bat jarri zaio  
dena igartzea,  
zergatik sarri sartzen  
duan eltzea.  
Golpe utsik ez dakar  
sekula atzea,  
folmalduko al zaigu  
juizioatutzea!  
Saguz bildurtze'a,  
au da arritzea;  
lastima iltzea,  
naiago saltzea,  
bestela aurki noa  
errifatzea.

---

<sup>4</sup> Badira Zaldibi'n, *erritan* esan bearrean, *erriztan* esaten dutenak. (Zaldibi'ko Patxi Iraola'ri eta bere amari entzuna.)

11/ Isetsa sarturikan  
bi ankan erdian,  
pikotxean askotan  
enbusterialan.  
Urratu bat aspaldian  
bauka ipurdian,  
egiña dabilela  
nunbait pikardian.  
Seguro egoardian  
dago sukaldian,  
maipean gordian,<sup>5</sup>  
eltzeari goardian;  
malapartatu dabill  
orain aldirian.

12/ Anka bat motza dauka,  
okerrak besoak,  
nunai egiten ditu  
estrapozoak.  
Arrapatzen badute  
garrotaz atsoak,  
biziya utzi bear  
aguro gaixoak.  
Txit dolorosoak  
aldatzen pausoak;  
ille gabetsuak  
badauzka trozuak,  
orrez anparo gutxi  
arkakosoak.

---

<sup>5</sup> Bertso-paperak: *sukaldean* eta *gordean*.

13/ Sagu arrapatzea  
dute ofizioz,  
baño ez du kunplitzen  
obligazioz.  
Beragatik ez gaude  
gu satisfazioz,  
ez dago galdutzerik  
birau maldizioz.  
Lapur da traizioz  
famatua zioz,  
ai oiek azioz,  
betea bizioz;  
guztiak nola esan  
konparazioz?

14/ Erregalo etorri zan  
oraiñ zortzi urte,  
nundik ez esateko  
enkarga naute.  
Bere balioz doble  
egin digu kalte,  
ojala eun legoaz  
balego aparte!  
Bauka zenbait arte,  
sorgiñakin parte;  
aberastu leike  
ori mediante,  
zirku batian jarrita  
komeriante.

15/ Enteratu zerate  
 onen kondiziokin,  
 iñor gustatutzen dan  
 nai nuke jakin.  
 Erostea etorri  
 amabost peztakin,  
 piska bat salduko det  
 errebarekin.  
 Beñ esanarekin  
 portatuko naiz pin;  
 katu eder onekin  
 jabetu beñepein;  
 ni nago orren nagusi  
 Patxi Erauskin.

Bertso auek nundik ditugun adierazten asi  
 baiño leen, Erauskin'en semeak katu onetzaz zer  
 esan diguten:

Etxeko katua omen zan. Eltzeari estalkia (tapa)  
 kendu eta atzaparra sartzen zuan. Makiña bat  
 aldiz erre omen zan ori egiñez, baiñan eskarmen-  
 tuan ezin ala ere sartu. Bein batez, Erauskin'en  
 alaba Nemesiak, garai artako ekonomika-sukal-  
 de aiek zituzten burnizko uztai aietako bat jarri  
 zuan estalkiaren gaiñean, katuak ura ezin ken-  
 duz atzaparra sartu etzezan. Baiñan arek orduan  
 eltzea bota egin zuan...

Beraz, bertso batzuek ondo merezi zituana iza-  
 ki ura ere...

\* \* \*

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Ormaiz-

tegi'ko Etxaburu baserriko Bizente Mujika'ren eskutik jaso.

Paper au zaarra da. Idazkerak salatzen du ori. Orra, adibidez, izenburuak nola dion: *Berso Berriac amabost urteco catu gazte bati jarriac*. Ta era berean daude bertso guziak. Beste argitaraldi guziak idazkera berriagoaz idatzita daude. Au, beraz, danetan zaarrena.

Sail onek, beste iru argitaraldi ere izan ditu gutxienez. Baiñan auek ez dute idazkera zaarrik. Orain izendatuko ditugu.

Argitaraldi bat, Aita Donosti zanaren papere-tan azaldu da. Moldiztegi-izena badu: «*Beasain — A. Zunzunegui'ren Moldizteguien*». Aldaketak: 1/1: Bertsoak jarri diot; 1/2: atzaparraz tati; 2/5: begi ertzetatikan; 2/9: zuti bai kalparra; 2/11: bizkor atzaparra; 2/12: arraio lapurra; 3/10: sukalden batera; 5/4: ori sorgiña; 5/11: illuna bekaiña; 5/13: engañoz bai Judas ta; 6/6: almenak urriak; 7/2: nai adierazi; 7/3: lengoan komeri bat; 7/5: lau sagu segika ta; 7/7: sagu eta arratoiak; 7/13: orrekin damaikigu; 8/2: ezin dira buka; 8/12: bizkorra aginka; 8/13: txato zakurrak ere; 9/5: azio txar oriek; 9/12: jartzen arren kastan; 10/1: Beso bat jarri zaio; 10/2: erdi igartzea; 10/6: beñere atzera; 10/8: juizioan sartzera; 10/13: bestela aurki goatza; 11/1: Isetsa sartu eta; 11/6: badauka ipurdian; 11/11: eltzeari goardian; 11/12: maipean gordean; 11/13: guztiz gaiztoa dabill; 12/9: zer minberatsuak; 12/13: orrekin anparo gutxi; 13/3: bañan ez du ornitzen; 14/1: Erregalo etorria; 14/4: beartu naute; 14/9: badauka asko arte; 14/11: ori mediante; 14/12: aberastu leike; 15/2: orren portamenakin; 15/7: estuan salduko det;

15/8: gutxiagoakin; 15/10: ibiliko naiz piñ;  
15/11: katu on onekin; 15/13: salduzalle ni nago.

Aldaketa oietatik geienak euskera «garbitzearen» sartuak dirala, dudarik ez da.

Ta 11 ta 12'garren bertsoak alkarrekin tokiz aldatuta daude.

Eskuz idatzita, onela dio saiets batean: 1923. Aita Donosti'k papera eskuetaratu zuan urtea izango da.

Argitaraldi ori bera, Gregorio Mujika zanaren bilduman ere agertu da. Baiñan onek, eskuz, onela dio: 1925. Gauza bera esan naiko du: Mujika'k eskuetaratu zuan urtea.

\* \* \*

Beste argitaraldi bat, moldiztegi-izenik gabea, Patxi Erauskin'en seme Erramonek gordetzen du. Aurrekoak bezelaxe ditu bertso guziak, aldaketa au izan ezik: 12/3: nun nai egiten du.

Argitaraldi ori bera, Alegi'ko Rikardo Intxausti txistularia zanaren bertso-bilduman ere agertu da. Onek ere badu eraskiña: 22 Mayo 1933. Beraren seme Jermanek derizkionez, papera eskuetaratu zuan eguna esan naiko du.

\* \* \*

Ta beste argitaraldi bat, *Bertsolariya* aldizkarian, 30 zenbakian, 1932.IV.10'n. Onek, Beasain'go Zunzunegi'eneko argitaraldi orri kopiatu dio.



## BERTSO BERRIAK <sup>1</sup>

1/ Amar artzai mutillak  
egin degu junta,  
aurten ezkontzen ez danak,  
andrea artzen ez duanak,  
milla pezta multa,  
galduta gertatzean  
itza damututa,  
dirua dagolako,  
geok jarri degulako,  
depositatuta.

2/ Ogei eta amarnaz <sup>2</sup>  
goitik gera urtez,  
mutill zar aspertuta,  
bizi nai uztartuta,  
asmo onak ustez,  
gabiltzalako geren  
buruaren kaltez,  
soldatak pagatutzen,  
morroiak mantendutzen,  
emaztien partez.

---

<sup>1</sup> Bertso auek *Bautista Bazterretxe*'ren doñuaz kanta ditezke.

<sup>2</sup> Bertso-paperak: *Ogeita eta amarnaz*.

- 3/ Gure bizi-modua  
nola dan neguan:  
elurretan bustita,  
korputz dana oztuta,  
otari alboan;  
andik etxera berriz  
illun beranduan,  
talo babea janez,  
gozatutzen geranez  
antxen su ondoan.
- 4/ Udaran bizi-modu  
gutziz ona dakau,  
nola gabiltzan askok  
ikusitzen gaituzte,  
ezin bada ukau;  
aize sanoak artu,  
gaztak egin goiz gau,  
artesnari zurrut,  
gazureari purrust,  
matoiari mokau.
- 5/ Jeki ta ardiak jetzi,  
larrera biraldu,  
apatz esneakin  
txistu joz gaztak egin,  
ondoren gosaldu;  
zear etzanean lo  
pasa sei bat ordu;  
guk bizi-modu txarra  
udaran daukagula  
nork esan biar du?

- 6/ Artaldeak gerenak,  
diru apur bat bai,  
jokurikan ez degu,  
erretiroz zintzoak  
nola aste ta jai;  
gañera berriz alai  
gabiltzanak nun-nai;  
gero zartzarorako  
geren anparorako  
andretxo bana nai.
- 7/ Amar mutill gu nola  
gertatzen artzaiak,  
sinistatu bezate  
ez geradela iñor  
animan etsaiak;  
biotz biguñekoak,  
jenioz lasaiak,  
andre koskortxo bana  
merezi ditugula  
iruritzen zaiak.
- 8/ Jakin dezazute bai,  
neskatxa gazteak:  
gure biotzak dir-dir  
pozak jarritzen ditu  
zuek ikusteak;  
ditxarik aundiena  
itz au sinisteak:  
gose ta egarriak  
ezetz bizi larriak  
geuren emazteak.

- 9/ Langille ta zintzoak,  
al bada jostunak,  
ez da ardurarikan  
izanagatik ere  
txanponik ez dutenak;  
neskatxa musu gorri  
ta gona motz dunak,  
bazaute salduzko,  
gu emen artutzeko  
zuen erostunak.
- 10/ Erabaki zorrotza  
gerendu diagu:  
uztartzen ez geranak  
milla bana pezeta  
eman beaiagu;  
egin bear ziegu  
neskatxai erregu;  
ondo jartzen diranak,  
ezkontzen geradenak,  
emazte ta diru.
- 11/ Amar mutillak nola  
ein degun juntea,  
publikatutzen degu  
jakinda geldi dedin  
euskaldun jentea;  
tolosarrak daduka<sup>3</sup>  
garbi apuntea,  
eta amezketarra,  
dana artzai jatorra,  
jaun presidentea.

---

<sup>3</sup> Bertso-paperak: *dauka*.

12/ Begiratuko diegu  
neskatxa lirañi,  
baita pretensioa  
alkarrez bizitzeko  
piñezan eskañi;  
aurreaz jakiteko  
bertsoak ipiñi,  
egia ote dan da  
zein geraden galdetu  
Patxi Erauskiñi.

Bertso-papera, *Beasaiñ'en A. Zunzunegi'ren moldiztegia* argitaratua, eta Oartzun'en, Altzibar'ko Olalde baserrian, Jose Anjel Sarasola'ren eskutik jaso.

Errenteri'ko *Bertsolariya* asterokoak ere argitaratu zituan bertso auek, bere 10'garren zenbakian, 1931'eko Azaroaren 22'an; eta aldaketarik gabe atera ere.

**BERTSO BERRIAK**  
**JOAKINEK AGUSTINARI JARRIAK**

1/ Bertso berri ederrak  
dama bat dan medio,  
utzi ditualako  
amar nobio;  
amaikagarrena're  
nairik oraindio,  
bañan orrek berari  
ezetza esan dio.  
Ondo egin dio,  
gaizki ez iñundio;  
penak barrundio  
negar erain dio;  
bueltak etorri zaizka  
beregandio.

2/ Nungoa ez det esango,  
izena Agustina,  
nobia itzegindako  
mutill guztiña;  
markesa nai luke ta  
iritxi eziña,  
munduan asko bezela  
ez neskaxa fiña.  
Gauza bat jakiña:  
golfari etziña,  
arpegi muziña,  
ez legun txukiña;  
utse zan aberatsa  
izan baziña.

3/ Agustina asko dira  
mundu zabal ontan,  
bat besterikan ez det  
artutzen autan,  
lasa egon ez dana  
kofradia ontan,  
urtez igaroa da  
ogei eta lautan.  
Farrandan gauetan  
dabill geienetan;  
egunez oian lotan,  
jan da eran bertan;  
ogei azal badare  
orren kopetan.

4/ Zenbat nuan lenengo  
jakin nai dotea,  
aberatsa nai luke,  
ez arlotea;  
ori galdetutzeko  
bear da korajea,  
nolakoa dan ortik  
kontuak atea.<sup>1</sup>  
Dauka kopetea  
izurraz betea;  
nizaz apartea  
or konpon zaitea!  
Zugandi libre danak  
zer suerte!

5/ Mutill soltero danak<sup>2</sup>  
egon zaizte argi:  
neska gaiztoak zetik  
milla pikardi,  
farrandan dabillanak  
gau eta gau erdi.  
Uste etzuela nik  
egin nion goardi  
baratza-baztardi;  
zegoan ozkarbi,  
gañera illargi,  
ikusia garbi:  
orduan batekin zan,  
akaso gaur bi.

---

<sup>1</sup> Bertso-paperak: *atera*.

<sup>2</sup> Bertso-paperak: *dunak*.



6/ Gabean aditzen badu  
erriko musika,  
farrandara dijoa  
danak utzita,  
etxean duan soñik  
onena jantzita.  
Estraiña mutillakin<sup>3</sup>  
kafera bisita;  
negon ikasita,  
gero ikusita;  
nekez igasita  
mutillak utzita;  
ez dago ori errez  
jartzen aseta.

7/ Traje bat eman nion  
neretzat josteko,  
biok esposatzean  
ondo jazteko,  
gañera pronto zegoen  
neurria artzeko;  
nere begiak dute  
geroz ikusteko;  
naiz jai ta asteko  
ona erakusteko;  
nik zuri uzteko<sup>4</sup>  
ez dezu usteko,  
orren faltan bazaure  
aberasteko.

---

<sup>3</sup> Bertso-paperak: *estriña*.

<sup>4</sup> Bertso-paperak: *ni*.

8/ Erromerín askotan  
biok giñan izan,  
ni konbiratzen bera  
nola asi zan.  
Oso fin zebilela  
fiatzen ez nintzan:  
itz bat eskatimoan,  
bestea eskeintzan.  
Nunai egin dantzan  
guztiz alegrantzan;  
askotan ...nintzan  
illuntzean ...ntzan<sup>5</sup>  
geigo badauzkat baño  
ez leizke esan.

9/ Orren pasadizo bi  
para al banizka;  
munduan disgustoak  
datoz aldizka,  
oso geldi ere ez,  
gañera zaldizka;  
orri amaikagarrenak  
ala eman dizka.  
Lengoak baleuzka,  
akordatzen zaizka,  
artuko lituzka  
eta arrapaska;  
laister ijituari  
leiotik oska.

---

<sup>5</sup> Bi lerro auk ez dira paperean osorik irakurtzen.

10/ Orra esperentzia,  
neskatxa gazteak,  
ez do gutxi balio  
erakusteak.  
Lenengo baietz esan  
da gero uzteak  
dakartza gorroto ta  
maldare guztiak,  
alkar ikusteak  
arrabi-aztiak;  
oiek iristeak  
bizitza tristeak.  
Aurretik ezagutu  
bata besteak.

11/ Amerikano zar bat nai  
engañatu-azi,  
berak esan duala  
nik det ikasi,  
eta arren diruak  
beregandu-azi;  
fiñezaren aldean  
ai zenbat malezi!<sup>6</sup>  
Ori lendabizi,  
da goseak illazi,  
bera etxe-andre nausi  
interes da guzi;  
gero gazte eder bat  
artuta bizi.

---

<sup>6</sup> Bertso-paperak: *zenbait*.

12/ Konsideratzen jarri,  
aditzalle danak,<sup>7</sup>  
zer kariñoa ori  
esaten dunak.  
Arrituko zerate  
etzenkizuenak,  
munduan gutxi obe  
orlako personak.  
Ematen dizkat famak,  
bañan ez txit onak,  
merezi ditunak,  
sinistu nai dunak;  
nozituko du oi iñoiz  
artzen duanak.

13/ Ni, Joakin, zabaltzen  
orren notiziak,  
jakiteagatikan  
mundu guziak.  
Papel bana artuta  
zaute ikasiak  
zenbateraño diran<sup>8</sup>  
dauzkan nobleziak.  
Ondogi aziak  
da gaizki eziak,  
orrek mereziak  
nik bertso luziak,<sup>9</sup>  
Errotari Patxiri  
jarri-aziak.

---

<sup>7</sup> Bertso-paperak: *aditzalla*.

<sup>8</sup> Bertso-paperak: *zenbaiteraño*.

<sup>9</sup> Bertso-paperak: *asiyac, esiyac, mereciyac, luceac, jarri-aziyac*.

Amairu bertso auk, Patxi Erauskin'en seme Joakinek etxean gordetzen duan bertso-paper batetik ditugu. Moldiztegi-izenik ez du.

Erauskin'en seme Ramonek etxean dituan aitaren esku-idatzietan, bertso auk ere badaude, libretatxo batean kopiatuta. Baiñan libreta orrek lenengo orria falta du, eta orrekin batera lenengo bi bertsoak ere bai. Zortzigarren bertsoa ere falta du.

Orregatik, osoagorik dagoalako, bertso-paperrari artu dizkiogu bertsoak, eta esku-idatziak dituan aldaketak, orain jarriko ditugu.

Ez bertso-paperak eta ez esku-idatziak, ez digute bertso auk noiz jarriak diran esaten, eta ori somatzeko biderik ere ez degu ikusten. Ala ere, gure iritzirako beintzat, Erauskin'en gazte-denborakoak izango dira. Bertso-paperaren idazkerak orixe adierazten du, ortografia zarrez idatzita dago-ta.

Esku-idatziaren aldaketak, *fonetismoak* alde bat utzita: 3/13: ogei azal badaude; 5/1: Mutil soltero denok; 5/5: farrandan dabiltzanak; 5/7: uste ez duala nik; 5/9: zumardi-baztardi; 6/4: lanak utzita; 6/7: lenengo mutillakin; 6/11: nekez igasika; 6/13: ori ez dago errez; 7/3: biok ezkundutzean; 7/5: gañera pozik zegon; 7/7: neure begiak dute; 7/12: etzenduan usteko; 7/13: orren faltan bazaude; 9/1: Agustinari egiak; 9/3: munduan naigabeak; 9/6: gañezka zaldizka; 9/12: baita arrapaska; 11/8: oinbeste malezi; 12/13: nozituko du iñoiz; 13/7: zenbaitaño diraden.

## ARALAR MENDIKO UNIOARI

- 1/ Aralar mendiko Unioari  
jarri dizkiot bertsoak,  
berendu nairik zertan dabiltzan  
tragatutzaille batzuak;  
bai dirudite artalde bati  
sartzen zaizkion otsoak,  
gure aurreko aitona zarrak  
ziraden pakeosoak.
  
- 2/ Amabost errik anaitu eta  
egia konbenioa,  
egun artatik deitzen zaio  
Aralar'ko Unioa;  
egia da, bai, ez dagola lo  
egundo demonioa,  
lege zar onak galtzekoa da  
gizon txarran jenioa.

3/ Amabost erri ontan badago  
itxu-aurreko zuzenik,  
ganadu dana fetxatutzea  
nai omen dute aitzenik.  
Mundu onetan zeñek pentsatu  
zanik olako gizonik?  
Merezi arren ez det esango  
nungoak eta izenik.

4/ Errietako jauntxo batzuek  
egin ziraden arrotu,  
pakean zeuden beste askori  
baita buruak berotu;  
berak etzerala aprotxatzen da  
Unioa nai borratu,  
orrelakoari iraurrarekin <sup>1</sup>  
bizkar-ezurak urratu.

5/ Urte abetan jarriak dira  
majiñatxo bat nasketa,  
bañan beak ere egiñak dira  
amaika alper izketa;  
oien itzari egiten zaie  
aguro asko mozketa,  
lur onetan gaur ai bizi balitz  
Don Juan de Amezketa!

---

<sup>1</sup> *Iraurra* edo *iraurrea*, garia jo ondoren azkeneko aleak lastoari ateratzeko erabiltzen zan tresna bat zan: metro ta erdi luzeko makil bat; beste bat, motxagoa eta pixuagoa; tartean, bi makillak lotzeko, ubela edo liñozko soka bat; batzuek kate bat jartzen omen zuten. Makil luzea artu eskuetan eta motxagoarekin garia jo. Babak jotzeko ere erabiltzen zan. (Patxi Iraola bertsolariari eta bere amari entzuna.)

6/ Gaurko gizonak bañan geiago  
nai ziotenak alkarri,  
Aralar mendiko Unio ona  
argaitikan zuten jarri;  
batzuek ez dirala etekintzen da  
borratu naiean larri,  
orientzat ere berdin dago ta  
ganaduakin etorri.

7/ Udaran ondo ibiltzen dira  
bei, ardi eta beorrak,  
neguan bera jetxi bearra  
zuritutzean elurrak;  
asko alditan ikusten dira  
oso istillu gogorrak,  
ganaduakin etorritzeko  
argaitik daude bildurrak.

8/ Argi ta garbi zer gertatu zan  
kantuz nai guk erabaki,  
ardi, bei eta beortzaleak  
gutxi ginduzten erruki;  
jauntxo batzuek zer egin zuten  
Euskal-Erri danak daki:  
Unioa utzi alanbrez isten,  
ondorengoak iriki.



9/ Iriki-azi zuan ataundar  
Arin lege-gizon jatorrak,  
bizi guztian artu ditzala  
guk emandako eskerrak;  
il da gero're izango ditu  
jaun azkar orrek aitorrak,  
gora unioan alde dauzkagun<sup>2</sup>  
.....<sup>3</sup> .

10/ Unio ona itxitzea bai  
batzuentzat poz larriak,  
guretzako bai izandu ere  
egunak gogongarriak:  
beor da beiak eta ardiak  
ito bear egarriak,  
errukitu ta kupitu ziran  
arkaitz biziko arriak.

11/ Gure Unioa itxi-azteko  
batzuek ainbat enpañu,  
orregatikan izan genduan  
asko kalte edo daño;  
sinistu ere ezin lezake  
gañera zenbateraño,  
isten ez uzten errezago zan  
iriki-azitzen baño.

---

<sup>2</sup> Erauskin'en esku-idatziak: *goran*.

<sup>3</sup> Lerro au falta da Erauskin'en esku-idatzian.

- 12/ Unio ori itxi-azteko  
batzuek bai furioso,  
baita garbiro borratutzeko  
beti-betiko txit oso;  
kulpagabeak jarri litezke  
errezelotan akaso,  
bañan kofradi ortan etzanak  
kandelarikan ez jaso.
- 13/ Donostia'ko jaun prestu batek  
biotzez esan zidana:  
errukituta zegola asko  
artzai pobre gugana,  
«arkuma ederrak jaten ditugu  
gaztaia ere onena,  
Unioa ixtea Gipuzkoa'rentzat  
aizken juizio eguna.»
- 14/ Aralar'ek ditu zelai ederrak  
nola baso ta arrarte,  
beor da beiak, arkum'ardiak  
abaro an eiten dute;  
Unioa nola libre daukagun  
jarri bezela gaur arte,  
aurrera ola izan dezala  
mundua mundu dan arte.

Bertso auek, Erauskin'en seme Joakinek bere aita zanaren paperetan gordetzen ditu. Eskuz idatzita daude. Izenbururik ez dute; oraingo ori, geok lenengo bertsoetik artu ta erantsia da. Egi-llaren izenik ez da ageri. Baiñan, alde batetik, Erauskin'ek bere eskuz idatziak eta, bestetik, bere jaioterriari ere zegokion gaia. Orregatik, arenak izango zirala pentsatu genduan, irakurri bezin laister. Ta gero, Erauskin'en seme Ramon eta Martini galdetuta, baietz erantzun digute; Aralar-mendiari jarritako bertsoak bazituala aitak.

\* \* \*

Aralar-mendiko Unioari buruz, onela dio Gorosabel'ek bere *Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa* liburuan:

«La comunidad de los montes de Aralar y Enirio, conocida con el nombre de Bozue, es otra de las más importantes de la provincia, en la que interesan dos asociaciones de pueblos. Se titula Bozue mayor la que se compone de las villas de Amézqueta, Abalcizqueta, Orendáin, Icazteguieta y Baliarráin; la otra, nombrada menor, pertenece á los pueblos de Villafranca, Alzaga, Arama, Atáun, Beasáin, Gainza, Isasondo, Lazcano, Legorreta y Zaldivia. Ambas uniones forman una comunidad general con iguales derechos en el uso y aprovechamiento de dichos montes, cuyos productos reparten á medias entre las mismas. En esta media porción interesan, á saber: Amézqueta en una tercera parte; Abalcizqueta en otra tanta; Orendáin en la sexta; Icazteguieta y Baliarráin en cada duodécima. Tiene en la otra unión Lazcano la séptima parte de la masa co-

mún; Alzaga y Arama una parte; los otros siete pueblos el resto, con igualdad entre sí...

El origen de la comunidad de los mencionados términos merece consignarse aquí, y es el siguiente. D. Enrique III hizo merced de ellos á Juan de Amézqueta, uno de los personajes más importantes de aquella época, en virtud del privilegio despachado a 27 de Octubre de 1400...»

Idazle onek berak, bere *Diccionario Histórico-geográfico-descriptivo de los pueblos, valles, partidos, alcaldías y uniones de Guipúzcoa* liburuan ere, gai onetzaz mintzatzen da, *Bozue* itza adieraztean.

\* \* \*

Urteen buruan, ordea, galdu-arriskuan jarri zan Aralar-mendiko Unio ori, «tragatutzaille batzuak» zirala-ta. Oien aurka dijoaz bertso auek.

(1917)  
**BERTSO BERRIAK**  
**SAN MIGEL GOI-INGERUARI JARRIAK**

- 1/ Millaz ondoren bederatzireun ta  
amazazpigarren urtean,  
kantik jartzeko eskatuz dauzkat  
egiaz ta borondatean,  
Aita San Migel goi-aingerua  
Naparroa'ko aldean  
dagoanari Alar-mendiko  
arkaitz goienen batean.
- 2/ Bertso berriak jartzera nua  
San Migel goi-aingeru Excelsi,  
egizko sinismendunak  
irakurri ta ikasi;  
errukigarri ibiltzen dana  
sinistematik igasi,  
aitortu gabe Jesus degula  
zeru ta lurren nagusi.

- 3/ Lendabiziko Teodosio jauna  
Goñi'ko zaldunarekin  
esan bear det zer gertatu zan  
garbitasun guzirekin,  
ez dakianak papeltxo bana  
artuta dezaten jakin,  
okerrik ez da etortzen gauza  
ona ikasiarekin.
- 4/ Zeregiñetan ibilli ondoren  
Teodosio jaun ta zalduna,  
bukaturikan etxera zetorren  
egitera azaldu ona;  
eta bidean sinisturikan  
judutar Eudonek esana,  
oatzean ilda utzi zituan  
bere aita eta ama.
- 5/ Butrondarretako Konstanza zuan  
Teodosiok emaztea,  
Eudonek esan zion morroia  
kutun zeukala bestea,  
etxeratzean gertatuko zala  
begiakin ikustea;  
argatik zuten aita eta amak  
ala il bear tristea.

6/ Egun sentian goiz Konstanza ori  
errezoan zala elizan,  
aita eta ama oian utzita  
errain garbiyaren gisan,  
bien bitartean errezelotan  
zalduna gelan sartu zan,  
oatzean bi lagun billatutzean  
itz gabe iltzalle izan zan.

7/ Emazte-morroiak ziradelako  
ill-oztuta gurasoak,  
itxuturikan etxetik irten zan  
jasota ezpata-besoak;  
eliz aurrean arkitu zuan  
bere emazte gozoak,  
ikusitzean zer naigabea  
odol ta gorputz osoak!

8/ Emazteari oatzean zein zan,  
au da galdetu ziyona,  
erantzun zion: «Gelditu dira  
zure aita eta ama.»  
Deadarrez dio: «Eudonengatik  
ai nik egin dean lana!»  
Penitentzi eske Erroma'ra juan zan  
Aita Santuarengana.

9/ Penitentzia eman ziona  
ordaindu nai zuan laxte<sup>1</sup>  
burnizko uztaia lepoan jarri,  
andik gerrira bi kate,  
mendirik-mendi ibillitzeko  
oso aiek eten arte,  
bizkarrean berriz gurutze aundia,  
aitzaz gañera aparte.

10/ Danak artuta lendabiziko  
jorik Ayedo'ko mendira,  
bitartekotzat jarri zuala  
San Migel goi-aingeru aundia;  
kate-malla bat an ausi zuan  
bein gora eta bein bera,  
ibillera aien eramantzalle  
gaur ludi ontan zein gera?

11/ Ayedo'tikan urrena berriz  
Aralar-mendira sartu,  
San Migel'en dagon leize zuloan  
egunero errezatu;  
an zegoala igansuga bat,  
ateratzea tokatu,  
estuasunik gogorrenetan  
ordu artan zan gertatu.

---

<sup>1</sup> Bertso-paperak: *laxter*.



12/ Ura larria igansugea  
eziñik burrukatu-ta,  
uju egin zuan: «Atoz, San Migel,  
ia galdua naiz-eta!»  
Esan bezela etorri ere  
jasorik bere ezpata,  
igansugea garbitu zuan  
kate-uztaiak puskata.

13/ Penitentzi au osaturikan  
zaldunak adierazi,  
leize ondoan txabola egiten  
beriala zuan asi.  
Gaur ermita bat ospatsugua  
nun egiten da ikusi?  
Eta begirapen aundiagoan  
bere apaiz eta guzi?

14/ Inguruetan ez du besterik  
arkaitza eta arria,  
Uarte-Arakil deitzen zaiona  
lendabiziko erria;  
goi-aingerua ala azaltzea  
zer gauza arrigarria,  
Jaun-Goikuak eukiko zuan  
onerakoxe jarria.

- 15/ Aita San Migel goi-aingerua  
errukitsu leialkoia,  
Zuberoa'tik Ebro arteko  
Euskal-Errien patroia;  
zorionean azaldu ziñan  
gugana Alarr'en goia,  
zaitu beti Euskal-Erria eta  
gure gañeko odeia.
- 16/ Dagonill ontan izaten degu  
asulbizio-eguna,  
erregutuaz ondasun eske  
asko etortzen gerana,  
dakigulako goi-aingerua  
txit errukitsua dana;  
lagundu gabe ez du utzitzen  
bera maitatzen duana.
- 17/ Aita San Migel, Euskal-Errian  
etzaguzkagu aztua,  
saiatu beti zuzendutzera  
seme-alaba gaiztua;  
Josepetako soro aundian  
degu epaia estua,  
euskaldun danok laztandu eta  
artu zerorren eskua.

- 18/ Sinisgabea izanarentzat  
dator estua trantzea,  
ona betiko glorira eta  
txarra Judasi launtzea;  
ludi onetan bizitzen dana  
kristau zuzenen antzea,<sup>2</sup>  
goi-aingeruak laztanduko du,<sup>3</sup>  
eduki uste betea.
- 19/ Teodosiok berak laxter zituan  
penitentziak beteak,  
mendirik-mendi beti ibilliaz  
jai, aste, il ta urteak;  
Aita degunak barkatu ere  
egin zituan kalteak,  
siñismengarri argatik daude  
leize ondoan kateak.
- 20/ Zer gertatu zan papel onetan  
zabaldutzen da berria,  
gazte guztiok ikasitzera  
gauza bat miragarria;  
agur, San Migel goi-aingerua,  
zaitu beti Euskal-Erria,  
Franzisko Erauskin zaldibitarra  
ni kanta oek jarria.

*Ordizia (Villafranca), Uzta 14, 1917*

---

<sup>2</sup> Bertso-paperak: *antzera*.

<sup>3</sup> Bertso-paperak: *goi-aingerua*.

Bertso-papera, «E. Lopez'en etxean» argitaratua, Donosti'ko Gregorio Mujika zanaren bertso-bilduman.

\* \* \*

San Migel aingeruari paratutako bertso auek noizkoak diran, bertsoen azpian adierazita dago: 1917, Uzta 14. Baiñan Erauskin'en esku-idatzietan, gai berari jarriak, lau bertso eta beste baten asiera agertu zaizkigu. Bertso oietako bigarrenan esaten denez, 1915'ekoak dira. Urte one-tan asiko zan, beraz, San Migeli bertsoak jartz-en; asi bai, baiñan, zergatik ez dakigula, lana orduan bukatu gabe utzi.

Ona emen bertso oiek:

- 1/ Kanta berriak orra San Migel  
goi-añgeru *Excelsis'i*,  
relijioa maite duanak  
irakurri ta ikasi;  
ez degu bada ibilli bear  
fedeagandik igasi,  
dakigulako Jesus degula  
zerun da lurren nagusi.
  
- 2/ Aita San Migel dago Alarren  
Naparroa'ko partean,  
Uarte-Arakil deitzen dioten  
pareko arkaitz-puntean;  
kantak jartzeko esan dirate  
gutzizko borondatean,  
millaz ondoren bederatzireun  
da amostgarren urtean.

3/ Goi-aiñgeru San Migel degu  
aingeru danan burua,  
igansugea're, kristau jalea,  
ezpatarekin galdua;  
Goñi'ko zaldun Teodosiori<sup>4</sup>  
aizkeneko azaldua,  
geroztik dago ermitarekin  
leize ori itzaldua.

4/ Goñi'ko zaldun on Teodosio  
penitente zebillena,  
etsai bat dala medio ilda  
bere aita eta ama;  
zer egin zuan konfesatzera  
juanda zala Erroma,  
kate batzuek mendiz austeko  
Aita Santuaren ordena.

5/ Kate orrekin Ayedo'ko  
mendira joan bearra,  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....

\* \* \*

*Argia'n*, 1934.IV.15'an, onako lerro aukeratuak idatzitako zutabeak:

• Naparrak erreguz dauzkat, Mikel Doneari,

---

<sup>4</sup> Esku-idatzietan: *Goñi zaldun Teodosiori*.

Adur'tik Ebro arteko Euskadi'n zaindariari, olerkiak jartzeko, Goñi'tar Teodosio sartutzen dedala. Edestia euskeratu det, eta aurki asiko naiz *Argia* zoragarri maite onetan argitaltzen. Izango dira 20 olerki zortzikoak. Aldiko 4 olerki, *Argia*'k toki izan dezan.»

Baiñan gisa ortako saila amazazpi urte lenagotik jarria zuan: gaia San Migel, Goñi'ko zalduna, ogei bertso, eta bertso-mota zortzikoak. Alegia, emen ezarri berria degun orixe.

Bertso oiek paraturik aaztuta al zegoan, ba? Ez du itxurarik. Bitatik bat izango da: euskaldunak *bertso berriak* nai izan ditu beti, eta Erauskin'ek ori jakin eta bere aspaldiko bertso oiek berri-berriak balira bezela agertu nai zituan; edo, bestela, beste sail berri bat jarria zuan.

Ala ere, zergatik ez dakigula, etzituan *Argia*'n beintzat argitaratu, eta beste iñun ere etzaizkigu azaldu.

(1918)  
**ZALDIBIA'KO BITOR ERAUSKIN  
KORRIKALARIARI**

- 1/ Bitor Erauskin, jartzera nua  
zuretzat bertso berriak,  
korrika egin dituzulako  
azaña arrigarriak;  
kalanbrerikan ez daukatela  
zure belaun da gerriak,  
mutil bizkorra azi ziñuztan  
Zaldibia'ko erriak.
  
- 2/ Irurogei ta lau korrikalari  
Barcelona'ra joanak,  
Gipuzkoa'ko eta Bizkai'ko,  
erdaldun da katalanak;  
oiek guztitan aukeratuak  
arkitzen ziran onenak,  
*campeón español* Bitor irten da  
atzean utzita danak.

3/ Zaldibia'ko zar da gazteak,  
sentimentu bat izan da:  
donostiarra zeradela zu  
zertan anuntziatzen da?  
Arrazoi aundiz mintzatzen gera:  
erria ukatutzen da,  
Donostia'ri fama emanda  
Zaldibi'koa izanda.

Barcelona'n, 1918 urtean, España'ko korrikalari-txapelketa jokatu zan eta Zaldibia'ko Bitor Erauskin'ek irabazi. Prat famatua ere an omen zan, baiñan ura ere atzean gelditu.

Erauskin Errotariaren aide xamar egiten omen zan Bitor ori, aren seme Ramon eta Martinek esan digutenez beintzat. Eta auen aitak bertsoak jairi zituan eta paperetan argitaratu.

Erauskin'en seme Ramonek onela esan digu:

«Larraitz'en saldu genituan; aitak kantatu eta nik zabaldu ta kobratu. Amar xentimo paper bana. Pentekoste bigarrena izango zan. Bera ere, Bitor Erauskin, an zan.»

Damurik, bertso-paper oietakorik ez degu ale bakar bat ere iñon arkitu. Iru bertso oiek, orain Ramon eta Martin anai oiei bururatu zaizkionak dira.




## ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1. R. Artola: Sagardoaren Graziya (Aitua).
2. M. Soroa: Gabon, Au ostatubal, Anton Kaiku. (Aitua).
3. F. Apalategi: Euskal mutillak armetan, I. (Aitua).
4. Pepe Artola: Ustez laguna detan. (Aitua).
5. P. M. Urruzuno: Euskalerritik zerura. (Aitua).
6. T. Alzaga: Ramuntxo. (Aitua).
7. R. Azkarate: Galtzaundi. (Aitua).
8. A. Apaolaza: Patxiko Txerren. (Aitua).
9. B. Iraola: Oroitzak. (Aitua).
10. Errege eguneko bertso sayoa. (Aitua).
11. P. Larzabal: Bordaxuri. (Aitua).
12. Bilintx: Bertso ta lan guziak. (Aitua).
13. M. Izeta: Dirua galgarri. (Aitua).
14. P. Larzabal: Iru ziren. (Aitua).
15. Ezkontza galdutako bertsoak, I. (Aitua).
16. A. M.<sup>a</sup> Zabala: Gabon gau bat. (Aitua).
17. A. M.<sup>a</sup> Labayen: Malentxo alargun! (Aitua).
- 18-19. A. Zavala: Txirrita. (Aitua).
20. F. Goñi: Lurdesko gertaerak. (Aitua).
21. P. Larzabal: Herriko bozak. (Aitua).
22. Bertsolarien txapelketa (30-XII-1962). (Aitua).
23. Aizkolariak. (Aitua).
24. F. Imaz: Bertso guziak. (Aitua).
25. A. P. Iturriaga: Jolasak. (Aitua).
26. A. M.<sup>a</sup> Zabala, A. Larraitz, Mir: Periyaren zala-partak.
27. Azpeitiko Premiyoaren bertsoak. (Aitua).
28. B. A. Mogel: Ipui onak. (Aitua).
29. T. Alzaga: Burruntziya. (Aitua).
30. G. Anduaga: Egunsentiko txoria. (Aitua).
31. M. Soroa: Baratzan. (Aitua).
32. M. Elizegui, A. Zavala: Pello Errotaren bizitza. (Aitua).
33. M. Elizegui, A. Zavala: Pello Errotak jarritako bertsoak.

34. *P. Larzabal*: Senpere-n gertatua. (*Aitua*).
- 35-36. *J. V. de Echagaray*: Festara.
37. *A. Cardaberaz*: Euskeraren berri onak. (*Aitua*).
38. *S. Salaverria*: Neronek tirako nizkin. (*Aitua*).
39. *Bertsolariak*: Amar urteko bertso-paperak. (*Aitua*).
- 40-41. *J. R. Zubillaga*: Lardasketa. (*Aitua*).
42. *Uztapide*: Noizbait. (*Aitua*).
43. *Bertsolari-txapelketa*. (1-I-1965). (*Aitua*).
44. *P. Larzabal*: Hilla esposatu. (*Aitua*).
- 45-46. *J. M. Satrustegui*: Bordel bertsolaria. (*Aitua*).
47. *P. M. Urruzuno*: Iru ziri. (*Aitua*).
48. *P. Barrutia, Sor Luisa, X. Munibe*: Teatro zaarra. (*Aitua*).
- 49-50. *A. Zavala*: Pello Errotaren itzala. (*Aitua*).
51. *P. M. Urruzuno*: Ur-zale baten ipuiak. (*Aitua*).
- 52-53. *G. Anduaga*: Bertso-bilduma.
54. *A. Zavala*: Fernando Amezketarra bertsolaria. (*Aitua*).
55. *Basarri*: Laugarren txinpartak. (*Aitua*).
56. *A. Zavala*: Udarregi bertsolaria. (*Aitua*).
- 57-58. *C. Beobide*: Asis'ko Lorea. (*Aitua*).
59. *A. Zavala*: Axentxio Txanka bertsolaria.
60. *A. Zavala*: Errikotxia, Itxaspe ta beste zenbait bertsolari. (*Aitua*).
61. *A. Zavala*: Gaztelu bertsolaria.
62. *A. Zavala*: Zarautz'ko Zaldubi bertsolaria.
- 63-64. *A. Zavala*: Juan eta Pello Zabaleta bertsolariak.
65. *J. M. Satrustegui*: Luzaide'ko kantiak. (*Aitua*).
66. *A. Zavala*: Iru bertsolari. (*Aitua*).
67. *Bertsolari-txapelketa* (11-VI-1967). (*Aitua*).
- 68-69-70. *A. Zavala*: Alzo'ko Imaz bertsolaria.
- 71-72. *A. Iturriaga*: Ipuiak.
73. *A. Zavala*: Iru anai bertsolari. (*Aitua*).
- 74-75. *A. Zavala*: Errenteria'ko bertsolari zaarrak.
76. *A. Zavala*: Alza'ko bertsolari zaarrak.
- 77-78. *A. Zavala*: Paulo Yanzi ta bere lagunen bertsoak. (*Aitua*).
- 79-80-81. *A. Zavala*: Lexo bertsolaria.
82. *A. Zavala*: Juan Maria Zubizarreta bertsolaria. (*Aitua*).
83. *A. Zavala*: Motza, Zulaika ta Ugalde bertsolariak. (*Aitua*).
84. *M. Matxain*: Uste gabeen.
85. *Xalbador*: Ezin bertzean. (*Aitua*).
- 86-87. *A. Zavala*: F. Iturzaeta bertsolaria.

- 88-89-90. A. *Zavala*: Xenpelar bertsolaria. (*Aitua*)
91. A. *Zavala*: Txapel bertsolaria. (*Aitua*).
92. I. *Alkain*. — A. *Zavala*: Alkain aita-semeak.
93. A. *Zavala*: Zubeltzu ta Saikola bertsolariak.
94. A. *Zavala*: Atano ta Estrada bertsolariak. (*Aitua*).
- 95-96. A. *Zavala*: Azkoitia'ko zenbait bertsolari.
97. A. *Zavala*: Bidasoa aldeko bost bertsolari.
- 98-99. *Inozentzio Olea*: Goierriko lorak.
100. *Manuel Lasarte*: Bertso-mordoxka. (*Aitua*).
- 101-102. A. *Zavala*: Txirritaren bertsoak. I. (*Aitua*).
- 103-104. A. *Zavala*: Txirritaren bertsoak. II. (*Aitua*).
105. *Jose Inazio Etxeberria*: Mendi-gañetik.
106. A. *Zavala*: Pastor Izuela. — Ezkioko ta Segurako itxuak.
107. A. *Zavala*: Zepai bertsolaria. (*Aitua*).
108. *Mattin*: Ahal dena. (*Aitua*).
- 109-110. *P. Lafitte*: Mañex Etchamendy bertsolaria.
111. *Bertsolariak*: Xenpelar-saria, 1972. (*Aitua*).
112. *Basarri*: Sortu zaizkidanak.
113. *P. M. Urruzuno*: Sasiletrau baten ziria.
114. A. *Zavala*: Kaskazuri bertsolaria.
115. A. *Zavala*: Larraburu, Lexoti ta Balentin bertsolariak.
116. A. *Zavala*: Oiartzungo bost bertsolari.
- 117-118. *Balendin Enbeita*: Nere apurra.
119. A. *Zavala*: Oiartzungo beste lau bertsolari.
- 120-121-122. A. *Zavala*: Mendaro Txirristaka.
- 123-124-125. A. *Zavala*: ZapiRAIN anaiak.
126. A. *Zavala*: Ustu ezin zan ganbara.
127. *M. Arozamena*: Nere aldia.
128. A. *Zavala*: Amodiozko penak bertso berrietan.
129. A. *Zavala*: Afrika'ko gerra (1859-1860).
130. A. *Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (I).



AUSPOA  
LIBURUTEGIA




ANTONIO ZAVALA

# **Patxi Eraskin bertsolaria**

(1874 - 1945)

II



# **PATXI ERAUSKIN BERTSOLARIA**

**(1874-1945)**

**II**

AUSPOA LIBURUTEGIA

**131**

---

**EDITORIAL AUSPOA**

**Plaza de Santa María, 2 — Teléfono 66 16 12 — Tolosa  
(Guipúzcoa)**



ANTONIO ZAVALA



4 ABR. 1978

**PATXI ERAUSKIN BERTSOLARIA**  
**(1874-1945)**

**II**

**AUSPOA LIBURUTEGIA**

**1978**

© Auspoa Liburutegia - Tolosa (Guipúzcoa)  
Inprimatzalle: IZARRA - Polígono 36 - Usúrbil (Guip.)  
Depósito Legal: S. S. 17/78  
I S B N 84 - 7158 - 039 - X  
Enero - 1978

## A R K I B I D E A

|  |     |
|--|-----|
| Oarra ... ..   | 9   |
| (1920) Bertso berriak amaika urteko mutilla<br>ildako lapurrari jarriak ... .. | 11  |
| (1920) Andoain'go <i>Aldape'ri</i> ... ..                                      | 22  |
| (1922) Bertso berriak Afrika'n gauden eus-<br>kaldunak jarriak ... ..          | 25  |
| (1922) Sabin-aldez ... ..  | 31  |
| Ezpata-dantza ... ..   | 36  |
| (1924) Bertso berriak Keixeta aizkolariari<br>jarriak ... ..                   | 37  |
| (1924) Bertso berriak San Fermin glorioso-<br>ren bizitzari jarriak ... ..     | 44  |
| (1924) Gora gure Euskalerrria! ... ..  | 51  |
| (1925) Bertso berriak bi aizkolariari jarriak                                  | 61  |
| (1925) Bertso berriak Azpeiti'ko aizkol-apus-<br>tuari jarriak ... ..          | 74  |
| (1925) Bertso berriak Tolosa'ko aizkol-apus-<br>tuari jarriak ... ..           | 82  |
| (1925) Bertso berriak munduko izateari ja-<br>rriak ... ..                     | 89  |
| (1926) Bertso berriak Uzkudun ukabilkari<br>txapeldun Europa'koari jarriak ... | 94  |
| (1926) Bertso berriak lau probintzietako<br>aizkolariari jarriak ... ..        | 102 |
| (1926) Bertso berriak esku-pelotari txapel-<br>dun Atano'ri jarriak ... ..     | 108 |
| (1926) Bertso berriak gipuzkoarren onrari<br>jarriak ... ..                    | 118 |
| (1927) Bertso berriak (Beizama'ko erail-<br>keta) ... ..                       | 123 |
| (1927) Azpeiti'ko aizkol-apustua ... ..  | 132 |
| (1927) Bertso berriak Donosti'ko euskal as-<br>teari jarriak ... ..            | 135 |
| (1927) Arrospide'ri ... ..   | 142 |

## OARRA

*Patxi Erauskin bertsolariaren bigarren liburu onetan, arek 1920 urtetik 1927 urtearen erdi alderaiño jarri zituan bertsoak bildu ditugu.*

*Bertso auetan ere gai asko erabiltzen dira: bi eriotz —Eibar'ko bat eta Beizama'koa bestea—, abertzaletasuna, Afrika'ko gerra, aizkol-apustuak, santu-bizitza bat, erlijioa, Uzkudun, Atano, Gipuzkoa'ko kirol-gizonik onenak, Donosti'ko euskal astea...*

*Beraz, zazpi urte oietako gertaera garrantzitsuenak, Euskalerrarentzat beintzat. Eta gertaera oiek euskaldun baten biotzean zer iritzi ta sentimentu sortzen zituzten ikusteko, au baiño ixpillu garbiagorik nekez billa genezake.*

*Azaleko marrazkiak, Patxi Erauskin'en arpegia agertzen digu. Flores Kaperotxi-pi'ren lana da, eta Donosti'ko El Pueblo Vasco egunkarian azaldu zan, 1929'eko Otsaillaren 10'an. Erauskin'ek, eskerrak ematearren, bertso au argitaratu zuan Argia'n, 1929'eko Otsaillaren 24'an:*

*Kaperotxipi, argitaldua  
dezu nere argazkia,  
arrituta txoil egiñak ditu  
asko ura ikustiak.  
Zentzuaz arrunt betea zaude  
izandu arren gaztia,  
argiaz berriz badirudizu  
odei goiko eguzkia,  
zu goratutzen igaroko det  
nere bizitza guztia.*

(1920)  
**BERTSO BERRIAK**  
**AMAICA URTEKO MUTILLA ILDAKO**  
**LAPURRARI JARRIAK**

- 1/ Aditzera bat atzo artu det  
bertso batzuek jartzeko,  
esperentzia gañera bertan  
ondo kontsideratzeko,  
itxumenian dauden denari  
begiak zabaldutzeko,  
zerengaitikan jaio giñaden  
gauza asko ikusteko.
  
- 2/ Bertso berriak jartzera nua  
Gipuzkoa'ko partean,  
millaz ondoren bederatzi eun ta  
gaur ogeigarren urtean;  
negargarri bat gertatu zaigu  
Eibar'ko erri maitean,  
Altzu izena deitzen dioten  
baserri etxe batean.

3/ Seberiano Arizmendi oian,  
amaika urteko mutikua,  
soroan berriz lana egiten  
famili gañerakua;  
Santiago Larrea'k atalarekin  
bizia kendutakua,  
Garagarrillaren zazpia izan da  
egun gogongarrizkua.

4/ Amaika urteko ume gaixoa  
oian atalaraz iltzen,  
armarioak puskatu eta  
gero diruak lapurtzen;  
munduko etsai demonioak  
Santiagokin zebiltzen,  
lurpean sartu bizirik eta  
ala ere ez da pagatzen.

5/ Santiago Larrea'k Bizkai Munitibar'en  
ogei ta bost urte jaiotza,  
brontzeak baño gogorragoa  
izan bear du biotza;  
iru eun pezta zikiñengatik  
utzi umea illotza,  
bere biziaz ordaindu beza  
oraiñ arren eriotza.

- 6/ Ori egin du egun erdian,  
utsa illunabarrean,  
auzoko etxean morroi egona  
bera ala bearrean,  
famili ori nundik zebillen  
ark bazekian urrean;  
orrelakorik ez da gertatu  
oraindik Euskal-Errian.
- 7/ Gaztetatikan baldin badatoz  
biziotsu ta alperrak,  
indartutzean oiek dirade  
illtzalle eta lapurrak;  
baserritarrak, entzun zazute,  
langille zintzo jatorrak:  
etxietan jarri ate fuerteak  
eta kateko zakurrak.
- 8/ Umea illda diruak lapurtu,  
gero kalera etorri,  
ikusitako lagun guztiak  
konbidatutzen bai larri;  
baserri Altzu'n zer pasatu zan  
laister zabaldu zan berri,  
ez da motela Santiago zala  
egin ziona igarri.



- 9/ Aitorturikan bera izan zala  
esku lotuan jarrita,  
txit berotuta arkitutzen zan  
Eibar'eko karrika;  
guardiazibilek ez baluate  
kotxean sartu korrika,  
arrazoiaz ta emakumeak  
an illko zuten arrika.
- 10/ Zer naigabeak semea illda  
arren aitag eta amak,  
errukitutzen gera gu ere  
ori entzuten degunak;  
kreitu onean ipiñi gaitu  
Bizkaia'ko euskaldunak,  
gauza onikan ez du egiten  
kristau zentzu gaizto dunak.
- 11/ Santiago Larrea eroria da  
gutziz delitu aundian,  
orri lepoa biurtu bear zaio  
aguro urkamendian;  
kristau illtzalle eta lapurrak  
orduan bildurtzen diran,  
gañerakoan esango degu  
errespetoak nun diran.

12/ Kriminal orri etzaio gero  
iñola bear barkatu,  
mundu guztiak ala dio ta  
grillu artean urkatu,  
orren antzera dabiltzan danak  
ditezen eskarmentatu;  
orra Erauskin'ek amabi bertso,  
zar ta gazteak, kantatu.

Bertso-papera, *Imp. J. Diaz.* — *Irún* moldizte-  
gian argitaratua, eta Altzo-azpiko Olazabal-berri  
baserriko Inazio Zabala'ren eskutik jaso.

Beste argitaraldi bat, *Imp. de Víctor Fernán-*  
*dez.* — *EIBAR* moldiztegian egiña, Oiartzun'go  
baserri batetik Luis Mitxelena'ren bitartez es-  
kuetaratu genduan.

Paper auek ez dute alkarren artean aldaketarik.

\* \* \*

Eibar'ko eriotza onetzaz zerbait geiago ikas-  
tearren, garai artako periodikoak zer zioten ira-  
kurtzea on litzakela iduritu zitzaigun. Donosti'ko  
«*La Voz de Guipúzcoa*» eskatu ta aztertu gen-  
duan. Onak diona, urrengo lerroetan arkituko  
du irakurleak. Bertsolariak dionarekin, oso bate-  
ra dator. Dudarik gabe, Erauskin'ek periodikoren  
batetik, eta bearbada onetxetatik, artuko zituan  
bere esatekoak. Egiten duana auxe da: periodi-  
koak erderaz eta itz-lauz esaten duana, berak eus-  
keraz eta bertsoan jarri.

Ori ikusita, zera batez oartu giñan. Garai ba-  
tean, antziñako denboretan alegia, bertsolariak,  
berak ikusita edo besteren bati entzunda ikasten

zuan gertaeraren berri, eta besterik gabe bertsoak jarri.

Baiñan gero, periodikoak ugaldu ziranean, aue-  
tatik asi zan esatekoak ateratzen, gai askotarako  
beintzat. Alegia, periodikoa jarri zan gertaera eta  
bertsolariaren tartean. Iñor oartu gabe egin ba-  
zan ere, aldaketa aundia izan zan ori bertso-  
laritzarako. Geroztik, berriz, bitarteko berriak sor-  
tu dira: irratia eta telebisioa batik-bat.

Luzatzen ari gera, ordea, eta ara *La Voz de  
Guipúzcoa*'k eriotza onetzaz diona:

\* \* \*

(«*La Voz de Guipúzcoa*», 8.VI.1920)

#### DESDE EIBAR EL CRIMEN DE AYER

«Según noticias que se nos han trasmitido por  
teléfono desde Eibar, próximamente a las cuatro  
de la tarde de ayer se cometió en el caserío de-  
nominado «Altzo», situado en el valle de Go-  
rosti, un horrible crimen, cuya víctima ha sido  
un niño de doce años de edad, llamado Asensio  
Arizmendi.

El autor del crimen, cuyo nombre se descono-  
ce y cuyo propósito era sin duda saquear el ca-  
serío, llevándose cuanto cayera en sus manos,  
entró en el caserío por una ventana a la hora  
en que consideró que no había nadie en ella.

Desgraciadamente se encontraba en la casa el  
niño Asensio, quien por sentirse algo indispu-  
esto quedóse en la cama mientras sus padres se  
dedicaban a sus faenas agrícolas.

El ladrón, al apercibirse de la presencia del niño, se fué directamente hacia el lecho donde estaba la infeliz criatura y con un palo grueso le dió un golpe violento en la cabeza, destrozándose la por completo.

Cometido el crimen, el ladrón, que venía provisto de una palanqueta, forzó los cajones de dos cómodas que se hallaban en las habitaciones, apoderándose de 350 pesetas.

Al regresar los colonos después de terminar sus labores, se encontraron a su hijo manando abundante sangre de la herida que le había producido el agresor. Creyendo que se trataba de una simple hemorragia avisaron inmediatamente al doctor don Ciriaco Aguirre, quien no pudo hacer otra cosa que certificar la defunción del infeliz Asensio Arizmendi.

El Juzgado ha intervenido en el asunto, comenzando a practicar las oportunas diligencias para capturar al asesino.

Como presunto autor del crimen, que ha causado penosa impresión entre los veci...<sup>1</sup> un casero que habita en aquellas cercanías y que goza de pésima reputación y cuyos antecedentes no son muy recomendables.

Sin embargo, hasta la fecha se ignora su paradero, pero se espera que de un momento para otro caerá en manos de la justicia.

\* \* \*

(«La Voz de Guipúzcoa», 9.VI.1920)

---

<sup>1</sup> Periodikoan itz batzuk falta dira emen.

## EL CRIMEN DE EIBAR HA SIDO DETENIDO EL CRIMINAL

Ayer por la mañana, fue detenido el autor del horrible crimen perpetrado en el caserío «Altzu» situado en el valle de Gorosti y de cuyo hecho tuvieron conocimiento nuestros lectores.

Se llama Santiago Serra, de 25 años de edad, natural de Munitibar, jurisdicción de Marquina.

Desde hace unos siete años prestaba sus servicios en calidad de criado en el caserío «Aguerre», próximo a la casa donde cometió el crimen.

Por algunas faltas que había cometido, fue despedido por el colono a cuyo servicio estaba. Hace próximamente mes y medio trabajaba en la herrería que el señor Errasti tiene establecida en la villa de Eibar.

Jugador empedernido, estaba agobiado de deudas. La última quincena que cobró se la jugó y por no pagarlo se escapó, internándose en el monte en donde solía dormir.

El domingo pasado se le vio comiendo en el caserío «Acondia», desde donde se dirigió a la sidrería Urquiola-Chiqui, merendando en compañía de varios amigos suyos.

La noche del domingo estuvo merodeando por las heredades situadas entre los caseríos «Altzu» y «Aguerre» y entonces fue cuando ideó el asalto de la casa donde tuvo lugar el horrible asesinato.

### COMO SE COMETIO EL CRIMEN

El criminal Santiago Serra, sujeto de muy malos antecedentes y que en la actualidad trabaja-

ba al servicio de don Francisco Errasti, juez suplente de Eibar, ha sido detenido por orden de su amo y sometido a un interrogatorio hábilmente dirigido por el señor Errasti.

A preguntas de este señor, que ejercía el cargo de juez en funciones por estar ausente el efectivo, Santiago ha confesado su crimen en la forma siguiente:

Próximamente a las cuatro de la tarde del lunes, hora en que por regla general abandonaban su casa los colonos del caserío «Altzu» a fin de dedicarse a las faenas agrícolas y después de haberles visto salir, y creyendo que no habría nadie dentro, penetró en la casa por la ventana trasera del edificio y que da acceso a la cuadra.

Una vez en el interior del caserío, subió las escaleras que conducen a las habitaciones en donde sabía que había dos cómodas en las que los colonos guardaban el dinero.

### LA VICTIMA

Al penetrar en las habitaciones en donde pensaba cometer el robo, ví al niño Asensio Arizmendi, que al apercibirse de mi presencia me dijo:

—Shanti, ¿tú por aquí? ¿Qué necesitas? Si necesitas algo, los padres están en la heredad y puedes hablar con ellos. Yo no he podido ir a la escuela porque me encontraba algo indispuesto y mi madre me ha dicho que me estuviera en la cama.

Al oír las preguntas del niño, a quien le creía dormido, vacilé un momento y sin decir una

palabra, bajé a la cuadra en donde permanecí unos diez minutos, reflexionando qué es lo que debía hacer, si matar al niño a fin de que no me pudiera denunciar, o por el contrario alejarme y volver otro día.

## EL CRIMEN

Por fin, continuó el criminal, que en su narración dió pruebas de gran desaprensión y cinismo, después de reflexionarlo bien, me decidí llevar a cabo mi misión, arrojando todas las consecuencias.

Junto a la puerta de la cuadra vi un palo grueso y me apoderé de él para defenderme si llegase la ocasión.

Sigilosamente, volví a subir las escaleras que conducen a las habitaciones y, haciendo el menor ruido posible, entré en el cuarto donde estaba acostado el niño Asensio.

Este, al parecer estaba dormido, pues no se dió cuenta de mi llegada. A fin de que no me estorbara en mi «trabajo», le dí un violento golpe en la cabeza con el palo que llevaba, destrozándosela por completo.

Cometido el crimen, con una palanqueta que me había proporcionado, abrí los cajones de dos cómodas, apoderándome de 350 pesetas que encontré en ellos y me dí a la fuga internándome en el monte.

Esto ha sido lo que ha dicho en su primera declaración el autor del terrible y repugnante crimen, que tan honda impresión ha causado entre los vecinos del valle de Gorosti.

## MAS DETALLES

Por la tarde llegó ayer a Eibar, procedente de San Sebastián, el Juez de Instrucción del partido judicial de Vergara, señor Barcáiztegui, que tomó nueva declaración a Santiago Serra, autor del crimen.

Este repitió cuanto hemos dicho añadiendo que después de cometido el delito y pasadas un par de horas durante las cuales permaneció oculto en el monte, comió un bocadillo en la taberna «Ondamendi», en donde convidó a cenar a varios amigos, quienes aun cuando se extrañaron de su esplendidez, no sospecharon que su dinero pudiera ser fruto de un crimen.

En poder del acusado se encontró toda la cantidad robada, excepto 60 pesetas que las había gastado.

En vista de que la indignación de los vecinos era tan grande que querían linchar al criminal, el juez, señor Barcáiztegui, ordenó que se trasladara a Santiago Serra en un coche celular a la cárcel de Vergara.

\* \* \*

(«La Voz de Guipúzcoa», 10.VI.1920)

## DESDE EIBAR

Continúan los comentarios sobre el horrible crimen perpetrado en la tarde del lunes en el caserío «Altzu», de cuyo suceso tienen conocimiento nuestros lectores.

El criminal se llama Santiago Larrea y no Serra como decíamos ayer por un error involuntario.



(1920)

**ANDOAIN'GO ALDAPE'RI**

1/ Erauskin'ek ojua,  
Andoain'go *Aldape*,  
izki batez alkarri  
egin gabe kalte;  
zuk zeinbat maratilla,  
nik ainbeste ate,  
diazunez lotatik  
esnatu gaitezke.

2/ Bigarren *Murumendi*  
artzen dezu autan,  
ez uste dagoanik  
gau ta egun lotan;  
ernai ikusten degu  
bost gautatik lautan,  
itz eingo du Pasaia'n  
igande onetan.

3/ Irugarrena berriz  
dezu *Txadon-zaia*,  
berau ezta Euskadi  
Amaren etsaia;  
jakintsu ta garbia,  
apal da lasaia,  
ori beste bat ainbat  
egingo da saia.

4/ Laugarrena diozu  
Gabiria'tarra...  
Zeori ez al zera  
gu bezin alperra?  
Ixeke egitea  
da gauza bat txarra,  
saiatu zuzentzera  
ein dozun okerra.

5/ Poz osoan bainago  
*Kirikiño'rekin*,  
bakarrik naiz *Aldape*  
zirikariakin;  
zeñek izpar geiago  
idaztera ekin,  
sinistu jarraitzeko  
dagola

*Erauskin.*

*Euskadi*, 1920.XI.7.

Agidanean, Erauskin'en gustoko izan etzan zerbait idatzi zuan an edo emen Andoain'go *Aldape* orrek, eta arek bertso auen bidez erantzun.

*Aldape* ori ez dakigu nor zan; *Txadon-zaia*, Astigarraga'ko Txomin San Sebastian zana zan; *Kirikiño*, berriz, Ebaristo Bustinza idazle ospetsua (1866-1929).

*Murumendi* eta *Gabiriatarra* nor ziran guk beintzat ez genekian, baiñan Erauskin'en seme Martinek onela esan digu:

«*Murumendi* Itsasondo'ko sakristau txikia zan, erri orretako sekretario, gure aita zanaren adiskidea. Beronek *Argia'n* idazten zuan. Taberna bat zuan Itsasondo'n. Oso gaztea nintzala, bein aren etxera joan nintzan, euskal jai bat ospatzeko, arek zituan leiotarako apaindurak gure etxean ipintzeko. Beronen izena, Jose Anjel Izuzkiza omen zan.

*Gabiriatarra* Gabino Murua zana izan zitekean. Onek ere *Argia'n* idazten zuan.»

Andik egunetara, 1920.XI.17'an, bertso oiek zakar xamarrak zirala idurituta, itz auek argitaratu zituan Erauskin'ek *Euzkadi'n*:

«Andoain'go *Aldape'ri*: Etzaitut ezagutzen. Pozez nago ezagutzeko. Datorren igandian uste det ortxen izango naizela. Asteasu ta Zizurkil'era juan bear det, or ere badauzkat ezagunak-eta, aspaldian itz aspertu bat egiteko naiturik; eta orruntza ezkerro etzaute zuek ere urruti. Jakin det zeradela gazte zintzo bat, eta nik uste nuan orko kopeta beltz itzaldun orietakoren bat asi zaigula illea artutzen. Bada nik egin nizun erantzuera ona kankallu onek! Ez ikaratu, ez; ekin idazten bildurrik gabe. Emendik aurrera ez dizu erantzungo kirtenkeririk *Erauskin Errotari'k*.»

(1922)  
**BERTSO BERRIAK**  
**AFRIKA'N GAUDEN EUSKALDUNAK**  
**JARRIAK**

- 1/ Bertso berriak jartzera goaz  
egiaz da borondatean,  
millaz gañera bederatzi eun ta  
ogei ta bigarren urtean,  
itz bat bakarrik tildatu gañe  
miliziaren kaltean,  
jakin zazuten nola gabiltzan  
metralla-txistu artean.
  
- 2/ Afrika'n gauden euskal mutillak  
jartzen ditugu bertsoak,  
ondo ikasi, neskatx da mutill,  
aitonak eta atsoak;  
emen semeak ill da or daude  
triste guraso batzuak,  
eskerrak geuri laguntzen digun  
Jaungoiko errukitsuak.

3/ Emen semeak illda or daude  
zotinka asko guraso,  
geureak ere gerta litezke  
modu orretan akaso;  
konpiantzarik geren buruaz  
iñola're ezin jaso,  
ordu askotan gertatzen gera  
biziaz etsita oso.

4/ Oroitzen zaigu aita ta amak,  
senide, parienteak,  
baita gañera ez gutxiena  
andregai kutun maiteak.  
Noiz irikiko ote diguzute  
zeuren etxeko atepak?  
Zuenganako amorioaz  
dauzkagu biotz beteak.

5/ Neskatz kutunak, egiten gera  
zubekin asko oartu,  
nai gendukena sano ta azkar  
zeuren aurrera agertu;  
zeruko Ama Erregiñari  
lagundutzeko agurtu,  
gutzaz etsita senarrik berriz  
belarri-motzik ez artu.

6/ Euskalerrian jaio giñaden  
garbi ta zintzo azita,  
askotan emen gertatzen gera  
geren biziak etsita;  
pultsu-indarrak goien ziranak  
barreneraño jetxita,  
Ernio'ko aitzak negar ein leike  
nola gabiltzan ikusita.

7/ Jaiotzea beste kulparik gabe  
au al geunden merezita?  
Morralarekin jarri zaizkigu  
bizkarrak ondo ezita;  
gertatzen bagera zori txarrean  
emen biziak utzita,  
esaten degu: «Mutillak, gaudek  
zerua irabazita!»

8/ Amak gosaria eman da iñoiz  
egiten giñion muziñ,  
nai izan arren orain guk ura <sup>1</sup>  
iñola billatu eziñ;  
emen ederki ikasitzen da  
jan da edaten edozeiñ,  
or txarra zala esandakoa  
orain guri nork janaziñ.

---

<sup>1</sup> Bertso-paperak: *naiz izan arren.*

- 9/ Batzuek berriz etorri ziran  
onuntza boluntario,  
orain Afrika'ri egingo lioteke  
pozik askorik adio;  
beren buruari ernegatuta  
artu diete odio,  
illdakoarentzat ollo salda ta  
botikak ez du balio.
- 10/ Mutil gazteak, zuentzat ere  
orra ejemplo bat ona:  
farrandak utzi, zintzo ibili,  
sobratu diru al dana;  
txorakerian or gastatu ta  
askok daukaguna pena,  
errukarri zebillek emen  
pezta bat ez daukena.
- 11/ Gure lagunak batzuek etxera  
emendik jun diranean,  
pozak zoratzen omen dabilta  
nola gau ta egunean;  
emengo ibiliz oartu baietz  
ordurikan geienez,  
mundu onetako zoriona guk  
orruntza gatozenez.

12/ Egunen batean zuetara gu  
sano etortzen bagea,  
zer litekean ez dakigu guk  
munduan ditxa ohea;  
zaputzik gabe jango ditugu  
taloa eta babea,  
izaizu arren gutzaz kupira,  
zeru ta lurren Jabea!

*Erauskin Errotariak*

Bertso-papera, «A. Zunzunegui. — *Beasain*»  
moldiztegiaren argitaratua, Donosti'ko Gregorio Mu-  
jika zanaren bilduman.

\* \* \*

Bertso auetzaz onela esan digu Erauskin'en  
seme Martinek:

«Oik saldu giñuzen Larraitz'en aitak eta biok.  
Anaia Ramon etzait gogoratzen. Guardiazibil bat  
etorri ta eskatu:

—*Dame uno.*

Nik amar xentimo eskatu ta arek eman.

Gero aitak:

—Ik guardiazibillari ere kobratu diok ba!

Ta nik:

—Zergatik ez nion kobratuko ba? Nik saltzeko  
neuzkan!

\* \* \*



Lazkao-mendi'ko Inazio Zurutuza Afrika'ko gerra ortan ibili zan. Andik etorrita, Erauskin'en alaba Nemesiarekin ezkondu zan eta aren sui biurtu. Inazio Zurutuza ori illa da. Argibide au, Erauskin'en seme Joakinek eman digu.

Bertso auek nola paratu ziran, ez digu iñork ere adierazi. Gure iritzirako, Inazio Zurutuza orren antzera gerra ortan ibillitako mutillen batzuek bertsoak jartzeko eskatuko zioten Erauskin'i, eta onek aien gustoa egin, eta an zebiltzan soldaduen izenean jarri ere.

(1922)  
**SABIN-ALDEZ**

Gau eta egun oartzen zaigu  
geure aita Sabin zana,  
eusko-aberria mirarrituz  
izendatutzen dutena.  
Ta nola ez Ama Euskadi'ren  
seme azkar ta zuzena,  
Sukarrieta'n lur onengaitik  
asnasea utzi zubena,  
ludi guztian sortu leiteken  
semerik argitsuena?

Geuk bear ainbat ezin goititu  
edo jaso ere naita;  
bazendekizu zenbat zaitugun  
seme illun onexek maita!...  
Oiu garbian deitzen dizugu  
euskotar guztion Aita.  
Argi bizia izandu baziñan  
gizon azkarra're baita.  
Argatik gora jaso nai zaugu  
gu euskotarrak gera-ta.

Txapela kendu burutik eta,  
idatzi-zale argia,  
fedez biziaz aitor dizugu:  
etziñan seme nagia.  
Gezurra sartu lurpera eta  
egia erakutsia,  
Aita Sabini aitor deiogun,  
noiz dator gure gogoa,<sup>1</sup>  
izan zalako sei laterrien  
piztale miragarria.

Ainbat ariñen jaso deiogun  
marmol gogorrezko arriz.  
Euskadi maite degun semiok  
opa diogu bost aldiz.  
Anei-aneika jungo giñake  
guztiok naitasun aundiz,  
eta pozikan anka gorrian  
edo arkaitz eta mendiz.  
Zori aundia bizi generala  
baldin zabalduko balitz!

*Ordizia'tik*  
*Erauskin Errotari*

*Euzko Deya* aldizkaria, 1922, II.

\* \* \*

Laugarren bertsoa, 1935.XII.8'eko *Argia*'n ere argitaratu zuan *Erauskin*'ek, Aldaketak: 4/1: Taiu bat ona jaso dezaiozun; 4/3: Ama Euskadi maite degunok; 4/5: ikertutzea joango giñake; 4/6: guztiok maitasun aundiz; 4/7: baita ga-

---

<sup>1</sup> Puntu au gaizki dago; *Erauskin*'ek etzuan ola jarriko.

ñera anka gorrian; 4/8: nola arkaitz eta mendiz;  
4/9: zer zoriona gu bizi gerala; 4/10: ori argi-  
tuko balitz.

Ta aurretik beste bertso au:

Geure aita Sabin ez balitzaigu  
Euskadi piztera irten,  
nungoak eta zein giñan ere  
ez genduan guk jakiten;  
baita gañera urte gutxi barru  
oinpeko belarra jaten,  
ura bezelako semeak gutxi  
dira ludian izaten,  
orregatikan idatzitzen det  
guztiak jakin dezaten.

\* \* \*

Azken bertso au, *Argia*'ren 1934.XII.23'eko  
zenbakian ere argitaratu zuan; 5 eta 6'garren le-  
rroak aldatzen ditu:

beragatikan saia gaitezen  
zor zaion eskerrak ematen.

Eta beste bertso au ere bai:

Milla zortzireun irurogei  
eta bostgarren urtean,  
Ilbeltzak ogei eta sei  
zituan egun batean,  
gure aita Sabin jaio zanean  
Bizkai'ko Abando maitean,  
ark utzi zigun bide zuzenetik  
zintzo ibili gaitean.

\* \* \*

Sabino Arana'ri buruz beste bi bertso ere ba-  
ditu, *Argia'ren* 1931.XI.8'an argitaratuak:

Euskadirentzat izandua dan  
egunikan illunena,  
Jaungoikoak, ail, Sabini  
Beregana deitu ziona.  
Etsaientzako beste aldera  
txit zala pozgarriena,  
uste zuten andik aurrera  
berena zutela dena,  
orduan beziñ irmo daukagu  
iru margodatan ikurriña.

Jel ikurriña iru margodatan  
emen daukagu ederki,  
zuri ta gorri eta orleaz  
apainki eta indarki.  
Zer esan nai duan euskotar askok  
ori oraindik ez daki,  
orra idazten ni asi bada  
denak ikasteagatik,  
irakurrita gogoan izan  
orain eta gero beti.

\* \* \*

Ta *Argia'n*, 1934.V.20:

Jeltzaleak zintzoak  
baldin bagerade,  
bide zuzenetikan  
ibiltzea obe;  
aita Sabin Arana'k  
esana du au're;  
Euskadi ez askatzeko  
Jaungoikorik gabe.

Sabinen esan aiek  
nik daduzkat ontzat,  
abertzale egizkoak  
ala bear beintzat;  
euskotar denok izan  
Euskadiarentzat,  
baita Euskadi berriz  
Jaungoikoarentzat.

## EZPATA-DANTZA

Ezpata-dantza ludian danik  
dantzarikan garbiena,  
Zaldibia'ko seme Iztueta  
berau zuzendu zubana,  
aitortzen degu bazuala almena <sup>1</sup>  
Goiko Jaun onak emana.  
Dantza garbi sutsuena,  
Euskal-Errian bakar-bakarrik  
pozez ikusten deguna; <sup>2</sup>  
semetxoari au erakusten  
saiatu, aita eta ama,  
odeitu egiz al dana,  
asko alditan bai txit pozikan <sup>3</sup>  
begira egoten gerana,  
ankaz ta eskuz, ezpata, makillaz  
bizkor egin bear dana,  
zaituaz bere laguna;  
beroi laztantzen igarotzen zait  
jai ta aste, gau ta eguna,  
dalako dantza gartsuena,  
zori onekoa len orain beti  
dantza au izartzen duana.

Bertso luze au, Erauskin'en esku-idatzietan  
azaldu da.

<sup>1</sup> Lenengo idatzi zuana: *bazuan*.

<sup>2</sup> Lenengo idatzi zuana: *oroituz ikusten deguna*.

<sup>3</sup> Saiets batean idatzia: *aldi askotan txit pozikan*.

(1924)  
**BERTSO BERRIAK**  
**KEIXETA AIZKOLARIARI JARRIAK**

1/ Bertso berriak argitaltzeko  
oraintxen badet bidea,  
aizkolari bat daukagulako  
kontrariarik gabea;  
personari bai aitor deiogun  
daukan abilidadea,  
berrogei eta bi urterekin  
orren ajilidadea!

2/ Berau da Jose Aranburu ta  
deitzen diogu Keixeta,  
Azpeitia'ko Urreztillean  
jaio, azi, bai bizi-ta;  
gizon bizkorra eta aizkoran  
zalla, ondo ikasita,  
jokatutako apustu danak  
len dago irabazita.



- 3/ Uzkudun'ek beiñ premioetan  
eragin zion Gernika'n,  
ark ere orain ez jokatu nai  
orrekin apusturikan;  
zain dobletako gizona dala  
dago ezagaturikan,  
edozeñeri jokatutzeko  
ez daukana bildurrikan.
- 4/ Iaz Zumarraga'n itz egin zuan  
gizon prestuen moduan,  
anuntziatu zuten garbiro,  
guk irakurri genduan:  
erdi aukeran jokatutzeko  
iñor bazegon munduan,  
trebe zegoala edozein plazatan  
bati jotzeko ondoan.
- 5/ Orri jokatzeko gobernatutzen  
badira egonak aurrez,  
aizkoran egin saioak eta  
ondo jantzitzen indarrez;  
pentsatzen dute irabazitzen  
ez dala egongo errez,  
berrogei eta bi urterekin  
guztiak dauzka bildurrez.

- 6/ Alderik askoetara orrek  
egindu ditu azañak,  
ia aurrera egiten dituan  
lenago iñork ez añaak;  
ustez seguro egonagatik  
gertatzen dira eziñak,  
reuma-aiderik ez daukatela  
orren gorputzeko zañak.
- 7/ Kalanbririkan ere ain gutxi  
beso, belaun da gerriak,  
ikusten danez orren almenak  
ez daude oso urriak;  
lau kanakotan markik aundiña  
jarrita Atxunberria'k,  
seme jatorrak azitzen ditu  
Azpeitia'ko erriak.
- 8/ Ezkondu eta familiako  
guraso egonagaitikan,  
ezagutzen da ez dagoala  
txit galdua alperrikan.  
Asko bezela baldin balego  
naiko txuleta janikan...  
Munduko lurak ez du mantentzen  
gizon bizkorragorikan.

9/ Taloa eta babea janez  
basoan askotan lanean,  
bazkarien bat noiz edo biar  
ferira datorrenean;  
berrogei ta bi urte beteta  
dabil irugarrenean,  
aizkoran ez du iñork jarri nai  
jokutzen aldamenean.

10/ Merezi duan persona bati  
zabaldutzearren fama,  
pentsatua naiz kantak jartzera  
dala gauzarik onena;  
mundu guztiak maitatutzen du  
ondo portatutzen dana,  
siglo batean gogoanko du  
Keixetaren aitormena.

11/ «Iñork ez daki oraindik zenbat<sup>1</sup>  
Keixetak egin lezaken»  
gizon askori entzuten diet  
ari dirala esaten;  
edade ortan orrelakorik  
ez dago eta izaten,  
nik bertsoetan zabaldutzen det  
munduan jakin dezaten.

---

<sup>1</sup> Bertso-paperak: *zenbait*.

12/ Ez dakiguna, apusturikan  
berriz jokatuko al dun,  
Jaun-Goikoa da betikoa ta  
gertatu leiteke galdun;  
berau egia dala ez dakit  
iñork sinistuko al dun,  
gaur Keixeta da eguzkipeko  
aizkolarien txapeldun.

*Erauskin errotariak*  
(1924)

*Iñork ateratzea debekatua dago jabearen bai-  
mena gabe.*

Bertso-papera, «*Beasañe'n A. Zunzunegire'n  
moldiztegia*» argitaratua, Donosti'ko Gregorio  
Mujika zanaren bertso-bilduman.

Firmaren azpiko zenbakiak, paperari eskuz  
idatzi ta erantsita daude. Bertsoak jarri eta pa-  
pera argitara atera zan urtea adieraziko dute.  
Izan ere, Keixeta 1881 urtean jaioa zan, eta, ala,  
1924'an gertatu bear bederatzigarren bertsoak  
diona:

berrogei ta bi urte beteta  
dabil irugarrenean...

\* \* \*

Keixetaren aitamenik izango da berriz ere li-  
buru ontan eta ari buruz zerbait esatea on izan-  
go da.

1931'eko *Argia'ren Egutegia'n*, arekin eginda-  
ko izketaldi bat argitaratu zuan *Iturri-txiki* izen-

goitia zuan batek. Izketaldi orretatik artzen ditugu onako auek:

«...Aratz-erreka'n begiak lenbizi argitu nituan. Azpeiti'ko baztar ezkutatu orixe makiña bat gizon bulartsuen sorterria izan da.»

«...basetxe au?

—Antxite basetxea da. Urrustil'ko parrokira egiten da. Ona etorri giñan eta emen bizi gera.»

«—Bañan, noiz eta nola asi ziñan aizkoran?

«—Aizkoraz, gazte-gazte nintzanetik, bañan aizkora-apustuan 21 urterekin lenbiziko aldiz jokatu nuan.

Aro artan, ikazkiñan aritzen nitzan eta gure artean eztabaida bat sortu ta Urrestil'ko plazan *Tobera Migel* ta *Praka-aundiren* aurka, tronko erdi bakoitzean aldatzen zirala «bikotea», jokatu ta irabazi egin nuan, Barrena'tar Galo alkate zela.

Ordutik aurrera aizkolari egiña nitzan. Laster asko, Bidani'ko *Beltza* esaten ziotenari, jokatu ta irabazi; ta gero, oso larri ibilli ondoren, Beizama'ko *Leundi*'ri irabazi egin nion.

—Noiz artu zendun zure jokalari-bizitzan pozik aundiena?

—Pozik geien eman zidan apustua, 30 urtekin jokatu nuan Beizama'ko Joxe Mari *Iruria*'ren aurka. Beizamatarrak kana erdiko 19 tronko ta nik 20 ebakiko nituan. Ondoren, 121 bira zezen-plazan edo 14 kilometro inguru lasterkatuko giñuzen. Ura izan zan apusturik ospatsuenal! Azpeiti'n jokatu ta irabazi egin nion.

Geroztik, iñori etzaio bururatu nik orduan egin nuen marka zapaltzea.

Gero 42 urte nitula...

—Baña bitarte orretan aizkorari utzi egin al zenion?

—42 urte nitula beste ekiñaldi bati asi nion. Aia'ko Txikia'ri, Mendaro'ko Kortaberri'ri ta Aia'ko Aundia'ri, denari irabazi.

«—Ta zer egin zenduan besoarekin?

—Oraintxe dirala lau urte inguru, —ez geldirik egotearren nunbait— zerra baten ari nintzala lanean, eskuiko eskuko bost beatzak ebaki zizkian eta, jakiña, elbarritu egin nintzan aizkorako.

—Ez zearo orratik.

—Asko, asko. Iñork uste baño geiago. Alare geroztik jokatu izan ditut apustu ospatsu batzuek. Bat, Azpeiti'n, 6 tronko ebaki ta 70 bira bertako zezen-plazan egitera, 46 urterekin eta 27 urteko *Agartza* aizkolari onenetakuen aurka eta irabazi egin nion.

Bestea, orain urte bete inguru *Ezkurre* Napparro'ko aizkolari onari jokatu nion Tolosa'n eta baita irabazi ere.

—Zenbat apustu galdu dituzu?

—Dirua eginda jokatu dituan guziak irabazi ditut.

—Zenbat aldiz jokatu?

—Bost aldiz jokatu-ta iru aldiz galdu premiuetan. Lenbizi, Gernika'n, Uzkudun'i; Deba'n bikoteari, ta Azpeiti'n Zapata'ri ta Antxixi'ri (bikoteari). Donosti'ko Eusko-etxean, bi aldiz lenbiziko saririk gabe gelditu.»

(1924)  
**BERTSO BERRIAK**  
**SAN FERMIN GLORIOSOAREN BIZITZARI**  
**JARRIAK**

1/ Erregu askoz beartu naute  
kanta batzuek jartzeko,  
Naparroa'ko seme San Fermin  
gloriosoarentzako;  
religioso egiazkoak  
pozikan daude artzeko,  
fede gabeak ikasi eta  
sinismenean sartzeko.

2/ Aita San Fermin Naparroa'ko  
Iruña'n zana jaioa,  
San Saturninok kristau egiñaz  
eman zion bataioa;  
Jesusentzako izandu zuan  
zorrotza amorioa,  
il zan ordutik argaitikan da  
bere ondora igoa.

3/ Firmo aita, Eujenia ama,  
San Ferminen gurasoak,  
izan zeitezken aundienetako  
kristau relijiosoak;  
egiten zituzten gau eta egun  
zintzo asko errezuak,  
baita eskaiñiaz Jesus onari  
beren bizitza osoak.

4/ Aita San Fermin milagrosoa  
Naparroa'ko semea,  
zintzo eta umil ibiltzen zana  
gurasoen esanea;  
ereje asko biurtu zuan  
Jesus zan sinismenea,  
guztion Aitak argaitik dauka  
artuta aldamenea.

5/ Saturninoren kapiladuak  
zuban Onesto izena,  
Frantzia'ko Tolosa'n jaioa,  
Iruña'n bizitzen zana;  
Firmo eta Eujeniaren  
etxera bildutzen zana,  
Jesus nola zan San Ferminari  
erakutsitzen ziona.



- 6/ Emezortzi urte zituanean,  
Frainzia'ko Tolosa'n,  
apaiz egiteko estudiatzen  
San Fermin gogoz asi zan;  
seme argi eta azkarragorik  
iñun etzeikean izan,  
urte gutxi barru Jesukristoren  
ministro digno egin zan.
- 7/ Izkin tokitik predikatutzen  
txit zan miragarritua,  
aditu eta gelditutzen zan  
mundu dana arritua;  
Jesus nola zan sinismenean  
milla asko jarritua,  
laister autu zuten Iruña'rako  
obispo konsagratua.
- 8/ Bear ainbat apaiz Iruña'n utzirik  
egiazko borondatean,  
joan da asi zan predikatutzen  
Anserni Anjers partean;  
Beauvaisés'en lotuta preso  
sartu kartzela batean,  
etzuten atera gobernadore  
angoa il zan artean.

9/ Atera zuten gobernadore  
gogor ura il zanean,  
Normandi eta Amiens'en  
berriz asi zan lanean;  
milla ereje gonbertitutzen  
zituala egunean,  
jaungoiko faltso gezurrezkoak  
bildurturik aizkenean.

10/ Sendatzen zituan gaixo zeudenak  
nola eri elbarriak,  
biurtu ere Jesusen alde  
gaizto kruel biurriak,  
era onetan argiturikan  
milagro arrigarriak;  
jakin zuanean, beregana deitu  
ango gobernadoriak <sup>1</sup>.

11/ Galdetu zion: «Zeñen izenean  
egiten dezu oinbeste lan?»  
Erantzun zion: «Jesusenean,  
iñola ezin bestelan.»  
Orduan ere gizon gaiztuak  
baziran orain bezelan,  
San Fermin berriro sartu-azi zuan  
illuneneko kartzelan.

---

<sup>1</sup> Bertso-paperak: *gobernadoreak*.

12/ Bañan Jaun-Goikoak bialdu zion  
pozgarrizko aditzera:  
«Egin dituzun lanarengaitik  
Nik sariatua zera;  
martirioaz irabazitako  
korona zatoz jartzera!»  
Agorrillaren ogei ta bostean  
gertatu zan agertzera.

13/ Rizerio Barok agindu zuan  
kartzelan mozteko lepoa,  
iñoren bistan kenduta bildur  
irtetzen alborotoa;  
illoztu eta ala utzi zuten  
San Fermin gizarajoa,  
Amiens'eko San Anjel elizan  
gorputza izkutatua.

14/ Urte askoan arrata aundiz  
egiten ziran saiatu,  
jakin nairikan arren gorputza  
nun ote zan enterratu;  
obispo Salbiok San Fermin zuan  
milagro aundiz topatu,  
Amiens'ko San Anjel elizan  
gaur egiten da gertatu.

15/ Uztaillaren zazpian degu  
geure San Fermin eguna,  
ondasun eske kristau fielak  
millaka biltzen gerana;  
Naparroa'n dago eliza asko  
San Fermin izen duana,  
Azkarate'koa da guztietan  
altsu miragarriena.

16/ Jesusek eskura artu gaitzala  
aizken orduko garaian,  
San Migel ere goi-aingerua  
zaindari daukagu goian;  
oieri eskatzen bizi guztian  
saia gaitzan atalaian,  
agur, San Fermin, guzaz oroitu  
Josepetako zelaian.

*1924'an Erauskin Errotariak*

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Orendain'go Juan Garaialde'ren eskutik jaso.

\* \* \*

*Argia*'k ere argitaratu zituan bertso auek:

1933.IX.3'an, lenengo bertsoa. Aldaketak:  
1/1: Erregu askoz beartzen naute; 1/4: begiragarri arentzako; 1/5: erlijioso egiazkoak.

1933.IX.17'an, 2, 3, 4 eta 5'garren bertsoak.  
Aldaketak: 3/3: izan ditezken aundienetako;  
3/5: egiten zituen gau eta egun; 3/6: zintzo

otoitz errezoak; 4/5: ereje asko biurtu zituan; 4/7: guztion Aitak orgatik dauka.

1933.X.1'an, 6, 7, 8, 9, 10 eta 11'garren bertsoak. Aldaketak: 6/3: apaiz egiteko adieratzen; 7/2: zala begiragarritua; 7/4: ozte dena arritua; 7/6: aneika asko jarritua; 7/8: gotzaia konsagratua; 8/6: sartu espetxe batean; 9/2: gaizto ura il zanean; 9/5: milla gaizki egille onbidetuzen; 10/5: era onetan argitalduaz; 10/6: egikera arri-garriak; 10/8: gobernadore berriak.

1933.X.22'an, 12, 13, 14, 15 eta 16'garren bertsoak. Aldaketak: 12/4: nik saritua zera; 12/6: korona zorrotz jartzera; 13/1: Rizeriobarok agindu zuan; 13/2: espetxean mozteko lepoa; 13/8: gorputza lurperatua; 14/5: gotzai Salbio'k Deun Fermin zuan; 14/7: Amiens'ko San Migel elizan; 15/2: geure San Fermin'en eguna; 16/7: agur Deun Fermin, gutzaz oroitu.

(1924)

**GORA GURE EUSKALERRIA!**

- 1/ Biotza daukat beti eskari  
arren gogoartzeko,  
illunpetako euskotarra  
argi-izar bat jartzeko;  
ingi onetan oju garbia  
euskaldun guztiontzako,  
zapuzkeria baztar utzita  
Amarengana biltzeko,  
atzeritarrak gu bizirikan  
dabiltza lurperatzeko.
  
- 2/ Orra zuentzat, anai-arrebak,  
neure ongi etorria,  
Amarengana maite biltzea  
zer gauza miragarria!  
Banakatuta gabiltzalako  
daukagu negargarria,  
lenago ere argatik dago  
arrotzen mende jarria,  
Jaungoikoari besteri zorrik  
ez dion Euskalerria.

- 3/ Gauza bearrak emen garbiro  
nai ditut adierazi,  
ez dakitenak bear luteke  
irakurri ta ikasi:  
aita eta amak seme jatorrak  
egiten dituzte azi,  
ta etxerako onak dirala  
gañera berriz ikusi,  
aiek bialduta morroia nola  
jarri etxeko nagusi?
- 4/ Morroia etxean nagusi eta  
semeak joan bearra,  
era onetan bialdu zuten  
jatorrizko Lege Zarra.  
Anaitu gaitzan euskotar danok  
artu dezagun indarra,  
gañerakoan jatera gatoz  
gure oin azpiko belarra,  
au ikusita arkaitz biziak  
egin lezake negarra.
- 5/ Nekazariak arto-gariak  
soroan ditu egiten,  
aiengatikan saldu-tokitik  
asko jan eta edaten;  
gutxireneaz etxogin bear  
zortzi-beratzi illabeten,  
eldutakoan jarritzen ditu  
metan denak larrain baten,  
nola arrotzari utziko dio  
aiek andik eramaten?

6/ Gure Gipuzkoa'k izandu zuan  
urte oroigarriena,  
edestiak dio millaz ondoren  
zala berreungarrena,  
Urriak ere zuala berriz  
zortzigarrengo eguna,  
Naparroa'tik aldendu eta  
Gaztela'ra jarri zana;  
ikasi eta gelditu bedi  
lenago etzekiena.

7/ Naparra utzita bera joan zan  
Gaztela'rekin jartzeko,  
Alonso errege zortzigarrena  
pozik zegoan artzeko;  
Mondragoi'eko erri ederra  
gauza erabakitzeko,  
bañon ark guri ez agintzeko,  
ain gutxi ikututzeko,  
gañerakoan guk nai bezela  
erara gelditutzeko.

8/ Erabaki ura asko alditan  
guk degu irakurritzen,  
ez dakitenak entzundakoan  
guztiz dirade arritzen;  
degun gogoia oso ez bazaigu  
beintzat erabat urritzen,  
illunpetako gazte guztiak  
alegin gaitzan argitzen,  
Gaztela erriko erregek guri  
etzigun ezer agintzen.



9/ Milla lareun larogei ta bian  
Gipuzkoa'k inglesakin  
amar urteko anaitasuna  
artu zuten alkarrekin;  
oek gudarik izan ezkeru  
Gaztela'ko erregekin,  
Gipuzkoa'rik ez irtetzeko  
arengana berorrekin,  
or agertzen da erregek nundik  
agintzen zuan gurekin.

10/ Gauza bearrak erakutsitzen  
saiatzen gera alegiña,  
euskotar onak poz artzen dute,  
txarrarentzako da miña;  
guk ez dakigu zergatik duten  
oiek orrelako griña,  
aurrera ere egingo degu  
izketa beti berdiña,  
ordun bezela lege zarraren  
mendean egon bagiña!

11/ Milla berreungarren urtean  
batu giñan Gaztela'ra,  
milla irureun ta ogei ta amabian  
urrena berriz Araba;  
milla irureun ta irurogei ta  
emeretzian Bizkaia,  
milla bosteun eta amabian  
azkenekoa Naparra,  
bañon erregek ez egiteko  
ikututxo bat bakarra.

- 12/ Milla zazpireun ta larogei ta  
bederatzian Prantzia  
etorri zan Zuberoa ta  
gure Laburdi kentzea;  
indar andia ark zeukalako  
etsai gaiztoen antzea,  
Gaztela erriko errege gutxi  
azaldu zan laguntzea,  
ura guretzat ezer etzala  
or dago ezagutzea.
- 13/ Milla zortzireun eta ogei ta  
emeretziko urtean,  
Urriak berriz ogei eta bost  
zituan egun batean,  
atzerritarrak lau onuzkoak  
lotu giñuzten katean;  
orain argatik agintzen dute  
arrotzak gure artean,  
euskotar danok anaitu gaitzan  
ortik askatu gaitean.
- 14/ Soldaduzka ere jarri ziguten  
berrogei urte barruti,  
Euskalerrria etsai batzuek  
etzuten asko erruki;  
emengo umeak orain argatik  
joaten dirade urruti,  
lenago berriz ez giñadenak  
irtetzen geren lurreti,  
negargarri au sortu zitzaigun  
bi gizon salduengati.

15/ Zarrak erdiak daude logale,  
gazteak esnatutzeko,  
alegin guztik bear ditugu  
euskaldunok anaitzeko,  
gerok nai degun aldun zintzoak  
epai onetan jartzeko,  
jatorrizko gure aginteak  
Amarengana ekartzeko;  
bildur da lotsa zeñek biar du  
bere gauza eskatutzeko?

16/ Eusko-erriari zer egin zioten  
gure Jaungoikoak daki,  
nik beti berdin entzuten diet  
bai ogeiri ta bai bati;  
lau seme gaiztok lurra jo arte  
arrunt nai digute jarri,  
bañon maiteok jaso nai degu  
len zan bezela gañeti,  
gora euskotarron anaitasuna  
orain, gero eta beti!

*Erauskin Errotariak*  
(1924)

Bertso-papera, «*Tolosa'n E. Lopez'enean*» argitaratua, Donosti'ko Gregorio Mujika zanaren bilduman.

Bertsoetatik ez da argibiderik ikusten, sail au noiz jarria dan somatzeko. Baiñan egillearen firmaren azpian, eskuz idatzita, onela esaten da: 1924. Seguru aski, Mujika'k berak idatzia izango da eta ontzat ar dezakegu. Mujika'k noiz eskuetaratu zuan esan naiko du.

Beste argitaraldi bat, moldiztegi-izenik gabea,

Aia'ko J. Telleria'ren eskutik jaso genduan. Aldaketak: izenburua: Gora Euskadi!; moldiztegi-utsegite bat edo beste; eta 14/10; bi Karlos Borlonengatik.

Argitaraldi ori bera, Alegi'ko Rikardo Intxausti txistularia zanaren bilduman ere agertu da. Onek ere badu bere eraskiña: 22 Sept. 1932. Intxausti'k paper ori bereganatu zuan eguna adieraziko du.

Beste argitaraldi bat, «*Imprenta Macazaga — Rentería*». Onek, aurrekoak bezelaxe bertso guziak. Ez nuan apuntatu zeñi jaso nion.

«*Bertsolariya*» aldizkaria, 50'garren zenbakian, 1932.VIII.28. Aurrekoak bezelaxe, bertso guziak.

\* \* \*

Erauskin'en libreta batean, eskuz idatzita, sail ontako zenbait bertso agertu dira, beste gisa batez eratuta. Libretak lenengo orria falta du eta irugarren bertsoetik asten da, baiñan ori ere ez osorik:

orain Euskadi jaso nai nuke  
.....izarretaraño, (1)  
zer da itxumen gogorragorik  
Ama ukatzea baño?

Urrena, 1931'an *Gora gure Euskal Erria* izenburuarekin argitaratu zuen 12'garren bertsoa, aldaketa onekin: bera euskadiatarra.

Ondoren, bertso berri bat:

---

<sup>1</sup> Lenengo itza ez degu ongi irakurtzen; *oroik* edo olako zerbait dio, baiñan orrek zer esan nai duan ez degu ulertzen eta puntuz idatzi degu.

Ama Euskerari seme etsaiak  
jo ain zioten barrena,  
gorroto nola ez du izango  
olako senide txarrana?  
Nik esaten det gauza oriek  
Amari egin ziona,  
deabruakin mutur-joka bat  
egin dezala aurrena,  
inpernuako leizean sartu  
gero betiko urrena.

Urrengo, sail ontako 3 eta 4'garrena, aldaketa  
auekin: 3/1: Asi naiz eta bear diran gauzak; 3/3:  
ez dakianik baldin badago; 3/4: ondo aituta ika-  
si; 3/5: aita amak seme ondraduak; 3/9: aiek  
bialduta arrotz bat nola; 3/10: jarri etxean na-  
gusi. 4/1: Arrotza etxean nagusi eta; 4/2: semiak  
aldendu bearra; 4/3: onela bada biraldu nai du-  
te; 4/4: gure jatorrizko lege zarra; 4/5: alkartu  
gaitzan euskotarra; 4/8: oiñ azpiako belarra;  
4/9: au ikusita arriak berak.

Gero, 13'garrena, baiñan oso aldatuta eta bi  
lerro geiago dituala:

Milla zortzi eun ogei eta  
emeretzigarren urtean,  
Urriak ogei eta bost  
zituan egun batean,  
euskal erriak lendabiziko  
sartzen asi ziran lurpean,  
seme etsaiak zeuzkelako  
asko beraren tartean;  
oien kupiraz ez iñor egon  
zakurrik bada katean,  
ez dezatela arrotzak agindu  
gure etxeko atean.

14'garrena urrengo, baiñan oso aldaturik au  
ere:

Gero kintak ezarri ziguten  
berrogei urte barruti,  
seme etsaiak Ama Euskera  
etzuten asko erruki;  
neroni ere izandu nintzan  
emendik oso urruti,  
Madril'dik artu ninduen  
da Cuba'raño aurreti,  
gaizto batzuegatik majiña batek  
nozitu degu larruti.

Ondoren, bi bertso berri:

Kondairak dio gure aberriak  
dituala sei laterri,  
Gipuzkoa, Bizkaia, Araba, Naparra,  
Zuberoa ta Laburdi;  
aizkeneko bi oriek zirala  
frantzesaren mende jarri,  
beste lau oek nastu-azitzen  
etsaiak badabiltz larri,  
baño nor bagerade gureak daude,  
eutsi euskotarrak alkarri,

Gure biotzak ez badirade  
erabat biurtu arri,  
anai leialak, al dan guzia  
eutsi deiogun alkarri;  
gerok zaitzekoak jatorrizkoak  
badauzkagu sei laterri,  
beragatikan Ebro lurrean  
muga on bat zuten jarri,  
arez auzkoak guri aintzera  
ez ditezela etorri.

Bi bertso auek, 1932.XII.8'an ere argitaratu zituan Erauskin'ek *Argia'n*; lenengoa, aldaketa auekin:

1/2: Edestiak dio gure Euskadi'k; 1/6: Frantzia'ren mende jausi; 1/7: lau onuzkoak nastu artean; 1/8: etsaiak larri; ta bukaerako bi le-roak falta dira.

Ta bigarrena oso aldaturik:

Euskotarrak, anai-arrebak,  
egutsi deiogun alkarri,  
gure biotzak ez badirade  
erabat biurtu arri.  
*Ernaizu* jauna besarkadatzea  
neure biziko pozgarri,  
itz ori ondo bete naikoa  
ni *Erauskin Errotari*.

*Ernaizu* ori, Etxarri-Larraun'go berri-emalea zan *Argia'n*, eta ari bixita bat egiteko asmotan zan Erauskin.

Ta, azkenik, 1930'an argitaratu eta *Ama Euskerari jarriak* izena duan bertso-sortaren 14'garrena, aldaketa auekin: 14/1: Erdalduna're gu bezela da; 14/3: eta askotan etortzen dira; 14/4: geronen aldamenea; 14/7: jaiotakoak bearra badu; 14/8: saiatu nai al danea; 14/9: bañon agintzen ez emen utzi; 14/10: dijoatzela berenea.

(1925)  
**BERTSO BERRIAK**  
**BI AIZKOLARIARI JARRIAK**

- 1/ Kantak argitaltzeko  
artua naiz berri,  
berrak diradela  
nunbait igarri,  
gipuzkoar bi gizon  
aizkolariari:  
Aia'ko Txikia ta  
Jose Keixetari;  
desafioak sarri  
papeletan jarri,  
biak naita larri  
alkar dute neurri;  
orain ere Keixeta  
irabazlari.



2/ Milla bederatzi eun da  
ogei ta bostean  
Jesus jaio zanetik  
gauden urtean,  
Otsaillak ogei ta bi egun  
zituan batean,  
aizkol-apustua zuten  
Gipuzkoa partean,  
Zarautz erri maitean,  
gizonez betean,  
plazako atean  
zein sartu tartean?  
Saiatu dira alkar  
ausi artean.

3/ Egun ospatsu ortan  
Zarautz'ko plazan  
eltxo-mordo erara  
jendea bazan.  
Atzaparrak betean  
billeteak dantzan,  
trabes egin gabeko  
gizonikan etzan.  
Biak esperantzan,  
oso segurantzan,  
ala ezagun zan,  
batek bear zuna zan;  
tongo egin dutenik  
ez leike esan.

4/ Biak dirade guztiz  
aizkolari onak,  
aitortzen diotegu  
euskaldun denak,  
beti ere txit ondo  
portatu diranak,  
argaitikan dauzkate  
orrelako famak;  
bizkorrak kemenak,  
indartsu almenak,  
ez azi txaldanak  
aitak eta amak,  
naiz-ta Keixetak urte<sup>1</sup>  
geitxo joanak.

5/ Azkar mozten dituzte  
aizkoraz trunkoak,  
nola kana erdiko  
naiz kanakoak.  
Seme bizkorrak egin  
zitian Jainkoak,  
ondo ikasiak eta  
indar aundikoak,  
zain dobletakoak,  
ez nolanaikoak,  
ain gizen flakoak,  
lirañentakoak;  
sarritan datoizkigu  
erretratoak.

---

<sup>1</sup> Bertso-paperak: *naiz-ta Keixeta urte*.

6/ Aiatarrak zeukan mundu  
dena arritua,  
oraindik ere asko  
ez urritua;  
askorekin irten da  
oso luzitua,  
bañan Keixetarekin  
galdu du pleitua.  
Zegoala goitua  
guk ala aitua,  
aurretik oitua,  
atzean geitua,  
aizkolariz Azpeiti'k  
dauka kreitua.

7/ Aizkolariena dauka  
Keixetak txapela,  
kantuz mundu guzian  
jakin dezela.  
Sinisten ez duanak  
proatu bestela,  
berrogei ta lau urtetan  
ez dago ustela;  
ikusten da ez dala  
gizona gexala,  
iñork ez bezela  
sartzen du ezpala;  
Jainkoak urte askoan  
bizi dezala.

8/ Nola esan aiatarra  
ez dala portatu,  
Keixetarentzat gutxitxo  
arren gertatu?  
Iñola ere txartzat  
ezin apartatu,  
orren kontra ziranak  
dute azertatu;  
asko ezertatu,  
eziñ gezurtatu,  
da egitzat artu,  
sinismena sartu,  
baita beti Azpeiti  
errespetatu.

9/ Aiatarrak etzeukala  
goitarran bildurrik  
aizkorarekin mozten  
trunko egurrik,  
periodikoz ta kantuz<sup>2</sup>  
ala iragarririk;  
guk ere artu eta  
bai irakurririk;  
ez dago erririk,  
au jakin bagerik,  
orain gelditurik  
denak arriturik:  
Keixetarentzat ez da  
iristen urrik.

---

<sup>2</sup> Arronka oiek kantuz ere zabaldu baziran, norbait-  
tek jarri ta bertsoak atera zirala esan naiko du.

10/ Berrogei ta lau urtetan  
familia azita,  
talentuz ez dagola  
bera jetxita,  
bere bizi-moduaz  
ain gutxi etsita,  
agurtu bear degu  
beti ikusita,  
egiñaz bisita,  
gauetik goizeta,  
aiarra ausita,  
ondo merezita;  
bikain portatu da ta  
gora Keixeta!

11/ Keixeta beti dabil  
gizonen antzea,  
oraindik apustu bat  
ez galdutzea!  
Orrekin bagendukan  
guk konfiantzea,  
bañan urte askokin  
dator balantzea.  
Pasa du trantzea,  
oraindik ontzea,  
kreituan geitzea,  
erretiratzea;  
obe luke geiago  
ez jokatzea.

12/ Ixildu ote dira  
betarran marrukak?  
Aspaldian etzeuden  
gutxi barruntak.  
Uste ez dan tokian  
jo ditu arrokak,  
bote okerra egin  
diete pelotak;  
orien burruntak  
ziraden galantak,  
aurretik erronkak,  
ondoren derrotak,  
orra egiak garbi  
Patxi Errotak.

1925 — *Erauskin errotariak*

Bertso-papera, A. Zunzunegi'ren moldiztegian—  
*Beasañen* argitaratua; baiñan noren eskutik de-  
gun ez genduan idatzi.

\* \* \*

Zarautz'en 1925.II.22'an jokatu zan apustu  
oni buruz, onela dio Iriarte'tar Joxe Luis'ek bere  
*Gure erri-joku nagusiak* liburuan:

«1925, otsaillak 22. Zarautz'ko Zinema pelota-  
leku berrian ospatu zan neurketa. Negu-giro' za-  
kar eta beldurgarri batek zigortu zuan eskualde  
au egun artan. Otzak eta etengabeko erasoaldiek  
aski eragozpen ezarri zizkieten aruntza abiatu  
ziran jokuzaleeri. Dana dala, iru milla ikusle bil-  
du ziran; artaraiñoko ikusmin eta griña sortarazi  
zuan joku onek!

Amairu urteren buruan apusturik erabakitzeke egon ondoren, 43 urterekin zijoan apustua jokatzera Jose Aranburu *Keixeta*. Aiatar aizkolari gazte ta bizkor bat zan erronka jaurti ziona: Leon Uegun. *Leon Txiki* ta *Aia'ko Txikia* bezela ezagutzen zan. Ordurako amaika garaipen bikain eskuraturik zeuzkan, *Santageda* zaarraren gain aipagarriena. 1 m. 70 eta 75 kilo, *Keixeta*'ren aldean giza-txikiko aizkolaria zan. Ostera, 28 urte besterik etzitian. Eta sasoirik onenean aurkitzen zan. Ainbesterañõ ere, aalik-eta lanik astunenak ezarri zituan bere aldetik.

Arreta aundiko jokua zalarik, egundaiño ez bezelako gertuera egin zuen *Keixeta*'k. Lekunberri'n egon zan, bein eta bider. Emen aurkitzen zan, egurrak aukeratzera joaterakoan. *Atxumariya* joan zan bere orde, Leon Uegun alde-menean zularik. Baso beretik artzekotan eratua zan apustua. 12 *kana-erdiko* ezarri zituan *Keixeta*'k. 6 *oinbiko* *Uegun*'ek. Onen alegiñak zugaitzik trakets eta gaiztoenak lurreratu nairik! Korapilloz eta arabegiz estalitako aietxeri botatzen omen zion begia, alajaiña! «*Aizu, Jose Martin! Onoko auxe ere eratxiko nuke ba... Eta arako barreneko ura ere...*» *Atxumariya*'k, berriz, etzion iñolazko eragozpenik ezartzen: *Bota, bota! Iretzat onak baldin ba'dira, guretzat ere ez dituk txarrak izango!*» Orixe bai, ba'da ezpada ere, zugaitz gaizto aietako bat geiago bota zuan, berekin Lekunberri'ra eramateko asmoz. Bere zailtasuna ta zimeltasuna ongi egizta zitzan *Keixeta*'k alegia.

Etzegoan ezpairik. Aurkari zaarra izorratzeko leiaz zebillen aiatar argia. Eta orixe zerizkion egokiena: egur gogorrak plazaratzea. Gero izango ziran komeriak! Dema amaitu ondoren, one-

la mintzatu zitzaion *Keixeta*: «Leon! Ondo zegok kontraioa izorratzea, baiña urrengorako ez adi aaztu, euk ebaki egin bear ditukela plazaratzen ditukan egurrak.»

Beñere baiño obeki zaildurik zijoan *Keixeta*. Ara nundik, ordea, azken orduan kutsapen zital batek sukarretan jarri zion burua. Bere aldetik, eskua loturik aurkeztu zan *Aia'ko Txikia*. Ebaki hat babesteko noski. Ala ta guztiz ere, aizkolari biak presturik zeuden apustua ospatzeko. *Atxumarriya* zan azpeitiarraren erakusle. Gorriak eta bi ikusarazi zizkioten Aratz-Erreka'ko txapeldunari ondoezak eta, batez ere, egurren geiegizko gogortasunak.»

\* \* \*

Rafael Agirre'k, bere *Juegos y Deportes Vascos* liburuan, txeetasun au ematen digu:

«*Durante la prueba, para reanimarse, Chiquito de Aya*» bebió enormes cantidades de café y coñac, que rechazó de plano «*Keixeta*», a pesar de la intensa fiebre que padecía.»

\* \* \*

Iriarte'tar Joxe Luis'ek, beste argibide au emanda bukatzen du:

«*Aia'koak* iruzur egin zuan otsak zabaldu ziran. Norberari punterak botatzeraiñoko indarra artu zuten zurumurrak. Onela zirikatu zuan *Kortaberri I'k*: «Leon? Gaurko ontan arrantzuan egin dek!» Eta besteak zorrotz erantzun: «Joan adi i ere! Eta egingo dek arrantzuan *Keixeta'ren aurka* jokatzen baldin ba'dek!»

\* \* \*



*Argia'k*, berriz, 1925.III.1'an, idazlan eder au argitaratu zuan aizkol-apustu oni buruz:

## AIZKOLARIAK KEIXETA - AIA'KO TXIKIA

Aizkolari-burruka guziak zaletasun aundia sortzen dute baserritarren artean, baña, arraioa, lengo igandean Zarautz'en jokatu zanak, baserritarrek ezik kaletarrak ere mugitu gaitu.

Bultzi, beribil, gurtarin guziak gutxi ziran ara juan nai zuan jendea eramateko, ta aizkoraketa asi baño ordu bete lenago, apustua jokatu bear zan tokira sartu giñanean, arrituta gelditu giñan: lepezurreraño beteta zegon! Sarrerik merkeena lau laurlekokoa zan gero! Amaika txakur txiki sartu zizkiteken patrikan eratzalleak!

Zutik eta era txarrean egon bear genula ikusi arren, ez giñan aserretu; ain atsegin zitzaigun alde guzitan euskera besterik ez entzutea! Abarkadun baserritar artean estu samar egonarren, ez genun gure «kartera»-gatik bildurrik izan.

Jendea, itxuraz, Keixetaren alde zegon. Lengo astean Txikiaren eskua dala ta ezkala ainbeste berriketa ibilli ezkerro, nai-ta-naiez ala egon bear. Guk gure kezkatxoa bagenun ala ere.

Dirua, gu sartu giñanetik aizkoraketa asi zan arteraño: Keixeta-ren alde 10-7'ren eta Txikiagatik 6-10'i.

\* \* \*

Amabiak laurden gutxiagotan azaldu zan Keixeta, txalo ta oi u batzuek entzunaz, eta andik amabi minutura sartu zan Txikia, «saludo» piñe-

gia egiñik txalo egin ziotenai. Bien sarrera, beren aizkora dizdikorrakin, oso atsegingarria.

Keixetak bosteko eskeñi zion, eta Txikiak arturik, alako tinkada bat eman zion besteak, era berean erantzunaz. Gure aldamenean, ori ikusita, Txikiagatik gaizki esaka jardun ziran. Arrazoiakin? Eztakigu, askotan eztana ikusten baidegu ba.

\* \* \*

Amabiak dira ta «leon-kastillo» Keixetak irabazi du. Oraindik ere beste ordu laurden bat beren apustu aurreko egin bearrak betetzen igarõ dute... ta azkenik orra biak, aizkora eskuan dutela, lenengo enbor gañean jarrita.

Keixetak, eusko aizkolarien oitura zarrari jarraituaz eta bere kristutasuna azalduaz, «Aitare» egin du. Txikiak, bera bakarrik goiko laguntzarik gabe naiko dala uste du nunbait. Ez du eusko aizkolaria ematen! Txapela buruan dula, «Aitaren» egin gabe, asteko gertu dago.

Orra... asi dira. Bi aizkorak kementsu dabiltz gora ta bera. Ezpal galantak dijuaz aidean aizkoraren zartada indartsuak ebakita. «Txiki orrek gerri miegia zeukak aizkolaria izateko!» «Ederki biguntzen dek orratik!» «Begira akiok, begira akiok zarrari: sasoi ederra zeukak oraindik!» «Ara, erdia ebaki dik! Ori, zarra, ori!» «Besteak eztik ba oraintxe asko paltal! «Ia, zarra, eldu... Ujuju... Ori dek!» Lenengo enborra berak ebaki du aurrena.

Bigarrena, irugarrena, laugarrena, bosgarrena, seigarrena ebaki ditu Keixetak. «Orain ikusiko diagu. Orain artean berak aukeratutakoetan ibili

baitek. Lodi oitan zer egiten duan orain ikusiko diagu.» Txikia ere eldu da zazpigarren enborre-ra, Keixetak erdia ebakita daukan garaian. Onek iru bat minuturen aurrea darama. «Oraindik lan luzea zioak eta gaztea lasaiago dagon itxura ematen zioat». «Etzazula uste; zarrak golpe bakana goa ematen du ta... eutsi egingo dio.»

Keixetak enbor lodiak bota ditu ia; apustu erdia egiteko bakarra palta du. Dirua oso erori da: 80-11'ri oju egiten entzun degu. Ara... Txikiak bizkor aldia du. Keixetaren aurre edo bentaja laburtzen ari da. Azkeneko enbor lodiak lanak eman dizkio... Bañan azkenik amaitu du ta berriro enbor metara dijua, geiago galduko ez-tuan aurrea artzera.

Keixetak erdia 52'10''an bota du.

Txikiak erdia 57'15''an.

Erditik aurrera Txikiak alegiña egin arren, aurrea geituaz dijua Keixeta ta berdiñera etorri dan dirua atzera erori da.

Aiarrak 15'garren enborra, urrestildarrak baño amar minutu beranduago amaitu du, ta, oraindik beste bi enbor me palta ditun arren, bere azken saioa lodi batekin egin niaz lodienari ekiten dio. Erdia ebakitzeko zazpi bat minutu igaro ondoren, esku aiekin geiago ezin lezakela esanaz, aizkoraketa uzten du, Keixetari eskua emanaz. Ordu bete ta ogeitamairu minutu ziran, eta Keixeta 19'garren enborrean ari zan. Onek txalo aundiak entzuten ditu, bere lanari lasai jarraituaz.

Bi ordu ta zazpi minutu ta erdi inguru egin zituan irabazleak lan osoa amaitzen. Gora Keixeta!

Batzuek ziotenez, Txikiak jarraitu balu, Keixeta erori egingo omen zan. Txikia bera erori ezin leikena ote da ba?

Enbor bakoitza ebakitzen zer asti igaro zuten jakitea ona izango da, aizkoraketa zer izan zan igarritzeko:

|        | Keixetak        | Txikiak                                     |
|--------|-----------------|---|
| Meak   | 1: 1' 40"       | 2' 17"                                      |
|        | 2: 2' 28"       | 2' 58"                                      |
|        | 3: 2' 30"       | 2' 45"                                      |
|        | 4: 2' 29"       | 2' 40"                                      |
|        | 5: 2' 33"       | 3' 10"                                      |
|        | 6: 2' 25"       | 3' 5"                                       |
| Lodiak | 7: 6' 45"       | 7' 5"                                       |
|        | 8: 6' 40"       | 9' 10"                                      |
|        | 9: 8'           | 8' 40"                                      |
|        | 10: 7' 43"      | 7' 58"                                      |
|        | 11: 8' 57"      | 7' 27"                                      |
| Meak   | 12: 3' 45"      | 4' 10"                                      |
|        | 13: 3' 45"      | 4' 10"                                      |
|        | 14: 2' 55"      | 4' 30"                                      |
|        | 15: 3' 10"      | 5' 45"                                      |
|        | 16: 3' 30"      | 7' 10"                                      |
|        | 17: 3' 15"      | (Lodi baten erdia ta utzi, Txikia erorita.) |
| Lodiak | 18: 8' 50"      |   |
|        | 19: 10' 10"     |   |
|        | 20:             |   |
|        | 21: 36' inguru. |   |
|        | 22:             |   |

(1925)  
BERTSO BERRIAK  
AZPEITI'KO AIZKOL-APUSTUARI JARRIAK

1/ Katak jartzera noa  
aizkol-apustu bati,  
zenbaitek trabesean  
sartu bear beti;  
irabaziak poza,  
galtzalleak petri,  
erakusmen au denok  
gogoan eduki.

2/ Milla bederatzi eun da  
ogei ta bostian,<sup>1</sup>  
aizkol-apustua zan  
erri Azpeitia'n,  
gañera Maiatzaren  
egun amazpian;  
gogoan izango det  
nik bizi guztian.

---

<sup>1</sup> Bertso-paperak: *bostean*.

3/ Keixeta proatzeko  
asko ziran larri,  
bañan zenbat aiña dan  
iñork ezin neurri;  
orra irabazi bada  
Kortaberri'ari,  
aiatarra dan baño  
gogorragoari.

4/ Aiatarrak Zarautz'en  
egin zuala tongo,  
kaskagor da temoso  
ugarik esan do;  
Keixeta geigo dala  
agertu da ondo,  
galduak alperrikan  
ipurdian min do.

5/ Lenengo daukatena  
galdutako pena;  
urrena okarrena:  
amorratzen tema;  
orra arrazoia  
garbiro etena,  
urte bat geigo bezela  
iaztik aurtena.

- 6/ Trabesean zertako  
sartzen dira temaz,  
gero egotekotan  
galdutako penaz?  
Orrelakoak gutxi  
diraden apenas,  
etxe, soro, basoak  
jokatzen atzenaz.
- 7/ Trabesa egiten dute  
txit gogo onean,  
pozik kontrarioa  
agertzen danean;  
aitzeki bat seguro  
dute aitzenean:  
«Tongo egin dik!» esan  
galtzen dutenean.
- 8/ Tongo aterazitzen  
galdutako penak,  
egitzat ezin artu  
zenbaiten esanak;  
deskonfiantza bera  
alakoa danak,  
egingo luke ori  
esaten dutenak.

9/ Iru gizon zebiltzan  
Azpeiti'n negarrez,  
bei txekorran diruak  
galdu eta errez,  
etxera joateko  
andrien bildurrez;  
merezi bai bizkarrak  
austea egurrez.

10/ Beste batek salduta  
ardi eta auntzak,  
aien diruak ditu  
trabesean dantzak;  
geienak galdu ere  
okar esperantzak,  
ori egitea da  
gizonaren antzak.

11/ Andreak ere badira  
trabesean iaioak,  
mundu onetara nauski  
ortako jaioak;  
auzokoak egin da  
beren balioak,  
jokatuta galdu ditu  
ollar da olloak.



12/ Penak ez dauzka orain  
iñola aztuak,  
kota eta apiak  
an daude ustiak;  
paretetik zintzillik  
bakarrik zestoak,  
ondo dago jateko  
arrautza preskoak.

13/ Beste atso batena  
zer kopeta-ertza:  
ogei bat izurrekin  
da gañera beltza.  
Trabesean izan du  
gutzizko okertza,  
jokatuta galdurik  
arreroko pertza.

14/ Galdutakoak daude  
penakin erreta,  
nere tontoan nago  
ala igarrita;  
orra esperantzia  
garbiro jarrita,  
sinistu gero jokua  
ez dala errenta.

15/ Ogei ta sei apustu Keixeta  
dago jokatua,  
eta gañera danak  
irabazitua;  
naiz-ta izan milloi bat  
duro kostatua,  
azpeitiarrak, orri  
jarri estatua.

16/ Aspaldian Azpeiti'n  
ori diru sartzea!  
Zenbat balio duan  
ondo portatzea!  
Aizkolariena dauka  
Keixetak giltzea,  
eta Atxunberriak  
guztien poltsea.

*1925'an Erauskin Errotariak*

Bertso-papera, «*Beasaiñ'en A. Zunzunegiren moldiztegian*» argitaratua, Donosti'ko Gregorio Mujika zanaren bilduman.

\* \* \*

Azpeiti'ko apustu orri buruz, oso berri gutxi eman digu Erauskin'ek bertso auetan; jokuaren aurka mintzatu da geien-bat. Baiñan utsune ori, Iriarte'tar Joxe Luis'ek beteko digu. Bere *Gure erri-joku nagusiak* liburuan onela dio:

## KEIXETA - KORTABERRI I

1925, loreillak 17 Azpeiti'ko zezen-plazan ospatu zan neurketa au. Aiatar Uegun txikiaz jokatu ta bereala eratu zan jokua. Ordurako aizkolari gaillena zan Jose Iñazio Elorza *Kortaberrri I*, mendarotarra. Aurreko urteko abenduaren 21'an, Azpeiti'ko pelota-lekuan, Leon Uegun'en gain garaipen bikain bat burutu baitzuan, 8 kana-erdikotara. Oraingoan, ala ere, 20/9 azaldu zan dirua *Keixeta*'ren alde. 60 ontzako 12 enborren gaiñean jokatzen zuten.

Ia batera joan ziran lenen iru enborretan. 4 miñutu ta 50 segundu zeramazkion *Keixeta*'k erdi-lanak gainditzean. Orrezkero, lasai ibilli zan. Eta ia 3 enborren aldearekin garaille jeiki zan bein eta berriz.

Auek onela, afrantzuko sare bat eskuetan zualarik agertu omen zan Azpeiti'ko zezen-plazan Leon Uegun *Aia'ko-Txikia*; elkarren artean gurutzatutako itzak mendarotarrari gogorazteko asmoz-edo. Zer arraio zebillen galdetzen zioten bere ezagunek. Baita onela erantzun ere Leon argiak: «*Orain iru illabete arrain mordoska ederak iges egin zidaan Zarautz'ko pelota-lekuan. Baiña, ala Jainkoa, ementxe aurkituko ditudala iduritzen zaidak*». Eta zituan eta etzituanak jokatu omen zituan *Keixeta*'ren alde. Azkenean, sarea arraiz beterik ez, baizik-eta patrikak diruz gaiñezka itzuli zan etxera.

| Enborrak<br>(60 ontza) | Keixeta'k |       | Kortaberrri'k |         |
|------------------------|-----------|-------|---------------|---------|
| 1                      | 3-05      | 3-05  | +             | 40''    |
| 2                      | 4-45      | 7-50  | +             | 10''    |
| 3                      | 4-26      | 12-16 | +             | 10''    |
| 4                      | 5-33      | 17,49 | +             | 1' 31'' |

|    |      |       |                           |
|----|------|-------|---------------------------|
| 5  | 3-16 | 21-05 | + 3'                      |
| 6  | 5-38 | 26-53 | + 4' 50"                  |
| 7  | 5-42 | 32-25 |                           |
| 8  | 5-20 | 37-45 | + 9' 15"                  |
| 9  | 5-33 | 43-18 | (Aurkariak amaitzean      |
| 10 | 7-25 | 50-43 | gelditu zan. Bi enbor     |
| 11 | 7-17 | 58-00 | t'erdi gelditzen zitzaiz- |
| 12 | 5-41 | 63-41 | kion.)                    |

(1925)

**BERTSO BERRIAK**  
**TOLOSA'KO AIZKOL-APUSTUARI JARRIAK**

1/ Bertso berriak argitaltzeko  
au da era Gipuzkoa'n,  
pluma tintakin eta papela  
artuak ditut eskuan,  
aizkolari bat ez uztearren  
agurtu gabe aztuan,  
ez dakiana ikasi eta  
gelditzeko sinistuan;  
orri gizonak eziñ eraman  
piñezan eta prestuan.

2/ Berau da Joxe Aranburu ta  
izen ordezeko Keixeta,  
Altz-erreka'ko semea berriz,  
Urrustillean azita;  
ogei ta amar apustu jokatu  
guztiak irabazita,  
bañan baditu premioetan  
lau besterentzat utzita,  
zergaitik asko saiatuko zan  
sakelerako gutxi-ta?

- 3/ Millaz ondoren bederatzi eun da  
zan urte irugarrena,  
Garagarrillak ogei ta lau  
baita San Juan eguna,  
Domingo eta Lapeira'n kontra  
jokatu zuan aurrena;  
Aia'ko Aundi Uria'rekin  
ogei ta amargarrena,  
ikusitzea zenbait sartu zan  
Tolosa'n plaza barruna.
- 4/ Amabiña kanaerdiko biña oin biñako  
bakoitzak ala zituan  
Keixetak bada ebaki ditu  
berrogei ta emeretzi minutuan;  
ikusi nai guk beste batek nork  
orrela mozten dituan,  
aiatarra ere piñ jokatu da  
daukan ainbat talentuan,  
azpeitiarra gelditua da  
beti bezela kreituan.
- 5/ Oñati'n ere Urri-illean  
premioak izan dira,  
lau probintziko aizkolariak  
geienak azaldu dira;  
millaka asko persona pozik  
egondua da begira,  
Keixeta orrek ekarria du  
eun durorekin bandera,  
urtetan gora dijoa baño  
ez talentuaz gainbera.

6/ Ogei ta amar apustu jokatu eta  
orra danak irabazi,  
aizkolaririk piñagorikan  
zein ote degu ikusi?  
Tongo egiteko ori billatzen  
alperrik liteke asi,  
abildadea dauka eta  
iñork nola galerazi?  
Berrogei eta lau urterekin  
aizkolari denan nagusi.

7/ Asitzerako zan Keixetan alde  
ogei duro amalauri,  
gazten aldetik zegoan berriz  
amabi duro ogeiri;  
korredoreak marruka ziran  
plaza guztian agiri,  
Azaroaren ogei ta bian  
bazan trabesa ugari,  
batzuek ustu, besteak bete  
egin diote karterari.

8/ Brusa ederrak soñean eta  
anketan abarka-mantarrak,  
ikusi dira millaka asko  
langille baserritarrak,  
batzuek gizon gazteak eta  
besteak aitona zarrak,  
bildurrik gabe trabes egiten  
dituzten diru pizarrak,  
galdutakoak kopeta beltzak  
zuti jarrita bizarrak.

9/ Andra batek bere gizonari  
orra erakusmen bikaña:  
«Naiko dirua zeuri zuzentzen  
gu saiatu alegiña,  
saldu ditugu txekor da txerri,  
nola sagar da gaztaña;  
orain etxera musua beltza  
eta poltsea ariña,  
obe zenduke emaztiaren  
mende biziko baziña.»

10/ Gizonak dio: «Badakit nabill  
familiaren kaltean,  
millaka asko pezeta ditut  
galdu aurtengo urtean;  
kanpora irten diruarekin  
kartera kasi betean,  
buelakoan oso ariña  
sartu etxeko atean,  
grña onek bai eutsiko dit  
lurpera sartu artean.»

11/ Irabaziak pozikan daude,  
galduak ondamentia,  
etxera joanda amorratutzen  
daukatela demandia.  
Berrogei eta lau urterekin  
Keixetan kontra nun dia? <sup>1</sup>  
Aizkorarekin moztuko luke  
Izarraizpeko mendia,  
len aiatar *Txikia* ausi zuan da  
orain urrena *Aundia*.

---

<sup>1</sup> Bertso-paperak: *nun dira*.



12/ Neurri gabeko famak baditu  
Keixeta aizkolariak,  
kalanbririkan ez daukatela  
beso, belaun da gerriak,  
seme jatorra ori badauka  
Azpeitia'ko erriak;  
zein da nola dan zabaldutzeko  
mundu guztian berriak,  
orra amabi bertso ipiñi  
Erauskin errotariak.

1925

*Debekatua dauka Keixetak beste batek ateratzea.*

Bertso-papera, Manuel Lekuona apaiz jaunaren bilduman. Paper ori puskatua dago eta etzaio moldiztegi-izenik irakurtzen.

Beste bertso-paper bat, *Beasañ'en A. Zunzuegui'ren moldiztegi*an argitaratua eta Tolosa'n Orendain'go Juan Garaialde'ren eskutik jaso. Beste ale bat, Azkoiti'ko Larraskanda baserritik eskuratu genduan.

\* \* \*

Tolosa'ko apustu oni buruz onela dio Iriarte'tar Joxe Luis'ek bere *Gure erri-joku nagusiak* liburuan:

•1925, azillak 22. Tolosa'ko zezen-plazan, eguardiko 12'etan asera eman zitzaion neurketa nagusi oneri. Aztaz berdintsuak ziran leikide biak. Gizabetez, ordea, koska kentzen zion Martin Uria *Ustaata* edo *Aia'ko Aundia'k*. Leon Uegun *Aia'ko Txikia'z* jokatu ta garaille altzatu

zalarik, laister ausartu zan *Keixeta* aundia desapiatzera. Onen gailentasuna bein betirako ezeztutzeko prest agertzen zan. Azpeitiarra baiño zenbatez gazteagoa zan.

Auek onela, Tolosa'n bildu ziran Gipuzku ta Naparru'ko jokuzaleak egun ontan, zezen-plaza gaiñezka betetzeraiño. «Berrogei-ogeiri» eskeintzen zan dirua *Keixeta*'ren aldetik. Bestaldetik, berriz, 59 miñututan lanak amaitu ezetz eta 60 miñututan baietz abesten zuten korredoreek, 12 *kana erdiko* ta 2 *oinbiko* ebaki bear zituzten.

Bikain erantzun zion aiatarrak erdi-lanetaraiño. Orrezkero, ordea, enborrez enbor nabarmenduko zan azpeitiarraren gailentasuna. Azkenean, ia 16 miñuturen aldea atera zion (1).

Apustuko dirua ez-eze, denboretara egindako trabesen diruak oparotasunez irabazi aal izan zituan *Keixeta*'ren eragille argia zan Juan de Dios Agirre *Anton-Amube*'k. Zer-edo-zertarako balio bear zioten azpeitiar jokalaria burutsuari, egunkarian zeatz eta meatz jasotzen zituen zeaztasunek. Mutillak aprobetan burutzen zituan egintzak ongi zekizkian. Ez ori bakarrik; zein ordutan, zer eguraldiz eta nolako egurren gaiñean burutuak ziran. Arretarik aundienez jasotzen bait-zituan zeaztasun guztiak...! Eta beste amaika oar ajolagarri idazten zituan bere egunkarian bakarkako eragilleen aurrelari jakintsuak.»

\* \* \*

Jokuren aurka mintzatu zaigu bertso auetan

---

<sup>1</sup> *Keixeta*'k 59 minutu ta 34 segundo bear izan zituan; *Aia-ko Aundia*'k, berriz, 75 minutu ta 30 segundo.

ere Erauskin Errotaria. Berdin egiten du *Guraso-bide*'k, Tolosa'ko Manuel Urreta'k alegia, *Argia*'n, 1925.XI.29'an:

«Aizkolari aitatuak bildu ziran lengo igandean onuntza, ta gizaseme-pilla galantak ere bai oien aitamenera. *Keixeta* ta *Aiarra* aizkolariak. Jokatu ta aizkora-jokua; aurrena aitatu degunak irabazi, bigarrenak galdu. Bere lana amaitu zuan *Keixeta*'k, ordua ia bete zala, gelditurik bestea bi egur aldi ta geiago oraindik zeuzkala ebakitzeko. Jokatu da, diogu berriro, aizkora-jokua, ta etxe askotan negarra; gure Euskalerriko basetxe askotan badegu naigabea ta pake-eza... Au ez da etxia ta erriaren goramena. Au da oitura gaiztoen etorrera. Ta au ontzat artu bear ez da iñolatan ere.

Lengo basetxe-gizonak musu-zapian gordetzen zituanean bere irabazik, biurriketa egin ta gañetik ortzakin estutzen zituan; ta oraingoak lasatxo, txilibistik gabe jartzen ditu ta gero galdu egin bear!»

\* \* \*

Beste toki batean ere mintzatzen da *Argia*, egun berean, apustu onetzaz. Enbor bakoitza ebakitzeko bear izan zuten denbora esan ondoren, onela bukatzen du:

«Zorionak bi aizkolari kementsuai, gogotsu eta eusko-eraz jokatu zutelako. Biyak, euskaldun jatorrai dagokien bezela, «Aitaren» eginda asi ziran. *Tongo*... izena norbaitek erabili zuala? Aia'ko *Txikia*'k bein batean esan zuanez: «*Keixeta*'ren kontra jartzen danak *tongo* nai ta nai ez egin bear!»

(1925)  
**BERTSO BERRIAK**  
**MUNDUKO IZATEARI JARRIAK**

1/ Bertso berriak jartzera noa  
munduko izate oni,  
ez dakienak ikasitzea <sup>1</sup>  
zergaitikan dan komeni:  
kendutzalleak daude geienak  
eta utziak emani,  
orregatikan sortutzen da gaur  
daukagun ainbat armoni.

2/ Askok diote bear degula  
emen igoaldadea,  
nik ez det uste izango dala  
batere gauza ohea;  
jarrita ere, jokuz, jan d'eran,  
azkar diferente gea, <sup>2</sup>  
ez-berdintza au jarria degu  
zeru ta lurren Jabeak.

---

<sup>1</sup> Bertso-paperak: *ikasitzera*.

<sup>2</sup> Bertso-paperak: *gera*.

3/ Gaurko jendea ezagutuzten  
ez da erreza-antzea:  
aberatsa baño pobrea dago  
dotoreago jantzia;  
mundu onetan dudarik gabe  
bear da diferentzia,  
geren eskuko beatzetatik  
daukagu esperentzia.

4/ Beste batzuek ala diote  
Jaungoikorikan eztala,<sup>3</sup>  
orrelakoari burni-ariaz  
lotu mingañen aztala,  
batek bakarrik mundu guztia  
nastu lezake bestela;  
Jesukristok ez du maiteko  
bere gudari ustela.

5/ Sasoiko asko lanan igasi  
dabiltz estadu tristean,  
neroni oso arritutzen naiz  
oiek ala ikustean;  
pobrea eta alperra bada  
aizkenerako eskean,  
soñean jantzi berdiñarekin  
igandean da astein.

---

<sup>3</sup> Bertso-paperak: *ez-dala*.

- 6/ Milloika asko persona gaude  
mundu onetara jaioak,  
sinistu gero kristau egiten  
gaituala bataioak;  
konfirmatzeak ere baditu  
neurri gabeko graduak,  
Jainkoak daki zenbat balio <sup>4</sup>  
duan geure estaduak.
- 7/ Amar bat urte amaikarekin  
egiten da komulgatu,  
Kristoren dotriña ikasi eta  
dixaz Jaun aundia artu,  
bizi guztian berau pozikan  
bear deguna agurtu;  
zorionean bide santu au  
guretzako zan agertu.
- 8/ Ogei urtetik gora urrena  
dago uztartzeko malla:  
mutillak maite neskaxa eta  
neskatxak berriz mutilla;  
era onetan etortzen dira  
alkartze santuen billa,  
kristau faltarik gabe mundua  
aurrera joan dedilla.

---

<sup>4</sup> Bertso-paperak: *zenbait*.

- 9/ Baita Elizaz artu bear da  
matrimonio santua,  
seme-alabak edukazioz  
azitzen izan kontua;  
obligazio orrekin dago  
guraso dana lotua,  
zorrotz begira daukagu oso  
geure Aita Jaungoikua<sup>5</sup>.
- 10/ Elizaz gabe alkar artzeak  
oriek lan arloteak,  
mundu onetan Jesusen kontra  
dabiltzan alkaboteak,  
etsai batzuen esanetara  
sinismenean beteak;  
erejientzat itxita daude  
zeruetako ateak.
- 11/ Sinistu, kristauak, mundu onetan  
gaude denbora gutxiko,  
zuzen gabiltzan eta zeruko  
aterik ez da itxiko,  
aizken orduan Jaunak ez gaitu  
aldendu eta utziko;  
bere eskura artu gaitzala  
betiraunde guztiko.

---

<sup>5</sup> Bertso-paperak: *Jaungoikoa*.

12/ Gure animak aizken orduan  
dauzkaten kezka larriak!  
Arren, biotzak urtu ditzala,  
ez badirade arriak,  
eduki ditzagun zikiñik gabe  
salbatutzeko jarriak;  
erakusmen au argitaltzen du  
Erauskin Errotariak.

Bertso-papera, *Beasañe'n A. Zunzunegiren mol-  
diztegian* — 1925'an argitaratua eta Altzo-azpiko  
Olazabal-berri baserriko Inazio Zabala'ren esku-  
tik jaso.

\* \* \*

*Argia*'k ere argitaratu zituan bertso auek: le-  
nengo sei bertsoak 1935.VII.14'an; gañerakoak,  
1935.VII.21'an. Aldaketak: 1/2: ludiko izate oni;  
1/6: eta utziak emanari; 2/5: jarrita ere jan t'eran  
jokuz; 2/8: Donoki lurren jabea; 3/5: mundu  
onetan ezbairik gabe; 3/8: ikusmen esperentzia;  
4/5: batek bakarrik ludi guztia; 4/7: denon ja-  
beak ez du maiteko; 5/3: neroni arrunt arritu-  
tzen naiz; 5/5: alperra eta txiroa bada; 6/2: ludi  
onetan jaiok; 7/8: egin zitzaigun agertu; 8/6:  
alkartze deunaren billa; 8/7: kistar faltarik gabe  
ludi au; 9/3: seme alabak ondo eziaz; 10/3: ludi  
onetan Jesusen aurka; 11/1: Sinistu kristauak lu-  
di onetan; 12/6: gaizkatutzeko jarriak.



(1926)  
**BERTSO BERRIAK**  
**UZKUDUN UKABILKARI**  
**TXAPELDUN EUROPA'KOARI JARRIAK**

- 1/ Millaz atzetik bederatzi eun da  
urte ogei ta seigarrena,  
Maiatz illaren emezortzian  
oroigarritzko eguna;  
ukabilkariak neurtutzeko  
auturikan Barcelona,  
euskaldunak azpiratu du  
Europa'ko txapelduna.
  
- 2/ Europa'n zegon txapeldun ori  
da Erminio Espalla,  
Italia'ko semea berez  
indar jinasiz abilla;  
bañan Uzkudun errezildarra  
bizkorragoa du billa,  
metralla baten orde omen da  
orrek daukan ukabilla.

3/ Millaka asko begira zala  
ukabilka ziran asi,  
Uzkudun'ek nai zuanean  
Espalla baitere ausi;  
au baño seme bizkorragorik  
ezin liteke ikusi,  
orain Europa'n euskalduna da  
ukabilkarin nagusi.

4/ Beste batzuek neurtutzeko  
asmoa du Amerika'n,  
edozeiñekin asteko ere  
ez du nauski bildurrikan,  
bi anka eta bi beso dauzkan  
kristau batengaitikan;  
egun obetan entzuten degu  
gizon askoren autikan.

5/ Uzkudun orren famak zabaldu  
dirade mundu guztian,  
urrengoak ere pensa lezake  
zerbait orrekin astian;  
dardaraizoa sartuko dio  
bere aurrean ikustian,  
seme bizkorra sortu zan ori  
Ernio'ko arkaitz azpian <sup>1</sup>.

---

<sup>1</sup> Bertso paperak onela dauzka puntuak: *guztian*,  
*astea*, *ikustean*, *azpian*.

6/ Uzkudun orain Europa'n txapeldun  
italiarrari kenduta,  
ez gendukena lenago txartzat  
orain geiago onduta;  
egun orretan irabazi du  
asko diru ta konduta,  
andregai-paltik apenas daukan  
nai baluke ezkondu-ta.

7/ Ondo dakian persona batek  
emandu dizkit albistak:  
ezkondutzeko pretentsioa  
egin diola artistak.  
Erantzun ere: «Eskarrik asko;  
ez banau biurtzen bistak,  
baserriako gona motz dun bat  
artzeko asmoak dauzkat.»

8/ Baserritarra, nekazaria,  
jaiotzaz erdi arlotea,  
interesaz ta medituz orain  
gertatutzen da betea.  
Nork karkulatu zenbat dadukan<sup>2</sup>  
aurreratuta dotea?  
Ori artzen duan gona motz dunak  
ai zer nolako suertea!

---

<sup>2</sup> Bertso-paperak: *zenbait*.

9/ Bein asi bazan euskalduna  
Uzkudun ukabilkaria,  
bi urte ontan partitu ditu  
zartako txalogarriak;  
orren kemenak ikusi dira  
ez daudela urriak,  
oroigarrizko semea ori  
badauka Euskalerrriak.

10/ Berak eman da besterenari  
egin bai kite azkarrak,  
eta ikuitzen baldin badio  
ukabilkazo ezkerak;  
bueltan azkar joaten dira  
naiz izan mutil bizkorak,  
argaitik ditu Euskalerrriko  
txaloak eta eskerrak.

11/ Gaztetatikan omen zituan  
guztizko indar biziak,  
orain iru bat urte asi zan  
ikasitzen jinasiak;  
nolabait ere ausiak ditu  
Europa'n zeuden nausiak,  
Paulino Uzkudun Errezill'ean  
jaio zana ta aziak.

12/ «Nekazariak motelak dituk»  
asko esaten dutenak,  
Uzkudun orrek argitu ditu  
ederki erakusmenak;  
jinasian bat bera asi da  
eta ausi ditu danak,  
baserrietan daude mutil da  
neskatxarik bizkorrenak.

13/ Patxi Errotak amairu bertso  
iñork artu nai baditu,  
Europa'ko txapeldun nola  
Uzkudun zaigun gelditu;<sup>3</sup>  
baserritarrak beregantzea  
oinbeste onra ta kreitu,  
Ameriketan ere geienak  
orrek zapalduko ditu.

*1926'an Erauskin Errotariak*

\* \* \*

Uzkudun'ek Europa'ko txapela irabazitakoan,  
idazlan au argitaratu zuan *Argia*'k, 1926.V.23'an,

UKABILKETA  
UZKUDUN EUROPA'KO TXAPELDUN

Gora ta gora Uzkudun!  
Beti izango da  
Paulino txapeldun.

Astearte gabaz jokatu zuten Barcelona'n Uzku-

---

<sup>3</sup> Bertso-paperak: *zaigu*.

dun'ek eta Spalla'k aspalditxoan euskaldun guziok (bai italiarrak ere) irrikitzen euki gaituan ukabilketa. Burrukaldi ortan erabaki bear zuten Europa'ko txapeldun zein izan, eta guk uste genuen bezela, Uzkudun'ek irabazi du, ta, beraz, bera da gaurtik Europa guziko ukabilkarien txapeldun. Spalla'k iru urte t'erdiian izan du txapel-tza ori: Paulinok zenbat urterako jantzi ote du?

### *Barcelona'ko zezen-enparantzan*

Iñoiz ezagutu ez dan bezelako zaletasuna sortu izan du ukabilketa onek, eta gabeko bederatzietako asi zan jendea, beribilez, tranbiz eta oñez «Monumental» deritzaion zezen-enparantzara joaten.

Sarbide-txartel guziak salduak dira, eta azken orduan *prezio* ikaragarriak eskeintzen dituzte ta alaz ere asko gelditu dira sartu ezinik.

Amarrak baño len, barrengo toki ta bazter guziak bete-betiak daude: 37.000 ikusle sartu dira, ta guziak beren tokietan egokitzeke, zuzendariak lana ugari izan dute.

Egunez bezin argi dago, eta ainbat jende ta ainbat apaingarriz ikusgarri agertzen da enparantza guzia.

### *Spalla ta Uzkudun*

Lenbizi Gonzalez eta Marti'k, eta gero Paul Fritsch eta Antonio'k ukabilketa politikak egin ondoren, amaika t'erdietan agertu zan Spalla; txalo aundiak entzun dira. Beriala agertu da Uzkudun eta gortutzerañoko txalo ta oiua sortu dira: ez omen da iñoiz alako txaloketarik entzun.

Gertu dira beriala; agurtu dira bi ukabilkari

kementsuak; aurrez-aurre daude; entzun da ezki-la-dangada ta asten da.

### *Lenengo roud (ekiñaldia)*

Spalla asi da ematen, bañon Paulino lasai dago ta laister eman dio Spallari tankateko gogor bat. Spalla maltzurkeriz ari da, Uzkudun'i besotik eldurik.

Uzkudun'ek bigarrenez jotzen du, ta besterik gabe amaitu da lenengo *roud*.

### *Bigarrena*

Uzkudun ezker-eskuiz kementsu ematen asi da. Spalla urreratzen zaio, ta banatzean kolpe bat arpegian eman dio Paulino'ri, sudurretik odola dariola jarririk. Au ikustean, jendea zerbait ikaratu da, bañan Paulino'k laister erakusten du ura etzala ezer, len baño kementsuago ekiñik.

### *Irugarrena*

Ikusgarria. Biyak biziro ta bulartsu. Uzkudun'ek bi okotzeko eman dizka Spalla'ri, kilikoloka sokartera erori-azirik. Spalla'k zakatz jokatzen du, debekatutako kolpeak be-aldera zuzenduaz. Epaikariak oartzen dio Spalla'ri bere gaizki jokatzea.

Ekiñaldi ontan bentaja aundia eraman du Uzkudun'ek.

Laugarren eta boskarrenean Spalla'k Uzkudun'i besotik eltzen dio, eta epaikariak benaz oartzen du.

Seigarrenean ikusleak txoraturik daude. Paulino'k irabaziko duala ezpairik gabe uste dute.

Zazpigarrenean biyak moteltxo; bañan zortzi-  
garrenian Uzkudun zuzpertz da ta ezker-eskuiz  
gelditu gabe, bota du Spalla sokartera. Estu ta  
larri amaitu du italiarrak ekiñaldi au.

Bederatzigarrenean Spalla'k sudurrean kolpe  
gogor bat artu du ta amargarrenian boladan sartu  
zaio Paulino Spalla'ri; au igesika dabil, bañan  
Paulino'k arrapatzen du ta bi aldiz sokartera bo-  
ta du. Paulino'k lasaitasun geixego izan balu,  
lurreratu zezakean italiarra ekiñaldi ontan.

Amaikagarrenean Spalla'k maltzurkeriz jotzen  
du Paulino. Epaikariak minutu bateko deskantsua  
eman dio Uzkudun'i, Spalla'ri bere gaiztakeria  
oartuaz.

### *Azkena*

Amabigarren ekiñaldian Paulino'k aundiak  
eman zizkan Spalla'ri, ta ikusle guziak italiarra  
laister lurrean ikusteko ustez zeuden. Spalla oso-  
ro kuzkurtuta, igesi ta igesi zebillen, iru minu-  
tuak lurrera bañan len igaro zitezzen. Onela amaitu  
zan.

Beriala epaikariak, Uzkudun'ek irabazi zuala  
adirazi zuan, Europa'ko txapeldun aitorturik.

Euskalduna Europa'ko txapeldun. Gora Uz-  
kudun!

Ar bitza gure zorion-agurrik beroenak.



(1926)  
**BERTSO BERRIAK**  
**LAU PROBINTZIETAKO AIZKOLARIARI**  
**JARRIAK**

1/ Millari segika bederatzi eun da  
ogei ta seigarren urtean,  
amabi bertso jarri artean  
ez naute utzi pakean;  
letra bat ere ez da izango  
projimoaren kaltean,  
lau probintzitako aizkolariak  
baizikan sartu partean.

2/ Gizon batzuek atera dute  
oso ederra idia,  
aizkol-joku bat zuzendutzeko  
eziñ billatu obia:  
lau probintzitatik aizkolari bana  
baldin irtetzen badia,  
bein probatzeko Keixetak zenbat  
daukan abilidadia <sup>1</sup>.

---

<sup>1</sup> Bertso-paperak onela ditu puntuak: *idea, ohea, badira, abilidadea*.

3/ Lau probintzitatik aizkolari bana  
nai badute irtetzeko,  
bakoitzak biña kana erdiko  
asita ebakitzeko;  
eta Keixeta jarriko dala  
zortzi beretzat artzeko;  
orra bidea oso ederra  
apustu bat zuzentzeko.

4/ Jose Aranburu Keixeta oso  
aizkolaria pijoa,  
ondo dakigu bakar-bakarrik  
urtetan gora dijoa;  
esaera da «betikoa da  
gure Aita Jaungoikoa»,  
ezagututzen erreza dago,  
orra nik esan naikoa.

5/ Keixeta bera erronka onek  
botatzen ez dana asi,  
beste batzuek egin dirate  
bertsoak jarri-erazi;  
ori baño gizon apalagorik  
ezin liteke ikusi,  
orrek daukana talentu asko  
eta erronkea gutxi.

- 6/ Kantak jartzeko nere aurrera  
etorri diran gizonak,  
beartutzean esango ditut  
nungo, zein eta izenak;  
egin dirate oso umil da  
jator izketa zuzenak,  
agindu diet da orra kantuz  
neuri esan diratenak.
- 7/ Gipuzkoarra ta Bizkaia'koa,  
alabesa ta naparra,  
lau onenan kontra jarri nai dute  
Keixeta urrustildarra;  
eguzkipean izatekotan  
orra apustu ederra,  
Azpeiti'n mendeko uda edo lurrak  
nunbait baditek indarra.
- 8/ Ogei ta amasei apustu jokatu eta  
denak ditu irabazi,  
bi edo iru premioetan  
baita besterentzat utzi;  
aizkolaririk zintzoagorik  
oraindik al da ikusi?  
Or ezagun da tongo egiteko  
iñork ez duala erosi.

9/ Taloa eta babea jenez  
astean dabil mendian,  
meza entzunaz erri aldera  
jekitzen da igandian;<sup>2</sup>  
jakin naia da mutil sasoiko  
aizkolariak nun dian,  
berrogei eta bost urterekin  
guztiak dauzka mendian<sup>3</sup>.

10/ Batzuek diote: «Keixetak ez dik  
aizkoran egin markarik!»  
Justuan denari irabazita  
geiago al da faltarik?  
Berak Azpeiti'n egin zuana  
ez daukate parturik,  
ogei kanerdiko moztuta amalau  
kilometro korriturik.

11/ Ogei kanerdiko ebaki zituan  
ordu bete bederatzi minutuan,  
amalau kilometro korritu berriz  
ogei ta amar segundo geigoan;  
eziñ ukatu millaka askok  
nola ikusi genduan,  
jakin nai dute marka ori gaur  
ontzeko zein dan munduan.

---

<sup>2</sup> *Jekitzen* dago bertso-paperean; baiñan ez al da *jetxitzen* izango?

<sup>3</sup> Bertso-paperak onela ditu puntuak: *mendian*, *igandean*, *diran*, *mendean*.

12/ Berrogei ta bost urterekin  
au dek Keixeta aitona,  
lau probintzitako bana onenak  
bakarrik proa nai'tuna;  
merezi du ta ikusitzen da  
aizkoran famaz goituna,  
Patxi Erauskin zaldibitarra  
kantak ipiñi dituna.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Donosti'ko Gregorio Mujika zanaren bilduman.

\* \* \*

Amargarren eta amaikagarren bertsoetan aita-tzen dan apustua, Azpeiti'ko zezen-plazan jokatutu zan, 1912'eko Epaillak 11 zituala.

*Keixeta*'ren aurkalaria, Beizama'ko Jose Mari Irizar *Iruriya* izan omen zan; ogei ta iru urte zituan.

Apustu onetzaz onela dio Iriarte'tar Joxe Luis'ek bere *Gure erri-joku nagusiak* liburuan:

«...Enbor ebaketari ekin orduko aurrea artu zion *Keixeta*'k. Nolanai ere, tartea etzan bereala aunditu; erdi-lanak gainditu arte bikain erantzun bait-zion beizamatarrak. 29 miñutu ta 34 segundu zeramazkian lanean *Keixeta*'k une ortan. Andik aurrera bai, noski, enborrez enbor iges egi ten zion onek. Eta 69 miñutu ta 32 segundutan —lanean astiroago jardun-eta— ogeigarren enborre zatitu zuanean, bere 16'gn enborrean ari zan *Iruriya*. Laisterkan asi zanerako, berriz, 41'gn bira amaitzen ari zan *Keixeta*. Neurketa bapo erabakirik zegoan *Keixeta*'ren alde, nola-ta ustekabeko

ezbearren batek etzuan ondatzen. Garaiz oartu zan aurkaria ere; eta amairugarren biran gelditu zan. Batere beartzeke, *2 ordu ta 20 miñututan* burutu zuan lana aratzerrekatar jokolari aundiak. Kemenik asko gelditzen zitzaion artean *Keixeta'ri*; abiadarik moteltzeke atera bait-zan plaza-tik, erriko ostaturaiño laisterka jarraiturik. »

(1926)  
**BERTSO BERRIAK**  
**ESKU-PELOTARI TXAPELDUN ATANO'RI**  
**JARRIAK**

1/ Millaz gañera bederatzi eun da  
urte ogei ta seigarrena,  
Urri illaren ogei ta amaikan  
oroigarrizko eguna;  
Donostia'ko plaza berrian  
ura zan partidu ona,  
bizi guztiko damutan dago  
ikusten izan ez dana.

2/ Partidu ori eskuz jokatzen  
ziranak manorik mano:  
alde batetik Mondragones ta  
kontra Mariano Atano<sup>1</sup>.  
Nork uste zuen azkoitiarra  
iristen zanik ortaño?  
Iru tantoz galdu Mondragones'ek  
gogor saiatu zan baño.

---

<sup>1</sup> Bertso-paperak: *Marino*.

3/ Azaroaren zazpian berriz  
jokatu zuten bigarren,  
Gipuzkoa'ko armak egiten  
erri ospatsu Eibar'en;  
Mondragones'ek oso bizkorra  
asiera egin zuan aurren,  
ogei ta bira amabirekin  
atzetik gelditu arren.

4/ Mondragones'ek egin zituan  
aurreneko bost tantuak,  
arrankeak jo du gazteak berriz,  
gero ziraden kontuak;  
biek garbiro erakutsirik  
zeuzkaten talentuak,  
ikusle dena arritua du  
Atanon mobimentuak.

5/ Mondragones asi zanean  
bentaja ortan aurrena,  
gizon batzuek lasai eta  
estu bestien barruna;  
azkoitiarrak asten du guztiz  
arrankerik gogorrena,  
lenengo pozak egon ziranak  
estutu ziran urrena.



- 6/ Atano aren sake boleak  
etziran gero goxoak,  
zarrarenak ere oso gaiztoak  
bañan geienak jasoak;  
orregaitikan esaten zuan  
plazan publiko osoak:  
«Erroma-aiderik etzeukatek  
orren belaun da besoak».
- 7/ Mondragones amar urtean  
bera txapeldun izanik,  
oraindik ere nork uste zuan  
obeagorikan zanik?  
Mundu onetan eziñ izandu  
bada betiko gizonik,  
galdu du bañan pin jokatuta,  
ez da zer gaizki esanik.
- 8/ Euskal-errian Atanok ez du  
oraintxen aitormen gutxi,  
esku-pelotarin txapeldun nola  
egindua dan iritxi;  
Mondragones'ek amar urtetan  
egukita dio utzi,  
opa diogu urte geigoan  
berak deiola egutsi.

- 9/ Eibar'tikan irabazita  
Azkoiti'n sartu zanean,  
ongi etorria zeñek egiña  
bazuan aldamenean;  
soñu ta kantu festa aundia  
zebillen erri danean,  
ez da izandu ederragorik  
gizonan gogoenean.
- 10/ Oraindik dira beste partidu  
batzuek jokatutzeko,  
toki askotan naia dala-ta  
oriek ikusitzeko;  
bakarren bat bai utzi lezake  
Mondragonesarentzako,  
bañan uste da, berak nai badu,  
denak Atanorentzako.
- 11/ Plaza oietan sartu dirade  
millaka asko euskaldun,  
bateonbateg ez dakit joana  
damu izanduko al dun;  
batzuek ziran irabaziak,  
besteak baita're galdun;  
or konpon bitez, Atano beintzat  
eskuz pelotan txapeldun.

12/ Mundu guztian zabalduzko  
partidu oien berriak,  
berekin nola txapela duan  
Atano pelotariak;  
seme jatorrak beti baditu  
Azkoitia'ko erriak,  
guztien onran amabi bertso  
Erauskin errotariak.

Bertso-papera, *Beasañ'en A. Zunzunegi'ren moldiztegian* argitaratua, eta Aizarna'ko Josefa Aizarna'ren eskutik jaso; baita Azkoitia'ko Laraskanda baseritik ere eskuratua.

*Bertsolariya* aldizkaria, 25'garren zenb., 1932. III.6. Onek, aurrekoak bezelaxe bertso guziak.

\* \* \*

Atano irugarrena eta Mondragonesek, nagusi nor gelditu erabakitzeko, iru partidu jokatu bear zituzten alkarrekin, eta bi irabazten zituanak, txapela eraman. Baiñan Atanok lenengo biak irabazi. Partidu oien berri, Erauskin'ek eman digu. Atanoren aitak ere bertsoak jarri zituan: *Auspoa*, 94. *Argia* asterokoa, berriz, itz-lauz mintzatu zan. Itz-lauzko lan oiek ere merezi dute emen argitaratzea.

## PELOTARIAK ATANO - MONDRAGONES

(*Argia*, 1926.XI.7)

Joan dan igandean ikusi ziran «Moderno» pelota-tokian lenengoz aurrez-aurre bi pelotari bi-

kain ta ospetsu auk: Atano ta Mondragones. (Arrasatearra esango genuke guk, baña «Mondragones» izenez ezagutzen da pelotarien artean eta orrela erabili bear sail onetan).

Gipuzkoatik, Bizkaitik, Naparroatik eta Laburditik ere etorrita «Moderno» pelota-tokian bildu zan ain erruzko gizadiak agertzen digu, eskuzko pelota dala oraiñ ere nagusi, eskuzko pelotaketak euskaldunen artean zaletasunik geien sortzen du-  
la, ta beraz, ori degula pelotaketa guzien artean jatorrena, bai beste jolasketa guzien artean bi-  
kain ta ikusgarriena ere.

Bi pelotari trebe ta lerdanak zintzo ta leiatsu esku garbiz jokatzen! Zer ikuskizun ederragorik? Zer jolas gizonki ta sendogarriagorik?

Atseingarri izan zaigu, bada, eskuzko pelota-partidu eder auk eratutzea; ikusiaz zaletasuna sortzen baita.

\* \* \*

Bik-biri partidu bat jokatu ondoren agertu ziran Atano ta Mondragones, bientzat txalo ugari ta sutsuak izanik.

Atera zuan lenengo saka Mondragones'ek eta ekiñaldi txiki bat ondoren, ezker-ormaratuta (paretari peatuta) zijoan pelota ezin jaso ta galdu zuan. (Dirua 20'ri 40 Atano'ren alde).

Bigarren eta irugarren tantoak saketik egin zitan Atano'k.

Ondoren bi tanto Mondragones'ek, lenengoa atzera jota, bigarrena saketik (3-2).

Seigarren ekiñaldia ederrenetakoa izan zan: pe-

lotaketa polita egin ondoren, Atano'k poliki-poliki aurrean utzita irabazten du.

Urrengoan ere, jo-ta-erantzun, ekin zioten, eta Atano'k ezker ormarra (paretara) itsasita irabazi.

Ondorengo irurak ere Atano'k, bi saketik eta irugarrena boleaz aurrean utzita (*dejada* eginda) (8-2).

Amaikagarrena, Atano'k pelota aurrean uzteko ustez makal botata galdu du: 8-3.

Mondragones zerbait biziagotu dala iruditzen zaigu, (asieran otz eta uzkurtuta baitzegon), eta zusterkaldi ontan bost tantu bata-bestearen ondoren egiten ditu: lenengoa saketik; bigarrena Atano'k zabalera botata palta egiñaz; irugarrena, pelotaketa luze ta ikusgarri ondoren bi ormak (bi paretak) jota; laugarrena, 7'garren kuadroan ederki ormaratuta ipiniaz; eta boskarrena beso-indarrez menpetuaz: (8-8).

Biyak berdin, biyak zortzina: 10 ogerlekori 40 apustu egin dutenak estu ta larri dabilta: korredorien deadarrez gortu bearrian gaude, ura apustu egin bearra! ta... ordu artantxe Antzokian «Aurrezki-eguna» (*Día del Ahorro*) ospetutzen ari ziran.

Atsedeen-alditxo bat egin dute pelotariak eta ea, mutillak, ekin berriz!

Poliki ekin ere: *tantu* ederrenetako bat au izan zan: Atano'k aurrean utzita irabazi. Urrengoa ere berak boleaz aurrean utzita; bañan irugarrenian uts, *txapa* jota. (10-9).

Orain izan dute beste pelotaketa eder bat, Mondragones'ek atzera jo ta Atano'k erantzun; eta azkenez, Mondragones'ek aurrean utzi naian *txapa* jo ta galdu du.

Beste iru tanto segituan Atano'k, (bigarrena Mondragones'ek bi ormak oso ederki jo ta zabalean galduaz.) (14-9).

Mondragones'ek iru segituan: lenengoan (partidua 24'garren tantuan) jokerarik politenak ikusi ziran, Mondragones'ek bi ormak ikusgarritz jota irabazirik. (14-12).

Ondorengo zusterkaldia onuratsu izan zitzaion Atano'ri; zazpi tanto bata-bestearen ondoren egin zituan bada. (21-12).

Apustu-zaleak ogerleko bat'en kontra berrogei ipini nai dituzte Atano'ren alde.

Partidua 22'ra da, ta ikusle batzuek jeikitzen asi dira, baita Mondragones'en alde zeuden batzuek dirua ordaintzen ere, bañan... itxoin, Mondragones'ek bere indar ta kemen guziak bildurik eta zirt-edo-zart ekin dio gogor ta biziro... ta bat, bi, iru... zazpi tanto segituan: 19 ta 21: a ze larritasunak batzuen barren-aldian! Atano ere zerbait zurturik agertzen zaigu: ikusle guziak urduriz.

Ateratzen du Mondragones'ek; Atano'k ongi jaso; lenengoak aide artu ta aurrean utzi; bigarrenak bere zankariñez arrapatu, ta Mondragones'ek orma biyak (bi paretak), bañan... zabalegi ta... falta: (22-19).

Orrela amaitu da aspaldiko urtêtan ikusten ez genuen bezelako pelota-partidu eder ta zoragarri au.

Ona partidua nola eraman zan:

*Atano:* 3, 3, 8, 8, 10, 10, 14, 14, 21, 21, 22.

*Mondr.:* 0, 2, 2, 8, 8, 9, 9, 12, 12, 19, 19.

Atano'k irabazi du bada; Atano gazte ta tre-

beak, aspaldi ontan nagusi izan dan Mondragones menperatu du. Beraz, Atano txapeldun? Gaur bai; gero... gerokoak gero. «Moderno»-ko partiduan Atano'k obeto jokatu zuan, jokera eder ta ugariagoak agertu zizkigun: boleaz eta aidez iaioa da (gogoratu ezkerrez *aide* eraman zuan pelota bizia); eta besoz ere ez dala makala erakutsi zigun, aldi batzuetan Mondragones'i 8'garrren kuadrorañoako laisterketak eraman-aziaz. Itz batez: Atano pelotari osoagotzat daukagu. Zorionak.

Alaz ere, Mondragones'en aurka Atano bein baño geiagotan galtzalle izan liteken ustez gaudede, Mondragones'en indar ta kemenak aundiak diralako. Eskuarte askoren jabe dala ongi erakutsi zigun Mondragones'ek, azken-aldiko zazpi tantuak bata-bestearen ondoren egitean; eta gainera, jakin degunez, aurreko astean lau egunean oian egon bearra izan zuan, eta alaz ere, jende artean zer-esanik ez ipintzearren etorri zan partidua jokatzera. Ori da gizonki jokatzea! Bejondeizula!

\* \* \*

## ATANO - MONDRAGONES ATANO TXAPELDUN

(*Argia*, 1926.XI.14)

Baztar guziak jendez beterik zeudela jokatu zuten beren bigarren partidua pelotari bikain auek jcan dan igandean Eibar'ko «Astelena» pelota-lekuan.

Lenengotik apustuak Atano'ren alde 34'ri 40 egin ziran.

Lenbiziko sakea Mondragones'ek atera zuan, eta... tanto. Beste lau ere berdin, sakez, (5-0). Dirua Mondragones'en alde.

Seigarren sakeari erantzun dio Atano'k eta Mondragones'ek galdu, txapa jota. Beste lau tanto Atano'k, bi saketik eta beste bi Mondragones'ek jaso ondoren aurrean utzita. (5-5).

Seigarrena Atano'k sakez, eta urrengoa galdu. (6-6).

Zazpigarrena Mondragones'ek sakez, eta urrengoa aurrean utzita. (8-6).

Berriz Atano'k beste bi, (8-8); eta ondoren lau, iru sakez eta bat ezkerrez aire artuta utzirik. (12-8).

Mondragones'ek ederki zabalera botata egin du urrengo tantoa, eta beste bat sakez. (10-12).

Ondoren Atano'k lau tanto, bi sakez eta beste bi jokera ederrak eginda. (16-10).

Atano'k falta saketik, eta urrengoa uts. (16-12).

Ondorengoan Mondragones'ek bi ormak (paretak) jota, zabalean falta, eta... agur! Atano'k *tiki-taka*, sakez, boleaz eta aurrean utzirik, zazpi tantoak segituan egin ditu. (22-12).

Beraz, Atano TXAPELDUN. Gora Atano!



(1926)  
**BERTSO BERRIAK**  
**GIPUZKOARREN ONRARI JARRIAK**

- 1/ Kantuaz onrak merezi ditu  
gure Ama Gipuzkoa'k,  
nola dauzkan seme prestuak,  
kementsu egiazkoak;  
oriek dituzte anka bizkorrak,  
ala beso ta eskuak,  
izenez esan bear dizutet  
nor zein aziotakoak.
  
- 2/ Jose Aranburu aizkoran buru,  
izengoitia Keixeta,  
Urreztillean bizi da guztiz  
famili ederra azita,  
jokatutako apustu danak  
ziaro irabazita;  
askoren begiak poztutzen dira  
bere aurrean ikusita.

3/ Ukabilkaria errezildarra,  
berau Paulino Uzkudun,  
guztiak arrunt botatzen ditu,  
ez dakigu zer esku dun;  
jakin nai nuke ori munduan  
ia zenek ausiko dun,  
urrena orrengana etortzen danak  
bai eta zer usteko dun.

4/ Santson bigarrena pultsuan berriz  
Ernani'ko Eltzekondo,  
Amerika'ra eramán zuten,  
an ere portatu ondo;  
obeagorik ikusitzerik  
nik ez det uste egundo,  
arri jasotzen buru daudenak  
Aritza eta Artondo.

5/ Karga eramaten Patxi Aldaba  
izan da ospatsuena,  
lau probintzi onetan badu  
aundiena aitormena;  
bakar-bakarrik urtez dagola  
piska bat gora joana,  
baño ala ere proatu nai du  
kontra agertutzen dana.

- 6/ Palenkan berriz berastegitarra  
degu Gabino Lizartza,  
iru aziotara jokatutzeko  
lendikan dauka txapeltza;  
naiz euskaldun, italiano,  
alemana ta prantzesa,  
kontrariorik baldin badago  
beregana agertu beza.
- 7/ Laisterka berriz Manuel Mujika  
dago amezketar zarra,  
berrogei ta zazpi urtez goikorik  
iñundik agertzen bada;  
bere edadeko bati orretzek  
emango dio lan txarra,  
ori aurretik jarritzekoa  
ez du bearko mantxarra.
- 8/ Eskuz da palaz, zestoz, goantez,  
dauzkagun pelotariak,  
beste iñungo probintzietan  
ezin billatu obiak;  
oien beso ta anketan ez daude  
nagiak zañan ariak,  
beste guztiak orrela dirala  
zorrotz ta argi begiak.

- 9/ Belarra ebakitzen ausitzen ditu  
Aia'ko Lokate segariak,<sup>1</sup>  
itsasoz berriz oriotarrak  
onenak arraunlariak;  
*Real Unión*'ek gain-gañoak  
pelot-ostikalariak,  
indarra badute Gipuzkoa'ko  
baba, talo ta ogiak.
- 10/ Eizean berriz arrigarria  
eibartar Sarasketa,  
erri ori arma egiten  
dago konduz beteta;  
lengo batean neroni nago  
anuntzioa leituta:  
griegorentzako ein bear dituzte  
eun milla eskopeta.
- 11/ Gipuzkoa'k nola galaiak  
igoal dauzka damak,  
eguzkiaren azpian diran  
alabarik ederrenak,  
belardi bati lora gozoak  
bezela Jaunak emanak;  
zori onekoak izan dirade  
orien aitak eta amak.

---

<sup>1</sup> Bertso-paperak: *ayak Lokate segariak*.

12/ Gure Gipuzkoa'k sorkeratikan  
oroimen aundiak ditu,  
nik jarri naia guztiak bañan  
zein liburutan kabitu?  
Ama Gipuzkoa'k seme-alabak  
biotzez maitatzen ditu,  
aurrera ere mundua mundu  
dan arte zintzo jarraitu.

13/ Lenago ere ausi zituzten  
lur ontan erromatarrak,  
tente jarrita izarraiz beira  
zabaldua atzaparrak;  
bildurrik gabe oju egin zagun:  
«Gora gipuzkoatarrak!»  
Orra ipiñi amairu bertso  
Patxi errotari zarrak.

*1926'an Erauskin Errotariak*

Bertso-papera, *Beasañe'n A. Zunzunegi'ren  
moldiztegian* argitaratua eta Orioko Gregoria  
Ibargoyen zanaren eskutik jasoa.

(1927)  
**BERTSO BERRIAK**

1/ Auxen da era etorri dana  
bertso batzuek jartzeko,  
kulparik gabe preso egon diran  
itsasondotarrantzako;  
letra bat ere ez da izango  
iñor ofendituzeko,  
eskerrak onak lege-gizonak  
zeuzkatela libratzeko.

2/ Millaz ondoren bederatzi eun da  
ogei ta seigarren urtean,  
Azaroaren amalauean  
egun señalementean,  
negargarri bat gertatu zana  
Gipuzkoa'ko partean,  
Beizama erriko Korosagasti  
baserri etxe batean.

3/ Etxe orretan bizi ziraden  
ama ta alaba bakarrik,  
lanean zintzo saiatzen ziran  
egin gabetan oporrik;  
egun orretan arkitu ziran  
biak ill da otziturik,  
Euskalerrian ez da gertatu  
askotan orrelakorik.

4/ Jazinta Odriozola beste alaba  
neskame zegona Tolosa'n,  
egun orretako amaikaetan  
etxe ortara igo zan;  
bere ama ta aizpea illak  
billatutzalle bera zan,  
aditzerakin ala errira  
destetxaetan joan zan.

5/ Jazinta bera parte ote zan  
jarririk errezeloso,  
kulparik gabe egotea're  
izan zeikean akaso;  
zerbaitengatik sartua zuten  
bigarren aldian preso,  
ezda gañera libratu ere  
garbi jakiñ arte oso.

6/ Agintariak saiatu ziran  
nun billatuko usaiak,  
ama-alabak il zituztenak  
agertutzeko etsaiak;  
lendabiziko artu zituzten  
ijitano ta artzaiak,  
kulparik gabe preso, etzeuden  
aien biotzak lasaiak.

7/ Andik urrena Itsasondo'ko  
Lizarditara jo zuten,  
aurrean artu Azpeitia'ko  
kartzelara zuzen-zuzen;  
periodiko batzuek berriz  
gezur aundiak zabaltzen,  
oiek kulpante omen zirala  
baita're askok sinisten.

8/ Eriotz aiek bateonbategin  
egin zituan serio,  
esan lezake alkarrengana  
asko zutela odio;  
aizken orduan guztion Aitak  
kontuak artuko dio,  
zenbait familik negar egin du  
kaso ori zan medio.



- 9/ Aita semeak, ama alabak,  
senar eta emaztiak,  
izan dituzte oso garratzak  
gau t'egun, jai ta astiak;  
kulparik gabe eraman bear  
oinbeste pena tristiak,  
orain etxean libre daude ta  
aztu bitzaie guztiak <sup>1</sup>.
- 10/ Ondo dakigu iltzalle oien  
billa zorrotz dabiltzala,  
denok nai degu gaizki egiñak  
arren argitu ditzala;  
merezi du-ta bizia kendu  
edo betiko itzala,  
kulpa gabe preso egotetikan  
Jainkoak libra gaitzala.
- 11/ Maiatz illaren ogei ta batean  
ta larunbat-arratsian  
aitzenekoak aita-semeak  
erabat libratu zian;  
poz-dardara bat sartu zitzaigun  
askori bai biotzian,  
lo-gurerikan iñork etzeukan  
oiek errian sartzian <sup>2</sup>.

---

<sup>1</sup> Bertso-paperak onela ditu puntuak: *emazteak, asteak, tristeak, guztiak*.

<sup>2</sup> Bertso-paperak onela ditu puntuak: *arratsean, ziran, biotzean, sartzean*.

12/ Orra azaldu kulparik gabe  
nola egonduak diran,  
iñorentzako mesederik ez,  
familientzat galeran;  
onra emanaz bertsoak kanta  
mundu guztien aurrean,  
iltzalle krimen lapurrik ezta  
Itsasondo'ko errian.

### *Erauskin Errotariak*

Bertso-papera, «*Beasañ'en A. Zunzunegi'ren etxian*» argitaratua, Altzo-azpiko Olazabal-berri'ko Inazio Zabala'ren eskutik jaso.

Bigarren bertsoan esaten danez, Beizama'ko erailketa au 1926.XI.14'an izan zan. Baiñan bertso auetan aitatzan diran guziak gertatu zira-nerako, urrengo urtea sartu ta ondo aurreratua izango zan, ziur aski. Orregatik, 1927'eko bertsoak izango dira auek.

Ain zuzen, Gregorio Mujika zanaren bilduman ere arkitu degu bertso-paper au, eta ontan, eskuz erantsita, onela esaten da: 1927.

\* \* \*

Leen azaldu degunez, Erauskin'ek bertsoak jarri zizkion 1920'eko Eibar'ko erailketari; eta 1926'eko Beizama'ko oni ere bai.

Aretzaz periodiko batek esan zuana, emen ezarria degu. Beizama'ko onetzaz ere mintzatu ziran noski, ta luze ta ugari itzegin ere. Orregatik, ez dago aien itzak onera aldatzerik.

Eriotza batetik bestera sei urte igaroak ziran. Ez da tarte luzea; bañan hitarte ortan astekari

bat sortu zan euskeraz, *Argia*, gure izkerari bide berri bat zabalduaz: kazetalaritza.

Idazle iaierik berealaxe izan zuan *Argia* orrek. Oietako bat, dudarik gabe, *Jeme* izengoitia erabiltzen zuana: Gregorio Mujika zana (1882-1931). Jaun onek gutxienez bi aldiz itzegin zuan Beizama'ko eriotza orretzaz. Ta *Garbi* izengoitiaz firmatzen duan batek ere, beste lan bat idatzi zuan gertaera berari buruz. *Garbi* ori, *Argia*'ren zuzendaria bera zan: *Garitaonandia*'tar *Bitor*.

Iru idazlan oiek, merezi dute-ta, onera aldatzen ditugu. Erdal periodikoen jokaeraren aurka, oso gogor azaltzen dira. Geroak, urte askoren buruan bada ere, arrazoi oso-oso eman zien. Gizatasunez jantzia jaio zan, beraz, euskal aldizkaritza.

Irakurlea oartuko danez, Erauskin ere, *Jeme* eta *Garbi* oien iritziko azaltzen da, «periodiko batzuek berriz gezur aundiak zabaltzen» eta abar esaten duanean.

Ona, bada, *Jeme* eta *Garbi* oiek Beizama'ko gertaera oni buruz idatziak:

(*Argia*, *Azilla*, 21, 1926)

### BEIZAMA'KO ERAILKETA

Lerro oek zuen eskuetara irixterako, gauza argi jarrita egongo da noski; gu idazten ari geranean, ordea, illunpetan gaude oraindik.

Gauzak nola gertatu ote diran jakiteko irrikitzen dago jendea. Zertzelada guziak, zuztarretik atera nai lituzteke.

Ez nik. Jakin-nai baño samintasun geigo erne-arazten dirate neri orrelako gertaera negargarriak.

Gure baserri maite-maite oetan orlako gauzak gertatu dirala sinistu bearrak, benetan garrazten digu biotza!

Otoitzak ildakoen alde. Errudunentzat, kupira. Zigorra, bear baldin bada; baña kupira ere bai.

\* \* \*

(*Argia*, 1926.XII.5)

### **EZ ORLAKORIK!**

Neronek ere badakit. Batek baño geigok esango zenuten noski onezkero: *Argia*'k zer dala-ta ez ote ditu ekartzen, eguneroko geienak bezela, Beizama'ko gertaldi orren berriak?

Zergatik? Nai ez degulako. Gauza oiek ixilik erabakitzekoak diralako. Zer uste zenuten, bada: gu ere, beste geienak bezela, or ibilliko giñala mendiz-mendi ta baserririk-baserri, zer ikusi ta zer asma, bestien bizikera zuztarretik atera ta guzioen begi-aurrean arrotu ta zabaltzen?

Ez ta ez ta ez. Beizama'ko erailketa ori dala-ta esan diranak, nazkatuta gauzkate gu. Ainbeste jendien gora-bera ixillenak esatea, beren bizikera ta izaera tellapetik atera ta garraxika adieraztea, etxe barruko gauza izkutuenak paperetan lotsa gabe banatzea... orlakorik ez degu guk egingo.

Epailariaren alde zerbait egin al izan bagenu, bai, egia len bai len argi jartzeagatik alegiña egingo genuen. Baña zakur gosetiak bezela, gero kupira gabe maxiatu ta ausnartzeko berri-zai dau-denai atsegin emateagatik? Ez da tutik ere. Gauza nazkagarriagorik...!

Besteen bizikerari begirune aundia diogu guk, eta egun oek guzietan egunerokoak esan dituztenak jakitean, min aundia artu degu. Ala itzegiteak diru asko omen dakarkie paperai. Bai? *Argia*'k ez du bada orrelakorik esango. Ezda goseak ilko baldin badu ere.

*Jeme*

\* \* \*

(*Argia*, 1926.XII.5)

### BEIZAMA'KO ERAILKETA DALA-TA

Ixilik gaudela, *Argia*'k gertaera negargarri orretzaz ezer ez dakarrela-ta, gure irakurle batzuek asarre dirala entzun degu.

Ixilik gaudela: jakiña ba, jueza ixilik dagon artean guk ixilik egon bear. Zer nai dezute ba? Ezeren berririk izan ez, gauzak nola gertatu diran iñork ezertxo ere jakin ez, eta alaz ere, gertaera orren berri, zertzelada guziak emanaz azaltzea? Ez, irakurleak, ez. Eginkizun ori juezaren eta bere lagunen gain dago, ta bera ixilik dagon artean guk ez degu berri oiek *asmatzeko* esku-biderik.

Au egiya ta gizabidezko oitura izan arren or ari dira eguneroko periodiku batzuek au t'ori ta bestea asmatuaz orrialde osoak gertaera orretzaz betetzen. Alaz ere, egiyak azalduaz kaltegarriak esango ez baluteke, gaitzerdi; bañan, ez da orrela, zoritxarrez: periodiku oiek esan dituztenak gizon eta sendi zintzo batzuei iraingarri ta laidogarri zaizkate ta orretarako eskubiderik ez dute; lagun urkoari bere izen ona galtzea pekatu dala ta zigorgarri dala, jakin bearrean daude. Batez

ere, astearteko periodiku baten irakurri genuena lizunkerizko «novela» oietako bat bezin kaltegarritzkoa zan. Zikinkeri oiek katolikotzat agertu nai dutenen menpeko periodikuetan...! Utikan!

Lengo egun batean artu genuen oietako periodiku bat, eta iru lerro, iru *kolumna* oso-osorik gai orretzaz zekarzkien; irakurri genuen eta... ezer ez, argi izpitxo bat eman zezaken itz bat ere etzekarren; eta au berak aitortzen zuan, irugarren lerro azkenean onela zion bada: «Azkenengo arrastada: ezeren deusik ez.» (*Ultima impresión: nada de nada.*) Eta, orretarako bete iru lerro? Bai, gizona: ta, zerekin? Ba, ziñezko berriak biltzeko iturrira, Azpeiti'ra joan zirala, an lenbizi emakume talde bateri galdetu (tokitara berri billa!), gero gizon batzuei; ondoren, giltzapetuta zegoan gazte bat au t'ori ta bestea zala (iraingarriak benetan), beriala ori guzia egiya etzala esan bear bazuan ere; juezarekin itz egin zutela, baña ezin izan zutela ezertxo ere atara, eta abar; azkenez «ezeren deusik etzekitela» aitortzeko.

Orrela izaten dira periodiku askoren *berriak*: berriketa ta uskeria, ta, len esan degunez, kaltegarriak ez balirake gaitz-erdi.

Beste eguneroko batek zion: «Juezak ezer ez dion bitartean, ixilik egon bear dala»; bañan ori, iru-lau lerro gai beretzaz bete ondoren esaten zuan. Ori al da ixilik egotea?

Ez gaude oiekin: aurka gaituzte.

Badakizute, bada; orlako gertaeratzaz, gure aburuz, zenbat berri gutxigo, ainbat obe.

Juez jaunak itz egiten duanean, jakingarri diran berriak emango ditugu; besterik ez.

*Garbi*

(1927)  
**AZPEITI'KO AIZKOL-APUSTUA**

1/ Azpeiti'n aizkol-neurketa  
izandu zan irmo,  
aiatarra bizkor ta  
bestea're ermo;  
mingañaz ixil eta  
biotzez animo,  
irabazi zuan, gora  
gure Jeronimo!

2/ Nik ez det bat jaso nai  
ta bestea jetxi,  
ondo neurtu arte  
ezin bada etsi;  
aiatarra aizkoraz  
ez da gero gutxi,  
Jeronimorentzako  
ez arren iritxi.

3/ Onek erronka gutxi  
egiten du jaurti,  
ixil-ixil eta apal  
ikusten da beti;  
aditzera bat garbi  
eman nai det gaurti:  
Keixetaren txapeltza  
Jeronimok aurki.

4/ Aizkol-neurketa ori  
zan miragarria,  
aberastu-azi du  
errian erdia;  
Juan Marik prantzes brusa  
oroiki jarria,  
nik ere neregandu  
erleju berria,  
pozkiro dago beraz  
*Erauskin Errotaria.*

Lau bertso auek *Argia*'n argitaratu zituan Erauskin'ek, 1927.V.1'an.

Apustua, 1927.IV.18'an jokatu zan. Aizkolariak ziran: Azkoiti'ko Jeronimo Iturbe, *Agiñeta*, eta Leon Uegun, *Aia'ko Txikia*. Milla pezetako trabesa egiña zuten. *Agiñeta*'k irabazi zuan.

Bezperan, 1927.IV.17'an, onela zion Erauskin'ek *Argia*'n:

«Aizkol-neurketa Azpeiti'n Berpizkunde bigarrenez jokatzea erabaki dute. Gogorra izango



da. Ustea bi aldetara dago, baña batek irabazi bear. Neuk Jeronimoren alde egingo nuke ogerleko apari bat, naiz-ta txindia *Txikia*'ren alde egon.»

Irugarren bertsoan, «Keixetaren txapeltza Jeronimok (Agiñeta'k alegia) aurki» izango duala esaten du Erauskin'ek. Bai alaxe gertatu ere, bereala ikusiko degunez.

(1927)

**BERTSO BERRIAK**  
**DONOSTI'KO EUSKAL ASTEARI JARRIAK**

1/ Millaz geroztik bederatzi eun ta  
urte ogei ta zazpian,  
Agorra-illak oroigarria  
zuan bigarren astian;  
euskal pestak izan dirade  
Gipuzkoa Donostia'n,  
ederragorik ez det ikusi  
neure denbora guztian.

2/ Aurreaz garbi nola zeuden  
aditzera emanak,  
millaka gutxi ez dira gero  
bertan izandu diranak;  
ikusi're bai Gipuzkoa'ko  
aizkolaririk onenak,<sup>1</sup>  
seme bizkorrak azten dituzte  
euskaldun aitak eta amak.

---

<sup>1</sup> Bertso-paperak: *aizkolarik onenak.*

3/ Egun bakoitzean jokatu bear  
zutean bada biñaka,  
saiatu dira irabaztea  
guztiak alegiñaka;  
mundu onetan kristau guztiak  
ez gera berdin griñaka,  
neroni ere joango nitzake  
talentu ori baneuka.

4/ Astelenean Illarragorri  
ta Yarza ziran asi,  
oso ederki egin zutela  
baita're askok ikusi;  
abildadea dadukanari  
nola bada galerazi?  
Seina trunkotan bi minutuaz  
Yarza'k bai irabazi.

5/ Asteartean Mendaro-Txiki'k  
Aia'kin bear jokatu,  
Aia ori berriz bear zan orduan  
plazara etzan agertu;  
aren tokian Yarza'k ala  
parte egin zuan artu,  
irabaziaz asteleneko  
markak gañera pasatu.

- 6/ Eman diote mutil orrixe  
bizkorra dagoan antza,  
asitzerako ere orrekin  
askok zuten esperantza;  
beraren pixu ingurukoa  
egingo lukela dantza,  
iru egunetan irabazi dek,  
bejundeiala, Yarza!
- 7/ Astazkenean jokatu ziran  
Iturbe ta Irañeta,  
irabaztera saiatu ere  
biak bai alegiñeta;  
indarrak ondo erakutsiaz  
eskuetatik oñeta,  
Jeronimo bai igo zaigula  
odei guztien gañeta.
- 8/ Ostegunean Errekalde ta  
mendarotar Kortaberri,  
beren zortziña trunkon gañean  
dotore ziraden jarri;  
zein geiago ote ziraden  
alkar egin zuten neurri,  
bi minutuan diperentzian  
Errekalde garailari.

- 9/ Larunbatean Errekalde ta  
Jeronimo bi onenak,  
aizkolarien txapela artzea  
irabazitzen zutenak;  
Iturbe onek moztuak ditu  
aurretik trunkoak danak,  
txalo gogorak jo zizkioten  
begira egon ziranak.
- 10/ Iturbe'tar Jeronimo zan  
Agina'n jaio ta azi,  
orren aita eta amak dituzte  
meditu asko merezi;  
Gipuzkoa'ko aizkolarien  
txapela du irabazi,  
opa diogu urte askoan  
egin deiola egutsi.
- 11/ Kontrarioak aldamenean  
jarriagatikan firmo,  
bildurrik gabe agertutzen da  
txit langille eta irmo;  
orrek mingañez erronka gutxi,  
biotzez asko animo,  
oju garbi bat egin dezagun:  
Gora geure Jeronimo!

12/ Orren portamena ez da izango  
eunki batean aztua,  
mundu guztian aitortutzen da  
seme zintzo ta prestua;  
makiña batek estutu dio  
Donostia'n bai eskua,  
señaletzako eman gañera  
aizkora zillarrezkua.

13/ Ikusi dira orren almenak  
ez diradela urriak,  
millaka asko txaloka zeuden  
orri begira jarriak;  
Jeronimo bai seme jatorra  
badauka Euskal-Erriak,  
beraren onran amairu bertso  
Erauskin Errotariak.

Bertso-papera, *Beasañ'en*: A. Zunzunegiren  
*etxian*, 1927-garren urtean argitaratua, eta Na-  
parroa'ko Igantzi'n Juan Sein'en eskutik jaso.

\* \* \*

1927'eko Agorrillean, euskal festak antolatu  
ziran Donostia'n. Etzan ezeren paltarik: elizki-  
zunak, erromeria, pelotariak, dantzariak, abesla-  
riak, izlariak, antzerkia, arraunlariak, arri-jaso-  
tzalleak eta abar; eta aizkolariak ere bai.

Aizkolariak bi mailletan eratu zituzten: batean,  
72 kilotik beerakoak, *B - Mailla*; bestea, pisu or-  
tatik gorakoak, *A - Mailla*.

*B - Mailla*'ko aizkolariai buruz, onela zion *Argia*'k, 1927.IX.18'an:

«Astelenian asi zan *Aizkolari-txapeltza*. Lenengo egunian, *Azpeiti*'ko *Igartzak* eta *Nuarbe*'ko *Illarragorri*'k jokatu zuten. 45 ontzako sei enbor bakoitzak ebaki bear zituan.

Lenbiziko enborra *Illarragorrik* *Igartzak* baño 14 segundo lenago ebaki zuan: baño irugarrenian *Igartzak* aurrea artu zuan, baita 2 miñutu ta 8 segundo aurrerago amaitu ere.

Gutziz, *Igartzak* 13 minutu ta 46 segundo igaro zitun; *Illarragorrik* 15 minutu ta 54 segundo.

Bigarren egunian, *Igartzak* eta *Mendaro*'ko *Kortaberri II*'ek. Egun ontan ere *Igartza* nagusi.

*Igartzak*: 13 minutu ta 40 segundo.

*Kortaberrik*: 14 - 37.

Beraz, *Igartza B - Sail*'eko txapeldun; *Kortaberri* bigarren, eta *Illarragorri* irugarren.

*Aia*'ko *Txikia* etzan agertu. Zergatik? Ez dakigu.»

\* \* \*

*A - Mailla*'ko aizkol-txapelketa, *Erauskin*'ek ederki aditzera ematen duanez, onela egin zan:

Asteazkenean, *Agiñeta* eta *Tolosa*'ko *Iriñeta*'k jokatu, eta arek irabazi. Ostegunean, *Errekalde* ta *Kortaberri*'k jokatu, eta arek irabazi. Larunbatean, *Errekalde* eta *Agiñeta*'k, eta onek txapela eraman, *Azken* neurketa onetzaz onela dio *Argia*'k, 1927.IX.25'an:

«Ordiziar *Agiñeta* ta azkoitiar *Rekalde*, oitura ederrai jarraituaz *Aitaren* eginda, kementsu asi

ziran. 54 ontzako 8 enbor (tronko) ebaki bear zituzten.

Ikusle guziak arretaz zeuden aizkolari bular-tsuei begira, enbor bakoitza ebakitzean txalo ta eupadak zuzenduaz.

Lenengotik Agiñeta'k aurea artu zuan 53 segundoren bentaja artuaz, eta orrela, gutxi gorabera jarraitu zuan azkenera arte.

Aizkolari bakoitzaren lana:

Agiñeta'k:

Enbor (tronko) bat miñutu bat eta 50 segundo.

Bi: 4 miñutu ta 51 segundo.

Iru: 8 - 3.

Lau: 11 - 34.

Bost: 14 - 34.

Sei: 17 - 53.

Zazpi: 21 - 40.

Zortzi: 25 - 41.

Aurreko egunean: 24 - 55. Guztiz, bi egunetan: 50 minutu ta 36 segundo.

Rekalde'k:

Enbor bat: 2 miñutu ta 43 segundo.

Bi: 5 - 43.

Iru: 8 - 55.

Lau: 12 - 12.

Bost: 15 - 36.

Sei: 19 - 7.

Zazpi: 22 - 43.

Zortzi: 26 - 32.

Aurreko egunean: 29 - 34. Guztiz, bi egunetan: 56 minutu ta 6 segundo.

Beraz, *Agiñeta txapeldun.*



(1927)  
**ARROSPIDE'RI**

*Argia'n*, 1927.VI.19'an, Irura'n jaio ta Ernani'n bizi zan *Arrospide'k*, bost bertso argitaratu zituan. Lekuz urri xamar gabiltza ta ez ditugu onera aldatzen. Bañan, bertso oietan esaten duanez, merienda ederra egiña zuten Ernani'n zortzi lagunek: Balerdi, Prantzes, Lasa, Sarasola, Arrospide aita-semeak, napar Belantxio ta Patxi Erauskin. Balerdi'k pagatu zuan. Jatekoa zuten:

Iru ankako kazuela aundi bat  
dana friteraez betea,  
sagardo edanez ustu genduan,  
gose zegoen jendea...

Erantzuna, iru bertsoan eman zion Erauskin'ek, *Argia'n*, 1927.VII.17'an:

- 1/ Arrospide'ri erantzun bearra  
orra zer lan dadukean,  
oso pozikan lana egiten det  
era onetako nekean;  
zuenganako maitetasuna  
daukat biotza betean,  
zori onean bildu giñaden  
Ernani erri maitean,  
Loinaz-egunaz oroituko naiz  
bizirik naizen artean.
  
- 2/ Zorionean jarri ziñaten  
neure begien aurrean,  
zuek ordaintzeko txindirik ez da  
zillarrean da urrean;  
alkarregana maitetasuna  
izanaz bizi laburrean,  
esan au gero gezurra dala  
ez artu derriorrean,  
lagun oberik etzait sortuko  
ludi ontako lurrean.
  
- 3/ Jaio ezkerro ez gera izan  
enaste asko paseak,  
txiro samarrak izanagaitik  
garbientako klaseak;  
ez-bairik gabe laguntzen digu  
Goiko-Jaunaren graziak,  
iruratarrak berdindu zigun  
ijara melar luziak,  
Balerdi'rekin adiskide gauden,  
ez gaitu ilko gosiak.


Arrospide'k beste bost bertso argitaratu zituan *Argia*'n, 1927.VII.31'an, Erauskin'entzat. Baiñan onek etzion erantzunik eman.

## ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1. *R. Artola*: Sagardoaren Graziya (*Aitua*).
2. *M. Soroa*: Gabon, Au ostatubal, Anton Kaiku. (*Aitua*).
3. *F. Apalategi*: Euskal mutillak armetan, I. (*Aitua*).
4. *Pepe Artola*: Ustez laguna detan. (*Aitua*).
5. *P. M. Urruzuno*: Euskalerritik zerura. (*Aitua*).
6. *T. Alzaga*: Ramuntxo. (*Aitua*).
7. *R. Azkarate*: Galtzaundi. (*Aitua*).
8. *A. Apaolaza*: Patxiko Txerren. (*Aitua*).
9. *B. Iraola*: Oroitzak. (*Aitua*).
10. Errege eguneko bertso sayoa. (*Aitua*).
11. *P. Larzabal*: Bordaxuri. (*Aitua*).
12. *Bilintx*: Bertso ta lan guziak. (*Aitua*).
13. *M. Izeta*: Dirua galgarri. (*Aitua*).
14. *P. Larzabal*: Iru ziren. (*Aitua*).
15. Ezkontza galdutako bertsoak, I. (*Aitua*).
16. *A. M.<sup>a</sup> Zabala*: Gabon gau bat. (*Aitua*).
17. *A. M.<sup>a</sup> Labayen*: Malentxo alargun! (*Aitua*).
- 18-19. *A. Zavala*: Txirrita. (*Aitua*).
20. *F. Goñi*: Lurdesko gertaerak. (*Aitua*).
21. *P. Larzabal*: Herriko bozak. (*Aitua*).
22. Bertsolarien txapelketa (30-XII-1962). (*Aitua*).
23. Aizkolariak. (*Aitua*).
24. *F. Imaz*: Bertso guziak. (*Aitua*).
25. *A. P. Iturriaga*: Jolasak. (*Aitua*).
26. *A. M.<sup>a</sup> Zabala, A. Larraitz, Mir*: Periyaren zala-partak.
27. Azpeitiko Premiyoaren bertsoak. (*Aitua*).
28. *B. A. Mogel*: Ipui onak. (*Aitua*).
29. *T. Alzaga*: Burruntziya. (*Aitua*).
30. *G. Anduaga*: Egunsentiko txoria. (*Aitua*).
31. *M. Soroa*: Baratzen. (*Aitua*).
32. *M. Elicegui, A. Zavala*: Pello Errotaren bizitza. (*Aitua*).
33. *M. Elizegui, A. Zavala*: Pello Errotak jarritako bertsoak.

34. *P. Larzabal*: Senpere-n gertatua. (*Aitua*).
- 35-36. *J. V. de Echagaray*: Festara.
37. *A. Cardaberaz*: Euskeraren berri onak. (*Aitua*).
38. *S. Salaverria*: Neronek tirako nizkin. (*Aitua*).
39. *Bertsolariak*: Amar urteko bertso-paperak. (*Aitua*).
- 40-41. *J. R. Zubillaga*: Lardasketa. (*Aitua*).
42. *Uztapide*: Noizbait. (*Aitua*).
43. *Bertsolari-txapelketa*. (1-I-1965). (*Aitua*).
44. *P. Larzabal*: Hilla esposatu. (*Aitua*).
- 45-46. *J. M. Satrustegui*: Bordel bertsolaria. (*Aitua*).
47. *P. M. Urruzuno*: Iru ziri. (*Aitua*).
48. *P. Barrutia, Sor Luisa, X. Munibe*: Teatro zaarra. (*Aitua*).
- 49-50. *A. Zavala*: Pello Errotaren itzala. (*Aitua*).
51. *P. M. Urruzuno*: Ur-zale baten ipuiak. (*Aitua*).
- 52-53. *G. Anduaga*: Bertso-bilduma.
54. *A. Zavala*: Fernando Amezketarra bertsolaria. (*Aitua*).
55. *Basarri*: Laugarren txinpartak. (*Aitua*).
56. *A. Zavala*: Udarregi bertsolaria. (*Aitua*).
- 57-58. *C. Beobide*: Asis'ko Lorea. (*Aitua*).
59. *A. Zavala*: Axentxio Txanka bertsolaria.
60. *A. Zavala*: Errikotxia, Itxaspe ta beste zenbait bertsolari. (*Aitua*).
61. *A. Zavala*: Gaztelu bertsolaria.
62. *A. Zavala*: Zarautz'ko Zaldubi bertsolaria.
- 63-64. *A. Zavala*: Juan eta Pello Zabaleta bertsolariak.
65. *J. M. Satrustegui*: Luzaide'ko kantiak. (*Aitua*).
66. *A. Zavala*: Iru bertsolari. (*Aitua*).
67. *Bertsolari-txapelketa* (11-VI-1967). (*Aitua*).
- 68-69-70. *A. Zavala*: Alzo'ko Imaz bertsolaria.
- 71-72. *A. Iturriaga*: Ipuiak.
73. *A. Zavala*: Iru anai bertsolari. (*Aitua*).
- 74-75. *A. Zavala*: Errenteria'ko bertsolari zaarrak.
76. *A. Zavala*: Alza'ko bertsolari zaarrak.
- 77-78. *A. Zavala*: Paulo Yanzi ta bere lagunen bertsoak. (*Aitua*).
- 79-80-81. *A. Zavala*: Lexo bertsolaria.
82. *A. Zavala*: Juan Maria Zubizarreta bertsolaria. (*Aitua*).
83. *A. Zavala*: Motza, Zulaika ta Ugalde bertsolariak. (*Aitua*).
84. *M. Matxain*: Uste gabeen.
85. *Xalbador*: Ezin bertzean. (*Aitua*).
- 86-87. *A. Zavala*: F. Iturzaeta bertsolaria.

- 88-89-90. A. *Zavala*: Xenpelar bertsolaria. (*Aitua*)
91. A. *Zavala*: Txapel bertsolaria. (*Aitua*).
92. I. *Alkain*. — A. *Zavala*: Alkain aita-semeak.
93. A. *Zavala*: Zubeltzu ta Saikola bertsolariak.
94. A. *Zavala*: Atano ta Estrada bertsolariak. (*Aitua*).
- 95-96. A. *Zavala*: Azkoitia'ko zenbait bertsolari.
97. A. *Zavala*: Bidasoa aldeko bost bertsolari.
- 98-99. *Inozentzio Olea*: Goierriko lorak.
100. *Manuel Lasarte*: Bertso-mordoxka. (*Aitua*).
- 101-102. A. *Zavala*: Txirritaren bertsoak. I. (*Aitua*).
- 103-104. A. *Zavala*: Txirritaren bertsoak. II. (*Aitua*).
105. *Jose Inazio Etxeberria*: Mendi-gañetik.
106. A. *Zavala*: Pastor Izuela. — Ezkioko ta Segurako itxuak.
107. A. *Zavala*: Zepai bertsolaria. (*Aitua*).
108. *Mattin*: Ahal dena. (*Aitua*).
- 109-110. *P. Lafitte*: Mañex Etchamendy bertsolaria.
111. *Bertsolariak*: Xenpelar-saria, 1972. (*Aitua*).
112. *Basarri*: Sortu zaizkidanak.
113. *P. M. Urruzuno*: Sasiletrau baten ziria.
114. A. *Zavala*: Kaskazuri bertsolaria.
115. A. *Zavala*: Larraburu, Lexoti ta Balentin bertsolariak.
116. A. *Zavala*: Oiartzungo bost bertsolari.
- 117-118. *Balendin Enbeita*: Nere apurra.
119. A. *Zavala*: Oiartzungo beste lau bertsolari.
- 120-121-122. A. *Zavala*: Mendaro Txirristaka.
- 123-124-125. A. *Zavala*: Zampirain anaiak.
126. A. *Zavala*: Ustu ezin zan ganbara.
127. *M. Arozamena*: Nere aldia.
128. A. *Zavala*: Amodiozko penak bertso berrietan.
129. A. *Zavala*: Afrika'ko gerra (1859-1860).
130. A. *Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (I).
131. A. *Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (II).



AUSPOA  
LIBURUTEGIA



ANTONIO ZAVALA

# **Patxi Erauskin bertsolaria**

**(1874 - 1945)**

**III**



# **PATXI ERAUSKIN BERTSOLARIA**

**(1874-1945)**

**III**

**AUSPOA LIBURUTEGIA**

**132**

---

**EDITORIAL AUSPOA**

**Plaza de Santa María, 2 — Teléfono 66 16 12 — Tolosa  
(Guipúzcoa)**

ANTONIO ZAVALA



4 ABR. 1978

**PATXI ERAUSKIN BERTSOLARIA**  
**(1874-1945)**

**III**

**AUSPOA LIBURUTEGIA**

**1978**

© Auspoa Liburutegia - Tolosa (Guipúzcoa)  
Inprimatzalle: IZARRA - Polígono 36 - Usúrbil (Guip.)  
Depósito Legal: S. S. 16/78  
I S B N 84 - 7158 - 042 - X  
Enero - 1978

## ARKIBIDEA

|   |     |
|---|-----|
| Oarra ... ..  | 9   |
| (1927) Gora ele euskera! ... ..   | 11  |
| (1927) Bertso berriak Gora Paulino Uzku-<br>dun! Gora! ... ..             | 19  |
| Bertso berriak San Isidrori jarriak                                       | 25  |
| (1928) Bertso berriak Uzkudun'en onrari<br>Euskal-Erriak ... ..           | 31  |
| (1928) Bertso berriak baserri kaletarrak al-<br>karri jarriak ... ..      | 36  |
| (1929) Asuero sendagille jaunari ... ..                                   | 42  |
| (1930) Bertso berriak Ama Euskerari jarriak<br>Erauskin Errotariak ... .. | 44  |
| (1930) Bertso berriyak aizkol-apustu bati<br>jarriyak ... ..              | 53  |
| (1931) Gora gure Euskal Erria ... ..                                      | 59  |
| (1931) Errepublikaren etorrera ... ..                                     | 71  |
| (1931) Bertso berriyak Aita Andres Urda-<br>neta'ri jarriyak ... ..       | 73  |
| (1931) Bertso berriak (Liarni'ko Ama Birji-<br>ñari) ... ..               | 80  |
| (1931) Bertso berriak (Ezkioga'ko Ama Bir-<br>jiñari) ... ..              | 87  |
| Ezkio'ko agermenari ... ..  | 96  |
| (1931) Euskeldunei euskel izena ... ..                                    | 102 |
| Bertso berriak senar-emaztegaiak al-<br>karri jarriak ... ..              | 108 |
| San Saturninoren bertsoak ... ..  | 114 |
| (1933) Iparragirre'ri ... ..  | 120 |
| Eskui eta ezkerri ... ..  | 122 |
| (1934) Bertso berriak baseritarrak jarriak                                | 124 |
| (1936) Txirrita zanari agur ... ..  | 129 |
| Beste bertso-sail batzuk ... ..   | 132 |

## OARRA

*Patxi Erauskin'en irugarren eta azken liburu onetan, arek 1927 urtearen erdi aldetik bertso jartzeari utzi zion arteko bertsoak bildu ditugu.*

*Auetan ere zernai gai erabiltzen du: politika, Uzkudun, santu-bizitzak, aizkol-apustu bat, Urdaneta, Liarni'ko eta Ezkio'ko Ama Birjiña, sozial-zera batzuk eta abar.*

*Gure eskuetara iritxi diran Erauskin'en azken bertsoak, gerra baiño lentxeagoak dira. Txirritaren eriotzaren berri ikasi zuanean, bertso sentikor batzuk jarri zituan eta ixildu. Izan ere, gerra eta Txirritaren eriotza, bertsolari-gizaldi baten bukaera dira. Eta Erauskin'ek, bera ere gizaldi orretakoa baitzan, orduantxe eman zion azkena bere bertsogintzari.*

*Azaleko argazkia, Patxi Erauskin bere makil, erloju-kate, txapel eta abar azaltzen zaigun ori, ez dakigu nork egiña dan. Aren zenbait bertso-paperetan ere ageri da. Argazki ofiziala bezela zan, beraz. Beraren semeen eskutik jaso genduan.*

(1927)  
**GORA ELE EUSKERA!**

- 1/ Itz neurtuak jartzeko  
etorri da era,  
odeitutzen degula  
ele euskera.  
Opa bear diogu  
zor zaion eskerra,  
bestela gu beraren  
semeak ez gera;  
askok nai jestera  
lurraren azpira,  
bañan guk ostera  
zorrotz egustera;  
indartuko da gerok  
bai nor bagera.

- 2/ Goiko Jaunari nago  
eskari jarria,  
arren eman dedilla  
buruz argia.  
Neronek ez daukat  
gogoa urria,  
zabaldu nai nungo eta  
zein geran berria:  
geure sorterrria  
da Euskal-erria,  
izkuntza garbia,  
txit oroigarria;  
goiti bizi euskera  
maitagarria!
- 3/ Euskera dala euskaldun  
guztioren Ama  
askok ezin sinistu,  
au tamalena!  
Aur gatxitxiak dijoaz<sup>1</sup>  
ugaz amangana,  
argaitik datorkigu  
negargarri dana;  
seme ona dana  
bildu sendiengana  
egiteko lana  
ele alde dena;  
au da jakintsu batek  
esan ziguna.

---

<sup>1</sup> *Aur gaitz-etsiak* izango da berez, baiñan *gatxitxiak* esan oi da Zaldibi'n beintzat. Amak maite ez duan arkumeagatik esaten da. Ez dio esnerik ematen; bialdu egiten du. Orregatik, berak edo artzaiak, onartuko duen beste ardiren bat billatu bear.



4/ Euskaldunak jaió giñan,  
euskaldun azi,  
euskal ele maitea  
baita ikasi.  
Zertan bear diogu  
galdutzera utzi?  
Errukirik badegu  
zintzoro egutsi;  
gazteak onla ezi,  
euskera erakutsi,  
egingo dala jetxi  
ez dezagun etsi;  
euskera ilko balitz  
guk ez nai bizi.

5/ Gure euskera maite  
zintzo ta gozoa,  
izkuntza danetatik  
aurrenekoa;  
argaitik da ele au  
denan gañekoa,  
beronen egile zan  
Aita Jaungoikoa;  
sinista'itekoa  
bera da naikoa,  
premienekoa  
au jakitekoa:  
Tubal'ek Armenia'tik  
sortutakoa.

6/ Euskera piztea da  
batzuentzat miña,  
ori ezagututa  
negon auntziña.  
Jainkoak jarritako  
ele garbiena,<sup>2</sup>  
ez dakit zertan duten  
orrelako griña;  
dantza bai mingaña,  
saia alegiña,  
au galdu eziña,  
zer gauza jakiña:  
ludi guztian dago  
zañak egiña.

7/ Aita Larramendi ta Erro  
seme Andoain'goak  
lenengo euskeraren  
alde minduak,  
Astarloa Bizkaia'ko  
seme Durango'ak,  
euskera-auzien alde  
lana eginduak.  
Aurkariak nungoak,  
Ebro'az angoak,  
egiz emengoak  
zorrotzenengoak;  
aik bezela saiatu  
gu oraingoak.

---

<sup>2</sup> Bearbada, Erauskin'ek *elerik garbiña* jarriko zuan emen, eta moldiztegiak-edo aldatu, gramatikatzearren noski, bañan puntua gal-eraziz.

8/ Ebro'ez auztikoak  
zortzi arerio,  
euskeraz zapaldu ta  
berak nai io:  
Mariana, Mariantz, Tragia,  
Nikolas, Antonio,  
Martin, Belasko, Ledesma,  
Armesto, Osorio.  
Larramendi'k dio:  
«Jo zuek nunaitio!»  
Jatorri zar dio,  
euskerak zer dio?  
Gezurak egiari  
beti zor dio.

9/ Bere ama ukatzea  
zer tamalgarria,  
besterena maitego  
arrigarria.  
Buruz dagoalako  
jantzimen urria,  
zaitu dezagun ele  
Jainkoak jarria;  
bestela arria  
degu etorria,  
egin oju garbia  
guztiz pozgarria:  
Gora beti euskera  
zintzo argia!

10/ Jainkoak zaitutzeko  
denak jarri zizkigun,  
euskaldunak euskera  
jaso dezagun.  
Garbiagorik elerik  
ez da sortu iñun,  
batzuek esker txarra  
naiz eman gau ta egun.  
An, emen edo nun  
aitortu dezagun  
gerala euskaldun,  
gaitzala ezagun,  
etsaiak dabilzala  
Pontzion lagun.

11/ Ikasi obe ludiko  
izkuntz ele danak  
sinistu egia dala  
entzun zeutenak,  
jarriak diralako  
denon Aita Jaunak  
sorterri bakoitzari,  
baita ez-berdiñak.  
Zaitu Ark emanak,  
izanik onenak;  
ukatu ez leizkenak  
Beraren almenak;  
lenengo euskera maite  
guk euskaldunak.

12/ Azkok ez du ezagutzen  
mami ta ezurrik,  
ingi onetan ez det  
jartzen gezurrik.  
Amak ez du maiteko  
seme erazurrik,  
ez azitzea obe  
orrelako aurrik.  
Gelditu arriturik  
au sinistaturik:  
euskeran aurkarik  
dabiltza alperrik;  
Jaungoikoari besteri  
ez dio zorrik.

13/ Tentetu belarriak,  
argitu begiak,  
gezurrak azpira ta  
gora egiak.  
Euskera izartzeko  
ez izan nagiak,  
emana degulako  
Jaungoiko geuriak.  
Dirala igarriak  
atsegingarriak,  
emanaz berriak,  
olerki neurriak,  
zaldibitar Erauskin  
errotariak.

Bertso-papera, *Beasañ'en* A. Zunzunegiren *etxian*, 1927'an argitaratua, Tolosa'ko Manuel Urreta zanaren eskutik jasoa.

*Bertsolariya* asterokoak ere atera zituan bertso auek argitara, bere 48 zenbakian, 1932.VIII.14'an, eta batere aldaketarik gabe atera ere, uste gabe-ko utsegite bat edo beste izan ezik.

\* \* \*

*Argia'n*, 1931.X.4'an, bertso au argitaratu zuan Erauskin'ek euskerari buruz:

Sasi tarteko lora-xorta bat  
bezela da geure euskera,  
nik ez dakit zerk ekarri gaitun  
au artaraño uztera;  
esku on batek bein agertuko  
baluke erakustera,  
ez oni utzi lurperatzera,  
bestela iñor ez gera.

\* \* \*

*Argia'n*, 1932.VIII.14'an, bigarren eta irugarren bertsoa argitaratu zituan. Aldaketak: 2/9: gure Aberria; 2/10: da Eusko Erria; 2/13: goitik bizi Euskadi; 2/14: zoragarria; 3/1: Euskadi dala euskotar; 3/7: argaitik etorri zan; 3/12: Jel alde al dana; 3/13: au da Sabin aundiak; 3/14: esan zuana.

(1927)  
**BERTSO BERRIAK**  
**GORA PAULINO UZKUDUN! GORA!**

1/ Beste lan danak alde bat utzi,  
gertatutzen naiz betara,  
Paulino Uzkudun ospatsuari  
nairik bertsoak atera;  
europatarrak azpiratuta  
joan zan Ameriketara,  
oso bizkorrak an bazeudela  
proatzera aietara,  
ezagun zagun gizon batekin  
gutxi zeukala ikara.

2/ Amerika'ra joan zanean,  
gizon batzuen esanak  
gogoan dauzkat oraindik ere,  
etzait aztuko, ez, danak:  
«Toki askotan seme bizkorrak  
egiten dituzte amak;  
alde aietan jinasietan  
nola diraden onenak,  
Paulino Uzkudun apurtuko du  
an agertzen dan txarrenak.»

- 3/ Ori joan arte Amerika'n da  
 Cuba'n zebiltzan dotore,  
 oraiñ orrekin bildurra sartu  
 mamitik ezurreta ere;  
 oraindiokan alper-alperrik  
 orrekin asi dirade,  
 zenbat burruka egin dituan  
 ez au ausi batek ere,  
 zuriak bezin aguro jo du  
 Arribiltx beltz ori ere.
- 4/ Milla beratzi eun da ogei ta zazpian  
 eguna zan urte berri,  
 lendabiziko Habana'n jarri  
 zitzaion Martin Ogradi;  
 Kalifornia'ko ukabilkarin  
 txapelduna zan berori,  
 aurren zartadan zilipurdika  
 soka azpian igari,  
 euskaldunak Uzkudun'eri  
 jo're txalua ugari.
- 5/ Antolin Fierro, *León de Matanzas*,  
 Ilbeltzan amabostian,  
 ospatsu eta txapeldun zegon  
 Cuba'ko isla guztian;  
 eun ta amar kilo pixua,  
 ez galdutzeko ustian,  
 minutu erdi bat barru ura ere  
 amilka soka azpian,  
 Habana dena dar-dar zegoan  
 ura ala ikustian <sup>1</sup>.

---

<sup>1</sup> Bertso-paperak puntuak onela ditu: *amabostean, guztian, ustean, azpian, ikusten*.



6/ Ilbeltzaren ogei ta iruan  
Omersmitx'ekin Tanpa'n,  
Florida'ko ukabilkarin  
txapeldun gain goikoa zan;  
Uzkudun'ek ezagutu're  
bizkorra zegola plantan,  
aien asera etzan goxoa  
gexalkeri eta tranpan,  
zazpigarren ekiñaldian  
Omersmitx lurrera joan zan.

7/ Otsaillaren ogei ta bostean  
Nueva York'en Ansene'kin,  
eskua nola zeukan miñakin  
mundu guztiak bazekin;  
bañan alare bildurrik gabe  
legoiak bezela ekin,  
suekotarra ezin bildurrik  
igaska bildurrarekin,  
irabaztun zan bakar-bakarrik  
Uzkudun ezkerrarekin.

8/ Tom Heeney Jorraillaren  
aurrenengo egunean,  
irabazteko asmoan ustez  
ura ere asi zanean,  
Australia'ko ukabilkarin  
txapeldun zegoanean;  
sei runez goitik etzala giro  
Paulinon aldamenen,  
Tom Heeney ospitalera  
zanpa artu zuanean.

- 9/ Uztaillaren amairuan  
Arribills *Negra Pantera*,  
orrekin ere txit garailari  
Uzkudun zaigu atera;  
eun da berrogei milla persona  
joan zala ikusitzera,  
denak arritu beltza aundia  
arren azkar ausitzera,  
urrungoak e bildur lezake  
Paulinorekin astera.
- 10/ Donostia'ko arakin baten  
esana ez nago aztuta,  
egia zala gelditu nintzan  
gañera sinistatuta:  
«Paulino ez bada gaitzen batekin  
jartzen odolak oztuta,  
seguro egon anka-bikoak  
ori botako ez du-ta,  
zezenak ere kontuz, badator  
adarrak biak moztuta.»
- 11/ Arribiltx ori bost urte ontan  
asko iñor dan munduan,  
orra Uzkudun jarri ondoan  
bentzitu duna oraingoan;  
ezagaturik jotzeko toki  
egokiena nun duan,  
*pantera* ori oso gallartsu  
naiz asi aurrenengoan,  
altxatutzeko adore gabe  
zerraldo laugarrengean.

- 12/ Gure Uzkudun azpiratutzen  
ez da egon bear errez,  
gorputz bikaña eta zaintsua,  
neurrigabea indarrez;  
granadazoak bezela golpek  
eskuiz eta ezkerrez,  
ikasten berriz gau eta egun,  
ez lo etzanda alperrez,  
euskaldun batek, nekazariak,  
mundu guztia bildurrez.
- 13/ Gipuzkoa'ko Errezil'en zan  
Uzkudun jaio ta azi,  
bai gurasoak errespetoan  
edukatu eta ezi;  
burruka-saio garratzak egiñaz  
orain Amerika'n bizi,  
oraindañoko asi diranak  
beltz eta zuriak ausi,  
esan lezake dala munduko  
ukabilkarin nagusi.
- 14/ Errezildarrak, estatu bat jaso  
marmol gogorrezko arriz,  
merezi dula Uzkudun orrek  
esaten degu bost aldiz;  
millaka asko joango giñake  
guztiok naitasun aundiz  
ikusitzea anka gorrian  
nola arkaitz eta mendiz,  
ai zer ditxa gu bizi gerala  
orixen egingo balitz.

15/ Paulino Uzkudun, zu onratuaz  
orra nik bertsoak jarri,  
ikasi eta kantatutzeko  
euskaldun denon pozgarri;  
aitor dizugu, portatzen zera  
arrunt oso oroigarri,  
eta oraindik zenbat zeraden  
ori iñork ezin neurri,  
mundu guztiko ukabilkarin  
txapelarekin etorri.

*1927'garren urtean Erauskin Errotariak*

Bertso-papera, *Beasañ'en A. Zunzunegi'ren*  
*etxian* argitaratua eta Tolosa'ko Isidora Mokoroa'-  
ren eskutik jaso.

**BERTSO BERRIAK**  
**SAN ISIDRORI JARRIAK**

1/ Baserritarrak, nekazariak  
irrikituta gabiltza,  
ez dakitenak ikasitzeko  
kantak jarri al banitza;  
agindu nien eta ornitu  
baita emandako itza,  
argitalduaz gure zaindari  
San Isidroren bizitza.

2/ Aita San Isidro nekazarion  
zaindari edo patroia,  
txikitatikan langille zintzo,  
umilla ta elizkoia,  
relijioa odeietara  
jaso nai zuana goia,  
bazar utzirik birau gaiztoa,  
maldizio ta etsaia.

3/ Orrillaren amabostean  
degu San Isidro eguna,  
nekazariak pesta aundia  
beti ospatzen deguna;  
oroitu gaitzan gau eta egun  
santu doatsuengana,  
esan bear det zer milagroa  
izandu zuan aurrena.

4/ Bein errotara bazijoala  
kostal bat gari artuta,  
negu gordiña elur ta ormaz  
bazar guztiak gortuta;  
baso-piztiak goseak txiurka  
zaizkion alderatuta,  
kostala jetxi, begira jarri  
omen zan errukituta.

5/ Errukiturik pizti gaixoak  
zeukaten gose larria,  
ankaz ta eskuz elurra kendu,  
egin koroï bat garbia;  
ezker eskua zakuan sartu,  
botatzen zien garia,  
beragatikan gerta zitzaion  
milagro arrigarria.

6/ Pizti goseak naikoa janda  
utzirik kontentatuta,  
errota aldera bazijoala  
utzi ondarrak artuta;  
bidean berez zakua berriz  
jarri gariaz beteta,  
milagro au zan aurrenekoa,  
gelditu sinistatuta.

7/ Gaztetatikan ludi ontako  
txorakeriaz etsita,  
estoasunik aundienetan  
lanak alde bat utzita,  
elizan egin meza entzun da  
bost aldarari bisita;  
osoro zegon bakar-bakarrik  
zerua irabazita.

8/ Egun-sentian goiz jeki eta  
errezoan izaten zan,  
Madrid'en zeuden bi elizatan:  
San Andres'en da Atotxa'n;  
Karamantxel'go ermitara're  
andik askotan joaten zan,  
morroi lagunak nola zebillen  
baita nausiari esan.

- 9/ Morroi lagunak Isidrorena  
zuten ezin eramana,  
esatera're joan ziraden  
nagusi jaun arengana:  
«Isidro dabil lanan igesi  
alperkeriari emana.»  
Erantzun zien: «Zuek bañan geigo  
berak egiten du lana.»
- 10/ Aita San Isidrok errezorako  
etzuan gogo urria,  
egun-sentian goiz elizatan  
zintzo zegona jarria;  
aingeru onak arren lurretan  
egin lan miragarria,  
morroi lagunak orregatikan  
eziñ-eraman larria .
- 11/ Elizatikan zetorrenean  
egiñikan errezoak,  
billatzen zituan lana eginda  
bere lur edo trozoak;  
orduan ere orain bezela  
izan seme irosoak,  
besteren ona eziñ eraman  
zuten inbidiosoak.



- 12/ Santa Maria de la Cabeza  
Isidroren emaztea,  
religioso egiazkoak  
nola bat ala bestea;  
erejeari saiatzen ziran  
fedea erakustea,  
gaur ere obe matrimonio  
asko ala ikustea.
- 13/ Bargas'tik emaztez Torrelaguna'ra  
zetoztela egarria,  
esanaz jo zuan akuluakin  
arkaitz biziko arria:  
«Jainkoak nai balu sortuko luke  
emen orain iturria!»  
Bertan asi zan ur garbi ona,  
milagro arrigarria.
- 14/ Aita San Isidro, nekazariok  
zu zaitugu zaindaria:  
goardatu ondo gure lurretan  
sortutzen dan laborea,  
batez ere bai premizkoenak  
artoa eta garia;  
gau eta egun zuri agurtzen  
zintzo saiatuko gera.

15/ Nekazariak San Isidrori  
eskatu bai anparoa,  
lo ametsetan nagoala're  
etorritzen zait burura;  
bilduko zaigu bai ingurura  
Josepetako sorora,  
berak eskutik sartuko gaitu  
betiraundeko zerura.

16/ Amasei bertso orra ipiñi  
garbi adieraziaz,  
okerrik iñoiz ez da etortzen  
gauza onak ikasiaz;  
ondorengoak ongi aziaz <sup>1</sup>  
bai eta zuzen eziaz,  
era onetan bizi gaitzen  
San Isidroren graziaz.

*1927'an Erauskin Errotariak*

Bertso-papera, *Beasañ'en* A. Zunzunegiren  
*moldiztegian* argitaratua; Tolosa'ko Manuel Urre-  
ta zanaren eskutik jaso, ta bai bertako Isidora  
Mokoroa'ren eskutik ere.

---

<sup>1</sup> Bertso-paperak *eziaz*. Baiñan urrengo letroan ere  
*eziaz* baidator, emen *aziaz* bear duala uste degu.

(1928)  
**BERTSO BERRIAK**  
**UZKUDUN'EN ONRARI EUSKAL-ERRIAK**

- 1/ Irugarren aldiz jarritzen ditut  
bertsoak Uzkudun'entzat,  
merezi ere badituala  
neroni iruritzen zat;  
orrentzat dira berdin-berdiñak  
nola zuri ala beltzak,  
kanbiorikan iñork ez dauka  
orren ukabillarentzat.
- 2/ Millaz ondoren bederatzi eun da  
ogei ta zortzigarrena,  
Otsaillak bai eta ere  
aizkeneko eguna,  
Anjeles'en Godfrey'rekin  
Uzkudun jokatu dana,  
euskaldunak irabazia  
galdutzat eman dutena.

- 3/ Berrogei eta geiago millak  
garbi dutena ikusi:  
Uzkudun beti segika eta  
moro aundia igesi;  
arbitrok berriz txilin-txilin  
jo eta gelditu-azi,  
zurde-soka batez urkatutzea  
orrek ez al du merezi?
- 4/ Uzkudun ez du batek bakarrik  
azpiratu oraindio,  
orregatikan denan gañera  
ospatsu egin da io;  
arbitro eta juzgatzalleak  
naiz-ta egon kontrario,  
jo eta bota ori da ospa,  
puntuak zertan balio?
- 5/ Gezur da puntuz irabaziak  
ditu Godfrey eta Risiko,  
epailariak denak kontra eta  
ez baita arrizgarrizko;  
gu askorentzat pena izan da,  
batzuentzat pozgarrizko,  
bañan Uzkudun bildurrik gabe  
pronto an dago berrizko.

6/ Lenago Arribiltz proatu zuan,  
orain Godfrey bestea,  
mundu guztia bildurrez daukan  
moro aundi ta gaztea;  
aditutzean arritu giñan  
Uzkudun orrekin astea,  
ta orain berriz askoz geiago  
orrek ere ez auste.

7/ Moroak ere gu bezelaxen  
mundutar aragizkoak,  
azala beltza izanagatik  
berdin anka ta eskuak;  
Tunney eta Dempsey ez dira  
kanpeon egiazkoak,  
legez ta bidez aitortu bear  
gizonak arrazoizkoak.

8/ Nik bertsoetan argitaltzen det  
badago ez dakianik,  
egi garbia jakin dezaten  
gezurrikan gabetanik;  
ez da agertu zuri ta beltzik  
Uzkudun bota duanik,  
eta gañera berak ainbeste  
gizon bota dituanik.

- 9/ Errezildarrak dardaraizoa  
sartzen die ikustean,  
eta geiago okertu eta  
ukabilkazoz astean;  
bere lurrean zer egingo luke  
ori eginda erbestean?  
Orrentzat diña denak ez dira  
Ernio'ko arkaizpean.
- 10/ Tunney eta Dempsey ere  
Godfrey'rena dijoztela,  
bestek nai ez da errezildarra  
Uzkudun joan dan bezela;  
kanpeon munduko gañerakoak  
nola litezke bestela?  
Ritxard'ek an egiten du  
berak nai duan pastela.
- 11/ Uzkudun dala irabazlea  
dio Amerika osoak,  
askotan berriz ta gutxiena  
aitortzen dute auzoak;  
beronen kontra emandakoan  
poza bazuten batzuak,  
Paulinon ona ezin eraman  
duten inbiriosoak.

12/ Paulino Uzkudun, amabi bertson  
egiten zaitut agurtu,  
esku estutzera or ninduzuke  
emendik bazeunde gertu;  
Euskal-erriak zuk eman eta  
onra aundia du artu,  
osasanaz ta Tunney'k daukan  
txapelarekin agertu.

*1928'an Erauskin Errotariak*

Bertso-papera, *Beasañ'en L. Zunzunegi'ren  
etxian* argitaratua, eta Neparroa'ko Igantzi'n Juan  
Sein'en eskutik jaso.

(1928)  
**BERTSO BERRIAK**  
**BASERRI KALETARRAK ALKARRI JARRIAK**

1/ *Baserritarrak:*

Bertsoetan zerbait esango dizut,  
kaletar, zuengatikan:  
ollo, arrautza, txekor ta arkuma  
dakaizkigu etxetikan;  
mokau gozorik sartzen dezute  
guk ekarrita aotikan,  
ala ere burla eta maixia  
geuri gero atzetikan.

2/ *Kaletarrak:*

Baserritarra, ez asarretu  
luzatu eta besoak,  
aitortzen degu jaten ditugu  
zuengaitik mokau gozoak;  
bañan ez gera gu kaletarrak  
zuentzako burlosoak,  
iruripenak ugari ditu  
kristau errezelosoak.



3/ *Baserritarrak:*

Lengo batean kamiñotikan  
kaletarrak farra onak,  
zer ote zuten arrituta gu  
sorotik begira denak;  
zergaitikan zan esandu zigun  
sail artan zijoan damak:  
neska bat laian ari zalako  
gerrira bilduta gonak.

4/ *Kaletarrak:*

Zere denboran sumatu dezu  
makiñatxo bat olako,  
burua ortan nekatu eta  
korputza daukazu plako;  
farra egin dutela gonak bilduta  
neska laian ai zalako,  
zure esanik ez det sinisten  
gezurtti bat zeralako.

5/ *Baserritarrak:*

Bei, txekor txerriak saldutzera gu  
errira jetxi gaitzala,  
zerbait kentzeko oso argia  
zuen kopeta-azala;  
eziñ ukatu ikusi ditut  
asko ala dabiltzala,  
begiak gorri-gorri jarrita  
katu lapurrak bezela.

6/ *Kaletarrak:*

Zuek etortzean bei eta txekor  
edo txerriak saltzera,  
zurrutarekin berdoztu eta  
diruak jokatutzera;  
alperrik baño egun sentian  
ernegatuta etxera,  
lenengo lana akilluakin  
andreak jiponatzea.

7/ *Baserritarrak:*

Errespetoan azi ninduten  
nere aitak eta amak,  
orregatikan aparte dira  
nigandik jokuko lanak;  
aurrera ere libra nazala  
ortatik guztion Jaunak,  
gauza oriek esaten ditu  
bera alakoa danak.

8/ *Kaletarrak:*

Katu lapurtzat artzen gaituzu  
kaletar gizaraixoak,  
kulparik gabe esateko bai  
oiek dira aunditxoak;  
zuek ere nauski kalean iñoiz  
jan ederki mokautxoak,  
baita etxera eraman ere  
botill edari goxoak.

9/ *Baserritarrak:*

Guk ekarrita zuek kaletarrak  
jan eta edan aseak,  
gau eta egun lanean gu bai  
egarri eta goseak;  
lepo-ardatzak melarrak eta  
bizar da ille luzeak,  
zorrotz eguki barberoak bai  
labanak eta goaizeak.

10/ *Kaletarrak:*

Orain jakinda gelditu bedi  
lenago etzekiena,  
esan bear det baserritarrak  
askok egiten dutena:  
beiak jetzita etxean edan  
esne pururik onena,  
kaletarrari gero ekarri  
erdia uda emana.

11/ *Baserritarrak:*

Nekazariak egiten degun  
laborerik bearrena:  
gari ta arto, aza, patata,  
baba eta babarruna;  
zuek kaletarrak guk sortu baño  
aixago sartu barruna,  
oraindik ere edan nai berriz  
esne purua onena.

12/ *Kaletarrak:*

Zeren alderako baserritarrak  
etzerate txit mantzarrak:  
iru koartillo ur badauzka  
zuen esneak pitxarrak,  
baita etxera zuek eraman  
gure koarto pizarrak;  
zeok izanda, zuk diozunez,  
kaletarrak gera txarrak.

13/ *Baserritarrak:*

Zer esanak bai izango dira  
gu geraden aitzekian,  
eta ixilik egon bagiña  
iñork ere etzekian;  
maixirik ez guri eginda  
gu pozik gaude pakian,  
onela bizi obeko degu  
bakoitzak geren tokian.

14/ *Kaletarrak:*

Maixia txarrik guk nola egin  
bada baserritarrari?  
Bizi guztian anaitasuna  
izan deiogun alkarri;  
esango dizut kaletarrontzat  
zer izango dan pozgarri:  
jan da erana al dan onena  
ta merkiena ekarri.

15/ *Baserritarrak:*

Gauza onikan ez da etortzen  
iñori opata gaitzik,  
asko ezpada ere kalera  
ez gera sartuko utsik;  
Euskalerrian gure esanak  
ez ditu jakingo gutxik,  
orregatikan zabaltzen ditu  
kantuz Errotari Patxik.

Bertso-papera, «*Beasañen L. Zunzunegiren  
etxian*» argitaratua, Donosti'ko Gregorio Mujika  
zanaren bilduman.

Alegi'ko Rikardo Intxausti txistularia zanaren  
bilduman ere agertu da bertso-paper au; baiñan  
ontan, eskuz erantsita, onela esaten da: 25.OCT.  
1928. Intxausti'k paper ori beregandu zuan egu-  
na izango da, eta jarri ere etziran askoz leenago  
egingo bertso auek.

(1929)  
**ASUERO SENDAGILLE JAUNARI**

- 1/ Olerki batzuz odeitu nai det  
Asuero'tar jaun Pernando,  
sendagilletan azkarragorik  
egundo etzan izango.  
Aide gaiztoak zeuzkaten asko  
orrek jarri ditu ondo,  
orreatikan itz bat bakarrik  
guk gaizki nola esango?
  
- 2/ Millaz ondoren zortzireun da  
larogei ta sei urtean,  
Orrillak berriz ogei ta amar  
zituan egun batean,  
Pernando jauna jaio zitzaigun  
Donosti'ko erri maitean;  
gaxoa pranko sendatuko du  
bizirikan dan artean.

3/ Ruiz Arkaute'tar Maritxu ona  
du emazte, tolosarra,  
amairu urteko mutilla berriz  
Bixente, seme bakarra;  
jaiotzetikan arrigarrizko  
argia eta azkarra,  
irten dedilla aita bezela  
sendagille txit jatorra.

4/ Izen-ordeaz txikitatikan  
*Pistón* deitutzen diote,  
alare ez dala asarretutzen  
zertxobait egingo nuke.  
Sendatu-eta orrek jarriak  
txalo ta txalotzen dute,  
aitormen oiek iraungo dute  
ludia ludi dan arte.

*Erauskin Errotari*

*Argia*, 1929.VI.16.

(1930)  
**BERTSO BERRIAK**  
**AMA EUSKERARI JARRIAK**  
**ERAUSKIN ERROTARIAK**

- 1/ Euskalduna ni sortu nitzan  
aita-amagan jaiotzaz,  
ludi ontatik euskaldun joan nai  
baita aizken eriotzaz;  
daukadan odola ez det maitatzen  
biotzez naitasun otzaz,  
sinismen auxen zabaldu nai det  
nola egutera laiotzaz,  
Ama Euskera bizi dedilla  
Goiko Jaunaren laguntzaz.
- 2/ Sinisturikan edestia edo  
kondairaren esanetik,  
eun berrogei ta iru urte da  
Urola izan zanetik,  
bi milla eun da irurogei ta amalau  
Jesus baño lenagotik,  
aitalen Tubal'ek euskera ekarri  
zuala Armenia'tik,  
garbiena da ta bizi dedilla  
beste guztien gañetik.



- 3/ Aitalen Tubal'en osaba Noe,  
gu aren abenda arrazak,  
onean oso goxoak eta  
gaitzean berriz garratzak,  
geren elea maitatutzen  
nola zuzenak ardatzak,  
lengo tokietan daude mendiak  
ibai, zelai ta baratzak,  
beragaitikan zaindu beaitugu  
bakoitzak geren landatzak.
- 4/ Urrena berriz erderarekin  
etorri zana Ibero,  
*Península Ibérica*'k  
muga argaitik du Ebro;  
gure Euskera da aurrenekoa,  
beste izkuntzak denak gero;  
orain berreun urte berau galtzeko  
zortzi etsai ziran bero,  
gora Andoain'go Aita Larramendi,  
Astarloa eta Erro.
- 5/ Usteagatik etzuten farrik  
egiñ Euskeraren gaidik,  
aurrera ere nor bagerade  
ez dute egingo iñundik;  
etsai batzuek jo arren andik  
eta besteak emendik,  
auzi gogorra irabazi zuan  
Andoain'go Aita Larramendi'k,  
bost egi eder esan da joan zan  
gizarajoa emendik.

6/ Aita Larramendi jaio zan etxea  
izenez Garagorria,  
asko alditan mirarituaz  
begira nago jarria;  
bizi zan arte izartu zuan  
Euskera maitagarria,  
seme jatorrak azitzen ditu,  
gora Andoain'go erria,  
eta bertakoak zaitzen dutenak  
geure Euskal-Erria.

7/ Euskal Ama da zintzo garbia,  
Euskera berriz izkuntza,  
orra bi gauza emen batean:  
Ama ta bere bizitza;  
euskaldun batzuek oraindik ori  
ez dakiela dabilltza,  
beren abenda ukatu eta  
Amarengana zaputza,  
itxumen onek lertu lezake  
seme onaren biotza.

8/ Ama zer izen atsegiña dan  
gozoa eta biguna,  
jaiotzetikan biotzeraño  
eztiro sartzen zaiguna!  
Ain da bearra, aoko sapaia  
berak ezitzen diguna,  
ludi guztian maitatzen dute,  
garbia da euskalduna,  
seaskatxotik jaiki ta laister  
pozik ikasten deguna.

- 9/ Mendian ez da piztirik sortu,  
ez-da basoan txoririk,  
aur baten gixa maite duanik  
bere ama ainbesterik;  
kabi txokora jana eraman da  
beren lumetan bildurik,  
ez da biziko ez luzaroan  
iñola ere umerik,  
naiz *txiu txiu* gaixoak egin,  
ez baldin badu amarik.
- 10/ Bururatzen zait aurra nintzala  
amak esaten zidana:  
«Lendabiziko ikasi bear da  
Jesus onaren izena.»  
Itz ezti aiek sartu zitzairan  
arantzan gisa barruna;  
Jaungoikoa maite aurrena,  
Ama Euskera urrena,  
dakigulako bera nola dan  
Ama euskaldun denona.
- 11/ Jaungoikoak ditu denontzat berdiñak  
legeak eta dotriñak,  
izkuntza bezela ikusten dira  
arrigarri ez-berdiñak.  
Nundik sortu dira dantza lotuak,  
birau blasfemi zikiñak?  
Elizarikan ikusi nai ez,  
etsaiengana etziñak,  
orrelakorik ez du agintzen  
Ama Euskera apañak.

- 12/ Geure aurreko asaba zarrak <sup>1</sup>  
etziran orla oituak,  
Euskal-Errian ikusten dira  
geiegi dantza loituak:  
mutil da neskak itsatsi eta  
nola zakur da katuak,  
ludi guztian nazkatzen duan  
baltseo zikiñ lotuak,  
orrelakorik ez egiñ bear  
euskaldun katolikuak.
- 13/ Gu ez gerade zeltak ta eslabak,  
jermanak eta latiñak,  
euskal abenda bera bakarra,  
egon gaitezen jakiñak;  
gauza bearrak ikasitzea  
poza artu ez dakiñak,  
lur eder ontan jaio giñanak,  
anai prestu, arreba piñak,  
Ama Euskera indartzen beti  
egin ditzagun alegiñak.
- 14/ Atzerritarra gu bezela da  
Jaungoikoaren semea,  
baita askotan etortzen dira  
geronen aldamenea;  
batzuek ondo bizi diranak,  
beste batzuek lanea,  
jaiotzakoak txiroa bada  
saia bear al danea,  
Euskera entzun nai ez badute  
dijoatzela berenea.

---

<sup>1</sup> Bertso-paperak: *osaba zarrak*.

15/ Baita ere jo euskal soñuak  
bildur gabe ta gogoti,  
artzai mutillak txiruriluka  
erantzuten du menditi;  
eguzkia ere odei guztiak  
urratu eta goi-goiti,  
geure Euskal-erri garbi eder au<sup>2</sup>  
zein dan ezagutzeati...  
Gora Euskera miragarria  
len, oraiñ, gero ta beti!

Bertso-papera, *«Beasañ'en Zunzunegi'tar L'en moldategian»* argitaratua. Tolosa'n, Manuel Urreta zanaren eskutik jaso; ta bai Adelina Sarasola Ilexo bertsolaria zanaren alabaren eskutik ere.

Bertso auetan ez da ikusten noiz jarriak diran somatzeko biderik; baiñan bertso-paper au Donosti'ko Gregorio Mujika zanaren bilduman ere badago, eta antxe, eskuz idatzita, urte au irakurtzen da: 1930'an. Mujika jaunak ori bere eskuz erantsi baldin bazuan, ontzat ar dezakegula dudarik ez da.

Errenteri'ko *Bertsolariya* aldizkariak ere argitaratu zituan bertso auek, bere 43'garren zenbakian, 1932.VII.10'an. Aldaketarik ez du.

\* \* \*

Sail ontako 8 eta 9'garren bertsoak, leen ere argitaratuak zituan Erauskin'ek, *Argia'n*, 1925.I. 18'an, *Ama* izenburuarekin eta beste bi bertso auek ondoren zirala:

---

<sup>2</sup> Bertso-paperak: *garbi ederran*.

Aur ederrak musu gorriak,  
far-irri gozo-gozoan,  
amak askotan musu eman da  
pozik artze'itu besoan;  
ez da atsegin samurragorik  
sartuko aien kolkoan,  
ez du emango Jaunak zorion  
ederragorik munduan,  
eta ez dakit ote dan loraz  
apaindurikan zeruan.

Txantxangorriak ez du abesten,  
naiz igo meta-burura,  
amak aurrari lo lo esanaz  
abesten dion erara;  
nik ez dakit zer jaungoikozko dan  
abesti atsegin ura,  
ain garbi eta argi ..... (3)  
igotzen dana zerura,  
aingerutxoen lira-soñuak  
entzuten diran tokira.

\* \* \*

*Argia'n, 1935.VIII.11'an, bertso-sail bat argi-  
taratu zuan Erauskin'ek, izenburu onekin: Eus-  
kadi nor dan eta Jel ikurriñak zer esan nai duan.*

Bañan bertso guziak ez ditu berriak. Batzuek  
len ere agertuak dira.

Aurrena, bertso berri au:

---

<sup>3</sup> Emen iru silaba falta dira.

Euskadi zein dan ez dakiana  
edo dala Jel aberria,  
ondo dakigu badagoala  
euskotarraren erdia;  
nai gendukena ikasi eta  
dena balego jarria;  
erderaz *nazio* edo *patria* da,  
euskeraz Jel aberria,  
geuri aurreko asaba zarrak  
utzi ziguten erria,  
zorion begiragarria.

Bigarren eta irugarren, sail ontako zazpigarren  
eta amargarren bertsoak, zerbait berrituta. Al-  
daketak: 7/1: Geure Ama da Euskadi eta;  
7/2: eusko elea izkuntza; 7/3: orra bi gauza emen  
batera; 7/5: euskotar asko oraindik ori; 7/7:  
«Bera Euskadi!» esaten dute; 7/9: geiena maite  
bear litzakena; 7/10: ez aitortzea da beltza; eta  
beste bi lerro: itxumen onek lertu lezake / eus-  
kotar onan biotza; 10/1: Etzait aitzutzen aurra  
nintzala; 10/6: biotz erdian barruna; 10/8: Ama  
Euskadi urrena; 10/9: dakigulako nola dan bera;  
10/10: Ama euskotar denona.

Laugarren eta bostgarren, bi bertso berri:

Euskotar txarrak ez aditu nai  
Euskadiaren izena,  
lendabiziko au da geiena  
ni arritutzen nauena.  
Malkarretatik amilka dabiltz  
utzita bide zuzena,  
oieri ezin erakutsirik  
daukagun lanik gaitzena,  
ugaz-ama dute lenengo maite  
eta berena aitzena.

Guk ez dakigu zergaitik duten  
oriek orlako kasketa:  
eusko aberria baztar utzita  
maitekiro erbestea.  
Beste gauzarik ez dabilkite  
gezurra eta nasketa,  
oien zuaztin guk egin degu  
bear bezela mozketa:  
euskeraren beñe izandu al da  
españolaren izketa?  
«¡Habla cristiano!» zertan daigute  
geure euskera adituta?

Seigarren, 1931'an, *Gora gure Euskalerrira* izen-  
buruarekin agertu zuan saillaren 12'garrena. Al-  
daketak: 12/5: Euskotar batek esaten badu;  
12/6: Bera Euskadi jatorra,



(1930)  
**BERTSO BERRIYAK**  
**AIZKOL-APUSTU BATI JARRIYAK**

1/ Kankak jarri dizkiot  
aizkol-joku bati,  
artu, ikasi ondo,  
gogoan eguki;  
alkarri erakutsi  
baidiote petri,<sup>1</sup>  
ogei ta launa tronko  
zeñek len ebaki.

2/ Milla bederatzi eun da  
ogeitamargarrena,  
urte onek Martxoan  
egun bigarrena,  
Tolosa'n apustuan  
jokatu dutena:  
Jeronimoz Naparroa'n  
dagoan onena.

---

<sup>1</sup> Alkar estutu dutela; alkarri lan txarrak eman dizkiotela. (Patxi Iraola'ri eta bere amari entzuna.)

- 3/ Ogeina oiñ beteko,  
oiñ binakoak launa,  
bakoitzak ori zuten  
egiteko lana;  
biak ere egiñak  
dirade al dana,  
Jeronimo Iturbe  
irten da onena.
- 4/ Leon-kastillo Jeronimok  
zuan irabazi,  
bakoitza bere lanean  
errespetoz asi.  
Apustu ederragorik  
noiz leike ikusi?  
Anka-puntan jarrita  
orixek jo bizi.
- 5/ Berrogei ta amar minutu,  
ogei ta bost segundoan,  
Jeronimo bukatutzen  
ikusi genduan;  
naparra berriz berdintsu  
ari zan ondoan,  
apustu berdiñagorik  
noiz leike munduan?

6/ Beñ Errekalderekin  
zualako galdu,  
kontrarioak asko  
zaizkion azaldu;  
orain galdua damu,  
sakelak utsaldu,  
oiek uste aña ez da  
Jeronimo auldu.

7/ Naparra portatu da  
onenaren gixan,  
itz bat bakarrik gaizki  
ez leioke esan;  
naiz Jeronimo baño  
gutxixego izan,  
nork irabazi errez  
asmatutzen etzan.

8/ Apustu orren berri  
egitean galde,  
ogei duro amalauri  
naparraren alde;  
uste zuten izango  
zala Errekalde,  
orain galduak pena  
eman nai debalde.

- 9/ Jeronimoren azañak  
ez daude aztuak,  
txaloka berotuak  
badira eskuak;  
dauzkalako semeak  
bizkor da prestuak,  
onrak merezi ditu  
Ama Gipuzkua'k.
- 10/ Apustua egiten  
egon bear da presko,  
ondorean damurik  
izanduko ez do;  
Jeronimo ixilik  
talentuz abasto,  
erronka botatzea  
ez da gero asko.
- 11/ Naparrak sartu ziran  
trabesean irmo,  
gipuzkoarrak ere  
alkarren arrimo;  
mingañaz ixil eta  
biotzez animo,  
bikaiñ portatu zera,  
gora Jeronimo!

12/ Martxoaren bi ori  
ez degu aztuan,  
Tolosa'n izan geran  
aizkol-apustuan;  
alkar ezin ausirik  
justu ta estuan,  
aizkolarin txapela  
oraindik Gipuzkua'n.

13/ Beajundaiela  
Mandubi'ko Ezkerra,  
baita lagundutzaille  
Santageda zarra;  
zuek zendukaten bai  
mutilla bizkorra,  
artu dezuten onra  
ez da txit kaskarra.

14/ Galtzalleak damuaz,  
irabazleak pozik,  
batzuek sakelak bete  
ta besteak utsik;  
izki batez iñori  
egin gabe gaitzik,  
orra amalau bertso  
Errotari Patxik.

Bertso-papera, «*Beasañ'en L. Zunzunegiren moldiztegian*» argitaratua, Donosti'ko Gregorio Mujika zanaren bertso-bilduman.

\* \* \*

Aizkol-apustu onetzaz, *Aizkolariak* izenburua-  
rekin, onela dio *Argia*'k, 1930.III.9'an:

«Aizkolari arteko burrukarik ederrenetakoa  
bai, lengo igandean Tolosa'n izan zana. Burruka  
gogorra, ikusgarria, leia bizia.

Lau 72'nako ta ogei 36'nako nork lenago eba-  
ki Areso'ko Garbizu'k eta *Agiñeta* gipuzkoarrak  
—Naparroa ta Gipuzkoa'ko txapeldunak berak—.  
4.000 pezta jokatzen zituen.

Zezen-plazan nabaitzen zan, leia au ikusteko  
zaletasun ikaragarria.

Trabesak 20-16'ren gipuzkoarren alde.

Gogor asi ziran bi aizkolariak, ezpa! ederrak  
atereaz enborrai.

Erdi alderarte gipuzkoarra aurretik, uskeri ba-  
tez bada ere.

Irugarren enbor lodia ebakitakoan, gipuzkoa-  
rrak laugarrenai eltzen dio, naparrak lodia azke-  
nerako utzi ta meakin asiaz.

*Agiñeta*'k lodia ebaki bitartean, Garbizu'k me  
batzuek bota ditu, ta jendeak naparra aurretik  
dala uste du. Baña bein lodia ebakitakoan, el-  
tzen die gipuzkoarrak meai ta dinbi ta danba,  
irrintzi ta santzo artean, amaitzen du bere lana  
50 miñutu ta 25 segundoan, iru bat golpearen  
bentaja atereaz naparrai.

Etzan nolanaikoa izan aizkoraketa bikaiñ au!»

(1931)  
**GORA GURE EUSKAL ERRIA**

- 1/ Biotza daukat oroimengarri  
bertsoak argitaltzeko,  
illunpetako euskaldunari  
argi-izar bat jartzeko,  
politikari baztar utzita  
Amarengana biltzeko;  
bide zuzena billatu degu  
Euskal-erria goratutzeko,  
bildur da lotsik ez degu bear  
geren gauza eskatutzeko.
  
- 2/ Eguzki, illargi eta izarrak  
odeian daude goi oso,  
Ama, euskaldun seme-alabak,  
arañon bear degu jaso,  
dakigulako bera nola zan  
sei laterrien guraso;  
jatorritikan berak aginduaz  
bizitzen zana eroso,  
lau seme etsaik lurperatzea  
zioten arte eraso.

3/ Ama Gipuzkoa'k izandu zuan  
urte oroigarriena,  
edestiak dio millaz ondoren  
zala berreungarrena;  
Urrillak ere zuala berriz  
zortzigarrengo eguna,  
Naparroa'tik aldendu eta  
Gaztela'ra jarri zana,  
ikasi eta gelditu bedi  
lenago etzekiena.

4/ Naparra utzita bera joan zan  
Gaztela'rekin jartzeko,  
Alonso errege zortzigarrena  
pozik zegoan artzeko;  
Arrasate'ko erri ederra  
gauza erabakitzeko,  
bañan erregek ez agintzeko,  
aiñ gutxi ikututzeko,  
gañerakoan guk nai genduan  
erara gelditutzeko.

5/ Milla lareun da larogei ta bian  
Gipuzkoa'k inglesakin  
amar urteko anaitasuna  
artu zuten alkarrekin:  
oek gudarik izan ezkeru  
Gaztela'ko erregekin,  
Gipuzkoa ez irtetzeko  
aren aurka berorrekin;  
or ezagun da erregek nola  
etzuan agintzen gurekin.



6/ Milla berreungarren urtean Gipuzkoa  
batu giñan Gaztela'ra,  
milla irureun da ogei ta amabian  
urrena berriz Araba;  
milla irureun da irurogei ta  
emeretzian Bizkaia,  
milla bost eun da amabian  
azkenekoa Naparra,  
bañan erregek ez egiteko  
ikututxo bat bakarra.

7/ Milla zazpireun larogei ta  
bederatzi Frantzia  
etorria zan guri Laburdi  
eta Zuberoa kentzea;  
indar aundia ark zeukalako  
etsai gaiztoen antzera,  
Gaztela-erriko errege gutxi  
azaldu zan laguntzea,  
ura guretzat ezer etzala  
or dago ezagutzea.

8/ Oartutzeko milla zortzireun da  
ogei ta amairugarrena,  
edestiak dio errege il zala  
Fernando zazpigarrena,  
bere alaba Isabelari  
agintza utziaz urrena;  
osaba Karlosek emandu zion  
guda bat txit gogorrena,  
orregatikan sortu zitzaigun  
guri negargarri dana.

- 9/ Milla zortzireun ogei eta  
emeretziko urtean,  
Dagonillak ogei ta amaika  
zituan egun batean,  
Espartero ta Maroto jaunak  
jarri giñuzten pakean,  
Bergara deitzen diogun  
Gipuzkoa erri maitean;  
bigarren aldian etsaiak irten  
Ama Euskadi'ren kaltean.
- 10/ Batzuek tamal joan dalako  
España'tik erregea,  
emen egondu balitz ez dakit  
zergaitikan zan obea;  
ura zalako Cuba'n Filipinatan  
da Afrika'n izan gea,  
irakurleok, izan zazute  
sinismen edo fedea:  
errege bakar bat naikoa degu  
zeru ta lurren jabea.
- 11/ Zenbaitek ezin ezagutua  
mamirik eta ezurrik,  
Ama Euskadi'k ez du maiteko  
bere seme erazurrik;  
beste izkuntza batek ez dio  
garbian emango urrik,  
olerki onetan ez det jarriko  
ez danik edo gezurrik,  
Euskal Erriak Jaun Goikoari  
besteri ez dio zorrik.

- 12/ Aitak eta amak jaio ezkerro  
aurtxoak azi bearra,  
erakutsi ere egin ziguten  
beren izkuntza ederra;  
euskaldun batek esaten badu  
«Bera euskera jatorra!»,  
ukatzen ditu bere ama ta  
ark eman zion bularra;  
Jaun Goikoa ukatutzeaz  
urrengo auxen bera da.
- 13/ Euskadi degu guztion Aitak  
euskotarrontzat emana,  
bere legeaz, baita izkuntzaz,  
ez baldarra ta baldana;  
euskaldun denok anaitu eta  
eskatzen egiñ al dana,  
sinisturikan berau degula <sup>1</sup>  
zori onik ederrena,  
gora Euskadi askatzea da  
errepublika euskaldun ona.
- 14/ Besteren gauzarik ezertxo ere  
ez degu eskatzen guretzat,  
bakoitzari berea baita  
opa diegu berentzat;  
iruritzen zat ori geienak  
emango dutela ontzat,  
Frantzia'k eta atzerritarrek  
bakoitzak berenak nai berentzat,  
oriek orrela izatekotan  
Euskadi euskotarrontzat.

---

<sup>1</sup> Bertso-paperak: *beran*.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Alegi-ko Rikardo Intxausti txistularia zanaren bilduman.

Eskuz erantsita, saiets batean, onela esaten da: 10-5-1931. Intxausti orrek bertso-papera bereganatu zuan eguna esan naiko du. Oartzen bagera, ogei ta sei egun besterik etzan errepublika jarririk.

Ori bera aditzera ematen du, seguru asko, amargarren bertsoak; erregea aldegiña dala esaten baitigu.

Sail onek zer ikusirik asko dauka, 1924 urtean izenburu berarekin Erauskin'ek argitaratu zuan saillarekin. Emengo 1, 3, 4, 5, 6, 7 eta 9'garren bertsoak eta ango 1, 6, 7, 9, 11, 12 eta 13'garrenak, berdiñak edo antzekoak dira.

Gure iritzirako, auxe gertatuko zan: errepublika etorri eta egokiera polita iduritu Erauskin Errotariari bere politika-iritziak zabaltzeko; eta leengo zenbait bertso zarrekin eta beste zenbait bertso berrirekin, beste sail bat osatu.

\* \* \*

1931.VI.7'an, *Argia'n* argitaratu ziran bertso auek. Aldaketak: 3/1: Gipuzko Amak izandu zuan; 4/5: Arrasateko iri ederra; 5/1: Milla lareun da laroi ta bian; 6/1: Milla berreungarrenean Gipuzkoa; 8/1: Oartu milla zortzireun da; 9/1: Milla zortzireun eta ogei ta; 9/10: ara Euskadi'ren kaltean; 13/9: Ama Euskadi askatzea da; 13/10: eusko errepublika ona; 14/1: Iñork gauzarik ezertxo ere; 14/3: besteai ere bere dana; 14/8: guztik berea berentzat.

\* \* \*

Amalagarren bertsoa, beste bi aldiz ere argitaratu zuan Erauskin'ek *Argia'n*, 1931.IV.26'an, baiñan bera bakarrik eta beste bi puntu geiago zituala:

Besteren gauzarik ezertxo ere  
ez degu eskatzen guretzat,  
bakoitzari berea berriz  
opa ere bai beretzat;  
iruritzen zait ori geienak  
emango dutela ontzat,  
oraintxen pixka bat berotu gaitean  
dal dal egon gabe otzak,  
prantzesak dio Frantzia  
bear duala beretzat,  
atzerritarrak Gaztela  
ez dutela besterentzat,  
oriek orrela izatekotan  
Euskadi euskotarrontzat.

1932.VI.5'an ere argitaratu zuan Erauskin'ek bertso au bera *Argia'n*. Aldaketak: 14/3: bakoitzari baita berea; 14/4: opatu're bai beretzat; 14/5: iruritzen zait ori guztiak; 14/7: ia pixka bat berotu gaitezen; 14/8: dar dar egon gabe otzak.

\* \* \*

Andik bi urtera, 1933.II.12'an, karlisten lenengo gerratea asirik eungarren urtea zala-ta, aurretik oar bat ezarri eta bi bertso luze argitaratu zituan Erauskin'ek *Argia'n*. Oietatik bigarrena berria da, baiñan lenengoa, jarri berria degun sail ortan ere ortxe dago 8'garren zenbakiaz. Oso berritua eta luzatua, ordea. Orregatik, oso-osorik ezartzen ditugu emen adierazpena eta bertsoak:

«Orain dira eun urte karlistan izena sortu zala. Zergaitik sortu ote zan? 1833'an il zan bakaldun edo errege Fernando zazpigarrena. Semerik etzuan eta alaba Ixabelari utzi zizkion eskurentsiak, agintari España'n izateko. Karlos bosgarrenak, Fernandoren anaia eta Ixabelaren osabak, Ixabelari guda egin zion, eta España'n erdia irten zan Karlosen alde ta gudaroztea edo «tropa» denak Ixabelen alde. Euskotarrak bai al zuten auzi artan sartu bearrik? Ez, jauna. Euskotarrak etzuten zer ikusirik Madrid'ko auziarekin, ba askatasun osoarekin geunden, orain alemanakin bezela. *Reintegración Foral*'ekin ortzak erakutsi bear zitzaizkaten, iñor etorri bazan gu sartu naiean.

Oartutzeko milla zortzireun da  
ogei ta amairugarrena,  
edestiak dio il zala bakaldun  
Fernando zazpigarrena,  
bere alaba Ixabelari  
aginteak utziaz urrena.  
Osaba Karlosek emandu zion  
guda bat txit gogorrena,  
euskotarra zertan sartu zan  
etxean ondo zegona?  
Orregatikan etorria da  
gure negargarri dana,  
irakurrita jakitun egin  
lenago etzekiena.

Madril'ko auzian gu sartutzeko  
iñor bazitzaigun iritxi,  
lendabiziko egin bear zitzaien  
ortzak zorrotz erakutsi,  
baita esanaz: «Gerok aginduaz  
geu ederki gera bizi;

zeok zuzendu, bazabiltzate  
alkarren artean gaizkil-  
Ura egingo balute etzan egingo  
negargarri au ikusi.  
Izki onetan zer egin zuten  
garbi nik nai adierazi:  
auzoko ate bat itxitzera joanda  
etxeko denak iriki.

\* \* \*

*Argia*'n, 1935.VIII.25'an, lau bertso argitaratu  
zuan Erauskin'ek.

Lenbiziko, 1933.II.12'an agertutako lenengoa,  
aldaketa auekin: 1/1: Gogoratzeko milla zortzi-  
reun da; 1/3: edestiak dio errege il zala; 1/6:  
agintea utziaz urrea; 1/10: etxean aske zegona;  
1/13: ikasi eta gelditu bedi.

Bigarren, beste bertso au:

Irakurleok jarri zaitezte  
olerki oneri begira,  
gezurrak utzi alde batera  
mintzatuko naiz egira;  
nere biotzak oraindik badu  
oinbeste toki kabira,  
negargarri onek esan bezela  
ortikan sartuak dira,  
orrelakorik etzan etxean  
pakean egon balira.

Irugarrena, 1933.II.12'an argitaratutako biga-  
rrena, aldaketa auekin: 2/6: gu ederki gera bizi;  
2/9-10: falta; 2/11: bi izkirekin zer egin zuten;  
2/12: garbi orra erabaki.

Ta laugarren, 1931 urteko *Gora gure Euskal-*

-*Erria* saillaren bederatzigarrena, aldaketa auekin:  
9/2: emeretzigarren urtean; ta 9/9-16:

len bezelaxen geok agintzeko  
geren etxeko atean.  
Bigarren aldian zertan joan ziran  
Ama Euskadiren kaltean?  
Etsaiak larri atzerritarren  
mende gu jarri artean,  
orain su-leizean marruka daude  
deabru estuntzaren pean.

\* \* \*

Urriaren 4'an Ordizia'ko «eusko-etxearen ones-  
kundera» zala-ta, arako deia egin nai eta onako  
bi bertso auek argitaratu zituan Erauskin'ek *Ar-  
gia'n*, 1931.IX.20'an:

Jeltzale onak Ama Euskadi  
askatutzea nai degu,  
senar-emazte, zar eta gazte,  
gogor saiatu beagu,  
gau eta egun, igande, aste,  
nola uda eta negu;  
zorionean egunen baten  
aske ikusten badegu,  
«Aupa, mutillak, orain gurea dek!»  
orduan esango degu.

Itsasoan ontzi bat dagola  
udan azpira galdutzen,  
nolako poza ito gabe  
andik diranak irtetzen,  
beren bizia lenago bañan  
geiago dute maitatzen;  
Eusko Aberriari aurten berbera  
egiten zaio gertatzen,



saiatu gaitzan euskotar denok  
Ama ortikan gaizkatzen.

\* \* \*

Bigarren bertso au, 1935.I.13'an ere argitaratu zuan Erauskin'ek *Argia*'n. Aldaketak: 2/3: zer poza andik ito gabe; 2/4: ondo diranak irtetzen; 2/7: eusko aberriari auxen ber bera; 2/9: anai-arrebak, saia gaitzen; 2/10: Ama Euskadi askatzen.

Ta beste bi bertso ere bai, orrekin batera, bat aurretik eta bestea ondoren:

Begiak itxita jaio giñaden,  
zabaldu gabe asko iltzen,  
orrengaitikan dakigu nola  
Amaren aurka dabilten;  
zein da nola dan erakutsita  
ala ere ez dira biltzen,  
naiago ibili etsai batzuen  
mailo gaiztotan amiltzen,  
errukirikan baldin badegu  
Euskadi'z oroitu gaitzen.

Euskotarrak jaio giñanak,  
eusko aberrian aziak,  
beltz ta zuriak, gorri, oriak  
jarri dirade nasiak;  
Amaren aurka nola dabiltzan  
garbi daude ikusiak,  
ez degu bear geza-epelak,  
bai beroak eta gaziak,  
Euskadi'n alde utzi naikoak  
geren odola ta biziak.

\* \* \*

Erauskin'en seme Ramonek gordetzen dituan aitaren esku-idatzietan, bertso-sail au ere agertu da libreta batean.

Aldaketak: 1/1: Biotza daukat dir dar oroitzen; 1/7: bide zuzena etorri zaigu; 1/8: Euskadi askatutzeko; 2/3: Ama Euskadi, seme-alabak; 2/5: dakigulako nola zan bera; 4/9: gañerakoan guk nai bezela; 6/1: Milla berreungarren urtean; 8/6: agintea utziaz urrena; 8/9: orregaitikan etorria da; 8/10: gure negargarri dana; 9/9: bigarren aldian zertan irten ziran; 10/7: irakurleak, artu zazute; 11/6: garbian ematen urrik.

Ondoren, amabigarren tokian, beste bertso au:

Batzuek gora jaso nai degu,  
beste batzuek jestera,  
nola ez degu maitatu bear  
ikasitako euskera?  
Gañerakoan bere semerik  
iñor izango ez gera,  
etxekoenari alde bat utzi  
guk jo dezagun bestera,  
gora Jaun Goikoa ta Lege Zarra,  
erlijioakin euskera!

Ta gero beste iru bertso, aurreko saillaren 12, 14 eta 13'garrena. Aldaketak: 12/1: Jaio ezkerok aita eta amak; 12/6: Bera Euskadi jatorra; 14/5: iruritzen zat ori guztiak; 14/7: frantsesak eta atzerritarrak; 14/9: oriek orrela izatezkero; 14/10: Euskadi euskaldunontzat. Eta 13'garren bertsoaren lenengo bi lerroak bakarrik, libretari orri bat falta zaiolako-edo.

(1931)  
**ERREPUBLIKAREN ETORRERA**

1/ Millaz atzetik bederatzi eun ta  
ogei ta amaikaz urtean,  
Garagar-illak ogei ta zortzi  
zituan egun batean,  
gerta zitzaigun auteskunde edo  
botazio bat suertean;  
errepublika buru jarri du  
España'n epai-kortean<sup>1</sup>.

2/ Jaiotzetikan nola geraden  
kistar guztiok ez-berdin,  
erakusmentsu beatzak dauzkagu,  
esku ezker ta eskuin;  
Jainkoan aldeko gurenda degu  
bakar-bakarrik Euskadi'n,  
bere azpian eskatu dezagun  
Jel-abenda askatu dedin.

---

<sup>1</sup> Errepublika jarri ondoren, *Cortes Constituyentes* egin bear, eta arako *diputado* edo ordezkariak 1931.VI. 28'eko auteskunde oietan aukeratu ziran.

3/ Nagusi edo jauntxo batzuek  
egiten zuten agindu:  
eskuitarrai alde bat utzi,  
ezkertarrari lagundu;  
itz gaiztoakin ikaratuta  
autarki asko bai kendu,  
eskuitarrak zenbait geigotu  
nai denok eman bagendu.

4/ Gau eta egun, igande aste,  
nola zar ala gazteak,  
arritu giñan ikusitzean  
era ontako nasteak;  
esakera da nola bildurrak  
zaitzen dituan mastiak,  
aundiagoak badauzkat bañan  
gaur ez jarri nai guztiak.

*Erauskin Errotari*

*Argia*, 1931.VII.26.

\* \* \*

Erauskin'en esku-idatzietan ere agertu dira lau bertso auek. Aldaketak: lenengoa, bertsoen ordena: 1, 3, 2 eta 4'garrena. Gañontzekoak: 1/1: Millaz ondoren bederatzi eun da; 1/2: ogei ta amaika urtean; 1/5: gertatu giñan auteskunde edo; 1/6: botazioa fuertean; 1/7: errepublika buru jarri da; 1/8: España'ko kortean; 2/8: Jel-abenda aska dedin; 3/3: eskuikoak ez aintzat artu; 3/6: batzuek geldi besteai kendu; 3/7: eskuin ai zer geiago ziran; 3/8: guztiok eman bagendu; 4/3: arritzen gaitu ikusitzean; 4/8: ez det esan nai guztiak.

(1931)  
**BERTSO BERRIYAK**  
**AITA ANDRES URDANETA'RI JARRIYAK**

1/ Goi-erritarrak esan dirate <sup>1</sup>  
katak jarri al banitza,  
aspalditikan oso naiturik  
irrikituta dabilta;  
nik ere guztiz poz aundiakin  
baietz eman nien itza,  
argitalduaz nola zan Andres  
Urdaneta'ren bizitza.

2/ Ludi guztian zabalduzteko  
egi garbiak beneta, <sup>2</sup>  
kristau fidel bat jasotzearren  
odei denan goieneta;  
nola itsasoz ala legorrez  
ospatsua zan daneta,  
Ordizia edo Billafranka'ko  
seme Andres Urdaneta.

---

<sup>1</sup> Bertso-paperak: *Goi-irritarrak*.

<sup>2</sup> Bertso-paperak: *egin*.

3/ Millaz atzetik bost eunekin  
geunden zortziko urtean,<sup>3</sup>  
Andres Urdaneta jaio zanean  
Billafranka erri maitean;  
Jesusentzako maitetasuna  
zuan biotza betean,  
kristandadea zabaldu zuan  
bizi izan zan artean.

4/ Andres Urdaneta Oianguren'en  
jaio ta egin zan azi,  
irurogei urte zituan arte  
lur eder gaiñ ontan bizi;  
erakuslea Jesus degula  
zeru ta lurren nagusi,  
Berarentzako anima asko  
zituana irabazi.

5/ Oroitzen zaigu gau eta egun  
Aita Urdaneta zana,  
Euskalerrian mirarituaz  
izendatutzen dutena,  
izan zalako erlijiosoa  
aundi euskaldun zuzena,  
ludi guztian sortu zeikean<sup>4</sup>  
semerik argitsuena.

---

<sup>3</sup> Ontan oker dago: 1498'an jaio zan Urdaneta.

<sup>4</sup> Bertso-paperak: *zeizkean*.

- 6/ Andresek zuan gaztetatikan  
itsasoarako poza,  
milla bost eun ogei ta bostean  
Coruña'ra zana pasa;  
konpañi artan pasa zanean  
arentxen biotza lasa,  
buruzaiak onak zituan  
Elkano, Jofre'kin Loaisa.
- 7/ Ark sortua da itxas-orratza  
zuzenki edo brujula,  
ortik sinistu aren buruak  
zentzu aundia zuala;  
Elkano ere orren besoetan  
gizarajoa ill zala,  
on Migel Lopez Legazpi'rekin  
txit adiskidea zala.
- 8/ Milla bost eun berrogei ta amabian  
agustinianon soña jantzi,  
artxipielago Filipina'ra  
joan da predikatzen asi;  
ereje beltzak gerturagatik  
etzan joaten igesi,  
kristandadea zabaldu nai ark,  
Jesus da denan nagusi.

9/ Jesusentzako animak eta  
Espania'rentzat lurra,  
irabazitzen igaro zuan  
bere bizitza laburra;  
erejeari sartzen ziena  
Jesusen alde bildurra,  
dagon tokian artu dezala  
Billafranka'ren agurra.

10/ Txonitza edo sermoi bikaña  
egiten zekian errez,  
asieratik idolo asko  
iseka burlaz ta farrez;  
korro galantak naiz gogor jarri  
etzan ixiltzen bildurrez,  
aizkenerako sinismendu ta  
belaun bikoan negarrez.

11/ Irureun da irurogei ta iru urte  
Andres Urdaneta il zala,  
Billafranka'n bai maitatutzen da  
ark utzitako itzala;  
dakigulako kristandadea  
zabaltzaille ona zala,  
guztion Aitak bere eskura  
artuba izan dezala.



- 12/ Aita Urdaneta sartu zala bai  
Jesusen biotz maitean,  
milla bost eun irurogei ta  
geunden zortziko urtean;  
baita gañera Uzta-illaren  
irua zan egun batean,  
Mejiko'n zegon agustinianon  
lekaidez etxe betean.
- 13/ Zenbait persona ludi ontatik  
degu bestera joana,  
denbora leku joan bear ori  
iritxiko da gugana.  
Zer ditxosoa gertatuko dan  
anima garbi daukana!  
Jaungoikoak beretzako du  
maitetzat artzen duana.
- 14/ Urdaneta'ren azaiñ aundiak  
dirade miragarriak,  
Reberendo Aita Fermin Unzilla'k  
argitalduak berriak;  
seme jatorrak azi oi ditu  
Billafranka'ko erriak,  
guztien onran amalau bertso  
Erauskin Errotariak.

Bertso-papera, «*Beasañ'en L. Zunzunegiren moldiztegian*. — 1931» argitaratua, Donostia'ko Gregorio Mujika zanaren bertso-bilduman.

Beste argitaraldi bat, etxe berean egiña: *Beasañ'en L. Zunzunegiren moldiztegian*», eta Erren-teri'ko Makazaga irarkolan eskuetaratua.

Aldaketak: 10/1: Txonitza edo sermoi jatorra; 11/1: Irureun da irurogei ta lau urte.

\* \* \*

Bertso auek paperetan argitaratu ta zabaldu baiño leen, idazlan bat atera zuan Erauskin'ek *Argia'n*, 1930.XI.23'an, *Urdaneta'tar Aita Andres* izenburuarekin. Onela dio:

«Jaio zan 1508'an Oianguren-aundi basetxean. Bere aita ta ama Juan eta Engrazia ziran. Andres txikitatik zan elizkoia eta euskal maitea. Gañera itxumenekoa zan itxasora joateko. Oraindik etxe-mutil zegoan 1515'an eta andik laster sartu zan expedizio batera, Koruña'n, agintari zutela frai Juan Garzia Jofre de Loaisa.

An zijoan getariar Juan Sebastian Elkano ospatsua.

Loaisa il zan Garagar-illaren 30'an, 1526 urtean. Elkano il zan Dagonillaren 4'an, Sur itxasoan, Urdaneta'ren besoetan. Urdaneta bera zan ziñelkari, Elkano'k azken naia egin zuanian. Ondoren joan zan Mejiko'ra; an egin zuan ezagun Mikel Lopez Legazpi; alkar besarkatu zuten bi euskaldunak. Andik Filipinas aldera jo zuten, animak eta lurrak irabaztera. Gero Deun Agustinen anaidade batean sartu zan; kristauak irabazi nai zituan. 1552'an agustinianoren soña-abitua

jantzi zuan. Asi zan predikadore; ereje zar asko jarri zituan Jesusen sinismenean.

Txistuka, iseka ta burlaka an eta emen erabili zuten, eta, eginkizun on askoen buruan, belaunikaturik Mejiko'n il zan.

Urdaneta'ren taiua Ordizia'ko ikustokian dago; gizaseme azkarra, erlijiosoa, euskeldun ona izan zan.

Euskalerrriak azi oi zitun seme jatorrak, orain ere azitzen ditu ta azi ditzala ludia ludi dan arte.»

Irakurlea oartuko zanez, gero bertsoan jarriko zituanak, emen itz-lauz idazten ditu. Itxura denez, lenengo andik eta emendik gaiaren berri ikasten saiatu zan, eta ondoren bertsoak jarri.

Itz-lauzko idazlan orren bukaeran, bi bertso ditu, saillaren bigarren eta laugarrena, aldaketa auekin: 2/1: Bertso berriak argitaltzeko; 2/2: beartzen naute benetan; 2/3: Aita fidel bat jasotzarren; 2/4: izar denan goienetan; 2/6: ospetsua zan danetan; 4/7: beragatikan omen eder bat; 4/8: nai genduke egiñazi.

(1931)  
**BERTSO BERRIAK**  
**LIARNI'KO AMA BIRJIÑARI**

1/ Bertso berriaz agurtzen zaitut,  
Liarni'ko Ama Birjiña,  
zeruan goian lurrean beran  
zeradena erregiña;  
bizi guztian Zu adoratzten  
guk saia nai alegiña,  
zure eskuan utzi dezagun  
aizken arnasa samiña.

2/ Agorrillaren zortzian degu  
Ama Birjiña eguna,  
Liarnia'ra religioso  
asko bildutzen gerana,  
otoiztuaz ondasun eske  
erruki dedin gugana;  
lagundu gabe ez du utziko  
Bera maitatzen duana.

3/ Ama Birjiña Liarni'koa  
zaudena ermita ontan,  
sinistu bai guk biotzetikan  
maite zaitugu benetan;  
errezatuaz eskari gaude  
jai t'aste gau t'egunetan,  
suerte on bana eman deiguzun  
kristau ta abel danetan.

4/ Bataiotikan kristau egiñak  
lendabiziko jaiotzaz,  
Ama Birjiña sortzez garbia  
nork ez maiteko biotzaz?  
Ludi onetan bizi beagu  
gau ta egun bere laguntzaz,  
arren, eskura artu gaitzazu  
denok aizken eriotzaz.

5/ Jesusen Amari sarri egin bai  
ikertze edo bixita,  
laguntzailerik ez da oberik,  
egon gaitezen etsita;  
zenbat otoitz eiten diogun  
denak ditu merezi-ta,  
zorion ditxa aizken orduan  
guk orren alde bizita.

6/ Garbiro asko ezagutua  
ludi au apal tristea,  
sorkundetikan ziara berriz  
daukagu erakustea;  
gure animak denon Aitari  
oinbesteraño kostea,  
ai zer tamala izango luken  
Luzbeltz'arentzat uztea!

7/ Ama Birjiña begiragarria,  
zeru lurrean on zera,<sup>1</sup>  
kristau fiolak nai deguna da  
Zeuri apal agurtzea,  
aizken orduan lasaitu zazun  
guk estu degun trantzea;  
era onetan emen bagabiltz  
baukagu itxarontzea.

8/ Bear dan garaian laguntza-eske  
gatoz oroitzen Zugana,  
gure ondoan Zu bazaitugu  
betor edozein gugana;  
zeradelako premi danetan  
laguntzalle laztana,  
Ama Birjiña, zuzen gaitzazu,  
lagundu berriz al dana.

---

<sup>1</sup> Bertso-paperak: *ontzera*.

9/ Etsai artean gabiltza emen,  
arren, begira lurrera,  
oroitu nola Luzbeltz gaiztoa  
alderatzen dan urrena;  
sinistu ere, griña okerrak  
anaitzen dira batera,  
betor gugana zure indarra,  
guztion Ama Zu zera.

10/ Dakialako ama maitea  
dala beretzat onena,  
aurtxo polita atsegin eta  
alai joaten da argana;  
Ama Birjiña, nai det nik ere  
laister etorri Zugana,  
zure alboan igarotzea  
zorion-betiraun dana.

11/ Gure gorputza lurrean dago  
bañan zeruan biotza,  
geren barrunean nabaitzen degu,  
Amatxo, zure abotsa;  
negargarria izan ez dedin  
gure aizken eriotza,  
beragatikan eskatze'izugu,  
Maria, Zeuri laguntza.

12/ Zergatik, Ama, Zugandik degu  
guk onenbeste merezi?  
Nai izan dezu guretzako, bai,  
beti ta beti Zuk bizi;  
zure ondoan degu nai denok,  
orra nik adierazi,  
il beziñ laixter zeru ederra  
egin dezagun ikusi.

13/ Auxen da lana, entzule jauna,  
nai ainbat ezin esana,  
gure zeruko Amaren biotz  
barrunen dagon dotriña;  
bere eskuan dezagun jarri  
gorputzarekin anima,  
nai al badegu zeruan danok  
iritxi zori on bana.

14/ Agur, Maria,  
sortzez garbia,  
zaitu bai zintzo  
Euskalerria.  
Zure itxaromenaz  
giñaden jaio,  
sinismena fedea  
gurekin dago.

*1931'an Erauskin Errotariak*

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Albiz-  
tur'ko Juan Mujika *Luistar* zanaren eskutik.

*Argia*'k ere argitaratu zituan bertso auek, bi



zatitan ordea, 1931.VIII.30'an eta 1931.IX.6'an;  
eta aldaketarik gabe argitaratu ere.

\* \* \*

Bertso auetzaz, Erauskin'en seme Ramon'ek  
onela esan digu:

—Bertso oiek aitak kantatu eta nik saldu egin  
genituan. Liarni'ko Ama Birjiñaren eguna zan,  
Agorrillaren 8'garrena. Trenez Ormaiztegi'raiño  
joan giñan eta andik betik gora oiñez. Jende as-  
ko zan: Goieritik, Zumarraga aldetik eta baita  
Azpeiti aldetik etorria ere. Bertso-paper asko sal-  
du genituan.

\* \* \*

Goierri'n, beste Ama Birjiña, Larraitz'koa da.  
Ari Erauskin'ek jarriak, bi bertso arkitu ditugu.  
*Argia'n*, 1934.V.20'an argitaratu ziran. Bearbada,  
bertsoak jartzen asi egingo zan eta bukatu gabe  
utzi. Bi bertsoz ez baita sail bat osatzen edo egi-  
ten. Guk ere, bi bertso ezin jarriko ditugu atal  
berezi batean eta emen azaltzea obe izango da.  
Onela dio:

«Pazko bigarreanean, Larraitz'ko baselizara gaz-  
tedi ikusgarria joango da Ama Birjiñari otoitz  
egitera.

Ama Birjiña Larraitz'koari  
noa bertsoak jartzera,  
erlijioa maite duana  
asi irakurritzea;  
ondo dakigu nola degun bai  
guztion Ama maitea,  
beragaitikan joaten gera  
sarritan ikertutzera.

Zeuri begira baseliz ortan  
guztiok gaude oroitzen,  
emallea Zu nola zeraden  
ondasun-eske otoizten;  
gure aurkako ezbear denak  
alde diguzu ornitzen,  
zorionean, Ama Birjiña,  
azaldu ziñan Larraitz'en.

(1931)  
**BERTSO BERRIAK**  
**EZKIOGA'KO AMA BIRJIÑARI**

- 1/ Bertso berriak argitaltzeko  
zorrotz beartutzen naute,  
Ezkioga'n Ama Birjiña  
azaltzen dan mediante;  
agurtutzea joaten dana,  
ai, zenbat millaka jente,  
etsaiantzako gezurra dala,  
fielontzako amante.
  
- 2/ Aneika asko etortzen dira  
euskaldun sei probintzitatik,  
gazelatarrak Ebro'az auztik,  
estranjeroak Prantzi'tik;  
zorion ditxa guretzako da  
erlijioaz jantzitik,  
ezagun da bai nork maite duan  
Ama ori biotzetik.

- 3/ Ama Birjiña, maite zaitugu,  
Ezki'o'n agertzen zerana,  
erlijioa aitor degunak  
pozikan gatoz Zugana;  
iseka edo burla egitea  
ori da batzuen lana,  
ludi guztiak jakin dezala  
ortxen gertatutzen dana.
- 4/ Ama Birjiña, barka nazazu  
egiten dizuan galdera,  
neroni ere kezkatan nago:  
gaiztoak izan al gera?  
Sinisten degu zerbaitengatik  
Zu zatoz geure aurrera,  
erruki guzaz zure etsaiak  
lenago izan bagera.
- 5/ Indar aundiya artu nai dute  
zure aurkari gaiztuak,  
Zerorrek ere oien esanak  
nola eduki aztuak?  
Jesusen alde txiroak daude,  
etsaiaz aberastuak,  
aizken orduan artu gaitzala  
guztiok zeure eskuak.

- 6/ Pekatariok sartu gaitezen  
Amaren biotz barrunean,  
eriotza're guk irixteko  
beraren aldamenean;  
zintzo ibilli uts egin gabe  
sinismeneko lanean,  
gero anima gertatu dedin  
betiraun zorionean.
- 7/ Egaka nator oroimen pozaz  
Ama Birjiñan aurrera,  
maitetasunez gar beroetan  
baita gogoia urrera;  
gau eta egun pekatariari  
zaude begira-begira,  
nola biotza txinpartatuta  
Zureganduko ez gera?
- 8/ Maite Amatzat artzen badegu  
geren izketa-aldietan,  
Berak sendatu, alaitu eta  
artuko gaitu pozetan;  
ez gaitu ez da utziko ere  
etsaien atzaparretan,  
kristau maiteok, Bera dalako  
Ama onena danetan.

- 9/ Askorentzako mirari zera,  
batzuentzako samiña,  
naigo luteke Ezkioga'n Zu  
agertuko ez baziña;  
gauza orixen ezagututa  
jarri giñaden auntziña,  
nai dezunentzat irtengo zera,  
orra egia jakiña.
- 10/ Etzerate Zu azaldutzen  
badabiltz gezurtatutzen,  
orduan bada Ezkioga'ra  
zertan dirade etortzen?  
Sinimentsuai ikusi eta  
pozak biotzak urtutzen,  
Ama Birjiña, saia zaitez bai  
gaizto guztiyak ondutzen.
- 11/ Ama, gaizkatu bear dituzu  
Euskera ta Euskal-Erria,  
zere laguntzat artzen dezula  
Deun Mikel zaindaria;  
egundo bañan estuagoa  
oraintxen degu larria,  
errukituta malkotzen dago  
arkaitz biziko arria.

12/ Askok zauzkagu oroigarritzat  
etsaiak samin erreta,  
Ama Birjiña, sinismentzeko  
eman deiezu arreta;  
zorion-toki orren jabe da  
Juan Joxe Etxezarreta,  
amabi bertson argitzaille ni:  
Patxi Erauskin Errota.

*Argia* asterokoa, 1931'ko Azilla 8.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Alegi'ko Rikardo Intxausti txistularia zanaren bilduman. Eskuz erantsita: 1-ENE. 1932. Eraskin orrek, Intxausti'k bertso-papera noiz eskuetaratu zuan adierazi naiko du. Aldaketa bakarra: 10/1. Etzerala Zu azaldutzen.

\* \* \*

Ikusi degunez, fede osoa ematen zien Erauskin'ek Ezkioga'ko gertaera oiei. Bañan bertso auek soka luzea ekarri zuten.

Egun berean, Errenteri'ko *Bertsolariya* asterokoak, amabi bertso agertu zituan, izenburu onekin: *Ezkioga'ko agermenari Txirritak jarriak*. Irakurri nai dituanik bada, *Auspoa*'ren 103-104'an arkituko ditu. Txirrita ere oso sinistuta zegoan.

Bertso auek irakurri zituanean, onela idatzi zuan Erauskin'ek *Argia*'n, 1932.I.17'an, bere *Ordizia*'ko kronikan:

•Nere lagun dan Txirrita bertsolari jatorrari: *Argia* bitartez ematen dizkat eskerrak neurri gabekoak. Neuk atera nituan bertsoak Ezkioga'ko

Andua etxaidean irtetzen dan Ama Birjiñaren alde. Ogeitatik amabostek mur mur mur ezer ez dala agertzen da gaizki esaka. Orain bialdu dirate Errenderi'tik Txirritak, eta aurki, udaberrian, zabalduko ditut uri askotan, bere baimenaz.»

Ta, esan bezela, zabaldu ere egingo zituan arek bertso oiek, bai bereak eta bai Txirritarenak.

Baiñan, Erauskin'ek zion bezela, bestela irizten zionik ere bazan, eta amar bertso atera zituan *Argia'n*, 1933.IV.16'an, *Aralar* izengoitiz firmatzen zuan batek. *Aralar* ori ez da, guk uste, erri-bertsolariren bat, apaizen bat edo gizon ikasiren bat baizik. Bertso guziak ez ditugu emen jarriko baiñan ona puska batzuk:

Ango kontuak sinistu gabe  
zerura gindezke sartu,  
ta errazegi sinistatuaz  
zerutik urrutiratu...

Gauzak erraztxo sinistatzea  
ez du mesede gizonak...

Iduripena geienak eta  
banaka batzuk gezurra  
dabilkitela, aspalditxotik  
sartua daukat bildurra.

Urrengo asteko *Argia'n*, 1933.IV.23'an, onela erantzun zion Erauskin'ek *Aralar* dalako orri:

«*Aralar* izenpetuaz, aurreko *Argia'n* etorri dira olerkiak, *Txirrita* eta *Erauskin'ek* lenago argitaldu giñuzen Ezkioga'ko agermenari jarritako oler-



kien aurka. Adiskidea: arpegi ori erakutsi geuri; ez arria jaurti eta sakelan eskua sartu. Jarri, guk bezela, garbi abizena eta izena zein zeran, eta laister erantzungo diegu zure olerki jator oieri. Ezkio'ko Andua'n izan baziña, etziñun olerki oriek jarriko.»

Urrengo *Argia'n*, 1933.IV.30'an, Albiztur'ko *Luistar'ek*, Juanito Mujika'k alegia, amar bertso argitaratu zituan. Au ere aurka. Onela zion bertso batean:

Ama Birjiña emen  
agertuko balitz,  
ez litzake izango  
oinbeste txoro-itz...

Andik bi astera, *Argia'n*, 1933.V.14'an, onela zion Erauskin'ek:

«Mujika'tar Juan'eri: Aneika esker zeuri aitortu dezulako geure olerkien aurkalaria zeu zerala. Bakar-bakarrik orixe jakitea nai nuan, beste iñoren zalantzarik gabe egoteko. Ni Ezkio'ko agermenaren alde jarri ninduten *Argia'ko* idazki batek eta zazpi olerkik, eta zorionean gordeta dauzkat neure eskuetan olerki oiek. Izkirik aldatu gabe urrungo *Argia'ra* bialduko ditut, irakurleak sinismena artu dezaten. Ni zerk sutu ninduan eta zeñek jarri zituan ez dizut esango, baño lenengo errenkada ikusten dezunean uste osoan nago ezagutuko dituzula nork jarriak diran.»

Agindu bezela, urrengo *Argia'n*, 1933.V.21'an, bertso oiek argitaratu zituan Erauskin'ek. Izenburua onela dute: *Ezkio'ko Ama, lagun eiguzu*. Bertso guziak ezin aldatuko ditugu onera eta ara irugarrena:

Gaiztoak indar dute  
zoritxarrez orain,  
eta guziak jarri  
zaizkigu buruz gain.  
Nun-nai egiñaz dabiltz  
nai duten aña irain,  
baña zure laguntzaz  
bagera oien lain.

Urrengo astean, 1933.V.28'eko *Argia*'n, onela esaten zion *Luistar*'ek Erauskin Errotariari:

«Agindu zenuen bezela, *Argia* onen aurreko zenbakian ber-agertu dituzun zazpi olerkiak ikusi ditut, *Erauskin*.

*Emika* izenpetuaz 1931-ko Dagonilla'ren 23'ko *Argia*'n arkitzen diran zazpi olerki oiek, ez dira nereak. Beragatik, olerki oiekin nik ez det zer ikusirik, gizona!

Eta aizu, *Erauskin*: olerki oiek nereak ez diran bezela, ala izan balira ere... 1932-ko Urrillan 2-ko *Argia*'n Azkoiti'ko *Norbait*'eri erantzunaz, Ezkio-gaian nere iritzi-aldaketaren berri eta abar, argi eta garbi ezarri nuena, ez al zenuen irakurri? Nere idazkai beartsu ura, *Emika*'ren zazpi olerkiak bezela, ez al daukazu gordeta?»

Erauskin'en erantzuna, 1933.VI.4'eko *Argia*'n, onela izan zan:

«Mujika'tar Juan jaunari: Nik bestek jarritako olerkiak azaldu dituala? Gizona, gizona! Ez nizun bada aurretik esan, *Argia*'n aspaldi etorritako zazpi olerkik nere biotza txinpartatu zutela, Ezkio'ko agermena egia zala eta zorionez eta eskuetan neuzkala, irakurleak sinistatutzeko izkirik aldatu gabe *Argia*'ra bialduko nituala? Bial ere; bañan nik

jarriak ez dira. Gañera, ez nizun esaten zuk jarriak ziranik. Lenengo errenkada ikusitakoan uste osoan negoala ezagutuko ziñuztela norenak ziran. Ala al da? Nik asarrea? Ezta iñola ere; batez ere zuekin, eskuitarrakin. Egundo ez det izan nai salneurrik gabeko ezbai edo leietan sartutzeko. Nork du ogena (kulpa) leia onetan? Esan bearrik ez dago: lendabizi asi zana gure olerkien aurka. Iñori kalterik etzioten egiten. Berriz ere ez dauzkat agintzalle gutxi olerkiak jarritzeko; bañan orain badet aurreragoko lanik Ezkioga'ko olerkiak jarri baño. Astia detanean, berriro ere jarriko ditut ordea.

Lan errexa dago: entzun nai ez dituanak, estali belarriak; ikusi nai ez dituanak, itxi begiak. Ez dira izango iñoren kaltegarriak. Gezurrik gabeko egiak, garbiak. Leia au onekin bukatzen da nere aldetik. Len bezin adiskide aurrera. *Erauskin Errotaria.*»

Ta, esan bezela, etzuan Erauskin'ek gai ontaz itzik geiago atera. *Luistar* eta *Emika*'k bai ordea; oraindik ere idatzi zioten. Bañan arek erantzunik ez. Orregatik, guk ere ez degu ontaz ezer besterik jarriko.

## EZKIO'KO AGERMENARI

- 1/ Bertso berriak jartzeko  
beartua naute,  
Ezkio'ko agermena  
dala mediante;  
orain ere joaten da  
majiña bat jente,  
Espiritu argiakin  
fedean presente.
  
- 2/ Milla bederatzieun ta  
ogei ta amaikagarrena,  
aspaldiko urtietan  
oroigarriena;  
Garagarrillak ogei t'amar  
zituan eguna,  
Ezkioga'n agermen bat  
miragarri zana.

3/ Imajiña agertutzen  
or zanean asi,  
anai-arreba txikiak  
zutenak ikusi;  
ezin eraman dutenak  
gaur ez dira gutxi,  
bañan jun nai degunari  
ezin galerazi.

4/ Imajiña azaltzean  
kasi agoniko,  
lurrari muñ egiñaz gu  
gogoz belauniko;  
nola bai Bidani'ko  
ala Ernani'ko,  
denori agertutzea  
ez da komeniko.

5/ Kristau fielak, bizitu  
gaitzan fedeakin,  
gezurrak baztar utzita  
zuzen egiakin;  
au ere esan bear det  
denak dezen jakin:  
andra baten gertaera  
txoritxo batekin.

6/ Ezkio'n agertzen zeran  
zeru lurren Ama,  
barkatu, galdera batez  
nator Zuregana:  
Zuk bialdu al dirazu  
txori au nigana?  
Osoro utzitzeko  
jakin nai duana.

7/ Txori orren azalmena  
izan da polita,  
lorik eziñ egin det  
pentsatzen jarrita;  
geiegi miraritzea  
alper-alperrik da,  
sinist'ez dunak ikusi  
nigan etorrita.

8/ Ezkio'tik errezatzen  
andre bat zetorren,  
txoria bide luzean  
jartzen zaion aurren;  
aizkeneko petxuz gora  
Ormaiztegi'ko lurren,  
andre onak artu eta  
eramatearren.

9/ Andre onak eraman du  
artuta etxera,  
geroztik orrek dauka  
zorion ditxea;  
ez noa gerozko danak  
esplikaturtea,  
bakarrikan onekin  
adierazitzea.

10/ Zer argi-bidetakoa  
txori orixen dan,  
batzuek emengo, bestek  
nungoa ote dan;  
ezberdintza nola dagon  
pañoan da sedan,  
iñork ez du ezagutzen  
zer txori-klase dan.

11/ Gezurretan ez naiz ari  
esplikazioan,  
egiak dirala geldi  
satisfazioan;  
orain txori ori dago  
oroimentzioan,  
Santo Kristoren aurrean  
oserbazioan.

- 12/ Miragarri Ezkio'ra  
joaten giñala,  
etsaiak amorratutzen  
kontra egiñala;  
Agoztuan emeretzian  
ontzat eman zala,  
Ezkio'ra jun nai duana  
libre dagoala.
- 13/ Zenbaitxok egian kontra  
murmuratu dute:  
gorputzak mesederik ez,  
animantzat kalte;  
egia ezin saldu  
gezurraren truke,  
Ezkio'n zerbait dala  
sinistatu dute.
- 14/ Orra zer adimenak  
Ezkio'ko Amak,  
biotzez agurtzen gaitu  
joaten geranak;  
aurrera ere goazen  
al degunak denak,  
ez gaitu zergatuko  
diozesano deunak.



15/ Agur, Maria,  
sortzez garbia,  
Ezkioga'n jarri, bai,  
zeruko argia.

Bertso auek, Erauskin'en seme Joakin'ek bere aita zanaren paperetatik atera zituan. Bertso-pa-per bat da; moldiztegi-izenik ez du. Baiñan, le-traren tankeraz-eta, Beasain'go Zunzunegi'renean inprentatua izango da; alegia, Erauskin'ek bere paperik geienak argitaratu zituan moldiztegian.

Egillearen izenik ere ez da esaten. Baiñan au-rreko saillaren eta onako onen lenbiziko ber-tsoak oso antzekoak dira. Ortaz gaitzera, bostga-rren bertsoak onela dio: «Kristau fielak, bizitu gaitzan fedeakin...» Ez degu oraindano Eraus-kin beste bertsolaririk somatu, *gaitezen* esan bea-rrean, *gaitzan* esaten zuanik.

Ta berak ere agindua zuan Ezkio'ko gertaera oiei berriz ere bertsoak jarriko zizkiela: «...orain badet aurreragoko lanik Ezkioga'ko olerkiak jarri baño. Astia detanean, berriro ere jarriko ditut ordea.»

Orregatik, bertso auek ere bereak dituala, ez dago, guk uste, zer duda egin.

(1931)  
**EUSKELDUNEI EUSKEL IZENA**

1/ Zeñek ez du esaten,  
nork ez iragarri,  
eliza ta kanpoan,  
etxaide, baserri,  
jeltzaleok Doibatzan<sup>1</sup>  
arerio jarri  
geradela zabaltzen  
asko eta sarri?

2/ Bañan zer egin degu  
Doibatzaren kaltez?  
Izbiditari egutsi,  
besterik ezer ez!  
Euskera itxartzeko  
garbi, txukun, artez,  
eskubidea Jaunak  
emana birtutez.

---

<sup>1</sup> *Argia*'n: jeltzaiok.

3/ Gure elea, euskoak  
sortu ziranetik,  
Jaun Goikoak nai du-ta,  
euskera da beti;  
errakuntzik ez dauka  
Urtziren aldetik,  
jeltzaleak, goazen  
bide orretatik.

4/ Euskera nai degulako  
biotzez maitatu,  
euskal izenak ere  
ginduzen eskatu;  
Doipuruak oparo  
baitare laketu,  
jaupariak jartzea  
ezin ba ukatu.

5/ Erroma'n daukagu  
Kistoren ordelari,  
ta denok beaiogu  
muñ egin berari,  
janzkordun, gogontzaile,  
gotzain ta jaupari,  
Jaunak Doibatzan buru  
zubalako jarri.

6/ Idazti Deunean dago  
zorrotz idatzita:  
Doipurun agerkaian  
utsik ezin leika;  
epaiak ematen du  
geldika-geldika,  
izpidea nork daukan  
ondo igarrita.

7/ *Theologia Moralis*  
berak dio garbi,  
aitak nai duan izena  
jartzeko aurrari;  
batzuek jarri nai eza,  
gertatu da ori;  
euskeraz jarri izena  
nai duten denari.

8/ Erruki zaitez, bada,  
Josuren Biotz Deuna:  
argitu batzuk dauken  
adimen illuna,  
kendu gorrotoa ta  
sartu maitasuna,  
izan bedi guretzat  
Zeuk eman ziguzuna.

9/ Jauna ta lege zarra,  
eusko ikurriña,  
bertan dan gurutzea ta  
Kistoren dotriña;  
berekin lortuko degu  
geure atsegiña,  
izateko asabak  
izan ziran aña.

10/ Otoi deiogun gogoaz  
Josuren Biotzari,  
zoriona iristeko  
Euskalerrari.  
Gora Urkutz donea,  
gurekin bizi bedi,  
euskeraz jagoteko  
Jaunantzat Euskadi.

*Argia, 1931.XII.27*

\* \* \*

Beste iru bider-edo erabili zuan Erauskin'ek  
gai au bera. Lenengo *Euzkadi*'n, 1920.IV.20'an:

Odolaz euskotarra  
bai eta abizena,  
aurrari zertan jarri  
belarmotz izena?  
Buruko kirtenentzat  
ori da gaitzena,  
ortik ezagun dira  
oker dabilzena.

Bertso au, *Argia*'n ere argitaratu zuan, 1934.  
VI.17'an, baiña oso aldatuta:

Eusko odola eta  
ala abizena,  
atzerritarrez zertan  
ipiñi izena?  
Lenengo au da asko  
arritzen naizena,  
al danari erakutsi  
bidea zuzena.

*Argia*'n, 1931.III.29'an, bertso au agertu zuan:

Sorkundetikan eusko odola  
duana eusko abizena,  
ari zertako jarri bear zaio  
atzerritarran izena?  
Askori eziñ buruan sartu  
daukagu lanik gaitzena,  
malkarretatik amilka dabiltz  
utzita bide zuzena,  
ugazama dute lenengo maite  
eta berena aitzena.

Eta *Argia*'n, 1934.VII.8'an, beste bi auek:

Euskotarrak jaio giñaden,  
eusko aberrian azi,  
aizkeneko arnaserano  
euskotar bear degu bizi,  
eta ondorengo aurtxoari  
auxen berau erakutsi,  
ta euskerazko izena berriz  
jarri gabe ez utzi;  
errukirikan baldin badegu  
geren Amari egutsi.

Euskotarrak euskeraz alkarri  
itzegin eta idatzi,  
bat erderatzen asitzen bada  
aintzat artu gabe utzi;  
anai-arrebak, gogoan zaitu  
gaur da biar eta etzi,  
euskotar onak zer egin biar dun  
orra garbi erakutsi,  
baldin euskera ilko balitza  
ez degu bear nai bizi.

**BERTSO BERRIAK**  
**SENAR-EMAZTEGAIK ALKARRI JARRIAK**

1/ *Mutillak:*

Pretensioaz nator,  
Joxepa Antoni,  
erantzutea nairik  
galdetzen detani:  
alkarrez bizitzera  
dezala komeni,  
zuretzat modukoa  
izten batzaitzu ni.

2/ *Neskatxak:*

Erantzuten dizut bai  
pozikan, Joakin,  
zorionean ori  
entzutearekin;  
gustatuta zaudela  
diozu neurekin,  
apustu geiago ni  
nagola zurekin.



3/ *Mutillak:*

Joxepa Antoni, zuk  
neskatx onan antza,  
nerekin izateko  
orra esperantza;  
ni ziur ez dezula  
artuko mudantza,  
pozak dir-dir biotzak  
egiten dit dantza.

4/ *Neskatxak:*

Aitortu bear dizut:  
gutxi det dotea,  
aita-amak bezela  
nazu arlotea;  
zuretzako biotzez  
bai borondatea,  
obea da aurretik  
garbi esatea.

5/ *Mutillak:*

Urte batzuek pasa  
ditut Amerika'n,  
diru-mordo bat ere  
ekarri andikan,  
zurekin urtutzeko  
zintzo gorderikan;  
ez det dote bearrik,  
zeu kamis utsikan.

6/ *Neskatxak:*

Auzoan dadukagun <sup>1</sup>  
mutil zar Bautiste,  
aurrena asitzen da  
dotearen eske,  
orrek ikusten danez  
biak nai lituzke,  
ori esposatzerik  
aurten ez det uste.

7/ *Mutillak:*

Askotan det egi bat  
zarretatik aitu:  
guztiak nai dituanak  
denak galtzen ditu;  
Bautista ori ere  
orla bada oitu,  
mutil zar bearko du  
betiko gelditu.

8/ *Neskatxak:*

Gaurko mutil batzuek  
galdetutzen gala:  
«Dote aundi xamarra  
al daukazu ala?»  
Olakoa ondotik  
azkar dijoala,  
Joakin, zu etzerade  
oien iguala.

---

<sup>1</sup> Bertso-paperak: *Auzoan daukagun.*

9/ *Mutillak:*

Andregai egin baña len  
dotearen eske,  
egon bearko dute  
berriz ere aske,  
uda, negu, gau t'egun,  
igande ta aste;  
guk gerena egin zagun,  
or konpon bitezte.

10/ *Neskatxak:*

Joakin, sartu zerade  
nere biotzera,  
ez uste gero nik zu  
desanparatzea;  
egunero etorri  
bai gure etxera,  
gogoz egongo naiz-ta,  
itzaspertutzera.

11/ *Mutillak:*

Zakurra aundia eta  
dezute perroa,  
belarri moztua ta  
kalparra arroa;  
ikaragarria da  
egiten dun marrua,  
ni bildur naiz sartutzen  
atian barrua.

12/ *Neskatxak:*

Zakurra jarriko det  
neronek katean,  
posteari lotuta  
txekorren tartean,  
ez askatu ere gu  
alkartu artean;  
bildurrik gabe sartu  
ataiko atean.

13/ *Mutillak:*

Esan bezela lotu  
zakur ori katez,  
ozka egingo balit  
guztiontzat kaltez;  
itz egitea biok  
oso borondatez,  
illuntzero or nazu,  
pozak egon zaitez.

14/ *Neskatxak:*

Biok gertatzen gera  
gogo berokoak,  
ez dirade billatzen  
nunai olakoak;  
uztartu gaitzan azkar,  
gero gerokoak,  
onela nai dezala  
Aita Jaungoikoak.

## 15/ Mutillak:

Auxen da gertaera  
kariño onean,  
alkarren esanetan  
zer sinismenean!  
Uztartuko gerade  
zuk nai dezunean,  
ojala balitzake  
biarko egunean.

Goi Erritarrak

Bertso-papera, «*Beasañ'en A. Zunzunegiren etxean*» argitara emana, Donosti'ko Gregorio Mujika zanaren bilduman.

Paper onek, beeko barrenean, eskuz idatzita, onela dio: *Erauskin*. Bestetik, berriz, inprentaz firma au dakar: *Goi Erritarrak*. Ta, irugarrena, auek ere, *Erauskin'ek* bere bertsorik geienak inprentatu oi zituan tokian argitaratuak izatea. Ta, azkenik, *Erauskin'en* illoba dan eta *Olaa'ko* erro-tan bizi dan *Jose Erauskin Agirre'k*, sail ontako bi bertso, seigarrena eta zazpigarrena, buruz esan zizkigun, bere osabaren bertso-paper batetik ika-siak zituala esanaz. Arrazoi oiek aski dira, guk uste, bertso auek ere liburu onetan sartzeko.

Beste argitaraldi bat, bertso-papera au ere, *Bilbao'n Etxenagusaren etxean*» argitaratua, *Naparroa'n*, *Igantzi'ko* Juan Sein adiskidearen eskutik jaso genduan. Aldaketak: 8/8: orren iguala; 10/8: itxas poztutzera.

## SAN SATURNINOREN BERTSOAK

1/ Bertso berriak zuzendutzeko  
ez daukat nagi burua,  
lagundutzalle eskatzen zaitut,  
San Migel goi-aingerua;  
San Saturnino eta San Fermin  
joan zitzaion ingurua,  
ordu onetan santu eginda  
igo ziranak zerua <sup>1</sup>.

2/ Zaldibitarrak esan dirate  
kantak jarri al banitza:  
«Patxi Erauskin, zure billaka  
aspaldi ontan gabiltza.»  
Nik ere pozik, ala bear da,  
baietz eman nien itza,  
argitalduaz nolakoa zan  
San Saturninon bizitza.

---

<sup>1</sup> Esku-idatziak: *zerura*.

- 3/ San Saturnino jaiotzetikan  
oroizko relijioso,  
baita gañera guztiz argia,  
argaitikan zan obispo;  
bere ondoren ibiltzen zana  
kapiladua Onesto,  
on biurtuta jarri zituzten  
millaka ereje asko.
- 4/ Zaldibia'ko Urreta-kale  
deitzon barrio maitean,  
San Saturnino antxen daukate  
ermita polit batean,  
egin zutena milla seireun da  
larogei t'emeretzi urtean;  
maitetasunaz biotzak betean  
sartzen dirade atean.
- 5/ Dionisio Areopajita'rekin <sup>2</sup>  
adiskide aundienak,  
Arles'eraño animak erosiaz  
biak etorri ziranak,  
era onetan igarorikan  
jai t'aste, gau ta egunak,  
bildurrik gabe naiz-ta agertu  
ereje biurrienak.

---

<sup>2</sup> Esku-idatziak: *Arko pajitarekin.*

6/ Karkasona'n bañan jente ohea  
nola zegoan igarri,  
Frantzia'ko Tolosa'n eliz berri bat  
eginda zutela jarri;  
San Papul gelditu zala  
ango animan zaindari,  
San Saturnino erriz ta erriz  
Iruña'ra zan etorri.

7/ San Saturninok pasa zituan  
Naparraldean bi urte,  
Aita San Fermin bautizatzeke  
berak artu zuan parte;  
Jesusen alde biurtu ere  
berrogei milla ereje,  
berri on aiek zabaldu ziran  
Toledo'araño arte.

8/ San Papul animan zaia  
jentill gaiztoak il zuten;  
jakin zuanean, San Saturnino  
aguro asko an zuten;  
Tolosa Frantzi'n zeuden fielak  
poz gutxi artu etzuten,  
onez aurrera asiko naiz zer  
gerta zitzaion esaten.



9/ Jentill etsaien elizak zuan  
Kapitolio izena,  
aurre artatik San Saturnino  
goizero pasatzen zana;  
ereje gaizto biurri aiek  
ura eziñ eramana,  
etsaiak irten, eldu ta narran  
sartu zutela barruna.

10/ Erejeak esan zioten aien  
jainkoa adoratzeko,  
erantzun zien orrelakorik  
arekin ez pentsatzeko,  
aren odola abelanakin  
etzegola nastutzeko;  
ura zan asko jentill apaizak  
ezpataz pasatutzeko.

11/ Oiñ biak lotu eta zezenari  
isetsetikan erantsi,  
aurren saltoan ormea jota  
kopeta-ezurra autsi;  
gero arrastran errian jiran  
puska zati asko utzi,  
kristau fielak irrikalduta  
andik joan ziran igesi.

12/ Etxeko andre txit almentsu batek  
bere neskamearekin  
sokatik askatu Saturnino ta  
puskak biltzen zien ekin;  
zoko batean izkutaturik<sup>3</sup>  
nun erak bestek etzekin  
andik denbora-aldi batera  
relikia egiñ aikin.

13/ San Saturnino mundu onetan  
martirio asko pasia,<sup>4</sup>  
ezpataz josi, zezenari lotu,  
rastaka kendu bizia;  
ordu artantxe santu eginda  
zerua irabazia,  
oraiñ an dago bertan gozatzen  
eternidade guztia.

14/ Eguzki-argiak daukan dizdara  
ez bada biurtzen laño,  
ez da urtuko zureganako  
aitormena egundaño;  
baita barkatu ez bagerade  
zuretzaz oartu gaurdaño,  
aizken orduan gutzaz oroitu,  
agur, Deun Saturnino.

---

<sup>3</sup> Bertso-paperak: *izkutarik*.

<sup>4</sup> Bertso-paperak: *pasea*.

Bertso auek, Erauskin'en seme Joakin'ek gordetzen duan aitaren esku-idatzi batetik artuak ditugu.

*Argia* astekariak ere argitaratu zituan: lenengo zazpiak, 1932.IV.17'an, eta besteak, 1932.V. 8'an; eta ontan, firma bezela, onela idatzita dago: Erauskin Errotari.

Errenteri'ko *Bertsolariya* astekariak ere argitaratu zituan, bere 42'garren zenbakian, 1932.VII. 3'an. Onek *Argia*'k bezelaxe ditu bertso guziak.

*Argia*'k eta *Bertsolariya*'k, aldaketa auek dituzte: 1/3: lagundutzalle artzen deala; 1/5: Deun Saturnino eta San Fermin; 2/6: baietz eman diet itza; 2/8: Deun Saturninon bizitza; 3/1: Aita Saturnino jaiotzetikan; 3/3: baita gañera seme argia; 3/4: argaitik gotzai obispo; 3/8: millaka errege asko; 4/2: deitzon auzo maitean; 4/3: Deun Saturnino antxen daukate; 4/4: baso-eliz polit batean; 5/3: Arles'eraño animak erosten; 5/7: gutxi bildurtu naiz-ta agertu; 5/8: etsairik biurrienak; 6/3: Tolosa Frantzi'n eliz berri bat; 6/5: San Papul gelditu zana; 6/7: Deun Saturnino erriz ta erriz; 7/1: Deun Saturnino Napar aldean; 7/2: pasa zituan bi urte; 7/3: Aita San Fermin kistar egiteko; 8/3: jakin zuanean Deun Saturnino; 9/3: aurre artatik Deun Saturnino; 9/5: ereje gaizto biurri askok; 9/7: ataira irten, eldu ta narran; 10/1: Erejeak esan ziotela aien; 10/3: erantzun ziela orrelakorik; 10/4: arekin ez oldozteko; 11/3: aurren saltoan orma bat jota; 12/1: Etxeko andra almentsu batek; 12/3: sokatik askatu Deun Saturnino; 13/1: Deun Saturnino ludi onetan; 13/2: martirio asko pasatzia; 13/3: ezpataz pasa, zezenari lotu; 13/8: betiraunde guzia.

(1933)  
**IPARRAGIRRE'RI**

- 1/ Iparragirre etzan egoten  
ikaratuta bildurrez,  
gau eta egun beti alai bai  
itxasoz eta legorrez;  
bera goratu bear degu gaur  
geren euskera ederrez,  
gau illunean nola odeia  
alaitutzen dan izarrez.
  
- 2/ Euskaldunari oroitzen zaigu  
bai Iparragirre zana,  
Euskal-Errian ospa aundian  
izendatutzen dutena;  
izan zalako bertsoetan da  
gitarra jotzen onena,  
zorionekoak ura sortu zuten  
nola aita ala ama.

3/ Buruz almena ta atzaparrak  
zitan arrigarriak,  
ez dakitenak ikasitzeko  
orra iru bertso berriak;  
eguzki pean zabaldu ditzan  
aitormen begiragarriak,  
seme jatorra ura azi zuan  
Urretxua'ko erriak.

*Argia*, 1933.VI.18.

## ESKUI ETA EZKERRA

- 1/ Irakurleok, jarri zaitezte esan oheri begira, gezurak utzi alde batera, mintza gaitzen egira; pixtiak nola bildutzen diran pozikan bere kabira, ezkerrean ere eskuin beziñ abertzaleak badira.
  
- 2/ Nork jarri ditu izendatuta eskuik eta ezkerak? Jakiten badet emango dizkat nagon tokitik eskerrak. Motelak nola oldozten dute arrapatzea azkarrak? Nagusiari obedituzten ikusten dira maiztarrak.

3/ Ezkerrean da eskuin, bietan  
daude txarrak eta onak,  
sinismen auxen artu bear du  
buruz almena duanak;  
eskui alde ikusten dira  
sinismenik ez dutenak,  
bai eta ere ezker aldera  
relijioso onenak.

4/ Zer egin duten oroituzeko  
Uztaillan emeretzian,  
mitina ematen karlista oiek  
Elutsu'n izandu zian;  
Jaun-Goikoa eta Lege Zarra  
orra azkar utzi atzian,  
Euskadi'rentzat erruki ona  
dago oien biotzian<sup>1</sup>.

Lau bertso auek, Erauskin'en esku-idatzietan  
agertu dira. Olakorik ezer ez baitzuten, izenbu-  
rua gerok erantsia da.

---

<sup>1</sup> Puntuak onela ditu bertso onek Erauskin'en es-  
ku-idatzian: *emeretzian, ziran, atzean, biotzean*.

(1934)  
**BERTSO BERRIAK**  
**BASERRITARRAK JARRIAK**

1/ Kantak jartzea goatu zaigu  
geure Euskal-Erri maitean,  
millaz atzetik bederatzi eun ta  
ogei ta amalau urtean,  
baserritarrantzako,  
nekazariantzako;  
gau ta egun gabiltz nekean,  
alperrantzako egun gorriak  
gu luditikan joatean.

2/ Lengo bertsoa aurrenekoa,  
oraingoa bigarrena,  
askok diote ondo daudela  
bata bestien urrena;  
lanikan bearrena  
baserritar orrena,  
orra egiz aitormena;  
guk egiñ eta zenbait alperrek  
sartzen du sabel barruna.



3/ Gari ta arto, aza, patata,  
baba eta babarruna,  
esan bezela, guk egiñ baño  
aixago sartu barruna;  
ollo eta ollasko,  
esne ta arraultza presko,  
aiek berriz nai aurrena;  
besteri eman onenak eta  
guretzat talo txarrena.

4/ Nekazariak gau t'egun lan da  
otz bero asko pasiak,  
kokote ondo melarrak eta  
lepo ta ille luziak;  
neri iduritzen zat  
laguntzen digula beintzat  
Jaunaren esker graziak;  
baserritarrok ez bagiñade,  
alperrak ilda gosiak.

5/ Aragi urdaiak merkatu eta  
almazenak txit galesti,  
gauza oriek ezagututa  
bizi gera lenagozti;  
zentzuaz gauden azti,  
ori bai obe nauski,  
orra nik esan aurrezti;  
nekazariak anaitu gaitzan,  
bestela gabiltza gaizki.

6/ Zuentzat ere orra bertso bat,  
adiskide arakiñak,  
len etzekiten guztiak orain  
gelditu bitez jakiñak:  
erosi ta saltzeko,  
zeok preziok jartzeko,  
izketan legun mingañak;  
gure txekorrak ordaintze'ituzte  
zuben automobil piñak.

7/ Baserritarrok badadukagu  
itxu-aurreko zuzenik,  
ez uste gero gezurrak jartzen  
ni emen asi naizenik;  
nekazarien aurka  
bere ala izan da  
mintzatutzen da atzenik;  
bear bai bañan ez det esango  
nungoa eta izenik.

8/ Baserritarron aurka zertako  
orrela dabil autore?  
Obeagorik ez dan tokian  
izketan berriz dotore.  
Nun bear da tutore  
edo dala eskritore?  
Ori jarri direttore.  
Baserritarrok, sinistu ondo:  
ez da gure salbadore.

9/ Erakusleak onak dauzkagu,  
oien esanera bildu,  
malkarretatik baldin bagabiltz  
egingo gera amildu;  
bide zuzenari eldu,  
arren ez gaitzan galdu,  
nekazariok garaildu; <sup>1</sup>  
ludi onetan zori oberik  
iñork billatuko al du?

10/ Don Polikarpo Larrañaga bat,  
bai Goñi'rekin Murua,  
geiago ere gizon jatorrak  
biltzen zaie ingurua;  
oiek daukate burua  
ta izketako modua,  
bearrena berriz gogua;  
baserritarrok opa diegu  
ildako ordutik zerua.

11/ Gizon orien esanak ondo  
baserritarrok aditu,  
eta gañera bizi guztiko  
baita gogoan gelditu;  
zentzuaz ez nagitu,  
begia ere argitu,  
biotzak pozaz alaitu;  
jaun orieri guk eziñ eman  
bear luken ainbat meritu.

---

<sup>1</sup> Bertso-paperak: *geraildu*.

12./ Begiak dira ikusitzeko,  
belarriak aditzeko,  
minga<sup>ñ</sup>ak berriz ezin ukatu  
dirala itz egiteko;  
amabi bertso berri  
nola dituan jarri  
gogo duanak artzeko,  
afal ondoan pipak piztuta  
su ondoan abesteko.

*Erauskin Errotari*

Bertso-papera, *Imp. Macazaga* — *Renteria* moldiztegian argitara emana, bertan jaso; ta bai Al-tzo'ko Olazabal-berri baserriko Inazio Zabala'ren eskutik ere.

Moldiztegi-izenik gabeko beste paper batean ere argitaratu ziran bertso auk. Paper ori Ormaiztegi'n jaso genduan, Etxaburu baserriko Bizente Mujika'ren eskutik. Aldaketa auk ditu paper onek: 3/9: geontzat talo beltz txarrena; 5/4: bizi gerade aurrezti; 5/9: bestela goatza gaizki; 9/7: Nekazariok garaildu; 12/5: amabi bertso saltzeko; 12/6: amar zentimorentzako; 12/9: su ondotan abesteko.

*Argia*'k ere argitaratu zituan bertso auk: lenengo sei bertsoak, 1934.II.11'an; eta gañontze-koak 1934.II.25'an. Aldaketak, aurreko paperak dituanak.

(1936)  
**TXIRRITA ZANARI AGUR**

1/ Txirrita il da, il da Txirrita,  
bai il da gizarajoa,  
atsegin asko bere olerkiz  
Euskadi'n emandakoa,  
sasi-oleskari guztiontzako  
irakasle gañekoa;  
nola ez degu goitituko ba  
ain bertsolari iaioa?

2/ Irakurleok, sinistu gero  
zer gogoz eta indarrez  
Txirrita zanak abesten zuan  
itxasoz eta legorrez.  
Beste alako bat eguzkipean  
ez da billatutzen errez,  
Ama Euskadi urrikalduta  
urtutzen dago negarrez.

3/ Guk bear aña ezin goititu  
edo jaso ere naita,  
bazenekizun zenbat zaitugun  
anai ikasleok maita!  
Argi bizia izandu ziñan,  
eusko zintzoa ere baita,  
orreatikan deitzen genizun  
oleskari denon aita.

4/ Ernani erri jatorrean zan  
Txirrita jaio ta azi,  
irurogei ta amasei urte  
zituan artean bizi;  
oleskaritan iaioagorik  
ludian ezin ikusi,  
oraintxen ere argatik zegon  
txapeldun eta nagusi.

5/ Guztion Aitak deitu zion da  
Txirritak joan bearra,  
baita geuri ere egingo digu  
uste gabean deadarra;  
oldoztu utsak egiten digu  
biotzeraño dardara,  
oartutzean etortzen zaigu<sup>1</sup>  
begietara negarra.

---

<sup>1</sup> *Argia*'k: *oartutzean etortzen*. Gerok erantsia da  
*zaigu* ori, olako zerbait falta dualakoan.

6/ Garagar illak iru zitula  
geure Txirrita il zala,  
entzundakoan ura tamalez  
erantzi nuan txapela.  
Bere bizitzan bizi izan zan  
kristau zintzoa bezela,  
irakurleok, otoi deiogun  
Jaunak donokin dezala.

*Erauskin Errotari*

Txirrita, 1936.VI.3'an il zan; bertso auek *Argia'n*, 1936.VI.14'an argitaratu ziran.

## BESTE BERTSO-SAIL BATZUEK

Erauskin'ek, bereak jarri eta saldu ez-ezik, besteren bertsoak ere saltzen zituan. Adibidez, Txirritak Ezkioga'renak atera zituanean, onela zion *Argia'n*, 1932.I.17'an:

«Orain bialdu dirate Errenderi'tik Txirritak, eta aurki udaberrian zabalduko ditut uri askotan, bere baimenaz.»

Ta 1932.XII.18'an, lantegian lanik gabe gelditu zanean:

«Orain esan bear det zer oldoztu detan: Iparragirre zana bezelaxen asitzea, sei laterri edo eusko probintziari ikusketa ematea, batez ere jeltatzoki guztiak ezagutuaz eta utziaz olerki-orriyak.»

Bertso-paperak zabalduaz alegia. Bertso-saltzalle saiatua genduan, iñondik ere, ura.

Saltzalle guztiak, ordea, salgai daukaten ura alik-eta laisterren eskuz aldatzea nai izaten dute, eta Erauskin'ek ere bai noski.

Orretarako, bereak etzituan bertsoak errezago saltzearren, zenbait aldiz, antziñakoak baziran beintzat, bere izena erantsi zien, an eta emen aldaketa batzuek egin, bertso berri bat edo beste tartean sartu, eta orrela *bertso berriak* balira bezela zabaldu.

Ori egitea iñoren kalterako ez eta Ama Eus-



keraren mescedetarako zala-ta, ekin gogotik bertso-paper saltzera.

Ona emen olakoak zein diran:

\* \* \*

**BERTSO BERRIAK  
ANIMEN ONERAKO  
ZALDIBIAKO BATEK JARRIAK**

Iztueta'k, bere *Gipuzkoa'ko dantza gogoangarriak* liburuan, *Itzaneurtulari edo bertsolarien jostaketa* izeneko atala sartzen du bukaeran. Ortan, «Nere kristau maiteak, jakiñean gaude» asten diran bertsoak ezartzen ditu. Bereak ditu, noski, bertso oiek, eta salbazioari buruz jarriak dira. Danetara, ogei ta sei bertso.

Erauskin'ek, berriz, amabost bertso argitaratu zituan «*Tolosa: — Imp. de A. Gurruchaga*» moldiztegian, or goien ipiñi degun izenburuarekin.

Ormaiztegi'n jaso genduan bertso-paper ori, Etxaburu baserriko Bizente Mujika'ren eskutik.

Erauskin'ek azken bertsoa, 15'garrena, berea du. Onela dio:

Zer egin bear degun  
orra garbi jakiñ,  
nork bere aldetikan  
eiñ zagun alegiñ;  
kastigatu ez gaitezen  
infernuan penakiñ,  
fedearen aldera  
bizi gaitezen fiñ;  
kanta oen jartzallea da  
Franzisko Erauskin.

Esan degunez, bera ere bertso saltzen ibiltzen zan. eta paper au errezago saltzearren-edo jarriko zuan bere izena azken bertsoan.

Bañan beste bertso guziak Iztueta'renak dira, arestian aitatutako sail ortatik artuak: sailaren 1, 2, 3, 4, 5, 6, 14, 13, 17, 18, 21, 22, 23 eta 24'garrena, orden ortantxe.

Aldaketak: 1/5: gelditu diradenak; 1/6: au sinistu gabe; 1/7: inpernuan su ta gar; 1/8: destetxetan daude; 1/9: bizi gaitezen beti; 1/10: fedearen alde; 2/1: Esikoak jotzean: 4/9. *gaizto* lizun guziak; 5/5: *aldoratzen* bazaigu; 17/6: sasi *eta karrak*; 17/7: gañera erre bear; 17/9: eztu asko balioko.

\* \* \*

## BERTSO BERRIAK JESUS DAN SINISMENARI JARRIAK

Or goien ipiñitako izenburu orrekin, beste bertso-paper bat atera zuan Patxi Erauskin'ek, «*Beasañen L. Zunzunegiren etxian 1929-garren urtean*» argitaratua.

Lenengo amaika bertsoak, Iztueta'ren sail orretxen 1, 2, 3, 4, 5, 17, 18, 21, 13, 22 eta 23'garrena dira, orden ortantxe eratuak.

Aldaketak: 1/1: Kristau fiel guztiok; 1/4: zeru lurren jabe; 1/5: jaio, bizi ta il ziranak; 1/6: au sinistu gabe; 1/7: su, leize, inpernuan; 1/8: destetxetan daude; 1/9: bizi gaitezen zintzo; 1/10: fedearen alde; 2/1: Il bearrak jotzean; 2/5: lendanaz gaizki egiñak; 2/6: burura etorri; 2/8: aitortu bai garbi; 3/3: osakaria dauka; 4/9: gaiz-

to lizun guztiak; 5/5: alderatzen bazaigu; 5/7: mundu apal onezaz; 5/9: su-leize infernura; 17/3: zubi goibe luzæk; 17/6: sasi eta larrak; 17/7: gañera erre bear; 17/9: ez du asko balio-ko; 18/3: bañan beste tamal bat; 13/2: esanik nola dan; 13/7: sartuko dan zeruan; 13/10: erre bearko du an; 22/6: asko otz da bero; 23/1: Su-leize inpernua da; 23/2: txit toki illuna; 23/6: denori eguna; 23/7: Jaunari gaizki egiña; 23/: animari lenbailen.

Ondoren, bi bertso berri:

Irmo egon gaitezen  
bautismoko itzan,  
ditxa ederragorik  
ez liteke izan;  
Jesus adoratuaz  
daukagun bizitzan,  
eskura artu gaitzan  
aizken eriotzan,  
gu ez galdutzearren  
gurutzean il zan.

Seme-alabak azi  
ikasmen onean,  
Jesus degula buru  
bai sinismenean;  
erakutsi ere sutsu  
otoitz-lanean,  
errezatu dezaten gu  
iltzen geranean,  
zeruan sartu gaitzan  
denok zuzenean.

Urrena, Iztueta'ren saillaren 24'garrena, alda-

ket-a auekin; 24/1: Aitortze konfesioa da; 24/2: artarako jarria; 24/7: beragaitik ipiñi; 24/8, ani-ma garbia; 24/9: gozatu ni degunok; 24/10: be-tirauen gloria.

Ta, azkenik, Erauskin'en izen-abizenak esaten dituan bertso berri bat:

Zer egin bear degun  
orra garbi jakin,  
fedearen aldera  
saiatu gaitzan pin;  
gau t'egun, jaia ta aste  
bear zaio ekin,  
zeruan gerta gaitzan  
denok alkarrekin,  
erakusle au nazu  
Franzisko Erauskin.

\* \* \*

Ordizia'n, agidanean, mixioak-edo izanak ziran, eta iru bertso argitaratu zituan Erauskin'ek *Argia*'n, 1927.IV.3'an:

Lenengo biak, berriak:

Uri ontan izan dan  
zorian ditxea!  
Belguntz Deuna bikaña  
au da etortzea.  
Aita Aizpuru'rekin  
lagun Goikoetxea,  
gaxo zeuden animak  
osasundutzera,  
nor ez juan orren  
txonitzak aitzera?

Diote maitatzeko  
Jesusen itzala,  
gu gaizkatzeagatik  
josita il zala.  
Badakite, bai, asko  
oker gabiltzala,  
aitortu're diegu  
bear dan bezela,  
orren esanetara  
itzuli gaitzala!

Ta, irugarren, Iztueta'ren sail ontako 23'garrena, aldaketa auekin: 23/1: Suleize (inpernua) da; 23/2: toki txit illuna; 23/3: ez egin gero etsaiak; 23/4: agintzen diguna; 23/5: etorriko bai-zaigu; 23/6: ziur asko eguna; 23/7: Jaunari gaizki egiña; 23/9: animari oraintxen.

\* \* \*

*Argia'n*, 1935.VI.16'an, lenengo bertsoa argitaratu zuan Erauskin'ek, aldaketa auekin: 1/1: Kistar egiazkoak; 1/4: donoki lurren jabe; 1/5: gelditu ziradenak; 1/6: au sinistu gabe; 1/7: su leze gaiztokian; 1/8: destetxetan daude; 1/9: bizi gaitezen zintzo; 1/10: sinismen-fede alde.

\* \* \*

### JESUKRISTOREN PASIOA

Alzo'ko Imaz (1811-1893) bertsolariak, irurogei ta bost bertsoan, Jesusen Pasioa kontatzen digu. *Auspoa'ren* 68-69-70'an arkituko du irakurleak.

*Argia'n*, ordea, 1932.III.13'an, Imaz'en bertso oietatik lenengo amabiak azaldu ziran, or goien

ezarri degun izenburuarekin eta firma onekin:  
*Erauskin Errotaria.*

Bearbada, firma ori ez da berak idatzia izango. Garai artan askok bialtzen zituzten *Argia*'ra bertsoak, besteren bertsoak, bertso zaarrak, aldizkari orretan argitaratu eta jendeak irakur zitzen. Agian, Alzo'ko Imaz'en bertso oiek orrela bialduko zituan Erauskin'ek, eta bereak ere askotan bialtzen baitzituan, aiek ere berak jarriak zirala usteko zuten *Argia*'ren zuzendariak, eta bertsoen ondoren aren firma erantsi.

Erauskin'ek, *Argia*'ra bialdu baño len, ikutu batzuk egin zizkien bertso auei, an eta emen itzak aldatuaz, geienetan euskera «garbitzearren». Aldaketa oiek onako auek dira:

1/1: Zeruko Aita, argi nazazu; 1/2: neri entendimentua; 1/3: argitaltzeko Semeak pasa; 1/7: lanaren bistan Kristoganatu; 2/4: bat sartuko ez giñala; 2/5: Jesus maiteak eskuratutzen; 2/6: egin zuan egiñala; 3/3: ludia galdu, zeruba itxi; 3/5: oldozten jarri pekatuak zer; 4/7: gutxi kostata ludi ontatik; 5/5: tormento gogor ta erioztaz; 5/6: animak ditu erosi; 6/3: ikasleakin Jesus Aitari; 6/5: Bera il gabe jende umanoa; 7/2: argal gizon-alderdia; 7/3: il gabe Aitak etzion egin; 7/6: jende aren pikardia; 8/1: Aitak Semea eskañi zuan; 8/6: Jesus osoro orretan; 11/1: Lotsagabea Judas orrekin.

\* \* \*

### BERTSO BERRIAK EMAZTEAK SENARRARI JARRIAK

Patxi Erauskin'ek, 1928 urtean, bertso-paper

bat atera-arazi zuan «*Beasain'en L. Zunzunegiren etxian*», or goien ezarri degun izenburuarekin.

Erauskin'en izena ez da bertsoetan ageri, bertsoen ondoren baizik, urtearekin batera: *1928'an Erauskin Errotariak*.

Paper ori, Azpeitia'n jaso genduan, Segundo Agirrezabalaga'ren eskutik.

Beste argitaraldi bat atera zuan Erauskin'ek, itzik aldatu gabe, beste moldiztegi onetan: «*Imp. de S. de Diego. — Eibar*».

Beste paper ori, Aizarna'n jaso genduan, Josefa Aizarna'ren eskutik.

Amabost bertso dira, bañan Erauskin'ek ez ditu danak bereak.

Lenengoa, egillearen izenik gabeko bertso-paper zaar batetik artua da. Onela dio Erauskin'en paperak:

Kantatutzera noa  
milla sentimentu,  
nere mingaÑak badu  
ainbeste talentu;  
bizimodu berri bat  
al baneza artu,  
senarrarekin oso  
ez nago kontentu.

Bertso-paper orrek beste onela bukatzen du:

aurten senarrarekin  
ez nabil kontentu.

Urrengo bertso-parea, 2 eta 3'garrena, Xepelari artua. Ikus *Auspoa* 88-89-90, 250 ta 252

orri-aldeetan, 2 eta 6'garrena. Aldaketak: 2/2: daukean bizitza; 2/3: kantuz esplikatu nai; 2/4: iñol'al balitza; 2/5: pin saiatuko zala; 2/6: eman arren itza; 6/1: Gaztetan ibiltzen zan; 6/3: ni engañatu arte; 6/4: milloi bat maratill; 6/7: bereak eta bestenak.

Urrengo lau bertsoak, 4, 5, 6 eta 7'garrena, bereak izango ditu Erauskin'ek. Onela diote:

Mozkortuta jokura  
patrikarak ustu,  
mingaña motelduta  
jokuan be aztu;  
etxera etortzean  
familia nastu,  
orlakoak andrerik  
artu bear ez du.

Abenduaren bian  
señalaramente,  
jokuan sakelatik  
zikiatu dute,  
kiñuz alkar artuta  
lau lagunen arte;  
gizonaren galera  
familiak kalte.

Jokuan asterako  
geiegi erana,  
tajuak biltzen ditu  
kiñuz beregana;  
kintzena galdu eta  
ondorengo lana,  
gañera azienda  
etxean zeukana.



Au nere biotzeko  
pena ta larria,  
senarra artu nuan  
etxe-galgarria;  
kintzena galdu eta  
gañera txerria,  
andreari makilka  
soñeko berria.

Ondorengo lau bertsoak ere, 8, 9, 10 eta 11'garrena, Xenpelarrenak. Ikus: *Auspoa* 88-89-90, 256 eta 257 orri-aldeetan. Erauskin'en aldaketak: 8/1: Beste bi lagunekin; 8/2: zala aguazilla; 8/5: atietan ojuka; 8/6: aien iskamilla; 8/8: atera dedilla; 9/1: Lotsatuta begirik; 9/2: ez nieten jaso; 9/4: zizkiraten oso; 9/5: txerria zeramatela; 9/6: konzejura preso; 9/7: gizonaren jokua; 10/2: nere barrunean; 10/4: ziran aizkenean; 10/7: jaunak, eraman zazute; 11/1: Esku aldera zuan; 11/3: ordotsa kapatua; 11/4: urdaiaz gizona; 11/5: ura jokuan galtzak; 11/7: orra nere gizona; 11/8: alaja zuzena.

Urrena, 12'garrena, bertso berri bat:

Txerria ta kintzena  
jokuan galdutzen,  
mozkortzean ez dio  
iñori barkatzen;  
berriz desafioka  
partida bukatzen.  
oraindik asiko da  
andrea jokutzen.

13'garrena, leen aitatutako bertso-paper zaar orretatik artua:

Aurtxoak ezin ditut  
jantzi ta mantendu,  
errentarentzat neukan  
txerria're kendu;  
orra gaztetasunak  
pobrezak atzendu,  
bear ez luken amaikak  
andrea artzen du.

Ta 14 eta 15'garren, bi bertso berri:

Nere bizi-modua  
urrikaltasuna:  
ume txikiak eta  
orlako gizona;  
gorputzak naiagatik  
alimentu ona,  
dietak konserbatzen  
digu osasuna.

Talentua kentzen du  
edan geiegiak,  
kopeta illunduta  
zintzilik begiak;  
orra amabost bertso  
inprentan jarriak,  
nere senarrarentzat  
oroimengarriak.

\* \* \*

### JESUS'EN PASIO DEUNARI

Izenburu orixe duan bertso-paper bat ere ba-  
degu, «*Beasañen A. Zunzunegiren moldiztegian*  
*1926'garren urtean*» argitaratua.

Iru tokitan arkitu genduan paper ori: Oreindain'go Juan Garayalde'renean; Donosti'ko Aiete'n, Oriamendi baserriko Segundo Kalonje'ren etxean; eta Gregorio Mujika zanaren bilduman.

Azken bertsoan, 15'garrenean, Erauskin'en izena ageri da:

Gure animak aizken trantzean  
dauzkaten kezka larriak,  
gure biotza urtu bitez, bai,  
ez badirade arriak;  
eguki ditzagun preparatuta  
salbatutzeko jarriak,  
erakusmen au zabaldutzen du  
Erauskin Errotariak.

Bertso ori bai, berea du; baiñan beste guziak, besterenak.

Jose Manuel Odriozola izeneko bertsolari bat orain larogei bat urte izan zan. Nungotarra zan, zer bizimodu egin zuan eta abar, ez degu oraindik ikasi. Bertsolari orrek amabost bertso jarri zituan Pasioari buruz, eta Donosti'ko Baroja'eneko moldiztegian paperetan atera. Sail orri, lenengo amabi bertsoak kopiatzen dizkio Erauskin'ek.

Ta beste bi, 13 ta 14'garrena, Alzo'ko Imaz bertsolariak Pasioari jarritako saillaren 53 eta 63'garrena dira.

Odrioloza ta Imaz'i artutako bertso oiei, aldaketa asko sartzen dizkie Erauskin'ek. Odriozola'ren bertsoetan sartutako aldaketak emen azaltzekotan, aren bertsoak ere azalduko bear genituzke. Aski izango da, guk uste, oar onekin. Alzo'ko Imaz'en bertsoak, berriz, *Auspoa*'ren 68-69-

70 zenbakian arkitu ditzazke irakurleak, 50 eta 53 orri-aldeetan. Erauskin'ek aldaketa auek egiten dizkie: 53/3: txistuz, odolez, autsez, izardiz; 53/5: Beronika Santa zapiarekin; 53/6: joan ziztaion beragana; 63/1: Lantzaz pasata iltzez josita; 63/3: iru orduan egon zan Jesus; 63/4: zer agonia luzean; 63/7: barkatutzeko osaro zegon; 63/8: bere aizken trantzean.

\* \* \*

### LENENGO GIZONA EGITEA ETA JESUS MUNDURATZEA OLENTZAROS KANTATZEKO

Izenburu luze orrekin bertso-paper bat argitaratu zuan Erauskin'ek 1913 urtean, Tolosa'ko «*E. Lopez'echean*», onela firmaturik: *Pachi Erausquin'ek*.

Andik bederatzi urtera, 1922'an, berriro argitaratu zuan, aldi ontan «*Beasain'en A. Zunzunegi'n moldiztegian*», firma onela ezarriaz: *Errauzkin Errotariak*.

*Argia* aldizkarian ere agertu zituan bertso auek, baiñan ez guziak batera: 1927.XII.25'an, iru bertso: 2, 3 eta 11'garrena; 1929.XII.22'an, zazpi bertso: 11, 14, 15, 16, 17, 18 eta 19'garrena; 1930.XII.21'an, lenengo bost bertsoak; 1934-XI.11'an, lenengo amar bertsoak; eta 1934.XI.25'an, beste guziak.

Baiñan bertso auek ez ditu bereak. Aldaketa asko egiten dizkie an eta emen; eta 1913'eko argitaralditik 1922'eko argitaraldira aldaketa berriak sartu ere bai. Baiñan aspaldiko bertsoak dira, paperetan «*Tolosan Andres Gorosabelen echean*

*1862 garren urtean» argitara emanak, egillearen izenik gabe eta aurretik izenburu au dutela: «Lenengo gizona egitea eta Jesusen munduratzeari nola diran, ikas bidea ogei itz neurtuetan.»*

Erauskin'en aldaketak azaltzeko, 1862'eko bertsoak azaldu bearko genituzke aurretik. Ori, gabou kantaz osatutako liburu bat prestatzerakoan egingo degu; bitartean, aldaketa oiek ere izkurtuan uzten ditugu.


## ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1. *R. Artola*: Sagardoaren Graziya (*Aitua*).
2. *M. Soroa*: Gabon, Au ostatubal, Anton Kaiku. (*Aitua*).
3. *F. Apalategi*: Euskal mutillak armetan, I. (*Aitua*).
4. *Pepe Artola*: Ustez laguna detan. (*Aitua*).
5. *P. M. Urruzuno*: Euskalerritik zerura. (*Aitua*).
6. *T. Alzaga*: Ramuntxo. (*Aitua*).
7. *R. Azkarate*: Galtzaundi. (*Aitua*).
8. *A. Apaolaza*: Patxiko Txerren. (*Aitua*).
9. *B. Iraola*: Oroitzak. (*Aitua*).
10. Errege eguneko bertso sayoa. (*Aitua*).
11. *P. Larzabal*: Bordaxuri. (*Aitua*).
12. *Bilintx*: Bertso ta lan guziak. (*Aitua*).
13. *M. Izeta*: Dirua galgarri. (*Aitua*).
14. *P. Larzabal*: Iru ziren. (*Aitua*).
15. Ezkontza galdutako bertsoak, I. (*Aitua*).
16. *A. M.<sup>a</sup> Zabala*: Gabon gau bat. (*Aitua*).
17. *A. M.<sup>a</sup> Labayen*: Malentxo alargun! (*Aitua*).
- 18-19. *A. Zavala*: Txirrita. (*Aitua*).
20. *F. Goñi*: Lurdesko gertaerak. (*Aitua*).
21. *P. Larzabal*: Herriko bozak. (*Aitua*).
22. Bertsolarien txapelketa (30-XII-1962). (*Aitua*).
23. Aizkolariak. (*Aitua*).
24. *F. Imaz*: Bertso guziak. (*Aitua*).
25. *A. P. Iturriaga*: Jolasak. (*Aitua*).
26. *A. M.<sup>a</sup> Zabala*, *A. Larraitz*, *Mir*: Periyaren zala-partak.
27. Azpeitiko Premiyoaren bertsoak. (*Aitua*).
28. *B. A. Mogel*: Ipui onak. (*Aitua*).
29. *T. Alzaga*: Burruntziya. (*Aitua*).
30. *G. Anduaga*: Egunsentiko txoria. (*Aitua*).
31. *M. Soroa*: Baratzan. (*Aitua*).
32. *M. Elicegui*, *A. Zavala*: Pello Errotaren bizitza. (*Aitua*).
33. *M. Elizegui*, *A. Zavala*: Pello Errotak jarritako bertsoak.

34. *P. Larzabal*: Senpere-n gertatua. (*Aitua*).
- 35-36. *J. V. de Echagaray*: Festara.
37. *A. Cardaberaz*: Euskeraren berri onak. (*Aitua*).
38. *S. Salaverria*: Neronek tirako nizkin. (*Aitua*).
39. *Bertsolariak*: Amar urteko bertso-paperak. (*Aitua*).
- 40-41. *J. R. Zubillaga*: Lardasketa. (*Aitua*).
42. *Uztapide*: Noizbait. (*Aitua*).
43. *Bertsolari-txapelketa*. (1-I-1965). (*Aitua*).
44. *P. Larzabal*: Hilla esposatu. (*Aitua*).
- 45-46. *J. M. Satrustegui*: Bordel bertsolaria. (*Aitua*).
47. *P. M. Urruzuno*: Iru ziri. (*Aitua*).
48. *P. Barrutia, Sor Luisa, X. Munibe*: Teatro zaarra. (*Aitua*).
- 49-50. *A. Zavala*: Pello Errotaren itzala. (*Aitua*).
51. *P. M. Urruzuno*: Ur-zale baten ipuiak. (*Aitua*).
- 52-53. *G. Anduaga*: Bertso-bilduma.
54. *A. Zavala*: Fernando Amezketarra bertsolaria. (*Aitua*).
55. *Basarri*: Laugarren txinpartak. (*Aitua*).
56. *A. Zavala*: Udarregi bertsolaria. (*Aitua*).
- 57-58. *C. Beobide*: Asis'ko Lorea. (*Aitua*).
59. *A. Zavala*: Axentxio Txanka bertsolaria.
60. *A. Zavala*: Errikotxia, Itxaspe ta beste zenbait bertsolari. (*Aitua*).
61. *A. Zavala*: Gaztelu bertsolaria.
62. *A. Zavala*: Zarautz'ko Zaldubi bertsolaria.
- 63-64. *A. Zavala*: Juan eta Pello Zabaleta bertsolariak.
65. *J. M. Satrustegui*: Luzaide'ko kantiak. (*Aitua*).
66. *A. Zavala*: Iru bertsolari. (*Aitua*).
67. *Bertsolari-txapelketa* (11-VI-1967). (*Aitua*).
- 68-69-70. *A. Zavala*: Alzo'ko Imaz bertsolaria.
- 71-72. *A. Iturriaga*: Ipuiak.
73. *A. Zavala*: Iru anai bertsolari. (*Aitua*).
- 74-75. *A. Zavala*: Errenteria'ko bertsolari zaarrak.
76. *A. Zavala*: Alza'ko bertsolari zaarrak.
- 77-78. *A. Zavala*: Paulo Yanzi ta bere lagunen bertsoak. (*Aitua*).
- 79-80-81. *A. Zavala*: Lexo bertsolaria.
82. *A. Zavala*: Juan Maria Zubizarreta bertsolaria. (*Aitua*).
83. *A. Zavala*: Motza, Zulaika ta Ugalde bertsolariak. (*Aitua*).
84. *M. Matxain*: Uste gabeen.
85. *Xalbador*: Ezin bertzean. (*Aitua*).
- 86-87. *A. Zavala*: F. Iturzaeta bertsolaria.

- 88-89-90. A. *Zavala*: Xenpelar bertsolaria. (*Aitua*)
91. A. *Zavala*: Txapel bertsolaria. (*Aitua*).
92. I. *Alkain*. — A. *Zavala*: Alkain aita-semeak.
93. A. *Zavala*: Zubeltzu ta Saikola bertsolariak.
94. A. *Zavala*: Atano ta Estrada bertsolariak. (*Aitua*).
- 95-96. A. *Zavala*: Azkoitia'ko zenbait bertsolari.
97. A. *Zavala*: Bidasoa aldeko bost bertsolari.
- 98-99. *Inozentzio Olea*: Goierriko lorak.
100. *Manuel Lasarte*: Bertso-mordoxka. (*Aitua*).
- 101-102. A. *Zavala*: Txirritaren bertsoak. I. (*Aitua*).
- 103-104. A. *Zavala*: Txirritaren bertsoak. II. (*Aitua*).
105. *Jose Inazio Etxeberria*: Mendi-gañetik.
106. A. *Zavala*: Pastor Izuela. — Ezkioko ta Segurako itxuak.
107. A. *Zavala*: Zepai bertsolaria. (*Aitua*).
108. *Mattin*: Ahal dena. (*Aitua*).
- 109-110. *P. Lafitte*: Mañex Etchamendy bertsolaria.
111. *Bertsolariak*: Xenpelar-saria, 1972. (*Aitua*).
112. *Basarri*: Sortu zaizkidanak.
113. *P. M. Urruzuno*: Sasiletrau baten ziria.
114. A. *Zavala*: Kaskazuri bertsolaria.
115. A. *Zavala*: Larraburu, Lexoti ta Balentin bertsolariak.
116. A. *Zavala*: Oiartzungo bost bertsolari.
- 117-118. *Balendin Enbeita*: Nere apurra.
119. A. *Zavala*: Oiartzungo beste lau bertsolari.
- 120-121-122. A. *Zavala*: Mendaro Txirristaka.
- 123-124-125. A. *Zavala*: Zapirain anaiak.
126. A. *Zavala*: Ustu ezin zan ganbara.
127. *M. Arozamena*: Nere aldia.
128. A. *Zavala*: Amodiozko penak bertso berrietan.
129. A. *Zavala*: Afrika'ko gerra (1859-1860).
130. A. *Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (I).
131. A. *Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (II).
132. A. *Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (III).





AUSPOA  
LIBURUTEGIA